

Foru-lege zibilak

Euskal Autonomia Erkidegoa
Nafarroako Foru Komunitatea
2. argitaraldia

Leyes civiles forales

Comunidad Autónoma
del País Vasco
Comunidad Foral de Navarra
2.^a edición

Legge-testuak
Textos legales

Leyes civiles forales

1. Comunidad Autónoma del País Vasco
 2. Comunidad Foral de Navarra
- 2.^a edición

Foru-lege zibilak

1. Euskal Autonomia Erkidegoa
 2. Nafarroako Foru Komunitatea
2. argitaraldia

Leyes civiles forales

1. Comunidad Autónoma del País Vasco
 2. Comunidad Foral de Navarra
- 2.^a edición, cerrada al 1 de julio de 2005

Foru-lege zibilak

1. Euskal Autonomia Erkidegoa
 2. Nafarroako Foru Komunitatea
2. argitaraldia, 2005eko uztailaren 1ean itxia

2005

Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

Instituto Vasco de
Administración Pública
Herri Arduralaritzaren
Euskal Erakundea

Bilbao - Bilbo

Lan honek IVAP/HAEEn laguntza jaso du.

Eskubide guztiak erreserbatuak daude. Debehatuta dago, legegaren arabera, argitalpen hau bikoiztea, biltzea edo igortzea, ez osorik, ez zatika, ezta inolako bitarteko edo prozedura teknikoren bidez ere, argitaratzaileen esanbidezko baimenik gabe.

- © Nafarroako Foru Berriaren itzulpena eta lan honetako jatorrizko aurkibide analitiko guztiak: Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia, Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak eta Nafarroako Gobernuako Itzulpen Ataleko zenbait itzultzaile, eta IVAP/HAEEn Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala
- © Deustuko Unibertsitatea. Euskal Gaien Institutua
- © Bigarren argitaraldi honen egokitzaileak:
Andrés Urrutia, Esther Urrutia
- © IVAP/HAEEn Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Deustuko Unibertsitatea
1. postakutxa-48080 Bilbo
www.deusto.es
publicaciones@deusto.es
ISBN: 978-84-9830-522-7

Índice

Aurkibidea

Prólogo a la primera edición	17
Prólogo a la segunda edición	25
1. COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO	27
Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco	33
Anexos	133
A) Ley 3/1999, de 16 de noviembre, de modificación de la Ley del Derecho Civil Foral del País Vasco, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa	133
B) Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho	139
Índices analíticos	161
Castellano-euskera	163
Euskera-castellano	185
2. COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA	207
Compilación del Derecho Civil Foral o Fuero Nuevo de Navarra	217
Anexo	
Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables	517
Índices analíticos	535
Castellano-euskera	537
Euskera-castellano	579

Lehenengo argitaraldiaren aitzin-solasa	11
Bigarren argitaraldiaren aitzin-solasa	23
1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	27
Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa ..	33
Eranskinak	133
A) 3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari bu- ruzko Legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez	133
B) 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa	139
Aurkibide analitikoak	161
Gaztelania-euskara	163
Euskara-gaztelania	185
2. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA	207
Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria	217
Eranskina	
6/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, bikote egonkorrentzako berdintasun juri- dikoari buruzkoa	517
Aurkibide analitikoak	535
Gaztelania-euskara	537
Euskara-gaztelania	579

Lehenengo argitaraldiaren aitzin-solasa

I. Euskara eta foru-lege zibilak

Hona hemen, liburu batera bilduak, euskara ofiziala non eta herrialde horietako foru-lege zibilak, euskaraz eta gaztelaniaz emanak.

Bi dira gaur egun herrialde horiek: Euskal Autonomia Erkidegoa (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa) eta Nafarroako Foru Komunitatea.

Azken urteotako euskararen ofizialtasunak azpimarratu du, besteak beste, foru-zuzenbideak eta euskarak betidanik izan duten berebiziko eta barne-barneko esteka. Izan ere, zuzenbidea eta hizkuntza dira, aspaldiko esanari jarraikiz, herri baten nortasun-adierazlerik bikainenak.

Historiak, haatik, norabide bereziak eta beregainak izan ditu aipatu herrialdeotan. Hortaz, molde desberdinak eskatzen ditu hark batean eta bestean, zuzenbide aplikagarria moldatzean nahiz berori euskaraz ematean.

Alfer-alferrik joko da euskarazko testu bilbatuen bila Euskal Autonomia Erkidegoaren herrialdeetako edo Nafarroako foruetara. Errazago igarriko dira, hala-koetan, euskal hitz solteak: *alkar-poderosoa*, *hil-burukoa* (Bizkaia); *ondazilegia* (Gipuzkoa), *langa*, *keleta* (Nafarroa)... Oro dira erakunde juridikoen izendazio berezkoak, jatorrizko eta garai jakin bateko lekukotza sendoak.

Mentsa, argi dago, bestetik dator. XIX eta XX. mendeak izan dira, herrialdeotako foru-zuzenbideentzat, dema-garaiak eta proba-boladak. Harako Kode Zibilak (1889) ekarri zion Espainiari lege zibilen batuketa, gizarte oso baten asmoa zena ekintza egina.

Horren ondorioz, maldan behera foru-lege zibilak, eta, ezinaren aurrean, kode bakar baterako bidean abiatuak.

Zaragozako Biltzarra (1946) izan zuten horiek norabide-aldaketa. Espainiako Kode Zibila osatu beharra zegoen, eta egitekorik beharrena zen, irudiz, foru-lege zibilak bildumetara ekartzea.

Hartara, 1959. urtean, Bizkaia eta Arabako Bilduma lehena, eta Nafarroakoa, aldiz, azkena, 1973. urtean. Foru-bildumetako bi lege-testuak, beraz, prozesu jakin bateko hasiera eta amaiera, irekiera eta itxiera. Lehendabizikoa, laburra eta motza, Kode Zibilarri men egitekoa. Bestea, berriz, oparo eta ugaria, Nafarroarentzat antolakuntza juridiko baten hezurmamitzaile eta moldatzailea.

Horien hurrengo, Espainiako Konstituzioak ekarri zuen, 1978. urtean, bertako herrialdeon eskumena, foru-lege zibilak gorde, aldarazi eta garatzekoa. Harenak esanguratsu oso:

149. artikulua.

1. Estatuari dagozkio ondorengo alor hauk:

[...]

8. Zibil legegintza edo bestelako deretxo bereziak diren tokietan, Erkidego Autonomoek hauk gordetzeko, aldatzeko edo aitzinatzeko duten eskubidea salbu. Beti arau juridikoen aplikapen eta eraginkortasunari dagozkion erregelak, ezkontzarekiko erei dagozkien harreman juridiko-zibilak, Erregistro eta Izkribu publikoen eraketa, Kontratuetako betebeharren oinarriak, lege arteko eztabaida konpontzeko arauak, deretxoaren iturburuak finkatzea, azken kasu hontan Foru errejimen edo Deretxo berezien arauak errespetatuz.

Gera bitez, hortaz, hitzok, eurak baitira egunotan Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroak foru-lege zibiletan dituzten gaitasun berrien zimendu eta habeak, jatorrizko forutasunarekin batera.

II. Euskal Autonomia Erkidegoa

Gernikako Estatutua (1979) izan da, Euskal Autonomia Erkidegoan, foru-lege zibilen euskarri berria.

Horren artikuluetan murgildu nahi izanez gero, aipamen bitzuak ditu hark, foru zibila eta horren auzitegieta aplikazioan foru-kontuak nabarmentzeko:

10. artikulua.

Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiei dagokienean kompetentzia eksklusiboa du:

[...]

5. Euskal Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta berezi —idatzia nahiz ohizkoaren— kontserbazio, aldatzea eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere.

14. artikulua.

1. *Euskal Herriko jurisdikzio organoen kompetentzia ondoko haue-
tara hedatzen da:*

a) *Zibil mailan instantzia eta gradu guztietara, Euskadiko Zuzenbi-
de Zibil Foralaren gaietan kasazio eta berrikusketazko errekursoak
barne direlarik.*

Bazen, horien ondorioz, legegintzan nahiz auzitegiaren gorabeheretan, foru-
lege zibilei eusteko modua. Horren itzalpean argitaratu ziren, hurrenez hurren,
apirilaren 18ko 6/1988 Legea, foruzko herri-legea zati baten aldatzekoa (EHAA,
1988ko apirilaren 12koa), eta, gero, uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko
Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa (EHAA, 153. zk., 1992ko abuztuaren 7koa).
Osagarria izan zuen azken horrek, azaroaren 16ko 3/1999 Legearen bidez (EHAA,
249. zk., 1999ko abenduaren 30ekoa), horretara bildu baitziren Gipuzkoako foru
zuzenbidearen ezaugarriak.

Argitalpen horietan, esan legez, testuak elebidunak dira. Euskara batuaz eta
gaztelaniaz datoz testuok¹. Bi lege-testu horien artean gerta daitezkeen nondik no-
rako eta hizkuntza-tankera desberdinak, ondorenez, azpiraturik geratzen dira, al-
dizkari ofizialen aldarrikaturiko testu baliiodunaren menpe.

1992. urteko lege horrek, nolana ere, euskararekiko arrangura berezia era-
kutsi zuen bere zioen azalpenean:

*Aparteko ahalegina egin da lege honen euskarari dagokionez, itzul-
pena izan beharrean benetan «euskarazkoa» izan dadin, Foru-Zuzenbi-
de pribatuan euskarari bere legebidezko eremua eman nahi izan zaiola.
Horretarako erabilitako erizpidea hauxe izan da: arlo honetan herri-hiz-
keran erabili izan diren hitzak («alkar-poderosoa», «bide-zorrak») eta
aurretik datozenak («hil-burukoa») jaso eta gaurregun euskarak lege-
gintza-arloan ezindako harremanen eraginez sortutako esamoldeekin
batera erabiltzea, testuan berezko barne-egokitasuna eta borobiltasuna
lortzeko asmoz.*

*Beste alde batetik, euskararen eta Foru-Zuzenbidearen arteko lotu-
ra lortzeko, lege honen eraginpekoak izan daitezkeenei Foru Zibil hone-
tako ekintzak eta hitzarmenak euskaraz egiteko eskubidea aitortzen zaie,
horren ondorenez sor litezkeen egoerak arautuz (15. atala). Foru-Zuzen-
bide pribatuaren eremuan euskararen normalkuntzarako urrats garran-
tziatsua ematea ekarriko du guzti horrek, horretan ez dago zalantzarik,
lehenengoz elkartzen bait dira testu berean (1988.eko martxoko legea*

¹ 3/1992 Legearen testua bizkaieraz ere argitaratu zen (ontzat emandako bizkaierako idazkera:
EHAA, 153. zk., 1992ko abuztuaren 7koa, 7034.etik 7077.erako orrialdeak).

salbuetsita) Euskal Herriaren berezitasunetako bi: bere hizkuntza eta bere Zuzenbide pribatua.

Labur-zurrean esateko, bistan da 3/1992 Legeak irauli egin duela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-zuzenbide zibilaren egoera. Aldi berean, jarduneko eragina, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko jurisprudentzia eta ikerketa teoriko nahiz unibertsitatekoa gorantz datoz, foru-zuzenbidearen corpus baten osieran. Horrek dakar, besterik gabe, etorkizunerako gogo bizia Euskal Autonomia Erkidegoarentzat, lege-batuketa eragin dezakeena, betiere ohiko izan dituen erakundeen inguruan asmatua eta girotua, eta Euskal Autonomia Erkidego osora zabaldua.

III. Nafarroako Foru Komunitatea

Nafarroako Foru Berria, lehen esan legez, 1973. urtekoa da. Testua bera ere berezi-berezia izan zen, osatze eta egiteari buruzko gorabeheretan, estatuaren buruzagiak bereganatu baitzituen Nafarroako testuaren onestea eta aldarrikatzea. Bestalde, testuaren edukiak eta araubide zehatz bezain luzeak gorpuztu zuten Nafarroako foru-zuzenbidea, xx. mende azkenaren aurrean.

Ex nihilo baino, testu hau aurreko eta aspaldiko bilakaera juridiko batetik zetorren. Nafarroako Erresuma zaharrak tradizio juridiko aberats eta etengabea zuen, xix. mende arte gutxienez. Hortik, esaterako, lege-testu horrek aldarrikatzen duen tradizio juridikoaren aitortza, lege-iturburu artean. Hori, eta, era berean, ohiturari lege-iturburu nagusi legez egin zitzaion aipamena, bat-batera datoz Nafarroako historia juridikoarekin.

Argitalpen honek testuaren barruan hartzen ditu 1973. urteko testua eta ondorengo eraldaketak, besteak beste, abenduaren 26ko 19/1975 Dekretu-Legea, abenduaren 5eko 38/1978 Errege Dekretu-Legea eta apirilaren 1eko 5/1987 Foru Legea. Orobat, eranskin gisa, Nafarroako legeria zibil berria, hain zuzen ere, uztailearen 3ko 6/2000 Foru Legea, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzkoa.

Lege berriak, Nafarroako foru-zuzenbidean, eta Nafarroako legegintza-botea, foru-zuzenbideari buruzko gaietan, ageri-agerikoa. Osterantzeko aldarteak ere foruaren aplikazioan, auzitegi nahiz epaitegietan. Horretarako bidea eta esku-emaileak, bistan da, Foru Hobetzearen aginduak (1982):

48. artikulua.

1. Nafarroak eskumen osoa du Foru zuzenbide Zibilaren alorrean.

2. Indarra duen Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma edo Nafarroako Foru Berriaren zainketa, aldaketa eta garapena, foru lege bidez egingen da behar izanez gero.

61. artikulua

1. Nafarroan kokaturiko organo juridikzionalaren eskumen dira:

a) Arlo zibilean, instantzia eta gradu guztiak, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren gaitan kasazio eta berrikuspen errekursoak barne direla.

1973. urteko testuak ez zuen euskarazko molderik eskuratu. Uztailaren 3ko 6/2000 Legea, aldiz, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da euskaraz eta gaztelaniaz (NAO, 82. zk., 2000ko uztailaren 7koa), eta, horren ondorioz, argitalpen ofiziala hona ekartzeko modukoa izan da, arestian aipatu irizpide berberari men eginez.

1973. urteko testua euskaratzeak koordinazio-lana ekarri du. Batetik, lehen zirriborroa, Deustuko Unibertsitatearen Euskal Gaien Institutuaren bidez. Horretan aritu dira bertako irakasleak: Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia eta Esther Urrutia. Bestetik ere, Nafarroaren ekarria, hango Parlamentuko itzultzaileek eta Nafarroako Gobernuako Itzulpen Ataleko zenbait itzultzailek mamitua. Horretatik at, aintzat hartzekoa antropologia (José María Satrustegi), toponimia eta onomastika (Andrés Iñigo), eta Nafarroako zuzenbide zibileko adituen lana (Patxi Zabaleta), puntu zenbait argitzeko. Esan gabe doa horiek, arloarekin batera, nafar euskara ere sakon ezagutzen dutela. Eurak izan dira euskal izenak argitu dizkigutenak (*bazkalekuak, fazeriak, iralekuak, kontzeju-jabaria, kanpoko auzotartasunak...*). HAEE-IVAPen eragina ere nabari-nabaria. Bera izan da testu hauek ele bitan emateko bultzada egin duena, baliabide ekonomikoen hornikuntza barne. Erakunde horren Itzultzaileen Zerbitzu Ofizialaren ekarria ere azpimarratu behar, hiztegi eta joskeraren inguruan. Hala mamitu da foru-bildumaren testu euskalduna. Elkar-laguntzaren bidez, bakoitzari zor zaiona alboratzeke, batzuen eta besteen irizpideak bateratuz.

IV. Argitalpenaren nondik norakoak

Argitalpena bi zutabetan eman da, eta zutabe bakoitzak hizkuntza bakarra darama. Lehendik dugun eskarmentua gogoan hartu eta Zigor Kodearen argitalpen elebidunerako egokitu genuen molde berberari eutsi diogu, erabiltzaileak eskura izan ditzan gaztelaniazko eta euskarazko testuak.

Geroanean, ohiko den legez, aurkibide analitikoak eta hiztegi bikoitzak datoz, bi hizkuntzen arteko norabideak eta bidegurutzeak egokiturik.

Ezin utz aipatu gabe, hainbat ikerleren lana: José Yanguas y Miranda, Bonifacio Etxegarai, Manuel Lekuona, Julio Caro Baroja, José Luis Lizundia, Abel Muniategi... Horiek sekulakoa ondu dute foru-zuzenbidean euskal hitzen aztarnak bilatzeko. Horiei zor dieguna aitor bedi eta esan dezagun, berebat, gogoan izan dugula, lan honetan, bi hizkuntza ofizialei zor zaien begirunea. Halako gaie-

tan gutxi dira hain aproposak, zuzenbidearen munduan, foru-legearenak eta euskararenak bezalakoak. Lokarri sakonak dituzte horiek, aspaldikoak eta oraingokoak, lehen esan legez.

Gure aldetik, obrak mintzo. Euskarak eta foru-lege zibilak bat egin dute, historian lehendabizikoz. Horiek genituen helburu eta eginkizun. Lortu ditugun ala ez, eragile juridikoek esango dute. Hona gure lana, guztiontzat onuragarri eta erabilgarri izan nahi duena.

Egileak

Prólogo a la primera edición

I. El euskera y las leyes civiles forales

He aquí, reunidos en un solo volumen, los textos bilingües (euskera-castellano) de derecho civil foral de los territorios de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Araba, Bizkaia y Gipuzkoa) y la Comunidad Foral de Navarra, donde la lengua vasca goza, en todo o en parte, del estatus de cooficialidad.

Esa reciente cooficialidad, junto con el hecho de la vigencia actual del derecho civil foral, nos ponen de relieve la íntima conexión que desde tiempos inmemoriales ha existido entre esos dos elementos, lengua y derecho civil propio, con la personalidad propia de cada uno de estos territorios.

La historia, sin embargo, difiere en cada uno de ellos, por lo que requiere un tratamiento distinto, tanto en lo relativo a las características del derecho aplicable, como a su configuración en euskera.

En efecto, ni en los territorios de la Comunidad Autónoma Vasca, ni en la Comunidad Foral de Navarra, se escribieron los textos jurídicos en euskera, lo que no obsta a que palabras e instituciones designadas en euskera aparezcan con cierta frecuencia en dichos textos: *alkar-erosoa*, *hil-burukoa* (en Bizkaia); *ondazilegia* (en Gipuzkoa), *langa*, *keleta* (en Navarra)... Todas ellas son expresiones propias y originales, testimonio de un pasado concreto.

De todas formas, las verdaderas lagunas o carencias se deben a otros motivos. Los siglos XIX y XX fueron épocas de continuas luchas y conflictos en los territorios dotados de derecho civil propio. El Código Civil (1889) supuso para el estado español la recopilación unificadora de leyes civiles, con lo cual se hizo realidad un sueño perseguido a lo largo de todo el siglo.

Como consecuencia de ese proceso de compilación, comenzó la decadencia de los derechos civiles propios, situados en una vía inexorable de convergencia hacia el código único.

En el Congreso de Zaragoza (1946), se produjo un importante cambio en esa tendencia. Efectivamente, había que enriquecer el Código civil, y, para ello, la labor más apremiante era la redacción de compilaciones que recogieran las leyes civiles forales.

En esa línea, en 1959, la compilación de Araba y Bizkaia resultó ser pionera. Por el contrario, la compilación de Navarra cerró el ciclo, puesto que se publicó la última, en 1973. Por tanto, en el proceso de redacción de compilaciones forales, una marcó el inicio, la apertura, y la otra trajo consigo la culminación o cierre de ese proceso. La primera de ellas es breve y concisa, en una clara subordinación con respecto al Código Civil. La otra, sin embargo, es rica y prolija, y ha vertebrado y configurado todo un sistema jurídico propio para el territorio de Navarra.

En 1978, la Constitución española reconoció a estos territorios la competencia para conservar, modificar y desarrollar sus propias leyes forales. Sus palabras resultan muy expresivas:

Artículo 149.

1. El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias:

[...]

8. Legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan. En todo caso, las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico-civiles relativas a las formas del matrimonio, ordenación de los registros e instrumentos públicos, bases de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes y determinación de las fuentes del Derecho, con respeto, en este último caso, a las normas de derecho foral o especial.

Quede aquí constancia de dichas palabras, puesto que ellas constituyen en la actualidad, junto con la foralidad originaria, los cimientos sobre los que se sustentan las competencias con que cuentan la Comunidad Autónoma Vasca y la Comunidad Foral de Navarra en materia de derecho civil foral.

II. Comunidad Autónoma del País Vasco

En la Comunidad Autónoma Vasca, el fundamento de las leyes civiles forales es el propio Estatuto de Gernika (1979).

La lectura de su articulado permite identificar algunas de las menciones que hace el texto para subrayar, por una parte, la competencia legislativa en materia civil foral y, por otra, en el conocimiento de los pleitos en materia foral:

Artículo 10.

La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene competencia exclusiva en las siguientes materias:

[...]

5. Conservación, modificación y desarrollo del Derecho Civil Foral y especial, escrito o consuetudinario propio de los Territorios Históricos que integran el País Vasco y la fijación del ámbito territorial de su vigencia.

Artículo 14.

1. La competencia de los órganos jurisdiccionales en el País Vasco se extiende:

a) En el orden civil, a todas las instancias y grados, incluidos los recursos de casación y de revisión en las materias del Derecho Civil Foral propio del País Vasco.

Dichos artículos establecieron el fundamento legal para mantener vivas las instituciones forales, tanto en el ámbito legislativo, como en el ámbito jurisdiccional. Al cobijo de dicho articulado, se publicaron, correlativamente, la Ley 6/1988, para la modificación parcial de la compilación foral (BOPV, 12 de abril de 1988), y, posteriormente, la Ley 3/1992, de 1 de julio, de Derecho Civil Foral del País Vasco (BOPV, n.º 153, de 7 de agosto de 1992). Recientemente, dicha ley ha sido completada por la Ley 3/1999, de 16 de noviembre, que ha incorporado las especialidades del derecho civil foral de Gipuzkoa (BOPV, n.º 249, de 30 de diciembre de 1999).

En esta edición, como se ha dicho, se recoge la versión bilingüe (euskera unificado-castellano) de dichos textos, tal como fueron publicados en el Boletín Oficial del País Vasco¹. La existencia de un texto posterior en el tiempo (1999) puede hacer surgir para el lector atento algunas discrepancias con la terminología y el estilo utilizado por el primer y más extenso texto (1992), discrepancias que, en todo caso, quedan subsumidas bajo el carácter de texto oficial que da a ambos la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En todo caso, la propia ley 3/1992 constató su preocupación por el euskera, al indicar lo siguiente en la exposición de motivos:

Cuidado especial pone esta Ley en su texto en euskera —que más que una traducción es una «versión» auténtica—, que quiere proporcionar al euskera un espacio jurídico propio en el campo del Derecho

¹ El texto de la ley 3/1992 se publicó, asimismo, en euskera vizcaíno (versión autorizada en euskera vizcaíno: BOPV, n.º 153, de 7 de agosto de 1992, páginas 7034-7077).

privado foral. El criterio que se sigue para conseguirlo es el de recoger, junto a términos acuñados en el habla popular en estas materias («alkar-poderoso», «bide-zorrak»), los que tienen ya un precedente («hiliburuko»), y combinarlos con los más recientes que la práctica legislativa está proporcionando al euskera, todo ello con el objeto de lograr una perfección y coherencia propias en el texto.

Por otra parte, para obtener una conexión entre euskera y Derecho Foral, se les reconoce a quienes están bajo el ámbito de aplicación personal de esta Ley el derecho a formalizar en euskera los actos y contratos de este Fuero Civil, regulando algunas de las situaciones que ello puede crear (art. 15). Todo ello, sin duda, supone un paso previo importante para la normalización del euskera en el campo del Derecho foral privado, ya que por primera vez en la historia (con la excepción de la Ley de marzo de 1988) se reúnen en un texto dos de los elementos característicos del País Vasco: su lengua y su Derecho privado.

En resumen, la Ley 3/1992, a los diez años de su publicación, ha constituido un auténtico revulsivo para el derecho civil foral de los territorios de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa. La aplicación práctica, la jurisprudencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y la investigación teórica y universitaria han propiciado la elaboración de un auténtico corpus doctrinal en materia de derecho civil foral en el País Vasco que permite ya pensar en esfuerzos posteriores de unificación legislativa en torno a las instituciones jurídicas más significativas.

III. Comunidad Foral de Navarra

Como se ha indicado anteriormente, la Ley 1/1973, de 1 de marzo, que aprobó la Compilación del Derecho Civil Foral de Navarra, cerró el período de las compilaciones de derecho civil foral. El texto de 1973 fue ciertamente singular, tanto en su elaboración y aprobación por el anterior Jefe de Estado, como en su extenso contenido y minuciosa regulación del derecho civil foral navarro.

Sin embargo, el texto no nacía *ex nihilo*, sin más, sino que continuaba la rica tradición jurídica del Reino de Navarra, ininterrumpida hasta el siglo XIX, tradición jurídica que recoge el texto expresamente en su ley 1, dentro de ese sistema de fuentes que encabeza la costumbre, en clara consonancia con el quehacer histórico navarro.

La presente edición recoge el texto de 1973, así como las modificaciones posteriores, entre otras, el Decreto-Ley 19/1975, de 26 de diciembre, el Real Decreto-Ley 38/1978, de 5 de diciembre y la Ley Foral 5/1987, de 1 de abril. También recoge la más reciente regulación navarra en materia de derecho civil foral, como es la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la Igualdad Jurídica de las Parejas Estables.

Se promulgan, por tanto, nuevas leyes relativas al derecho foral navarro y la Comunidad Foral hace uso de la competencia legislativa que le corresponde en materia de derecho propio. Evidentemente, Navarra también ha asumido la competencia para la aplicación judicial de dicho derecho. Como muestra de todo ello, baste aquí recordar algunos de los artículos del Amejoramiento del Fuero (1982):

Artículo 48.

1. Navarra tiene competencia exclusiva en materia de Derecho Civil Foral.

2. La conservación, modificación y desarrollo de la vigente Compilación del Derecho Civil Foral o Fuero Nuevo de Navarra se llevará a cabo, en su caso, mediante ley foral.

Artículo 61.

1. La competencia de los órganos jurisdiccionales radicados en Navarra se extiende:

a) En el orden civil, a todas las instancias y grados, incluidos los recursos de casación y revisión en las materias de Derecho Civil Foral de Navarra.

El texto del Fuero Nuevo de 1973 carecía de versión en euskera. La Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la Igualdad Jurídica de las Parejas Estables, por el contrario, ya publicada en el Boletín Oficial de Navarra (BON, n.º 82, de 7 de julio de 2000), se ha recogido a través de su versión oficial publicada en euskera, aplicando el mismo criterio indicado anteriormente.

Verter al euskera el texto de 1973 ha requerido un trabajo de coordinación desde la elaboración del primer borrador realizado por la Universidad de Deusto, a través del Instituto de Estudios Vascos y los profesores de dicha universidad Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia y Esther Urrutia, hasta recoger las aportaciones del Servicio de Traducción, tanto del Parlamento como del Gobierno de Navarra. Además, ha sido imprescindible el concurso de destacados especialistas navarros en antropología (José María Satrustegi), toponimia y onomástica (Andrés Iñigo) y derecho civil foral navarro (Patxi Zabaleta), para lograr un texto acorde con la denominación histórica en euskera de instituciones tales como *corralizas, facerías, helechales, dominio concellar, vecindades foranas...*, de las que en algunos casos aparecía directamente en el texto castellano la denominación en euskera, mientras que en otros no ocurría así. Las notas del Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP-HAEE) han sido también decisivas a la hora de fijar el léxico y la sintaxis de estos textos, así como dotar al proyecto de los medios económicos necesarios para su realización. Se ha configurado así un texto de consenso para todos, sin exclusiones de ninguna clase.

IV. Características de la publicación

El texto publicado consta de dos columnas, la correspondiente al castellano y la otra al euskera. La publicación previa del texto bilingüe del Código Penal / Zigor Kodea en euskera y castellano ha servido de guía y referente para la preparación del presente texto, que permite al usuario tener a su disposición los textos civiles forales en ambos idiomas.

Asimismo, como es habitual, se han incorporado a la publicación los índices analíticos y glosarios de términos bilingües, a fin de que el tránsito y la búsqueda entre un idioma y otro resulten más sencillos.

Es obligado citar aquí la labor inestimable realizada por autores de sobra conocidos: José Yanguas y Miranda, Bonifacio Etxegarai, Manuel Lekuona, Julio Caro Baroja, José Luis Lizundia, Abel Muniategi..., labor que ha facilitado enormemente la búsqueda de los términos vascos propios del derecho civil foral. Al mismo tiempo, para la confección de este trabajo, se ha tenido muy en cuenta el respeto debido a ambas lenguas oficiales. En el mundo del derecho, pocos temas resultan más apropiados, para cumplir ese objetivo, que el de las leyes civiles forales y el euskera. Como se ha indicado anteriormente, entre ellos existen nexos de unión muy fuertes, tanto antiguos como contemporáneos.

Por nuestra parte, nada más. Que hable la obra. Por primera vez en la historia, el euskera y las leyes civiles forales se han unido. Esa ha sido nuestra intención y ese es nuestro desafío. A los operadores jurídicos corresponde decir si lo hemos conseguido o no. He aquí nuestro trabajo, que pretende ser útil y provechoso para todos.

Los autores

Bigarren argitaraldiaren aitzin-solasa

2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa. Halakoxea du titulua bigarren argitaraldi honetara datorren lege berriak. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, lege berri honek ekarri du, zuzenbide zibilaren ikuspegitik, une berria, erkidego osoaren lurraldea eta herritarrak uztartzen dituenena. Orobat, egundaino euskal foru-zuzenbide zibilak idatziz barruratu ez dituen hainbat erakunderen lege-arauketa. Horren testua gehitu zaio (eranskin modura, B letrarekin) bigarren argitaraldi honi, lege-testuaren kontzeptu nagusiak ere aurkibide analitikoan erakusten direla, euskal herrialde historikoen ohiko zuzenbidetik at. Testua Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian bi hizkuntzetan agertua da (2003ko maiatzak 23).

Bilbon, 2005. urteko uztailaren 1ean

Prólogo a la segunda edición

La novedad más importante de esta segunda edición es la *Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho* dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Esa ley ha supuesto, desde el punto de vista del derecho civil propio del País Vasco, la apertura de un espacio civil común a todos los territorios y habitantes de la Comunidad Autónoma, junto con la regulación de una serie de instituciones no recogidas hasta el momento en el derecho civil foral vasco escrito. De ahí su recepción obligada en esta segunda edición (en forma de anexo, letra B) y la necesidad de situar sus conceptos en el índice analítico en un lugar diferenciado del derecho tradicional de los territorios históricos vascos. El texto recogido en ambas lenguas es el publicado en el Boletín Oficial del País Vasco (con fecha de 23 de mayo de 2003).

Bilbao, a 1 de julio de 2005

1.

Comunidad Autónoma del País Vasco

Ley 3/1992, de 1 de julio,
del Derecho Civil Foral del País Vasco

Anexos: A) Ley 3/1999, de 16 de noviembre,
de modificación de la Ley del Derecho Civil Foral
del País Vasco, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa;
B) Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho

1.

Euskal Autonomia Erkidegoa

Uztailaren 1eko 3/1992 Legea,
Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzkoa

Eranskinak: A) 3/1999 Legea, azaroaren 16koa,
Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzko
Legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilar dagokionez;
B) 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa

1. COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO	27
Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco	33
Exposición de motivos	33
Título preliminar. De las fuentes del Derecho Foral	59
Libro primero. Del Fuero Civil de Bizkaia	60
Título I. De la aplicación de las normas forales	60
Capítulo I. Ámbito de aplicación	60
<i>Sección I. Ámbito territorial</i>	<i>60</i>
<i>Sección II. Ámbito personal</i>	<i>63</i>
Capítulo II. De los conflictos de Leyes	64
Título II. De la troncalidad	65
Título III. De las sucesiones	68
Disposiciones generales	68
Capítulo I. De la sucesión testada	69
<i>Sección I. De los testamentos en general</i>	<i>69</i>
<i>Sección II. Del testamento «hil-buruko»</i>	<i>69</i>
<i>Sección III. Del poder testatorio y del testamento por comisario</i>	<i>70</i>
<i>Sección IV. Del testamento mancomunado o de hermandad</i>	<i>75</i>
Capítulo II. De la sucesión forzosa	76
Capítulo III. De la sucesión «ab intestato»	82
Capítulo IV. De los pactos sucesorios	84
Capítulo V. Disposiciones comunes a las distintas formas de suceder	87
Título IV. Del régimen de bienes en el matrimonio y de la comunicación foral	90
Capítulo I. Disposiciones generales	90
Capítulo II. De la comunicación foral de bienes	91
Capítulo III. De la disolución del régimen de comunicación de bienes	95
Título V. De la saca foral y demas derechos de adquisición preferente	99
Título VI. De las servidumbres de paso	107
Libro segundo. Del Fuero Civil de Álava	108
Título I. Del Fuero de Ayala	108
Capítulo I. Ámbito de aplicación	108
Capítulo II. 	109
<i>Sección I. De la libre disposición de bienes</i>	<i>109</i>
<i>Sección II. Del usufructo poderoso</i>	<i>110</i>
Título II. Del Derecho Civil Foral aplicable en Llodio y Aramaio	112

1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	27
Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa ..	33
Zioen adierazpena	33
Atariko idazpurua. Foru-zuzenbidearen iturburuak	59
Lehenengo liburua. Bizkaiko Foru Zibila	60
I. idazpurua. Foru-arauen ezarpenaz	60
I. atalburua. Ezarpen-eremua	60
I. saila. Lurralde-eremua	60
II. saila. Pertsona-eremua	63
II. atalburua. Legeen gatazkak	64
II. idazpurua. Tronkala	65
III. idazpurua. Oinordetzak	68
Erabaki orokorrak	68
I. atalburua. Testamentu bidezko oinordetza	69
I. saila. Testamentuak orokorrean	69
II. saila. «Hil-buruko» testamentua	69
III. saila. Testamentua egiteko poderea eta eskuorde-bidezko testamentua	70
IV. saila. Ermandadeko edo elkarrekiko testamentua	75
II. atalburua. Derrigorrezko oinordekoak	76
III. atalburua. Testamenturik gabeko oinordetza	82
IV. atalburua. Oinordetza itunak	84
V. atalburua. Oinordetzeko erei buruzko baterako erabakiak	87
IV. idazpurua. Ezkontzaren ondasun-jaurpidea eta foru-komunikazioa	90
I. atalburua. Erabaki orokorrak	90
II. atalburua. Ondasunen foru-komunikazioa	91
III. atalburua. Foru-komunikazioaren jaurpidea amaitzeaz	95
V. idazpurua. Saka-eskubidea eta lehentasunez eskuratzeko beste eskubideak	99
VI. idazpurua. Bide-zorrak	107
Bigarren liburua. Arabako Foru Zibila	108
I. idazpurua. Aiarako forua	108
I. atalburua. Ezarpen-eremua	108
II. atalburua.	109
I. saila. Ondasunen aukerako erabilpenaz	109
II. saila. Podere osoko gozamina	110
II. idazpurua. Laudion eta Aramaion ezgarri den foru-zuzenbide zibila ...	112

Libro tercero. Del Fuero Civil de Guipúzcoa	112
Título II. Del ámbito de aplicación	113
Capítulo I. Ámbito territorial	113
Capítulo II. Ámbito personal	113
Capítulo III. Ámbito funcional	113
Título III. De la ordenación sucesoria del caserío guipuzcoano	114
Capítulo I. De la ordenación sucesoria del caserío y las limitaciones a la libertad de disposición por causa de muerte	114
Capítulo II. De la ordenación por comisario	120
Capítulo III. Del testamento mancomunado	124
Capítulo IV. De los pactos sucesorios	126
Disposiciones adicionales	129
Primera	129
Segunda	129
Tercera	130
Disposiciones transitorias	130
Primera	130
Segunda	130
Tercera	131
Cuarta	131
Disposición derogatoria	131
Disposición final	131
Anexos	133
A) Ley 3/1999, de 16 de noviembre, de modificación de la Ley del Derecho Civil Foral del País Vasco, en lo relativo al Fuero Civil de Gipuzkoa	133
B) Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho	139
Índices analíticos	161
Castellano-euskera	163
Euskera-castellano	185

Hirugarren liburua. Gipuzkoako Foru Zibila	112
II. idazpurua. Aplikazio eremua	113
I. atalburua. Lurralde eremua	113
II. atalburua. Pertsona eremua	113
III. atalburua. Xede eremua	113
III. idazpurua. Baserriko oinordetzaren ordenazioa gipuzkoan	114
I. atalburua. Baserriko oinordetzaren ordenazioa eta heriotzako kausaz xedatzeko askatasunari ezarriko mugak	114
II. atalburua. Komisario bidez ordenatzea	120
III. atalburua. Elkarrekiko testamentua	124
IV. atalburua. Oinordetzako itunak	126
Erabaki gehigarriak	129
Lehenengoa	129
Bigarrena	129
Hirugarrena	130
Aldibaterako erabakiak	130
Lehenengoa	130
Bigarrena	130
Hirugarrena	131
Laugarrena	131
Indargabekotze-erabakia	131
Azken erabakia	131
Eranskinak	133
A) 3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaria buruzko Legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilaria dagokionez	133
B) 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzekoa	139
Aurkibide analitikoak	161
Gaztelania-euskara	163
Euskara-gaztelania	185

Ley 3/1992, de 1 de julio, del Derecho Civil Foral del País Vasco

Uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilarri buruzkoa

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La declinación del régimen foral impidió que nuestro ordenamiento civil evolucionase al compás de los grandes avances de la técnica jurídica en los siglos XIX y XX y, por ello, los evidentes valores intrínsecos del Derecho Foral aparecen todavía bajo el ropaje de formulaciones arcaicas que es indispensable actualizar, al modo que el viejo Derecho común español se modernizaba en el Código Civil y las numerosas leyes posteriores. Por supuesto que no bastaba con un trabajo de recopilación o compilación, como pretendió el Congreso de Zaragoza, sino que era obligada la acomodación a la técnica y a las necesidades de una sociedad actual.

La Constitución de 1978 supuso el fin de las limitaciones que el desarrollo de las leyes forales padecía desde los Decretos de Felipe V y, en nuestro caso, desde las guerras carlistas. El art. 149.1.8 permite que las Comunidades Autónomas puedan conservar, modificar y desarrollar su Derecho Civil.

«Allí donde exista», dice el precepto constitucional. Y existe en el País

ZIOEN ADIERAZPENA

Foru-jaurpidea gain-behera joan izanak galerazi egin zion gure araudi zibilarri legegintza-teknikak XIX. eta XX. mendeetan egindako aurrerapide sakonekin batera joatea eta, horregatik, Foru-Zuzenbideak berez dituen balio nabarmenak aintzinako molde jantzita agertzen dira oraindik, moldeok eguneratzea beharrezkoa dela. Horrela jokatu zen Espainiako zuzenbide arruntarekin, berori berriztatu eta Kode Zibila eta geroko hainbat lege garatu bait ziren. Ez zen nahikoa, noski, biltze eta metaketa-lan hutsa, Zaragozako Biltzarrrak horrela jokatu nahi izan bazuen ere. Ezinbestekoa zen, ordea, gaurrengungo gizartearen teknika eta beharri-zanei egokitzea.

Foru-legeek Felipe V.aren garaietatik, eta gure kasuan karlistadetatik, jasaten zituzten garapen-mugak gainditzea ekarri zuen 1978.eko Konstituzioak, bere 149.1.8 atalak ohartematen duenaren arauera, Autonomi Elkarteek iraunerazi, aldatu eta garatu egin bait dezakete eurei dagokien Zuzenbide Zibila.

Konstituzioak berriazko zuzenbide zibilik «egon badagoenean» dio. Eta

Vasco, en unos territorios en forma escrita, como en Bizkaia y Álava, y en otros, como Gipuzkoa, en forma consuetudinaria, con unos usos muy similares en muchos aspectos a los del resto del país, que se mantienen pese a las dificultades que plantea un Derecho común inspirado en principios opuestos.

El Código Civil de 1888, al respetar, «por ahora», el régimen de las regiones forales, se refería expresamente tanto al Derecho escrito como al consuetudinario, y el actual Estatuto Vasco, concretando las competencias autonómicas en su art. 10.5, señala también que la labor de «conservación, modificación y desarrollo» del Derecho civil foral o especial afecta tanto al Derecho escrito como al consuetudinario.

El legislador vasco tiene, por tanto, la tarea de dar forma nueva, adaptar al mundo de hoy, el viejo Derecho Foral, que en Bizkaia y Álava es Derecho escrito y en Gipuzkoa es Derecho consuetudinario como se ha dicho. Es una labor delicada y que debe desarrollarse con el mayor respeto a la sociedad vasca actual a la que ni se le puede privar de sus instituciones más queridas ni se les deben imponer las que estén carentes de arraigo, porque, si en otras materias la necesidad puede imponer cambios drásticos, el Derecho Civil solamente avanza a través de la aceptación del pueblo y la asimilación general de sus instituciones.

Euskal Herrian horrelakorik badago egon. Lurralde batzuetan, Bizkaian eta Araban, idatziz mantentzen da. Beste batzuetan, Gipuzkoan esaterako, ohituraz zainduta eta hainbat alorretan Euskal Herriko gainerantzeko lurraldeetako oso antzerako usadioei jarraituz, usadiook iraun egiten dutela nahiz eta aurkako oinarriak dituen Zuzenbide arruntak horretarako hainbat eragozpen jarri.

1888.eko Kode Zibilak «oraingoz» bere hartan uzten zuen forudun Lurraldeetako jaurpidea eta berariaz aipatzen zuen idatzizko zein ohiturazko Zuzenbidea. Gaurrengungo Euskadiko Estatuak, Autonomi Elkarteari dagozkion aginpideak zehazterakoan, 10.5 atalean adierazten denez, foruzko Zuzenbide zibila edo berariazkoa «iraunerazi, aldatu edo garatzeko» lana berdin burutu daiteke zuzenbide hori idatzizkoa izan zein ohituraz gordetako izan.

Horrela bada, euskal legelariak eraberritu eta gaurko mundura egokitu behar dute Foru-Zuzenbide zaharra, Bizkaian eta Araban idatzita iraun duena eta Gipuzkoan, dagoeneko badakigunez, ohituraz baino gorde ez dena. Kontuz egin beharke lana da eta gaur eguneko euskal gizartearekiko begirunerik handienarekin burutu beharkekoa, gizarte hori ezin bait daiteke maiteen dituen erakundeok gabe utzi, ezta berez errotuta ez dituen erakundeok gabe utzi, ezta berez errotuta ez dituen erakundeak hartzera behartu ere, beste alor batzuetan beharrianak aldaketa sakanak egitea bideratzen badu ere, Zuzenbide zibilak ezin duelako aurrera egin herritarrek erakundeok onartu eta orokorrean eurenganatu gabe.

El Parlamento Vasco, que, conforme al art. 10.5 del Estatuto, tiene libertad para señalar el ámbito de aplicación de las instituciones forales, no puede hacerlo arbitrariamente, y, aunque en el futuro —según los estudios lo aconsejen y la sociedad lo reclame—, podrá hacer modificaciones y seguramente deberá hacerlas, en esta primera elaboración de nuestro Derecho, a la que se llega tras profunda meditación de la ley, se limita a hacer la necesaria adaptación del Derecho a nuestros tiempos, eliminando algunos anacronismos que la Compilación de 1959 aún mantenía y restaurando instituciones muy arraigadas de las que prescindía.

Todo ello sin perjuicio de que se fomenten los estudios que felizmente se han iniciado con fuerza en nuestras Universidades y que permitirán en un futuro próximo nuevas reformas y modificaciones legales, incluso en el ámbito territorial, hasta lograr un Derecho Civil moderno y socialmente avanzado. Los rasgos comunes del Derecho Civil vasco que debemos descubrir irán perfilándose mejor a medida que se profundice en su conocimiento y análisis, sin que, de momento, pueda evitarse la predominante referencia a los sistemas formulados por escrito y a sus ámbitos concretos de aplicación.

Metodología

Por las razones expuestas, el legislador no se considera obligado a respetar la sistemática y orden de la Compi-

Eusko Legebiltzarrak, Estatutuaren 10.5. atalak ohartemandakoaren arauera, foru-erakundeen ezarpen-esparrua zehazteko askatasuna du, baina ezin du ezarpen-esparrurik besterik gabe aldatu. Nahiz eta etorkizunean, egindako azterketek eta gizarteak aldaketak egitea eskatuta aldatu beharra egon, ziur asko horrelakorik sartu beharra egongo da eta, gure Zuzenbidearen lehen gorpuzketa honetan, legea sakon ausnartuta egindakoan, ez du Zuzenbidea gaurreguneratu besterik egiten, 1959.eko Bildumak oraindino jasotzen zituen gauza zaharkituak ezabatu eta bertan agertzen ez ziran eta berez oso sustraiturik zeuden beste erakunde batzuk agertaraziz.

Edonola ere, guzti hori ez dadila izan eragozpen gure Unibertsitateetan, zorionez, indartsu sortu diren ikerketak ugaritu daitezten, euron bidez eraberritze eta lege-aldaketak eragin bait daitezke, ezarpen-esparruan bertan ere, Zuzenbide Zibil berritua eta gizarte-aldetik aurreratua lortu arte. Bilatu behar ditugun euskal Zuzenbide Zibilaren baterako berezitasunak agertuz joango dira eurotan sakondu eta aztertu ahala, oraingoz idatziz dauden sistemak eta euren ezarpen-esparru zehatzek eragin dezaketen erakarpen-indarra ekidin ezi-nezkoa delarik.

Metodologia

Aipatutako arrazoiongatik, Bizkaia eta Arabaren kasuan, Bildumaren eraketa eta atal-hurrenkera zaindu beha-

lación de 1959 para Bizkaia y Álava. Es un marco demasiado estrecho. Había que incluir instituciones vivas que la Compilación ignoró, como el testamento mancomunado, o dar suficiente desarrollo a otras que, como los pactos sucesorios, solamente aparecen apuntadas y se señalan sin ningún desarrollo en el art. 11, o como el usufructo poderoso ayalés, en el que la falta de desarrollo ha impedido de hecho su aplicación.

Resultaba asimismo inevitable un Título Preliminar que atendiera especialmente a fijar dos puntos esenciales en materia de fuentes del Derecho: el respeto a la costumbre, tan tradicional en Bizkaia y Ayala, y la salvaguarda de los principios generales del Derecho, principios sin los cuales la norma jurídica queda desprovista de su verdadera vida. El recurso al derecho supletorio, sin atender a los principios inspiradores del Fuero ha permitido a alguna jurisprudencia llegar a conclusiones totalmente alejadas del sentimiento foral.

Como consecuencia, se articula el texto en un Título Preliminar y tres libros de dimensión desigual, uno para Bizkaia, otro para Álava y el tercero destinado a Gipuzkoa.

Denominación

La palabra Compilación, sin tradición entre nosotros, no responde al carácter y objetivos de esta Ley, que es el de hacer una total puesta al día del Derecho privado vasco. De aquí que la

rrik ez du ikusi Legegileak. Esparru estuegia da eta horretara mugatu beharrik ez du. Bildumak aintzakotzat hartu ez zituen erakunde biziak, elkarrekin edo ermandadean egindako testamentua esaterako, sartu beharra zegoen edo aipatu baino egiten ez zituen beste batzuk, 11. atalean agertzen diren oinordetzazko itunak edo Aiarako podere osoko gozamina adibidez, behar bestean garatu beharra zegoen, azken hori garapen-ezagatik ez delarik benetan ezargarri izan.

Ezinbestekoa zen Atariko Idazpurua egitea, batez ere Zuzenbidearen iturburuen alorrean bi giltzarri finkatzeko: ohiturea zaintzea, Bizkaian tradizio haundikoa dena, eta gure Zuzenbidearen oinarri orokorren babesa, eurok gabe arau juridikoak bere benetazko bizitasuna galdu egiten bait du, inoiz Foruaren iturburuei jaramonik egin ez eta zuzenbide osogarrira jo izanagatik foru senetik guztiz urrundutako ondo-rioretara heldu izan dela epaigintza.

Horrela bada, Atariko-Idazpuruak eta luzera ezberdineko hiru Liburuk, lehenengoa Bizkaikoak, bigarrena Arabakoak eta hirugarrena Gipuzkoakoak, osatzen dute testua.

Aukeratutako izena

Bilduma hitza, gure artean tradizionik gabekoa, ez zaio egokitzen legearen helburuari ezta izaerari ere, helburu hori euskal Zuzenbide pribatua goitik-behera eguneratzea da eta. Hortik dator

denominemos Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco. Civil porque se limita al Derecho privado; Foral, para distinguirlo del Derecho común, y no porque resucite instituciones antiguas; y del País Vasco, por su ámbito de aplicación, aun cuando existan territorios de Derecho común.

Análisis de la Ley

LIBRO I

Derecho Civil Foral de Bizkaia

El derecho a elaborar su propia legislación lo poseyó Bizkaia en todo tiempo y solamente desapareció con la decadencia del régimen foral. La legislación foral estuvo en vigor en su plenitud hasta la Compilación de 1959, que en muchos aspectos la recortó y limitó. El derecho a recuperarla en su sentido tradicional debemos considerarlo como un «derecho histórico» amparado en la Constitución, un derecho histórico que fue fuertemente afectado por la Compilación realizada en tiempos de dictadura.

Ha parecido necesario acomodar estas disposiciones a nuestro tiempo, eliminando los formalismos anacrónicos y limitando o excluyendo las disposiciones que no se acomodan a la sociedad actual, como algunos aspectos de la troncalidad, e incluso introduciendo, en algún caso, disposiciones imprescindibles para completar el sistema, como ocurre con la ampliación de los derechos del cónyuge viudo, el reconocimiento del derecho de alimentos o la protección de los arrendatarios de fincas rústicas.

Euskal Herriko foru zibilari buruzko Lege izena eman izana. Zibila Zuzenbide pribatua baino ez duelako hartzen; Foruzkoa Zuzenbide arruntetik bereizteko eta ez aintzinako eta ezarpen-esparruz Euskal Herriko erakundeak berpiztu egiten dituelako, nahiz eta Zuzenbide arrunteko esparruak ere egon.

Legearen azterketa

LEHENENGO LIBURUA

Bizkaiko foru-zuzenbide zibila

Bizkaiak betidanik izan du bere legeria egiteko eskubidea eta foru-jaurpidea behera etorri zenean baino ez zuen hori galdu. Foru-legeria indarrean egon zen bere osotasunean 1959. urteko Bilduma egin zen arte, honek moztu eta murriztu egiten zuela hainbat arlotan. Ohizko foru-legeria berreskuratze-ko eskubidea Konstituzioak babesturiko «jatorrizko eskubidetzat» hartu behar dugu, diktadura-garaian egindako Bilduma horrek sakon erasotako jatorrizko eskubidea.

Erabakiok gaurregunera egokitzea beharrezkotzat jo izan da, aintzinako iharduerak aldenuz eta gaurko gizarteari ondo egokitzen ez zaizkion erabakiak mugatuz edo kenduz, esate baterako tronkalaren gorabehera batzuk, edo inoiz, sistema osatzeko derrigorrezko erabaki batzuk gehituz, adibidez, gizonezko alargunen eskubideak ugaritzeari, mantenu-beharrak aitortzeari edo baserrietako errentariak babesteari dagokionean.

No se ha redactado un Código en el sentido de una ley totalizadora de todas las instituciones conocidas en materia civil, sino que la Ley se limita a cumplir el mandato constitucional y estatutario que permite la conservación, modificación y desarrollo de nuestro Derecho Foral, y en este caso el vizcaíno. En realidad, iniciamos un proceso que no va a anquilosar las instituciones, sino que las va a mantener vivas y abiertas a los cambios que seguramente va a imponer la necesaria tarea de investigación y la decidida voluntad de progreso que alimenta la sociedad vizcaína.

4. Las Juntas o «Patronatos mere legos» de los Santuarios, Ermitas, Cofradías y similares, sin perjuicio de la condición que les conceda el Derecho canónico.

5. Las Cajas Rurales, Hermandades y otras agrupaciones agro-sociales no prohibidas por las leyes.

6. Las fundaciones privadas constituidas conforme a la ley siguiente.

Ley 44

Fundaciones

Por actos inter vivos o mortis causa, cualquier persona puede crear en Navarra, sin necesidad de aprobación administrativa, fundaciones de caridad, fomento o de otro interés social evidente, siempre que el fundador exprese su voluntad de conferir personalidad jurídica a la fundación, al determinar su fin y asignarle un patrimonio, que podrá consistir en bienes o derechos de cualquier clase.

La fundación por acto inter vivos debe hacerse en escritura pública en la que consten los estatutos que determinen el nombramiento, renovación, funcionamiento y atribuciones del Patronato.

En las fundaciones por acto mortis causa, el fundador puede ordenar por sí mismo los estatutos o encomendar su ordenación, total o parcialmente, al primer Patronato o a otras personas. Igualmente puede dotar de bienes a la fundación, ya en el propio acto fundacional, ya en acto separado, ya delegando en

4. Santutegi, baseliza, kofradia eta horien antzeko erakundeen batzarreek edo «mere legos patronatuek», zuzenbide kanonikoak horiei ematen dien izaerari kalterik egin gabe.

5. Baserritarren kutexek, ermandadeek eta gizarte-nekazaritzako elkar-teekek, lege debekaturik ez badaude.

6. Fundazio pribatuek, hurrengo legearekin bat etorritz eratu badira.

44. legea

Fundazioak

Inter vivos edo mortis causa egintzen bitartez, Nafarroan edonork era ditzake, Administrazioaren onespenez gabe, kariatate-fundazioak, sustapen-fundazioak edota ageriko beste gizarte-interesen bat duten fundazioak; horretarako, eratzailak adierazi behar du fundazioari nortasun juridikoa emateko borondatea duela, horren xedea zehaztu eta horri ondarea esleitzeko unean; ondare hori orotariko ondasun edo eskubideez osaturik egon daiteke.

Inter vivos egintzaren bidezko fundazioa eskritura publikoan eratu behar da; eskritura horretan estatutuak agerrarazi behar dira, eta, horietan, Patronatuaren izendapen, berriztatze, jardunbide eta aginpideak zehaztu behar dira.

Mortis causa egintzaren bidezko fundazioetan, eratzailak bere kabuz antola ditzake estatutuak edo, bestela, horien antolaketa, osorik edo zati batez, lehenengo Patronatuaren edo beste inoren ardurapean utz dezake. Era berean, eratzailak ondasunez zuzki dezake fundazioa, dela eratze egintzan bertan,

otras personas la asignación de bienes, a título universal o singular.

Ley 45

Régimen

Las fundaciones se regirán por la voluntad del fundador, manifestada en el acto constitutivo y en los estatutos, que será suplida en lo no previsto e integrada en su interpretación por las disposiciones contenidas en el Libro II de esta Compilación.

Ley 46

Facultades del Patronato

Salvo que otra cosa se disponga en los estatutos, corresponden al Patronato, plenamente y sin limitación alguna, las facultades siguientes:

1. Las de administración y disposición del patrimonio de la fundación.
2. La de interpretar la voluntad del fundador.
3. Las de inversión, realización, transformación y depósito de los bienes y aplicación de los mismos a los fines fundacionales.
4. Las de confeccionar los presupuestos y aprobar las cuentas por sí solos y con plenitud de efectos.

Tratándose de fundaciones constituidas por voluntad privada, el fundador podrá eximir a la fundación de toda intervención administrativa. Sin

dela egintza bananduan, dela ondasu-nak esleitzeko ardura beste pertsona batzuei eskuordetuz, titulu unibertsala-ren nahiz banakako tituluaren bidez.

45. legea

Araubidea

Eratzailearen borondateak eraendu-ko du fundazioa; borondate hori erake-ta-egintzan bertan eta estatutueta adie-razi behar da; eta, konpilazio honetako II. liburuan jasotako xedapenak erabili-ko dira, borondate horrek arautzen ez dituen kontuak ordezteko eta horren interpretazioa integratzeko.

46. legea

Patronatuaren ahalmenak

Estatutueta bestelakorik xedatu ezean, Patronatuari dagozkio, bete-betean eta inolako mugapenik gabe, ondoko ahalmenak:

1. Fundazioaren ondarea adminis-tratu eta xedatzekoak.
2. Eratzailearen borondatea inter-pretatzekoa.
3. Ondasunekin inbertsioak egin, horiek diru bihurtu, transformatu edo gordailupean jartzekoak, bai eta onda-sunak fundazioaren xedetarako era-biltzekoa ere.
4. Aurrekontuak egin, eta bere ka-buz eta eragingarritasun osoz kontuak onestekoak.

Fundazioak borondate pribatuaren bidez eratzen direnean, eratzaileak Ad-ministrazioaren esku-hartzetik kanpo utz dezake fundazioa. Dena den, nor-

embargo, a instancia de cualquier persona, el Ministerio Fiscal podrá inspeccionar la gestión e instar y ejercitar las acciones procedentes.

Ley 47

Reversión

El acto fundacional o los estatutos podrán establecer la reversión de los bienes en favor de los herederos del fundador o de determinadas personas, sean o no parientes de éste, con el límite de la ley 224.

Extinción

Cuando se extinga una Fundación sin haberse previsto el destino de sus bienes, adquirirá éstos la Comunidad Foral de Navarra, que los aplicará a fines similares a los establecidos por el fundador.

TÍTULO II

DE LAS ENTIDADES Y SUJETOS COLECTIVOS SIN PERSONALIDAD JURÍDICA

Ley 48

La casa

La casa, sin constituir persona jurídica, tiene su propio nombre y es sujeto de derechos y obligaciones respecto a las relaciones de vecindad, prestaciones de servicios, aprovechamientos comunales, identificación y deslinde de fincas, y otras relaciones establecidas por la costumbre y usos locales.

baitek hala eskatuz gero, Fiskaltzak fundazioaren kudeaketa ikuska dezake, eta akzio egokiak eragin eta egikari ditzake.

47. legea

Lehengoratzea

Eraketa-egintzak edo estatutuek ondasunen lehengoratzea ezar dezakete, eratzailearen jaraunse edo pertsona jakin batzuen mesederako, pertsona horiek eratzailearen ahaide izan zein ez, betiere, 224. legean ezarritako mugarekin.

Az kentzea

Fundazioa az kentzen denean, ez badago zehazturik zein xede izan behar duten horren ondasunek, Nafarroako Foru Komunitateak eskuratuko ditu ondasunok, eta horiek erabiliko ditu, eratzaileak ezarritako xedeen antzekoak iristeko.

II. TITULUA

NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ERAKUNDE ETA SUBJEKTU KOLEKTIBOAK

48. legea

Etxea

Etxea ez da pertsona juridikoa, baina izen berezia du, eta eskubide eta betebeharren subjektu da auzotartasun-harremetan, zerbitzu-egiteetan, herri-aprobetxamenduetan, finken identifikazio eta mugaketetan, eta tokiko ohitura eta usadioek ezarritako bestelako harremetan ere.

Corresponde a los amos el gobierno de la Casa, el mantenimiento de su unidad y la conservación y defensa de su patrimonio y nombre.

Ley 49

Sociedades y agrupaciones sin personalidad

Las sociedades u otras agrupaciones cuya personalidad no haya sido reconocida pueden, sin embargo, actuar como sujetos de derecho por mediación de quienes ostenten una representación expresa o tácitamente conferida.

La titularidad de los derechos adquiridos por estos sujetos colectivos se considerará conjunta de todos los miembros y será necesaria la unanimidad para disponer de esos derechos. De las obligaciones contraídas por dichos sujetos colectivos responderán solidariamente todos los miembros.

TÍTULO III DE LA CAPACIDAD DE LAS PERSONAS INDIVIDUALES

Ley 50

Capacidad

La capacidad plena se adquiere con la mayoría de edad al cumplirse los dieciocho años.

Los menores de edad que sean púberes tendrán capacidad para los actos determinados en esta Compilación. Se

Etxeko jaun-andreei dagozkie etxea gobernatzea, horren batasunari eustea, eta etxearen ondarea eta izena irau-narazi eta defendatzea.

49. legea

Nortasunik gabeko sozietate eta elkartzeak

Sozietate edo elkartzeek, horiei nortasuna aitortu ez bazaie ere, zuzenbideko subjektu gisa jardun dezakete, pertsona jakin batzuen bitartez, horiei esanbidez edo isilbidez ordezkartzita eman dien neurrian.

Subjektu kolektiboek eskubideak eskuratzeko badiuzte, eskubide horien titulartasuna kide guztiei batera dagokiela ulertuko da, eta kideon ahobatekotasuna nahitaezkoa izanen da, halako eskubideak xedatzeko. Subjektu kolektiboek betebeharrak hartzen badiuzte, betebeharron gain subjektuon kide guztiek izanen dute erantzukizun solidarioa.

III. TITULUA NORBANAKOEN GAITASUNA

50. legea

Gaitasuna

Gaitasun osoa adin nagusitasunarekin eskuratzeko da, hemezortzi urte betetakoa.

Adingabe puberrek gaitasuna izanen dute konpilazio honetan zehazturiko egintzak gauzatzeko. Pubertzat har-

consideran púberes los mayores de catorce años de uno y otro sexo.

Los púberes no emancipados pueden aceptar por sí solos toda clase de liberalidades por las que no contraigan obligaciones, aunque aquéllas contengan limitaciones o prohibiciones sobre los bienes objeto de la liberalidad.

Ley 51

Representación

Toda persona capaz puede realizar, mediante apoderado, todos los actos que podría realizar por sí, sin más limitaciones que las establecidas en esta Compilación.

Ley 52

Revocabilidad

El poder de representación podrá revocarse libremente por el poderdante, salvo que se hubiere concedido con carácter irrevocable en razón de un interés legítimo del apoderado o de que entre éste y el poderdante exista una relación contractual que justifique la irrevocabilidad.

TÍTULO IV

DE LA CAPACIDAD DE LOS CÓNYUGES

Ley 53

Capacidad

Salvo lo pactado en capitulaciones matrimoniales y lo especialmente dis-

tuko dira hamalau urtekoak baino nagusiagoak direnak, horiek sexu batekoak zein bestekoak izan.

Puber emantzipatugabeek euren kabuz onar ditzakete orotariko eskuza-baltasunak, horiekin ez badute inolako betebeharririk hartzen, nahiz eta eskuza-baltasunaren objektu diren ondasunen gainean mugapen edo debekuak izan.

51. legea

Ordezkapena

Pertsona gai orok ahaldunaren bidez burutu ahal ditu berak bere kabuz burutu ahal izanen lituzkeen egintza guztiak, eta konpilazio honetan ezarritako mugapenak baino ez ditu izan.

52. legea

Ezeztakortasuna

Ahalmen-emaileak askatasunez ezezta dezake ordezkaritza-ahalordea, salbu eta ahalordea izaera ezeztaezinaz eman denean ahaldunaren legebidezko interesaren ondorioz, edota, ahaldunaren eta ahalmen-emailearen artean kontratuzko harremanak izanik, harremanok ezeztazintasuna justifikatzen dutenean.

IV. TITULUA

EZKONTIDEEN GAITASUNA

53. legea

Gaitasuna

Ezkontzako itunetan hitzarturikoa eta konpilazio honetan bereziki xedatu-

puesto en esta Compilación, cada uno de los cónyuges, por sí solo, podrá ejercitar y defender derechos y realizar, en nombre propio o ajeno, cualesquiera actos judiciales o extrajudiciales de administración, disposición y representación.

Ley 54

Potestad doméstica

Cualquiera de los cónyuges por sí solo puede disponer de los bienes comunes y obligar a la sociedad conyugal para atender a los gastos urgentes, aun extraordinarios, y a las necesidades ordinarias de la familia conforme a las circunstancias de ésta y al uso del lugar, sin perjuicio de los reembolsos que procedan.

Afección de bienes

La responsabilidad por los actos que realice uno sólo de los cónyuges, en cumplimiento de las obligaciones voluntariamente aceptadas, afectará, exclusivamente, a los bienes privativos del obligado, salvo que hayan sido asumidas con el consentimiento del otro cónyuge, en cuyo caso la responsabilidad afectará también a los bienes de la sociedad conyugal, sin perjuicio de lo dispuesto en la ley 85.

De las obligaciones contraídas por uno sólo de los cónyuges en el cumplimiento de obligaciones legales de inexcusable ejercicio, comunes a ambos, responderán solidariamente los bienes del cónyuge que contrajo la deuda y los de la sociedad conyugal, y subsidiariamente los del otro cónyuge,

rikoa salbu, ezkontide bakoitzak bere kabuz egikari eta defenda ditzake esku-bideak, eta bere izenean edo inoren izenean gauza ditzake epaiketako nahiz epaiketatik kanpoko administrazio-, xedatze- eta ordezkaritza-egintzak ere.

54. legea

Etxeko ahala

Ezkontideetatik edozeinek bere kabuz ondasun erkideak xeda ditzake, eta ezkontzako sozietatea behartu dezake, presako nahiz aparteko gastuei aurre egitera eta familiaren ohiko beharriak asetzera, familiaren inguruabarrekin eta tokiko usadioarekin bat etorritz, eta bidezkoak diren itzulketei kalterik egin gabe.

Ondasunen gain eragina izatea

Ezkontide batek bakarrik, borondatez onarturiko betebeharrak betetzeko, zenbait egintza burutzen baditu, egin-tzon gaineko erantzukizunak eragina izanen du betebeharrekoaren ondasun pribatiboetan bakarrik, salbu eta horiek beste ezkontidearen adostasunarekin hartu direnean; kasu horretan, erantzukizunak eragina izanen du ezkontzako sozietatearen ondasunetan ere, 85. legean xedaturikoari kalterik egin gabe.

Ezkontide batek bakarrik, egikaritza barkaezina duten legezko betebeharrak betetzeko, betebeharrak hartu baditu, betebeharroi aurre egingen zaie, modu solidarioan, betebeharra hartu duen ezkontidearen eta ezkontzako sozietatearen ondasunekin, eta, modu subsidiarioan, beste ezkontidearen on-

sin perjuicio de los reembolsos que procedan.

Ley 55

Vivienda y ajuar

Se necesitará el consentimiento de ambos cónyuges o, en su defecto, autorización judicial para disponer inter vivos o sustraer al uso común los derechos sobre la vivienda habitual del matrimonio o sobre el mobiliario ordinario de la misma, aunque pertenezcan a uno sólo con carácter privativo.

La manifestación errónea o falsa del cónyuge titular, respecto a no ser vivienda habitual, no perjudicará a terceros de buena fe.

Ley 56

Comunidad universal y separación de bienes

En el régimen de comunidad universal y en el de separación de bienes se estará a lo dispuesto, respectivamente, en las leyes 101 y 103.

Ley 57

Disposición mortis causa

Por actos mortis causa cada uno de los cónyuges puede disponer de sus respectivos bienes privativos y de la parte que a la disolución de la sociedad conyugal le corresponda en los bienes de conquista.

Cuando se disponga de bienes determinados que sean de conquista se observará lo que para el legado se establece en la ley 251.

dasunekin, bidezkoak diren itzulketei kalterik egin gabe.

55. legea

Etxebizitza eta ostilamendua

Bi ezkontideen adostasuna edo, halakorik izan ezean, epailearen baimena izan behar da, ezkontideen ohiko etxebizitzaren edo bertako altzarien gaineko eskubideak inter vivos xedatzeko edo horiek erabilera erkidetik kanpo uzteko, nahiz eta halakoak ezkontide baten ondasun pribatiboak izan.

Ezkontide titularrak erruz edo falsukeriaz adierazten badu etxebizitza ez dela ohikoa, horrek ez die kalterik egingen hirugarren onustedunei.

56. legea

Erkidego unibertsala eta ondasunen banantzea

Erkidego unibertsalari eta ondasunen banantze-eraentzari buruz, 101 eta 103. legetan xedaturikoa bete beharko da, hurrenez hurren.

57. legea

Mortis causa xedapena

Mortis causa egintzen bidez, ezkontide bakoitzak xeda ditzake bere ondasun pribatiboak, bai eta ezkontzako sozietatea desagitean konkista-ondasunetik dagokion zatia ere.

Konkista-ondasun zehatzak xedatzen direnean, 251. legeak legatuari buruz ezarritakoa bete beharko da.

Ley 58

Habilitación judicial

Respecto a los actos en que cualquiera de los cónyuges precisara, por pacto o por ley, el consentimiento del otro, podrá éste ser suplido por el Juez, quien resolverá sobre su procedencia, a solicitud fundada y previa información sumaria, con citación de ambos cónyuges.

Ley 59

Ratificación

Los actos realizados por uno de los cónyuges sin el necesario consentimiento del otro, podrán ser ratificados por éste o sus herederos, y serán válidos si aquél o éstos no los impugnaron dentro del plazo de cuatro años, a contar del día de la disolución del matrimonio o de la separación legal.

Ley 60

Consentimiento

El marido y la mujer pueden prestarse el consentimiento para uno o varios actos o en términos generales. El acto por el que se concedan anticipadamente el consentimiento será revocable, a no ser que se haya otorgado en capitulaciones matrimoniales.

Los cónyuges pueden otorgar, uno en favor del otro o ambos recíprocamente, poderes con las facultades que tengan por conveniente, para uno o va-

58. legea

Gaikuntza judiziala

Ezkontideetatik edozeinek, egintza jakin batzuk gauzatzeko, itun edo legearen ondorioz, bestearen adostasuna behar badu, hori epaileak ordeztu ahal izanen du; epaileak, eskaera oinarriduna egiten bazaio, ordezpen hori bidezkoa den ebatzi beharko du informazio laburra jaso ondoren eta bi ezkontideak zitatuta.

59. legea

Berrespena

Ezkontide batek, besteak eman beharreko adostasunik gabe, egintzak gauzatzek baditu, azken horrek edo beraren jaraunsleek egintzok berretsi ahal izanen dituzte, eta baliozkoak izanen dira, hark edo horiek ez badituzte aurkaratzen lau urteko epean, ezkontzaren desagitea edo legezko banantzea gertatu den egunetik zenbatuta.

60. legea

Adostasuna

Senarrak eta emazteak adostasuna eman diezaiokeite elkarri, egintza jakin bat edo batzuk gauzatzeko, edo orokorrean. Egintzaren bat burutzen bada adostasun hori aurreraturik emateko, egintza hori ezeztakorra izanen da, ezkontzako itunetan eman denean izan ezik.

Ezkontideek ahalordeak eman ditzakete, batak bestearen mesederako edo bi-biek elkarren mesederako, eurek egoki deritzeten ahalmenekin, egintza

rios actos, o en términos generales. Estos poderes serán siempre revocables.

Ley 61

Afianzamiento

Cualquiera de los cónyuges puede afianzar, obligarse de otro modo o dar garantía real, tanto en favor del otro como de terceras personas.

Estas garantías, prestadas en favor de terceros por uno solo de los cónyuges, afectarán exclusivamente a los bienes privativos de éste. Si se prestaren por los dos cónyuges, afectarán tanto a los bienes privativos como a los bienes comunes.

Ley 62

Aplicación supletorio del Código Civil

En los casos de ausencia, incapacidad, prodigalidad o separación legal de los cónyuges, serán aplicables las disposiciones del Código Civil.

Los miembros de una pareja estable se consideran equiparados a la situación de los cónyuges unidos por matrimonio en cuanto al ejercicio de las acciones relacionadas con la incapacidad, la declaración de ausencia y la declaración de prodigalidad*.

* Este párrafo ha sido añadido por la Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables, contra la que se ha interpuesto recurso de inconstitucionalidad.

jakin bat edo batzuk gauzatzeko, edo orokorrean. Ahalorde horiek ezeztakorak izanen dira beti.

61. legea

Fidantza ematea

Ezkontideetatik edozeinek fidantza eman, bestelako betebeharra bere gain har edo berme erreala eman dezake, beste ezkontidearen edo hirugarrenen mesederako.

Ezkontide batek bakarrik berme horiek ematen baditu hirugarrenen mesederako, bermeok ezkontide horren ondasun pribatiboetan bakarrik izanen dute eragina. Bi ezkontideek ematen dituztenean bermeak, bermeok ondasun pribatiboetan eta ondasun erkideetan izanen dute eragina.

62. legea

Kode Zibila osagarri moduan aplikatzea

Ezkontideen absentzia, ezgaitasun, zarrastelkeria edo legezko banantzearen kasuetan, Kode Zibilaren xedapenak aplikatuko dira.

Bikote egonkorreko kideak eta ezkondu-tako bikoteetako kideak egoera berean egonen dira gai hauekin lotutako akzioez baliatzeari dagokionez: ezgaitzea, absenti deklarazioa eta zarrasteltasun deklarazioa*.

* Uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeak, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzkoak, lerrokada hori gaineratu du; dena den, konstituzioarrikatotasun-errekurtsoa jarri da lege horren aurka.

TÍTULO V
DE LA PATRIA POTESTAD
Y DE LA FILIACIÓN

Ley 63

Titularidad y contenido

La patria potestad sobre los hijos menores no emancipados y sobre los incapacitados corresponde conjuntamente al padre y a la madre, y comprende los siguientes deberes y facultades:

1. Velar por ellos, tenerlos en su compañía, alimentarlos, educarlos, corregirlos razonable y moderadamente y procurar su debida formación.

2. Representarlos en cuantos actos les conciernan y no puedan legalmente realizar por sí mismos, salvo que guarden relación con bienes cuya administración no corresponda a los padres y sin perjuicio de lo dispuesto en la ley 64.

3. Administrar y disponer de sus bienes en las condiciones que establece la ley 65, y usufructuarlos dando a los frutos percibidos las aplicaciones que demanden el interés de los hijos a quienes pertenezcan los bienes y el de la familia a cuyo sostenimiento han de contribuir en la proporción adecuada.

Corresponde también a los padres la defensa de los intereses y expectativas de los hijos concebidos y no nacidos, e incluso de los no concebidos.

Los hijos, por su parte, deben obedecer a los padres en tanto permanez-

V. TITULUA
GURASO-AHALA
ETA SEME-ALABATASUNA

63. legea

Titulartasuna eta edukia

Guraso-ahala aitari eta amari batera dagokie, nola seme-alaba adingabeko emantzipatugabeen gain, hala seme-alaba ezgaituen gain, eta ahal horrek bere barruan hartzen ditu ondoko eginbehar eta ahalmenak:

1. Seme-alabak jagotea, eurokin izatea, mantenua ematea, seme-alabok heztea, zentzuz eta neurriz zuzentzea, eta heziketa egokia ematea.

2. Seme-alabei dagozkien egintzetan, eurak ordezkatzeta, euren kabuz ezin dituztenean legearen aginduz halako egintzak gauzatu, salbu eta egintzok gurasoen administrazioetik kanpo dauden ondasunei buruzkoak direnean, betiere, 64. legeak xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Seme-alaben ondasunak administratu eta xedatzea, 65. legeak ezarritako baldintzetan, eta horien gaineko gozamina izatea, jasotako fruituak ondasunen jabe diren seme-alaben eta familieren interesaren arabera erabiliz, familia mantentzen lagundu behar baitute portzio egokian.

Era berean, gurasoei dagokie ernalduta baina jaio gabe dauden seme-alaben interes eta igurikimenak defendatzea, bai eta ernaldu gabe daudenenak ere.

Seme-alabek, bestalde, gurasoen esanakin egin behar dituzte, horien ahalpean

can bajo su potestad, respetarlos siempre y contribuir al sostenimiento de la familia mientras convivan con ella.

Ejercicio

Las funciones inherentes a la patria potestad se ejercerán por el padre y la madre según lo convenido y, en defecto de pacto, por ambos conjuntamente. Serán, sin embargo, válidos los actos que cualquiera de ellos realice por sí solo para atender a las necesidades ordinarias de los hijos, según las circunstancias familiares y el uso del lugar, o en situaciones que exijan una urgente solución.

En los casos de declaración de ausencia o de incapacitación de uno de los padres, la patria potestad será ejercida por el otro; en el de imposibilidad de uno de los padres, podrá el otro recabar del Juez la atribución exclusiva del ejercicio de la patria potestad.

Si hubiera desacuerdo, los Parientes Mayores, a solicitud conjunta de ambos padres, y el Juez, a petición de cualquiera de éstos, resolverán su discrepancia, después de oír a los interesados e intentar la conciliación, atribuyendo sin ulterior recurso la facultad de decidir, en el caso concreto sometido a su conocimiento, al padre o a la madre. Cuando las circunstancias lo aconsejen podrá también el Juez, por un plazo que no exceda de dos años, distribuir entre ellos las funciones de la patria potestad o atribuir éstas a uno de los dos.

dauden bitartean; haiek errespetatu behar dituzte beti, eta familia mantentzen lagundu behar dute horrekin bizi diren bitartean.

Egikaritza

Aitak eta amak bete behar dituzte, hitzartutakoaren arabera, guraso-ahalari datzekion eginkizunak, eta, itunik izan ezean, bi-biek batera. Baliozkoak izanen dira, hala ere, horietatik edozeinek bere kabuz gauzaturiko egintzak, horiek egin badira seme-alaben ohiko beharizanak asetzeko, familiaren inguruabarren eta tokiko usadioaren arabera, edo presako konponbidea behar duten egoeretan.

Guraso baten absentzia- edo ezgaitaketa-adierazpena ematen denean, besteak egikarituko du guraso-ahala; guraso baten ezintasun kasuan, besteak epaileari eska diezaioke guraso-ahalaren egikaritza eskusiboa berari eratzikitze.

Desadostasuna izanez gero, Ahaide Nagusiek, bi gurasoek batera hala eskatuta, eta epaileak, gurasoetatik edozeinek hala eskatuta, desadostasun hori konponduko dute, interesdunei entzun eta berradiskidetze ahaleginak egin eta gero; beren erabakimenaren menpe jarritako kasu zehatzean, aitari edo amari eratzikiko diote erabakitze ahalmena, ondoren errekurtoa jartzeko aukerarik izan gabe. Inguruabarren arabera komenigarri denean, epaileak haien artean banatu ahal izanen ditu guraso-ahalaren eginkizunak edo bietatik bati eratziki bi urtetik gorakoa ez den eperako.

Ley 64*Defensor judicial*

Cuando hubiere intereses contrapuestos entre los padres y los hijos bajo su potestad, se requerirá la intervención de defensor judicial. Si la contraposición de intereses existiera sólo con uno de los progenitores, corresponde al otro la representación del hijo, sin necesidad de nombramiento judicial.

El Juez nombrará defensor, con las facultades que señale, a alguna de las personas a quienes en su caso podría corresponder el ejercicio de la tutela.

No será necesaria la intervención de defensor judicial, aunque haya intereses contrapuestos, cuando se trate de otorgamiento de capitulaciones matrimoniales, o de nombramientos de heredero y donaciones con pactos de convivencia entre donantes y donatarios.

Ley 65*Administración*

Los padres administrarán todos los bienes de los hijos sometidos a su potestad, con excepción de los siguientes:

1. Los bienes objeto de liberalidad, cuando quien la otorgue excluya la administración de los padres. Podrá también el otorgante excluir el usufructo de los padres y establecer el régimen que estime conveniente para la administración y disposición de aquellos bienes, incluso excluir la necesidad de autorización judicial y de intervención de defensor judicial.

64. legea*Defendatzaile judiciala*

Gurasoen eta euren ahalpeko seme-alaben interesak elkarren aurkakoak direnean, beharrezkoa izanen da defendatzaile judizialaren esku-hartzea. Interesen arteko aurkakotasuna guraso bati begira bakarrik gertatzen bada, besteari dagokio seme edo alabaren ordezkartza, izendapen judizialaren beharrik izan gabe.

Epaileak defendatzailea izendatuko du, berak zehazturiko ahalmenekin, tutoretzaren egikaritza izan dezaketen pertsonen artean, halakoak badira.

Defendatzaile judizialaren esku-hartzea ez da beharrezkoa izanen, interesak elkarren aurkakoak izan arren, ezkontzako itunak edo jaraunse-izendapenak egiten direnean, ezta dohaintza-emaileen eta dohaintza-hartzaileen arteko elkarbizitza-itunarekin dohaintzak egiten direnean ere.

65. legea*Administrazioa*

Gurasoek euren ahalpeko seme-alaben ondasunak administratuko dituzte, ondokoak izan ezik:

1. Eskuzabaltasunaren objektu diren ondasunak, horren emaileak gurasoen administrazioa baztertu badu. Era berean, egileak gurasoen gozamina bazter dezake, eta bere ustez halako ondasunak administratu eta xedatzeko egoki den araubidea ezar dezake, bai eta epailearen baimenaren eta defendatzaile judizialaren esku-hartzearen beharrik baztertu ere.

2. Los adquiridos mortis causa cuando el padre, la madre o ambos no pudieron adquirirlos por incapacidad a causa de indignidad. Estos bienes serán administrados por el otro progenitor y, en su defecto, por un administrador judicialmente designado.

Cuando la administración de los padres ponga en peligro el patrimonio del hijo, el Juez, a petición de parte interesada o del Ministerio Fiscal, podrá exigir a aquéllos garantía adecuada, o tomar otras medidas para la seguridad de los bienes, e incluso privar a los padres de la administración y nombrar un administrador.

Al término de la administración, los hijos, el administrador judicial o el Ministerio Fiscal podrán pedir a los padres rendición de cuentas de aquélla y exigir el resarcimiento de los daños e indemnización de los perjuicios que en su caso proceda. La acción correspondiente prescribirá a los tres años.

Disposición

Los padres no podrán renunciar a los derechos de que los hijos sean titulares, ni enajenar o gravar bienes inmuebles, establecimientos industriales o mercantiles, o sus elementos esenciales, u objetos de valor extraordinario, sin la previa autorización judicial, oído el Ministerio Fiscal. No será necesaria esta autorización para la cancelación de hipoteca u otra garantía real consecuente al cobro del crédito asegurado, para la retroventa por ejercicio de un derecho de retracto legal o voluntario,

2. Mortis causa eskuratutako ondasunak, baldin eta aitak, amak edo bi-biek ezin badituzte horiek eskuratu, ezduintasunaren ondoriozko ezgaitasunarengatik. Ondasun horiek beste gurasoak administratuko ditu eta, horrelakorik izan ezean, epaiekta bidez izendaturiko administratzaileak.

Gurasoen administrazioak arriskuan jartzen badu seme edo alabaren ondarea, epaileak galda diezaieke, alderdi interesdunak edo Fiskaltzak hala eskatuta, gurasoek berme egokia eman dezaten, edo ondasunen segurtasunerako beste neurri batzuk ere har ditzake; halaber, gurasoei administrazioa kendu ahal die eta administratzailea izendatu.

Administrazioa bukatzean, seme-alabek, epai administratzaileak edo Fiskaltzak gurasoei eska diezaiekete administrazio horren kontuak emateko, eta, bidezkoa denean, kalte eta galeren ordaina emateko. Horretarako akzioa hiru urte igarotakoan preskribatzen da.

Xedapena

Gurasoek ezin diezaiekete ukorik egin seme-alaben titulartasunpeko eskubideei, eta, era berean, ezin dituzte besterendu edo kargatu ondasun higiezinak, industria nahiz merkataritzako establezimenduak, horien oinarritzako osagaiak eta aparteko baliiodun objektuak, non eta alde zuzenetik epaileak, Fiskaltzari entzun eta gero, horretarako baimenik eman ez duen. Baimen hori ez da beharrezkoa izanen, kreditu bermatua kobratu ondoren, hipoteka edo beste berme erreal bat ezerezteko, le-

ni para cualesquiera actos de disposición que hayan de cumplirse obligatoriamente.

Los padres podrán aceptar por sí mismos cualesquiera disposiciones a título lucrativo a favor de los hijos, sin necesidad de autorización judicial; ésta será necesaria, sin embargo, para la repudiación de aquéllas.

Si el menor hubiera cumplido dieciséis años y consintiere en documento público, no será precisa la autorización judicial a que se refieren los dos párrafos anteriores.

Ley 66

Extinción de la patria potestad

La potestad sobre los hijos se extingue:

1. Por la muerte o la declaración de fallecimiento del hijo o de ambos padres.
2. Por la emancipación.
3. Por la adopción del hijo.

Renacimiento

Renacerá automáticamente la patria potestad sobre el hijo declarado fallecido si éste reaparece antes de su mayoría de edad. También la recuperará el progenitor declarado fallecido cuando reaparezca durante la menor edad del hijo.

gezko nahiz borondatezko atzera-eskuratzeako eskubidea egikaritzeko, ezta nahitaez bete behar diren xedatze-eginzak gauzatzeko ere.

Gurasoek euren kabuz onar ditzakete seme-alaben mesederako dohainik egindako xedapen guztiak, epailearen baimenaren beharrik gabe; hori beharrezkoa izanen da, alabaina, halakoak arbuizatzeko.

Adingabeak hamasei urte bete badi-tu, eta agiri publikoan bere adostasuna eman badu, ez da beharrezkoa izanen aurreko bi lerroketan aipaturiko epailearen baimena.

66. legea

Guraso-ahala azkentzea

Seme-alaben gaineko ahala azkentzen da:

1. Semearen, alabaren edo bi gurasoen heriotzaren ondorioz edo horien heriotza-adierazpenaren ondorioz.
2. Seme edo alabaren emantzipazioaren ondorioz.
3. Seme edo alabaren gaineko adopzioaren ondorioz.

Berpiztea

Seme edo alabaren heriotza-adierazpena egin eta hori adin nagusitasunera heldu baino lehen berragertzen bada, guraso-ahala besterik gabe berpiztuko da. Gurasoaren heriotza-adierazpena egin bada, eta, semea edo alaba oraindik adingabea dela, guraso hori berragertzen bada, guraso horrek ahala berreskuratuko du.

Capacidad del menor emancipado

El menor emancipado puede realizar por sí toda clase de actos y contratos, incluso comparecer en juicio, excepto tomar dinero a préstamo, enajenar o gravar bienes inmuebles, establecimientos mercantiles o industriales, o sus elementos esenciales, u objetos de valor extraordinario; para estos actos, al igual que para la comparecencia en juicio que verse sobre los mismos o tenga por objeto bienes de las clases indicadas, requerirá la asistencia de uno cualquiera de sus padres o, en su caso, de los Parientes Mayores o del curador.

El mayor de dieciséis años que con el consentimiento de sus padres viva independiente de ellos se considerará para todos los efectos como emancipado. Los padres podrán con justa causa revocar este consentimiento.

Privación de la patria potestad

El padre o la madre podrán ser privados total o parcialmente de su potestad por sentencia firme. Los Tribunales podrán, en beneficio e interés del hijo, acordar la recuperación de la patria potestad cuando hubiese cesado la causa que motivo la privación.

Ley 67*Patria potestad prorrogada*

La patria potestad sobre los hijos menores que hubiesen sido incapacitados quedará prorrogada por ministerio de la ley al llegar aquéllos a su mayoría de edad.

Adingabe emantzipatuaren gaitasuna

Adingabe emantzipatuak bere kabuz gauza ditzake orotariko egintza edo kontratuak, bai eta epaiketan agertu ere, baina ezin du dirua maileguan hartu, ezta ondasun higiezinak, merkataritza nahiz industriako establezimenduak, horien oinarrizko osagaiak eta aparteko baliodun objektuak besterendu edo kargatu ere; egintza horiek gauzatzeko, eta ondasun horiei buruzko epaiketan edo mota horietako ondasunen gaineko epaiketan agertzeko, gurasoetatik edozeinen laguntza beharko du edo, hala behar denean, Ahaide Nagusia nahiz kuradorearena.

Hamasei urtekoa baino nagusiagoa beregain bizi bada gurasoen adostasunarekin, emantzipatutzat hartuko da ondore guztietarako. Gurasoek adostasun hori ezezta dezakete, horretarako arrazoi zuzenik izanez gero.

Guraso-ahala kentzea

Aitari edo amari guraso-ahala osorik zein zati batez kendu ahal zaio epai irmoaren bidez. Auzitegiek, seme edo alabaren onura eta intereserako, guraso-ahalaren berreskuraketa erabaki dezakete, baldin eta kentzea eragin duen arrazoia amaitu bada.

67. legea*Guraso-ahal luzatua*

Seme-alaba adingabeak ezgaituak izan badira, horien gaineko guraso-ahala luzaturik geratuko da lege-aginduz, haiek adin nagusitasunera heltzean.

Rehabilitación

La patria potestad se rehabilitará, también por ministerio de la ley, sobre los hijos solteros mayores de edad o emancipados, si fueren incapacitados en vida de alguno de sus padres. En la resolución de incapacitación se fijará el contenido y límite de la patria potestad.

Además de las causas enumeradas en la ley 66, la patria potestad prorrogada se extinguirá por haberse decretado la cesación de la incapacitación y por contraer matrimonio el incapacitado.

Ley 68*Clases de filiación*

La filiación puede tener lugar por naturaleza y por adopción; aquélla puede ser matrimonial y no matrimonial.

La filiación matrimonial y la no matrimonial surten los mismos efectos conforme a lo dispuesto en las leyes de esta Compilación.

Se consideran hijos matrimoniales:

1. Los nacidos después de los ciento ochenta días siguientes al de la celebración del matrimonio y antes de los trescientos días siguientes a su disolución o a la separación efectiva de los cónyuges.

2. Los nacidos dentro de los ciento ochenta días siguientes al de la celebración del matrimonio, si el marido no desconociera su paternidad mediante declaración formalizada en documento auténtico dentro de los seis meses siguientes al conocimiento del parto. No

Birgaikuntza

Guraso-ahala birgaituko da, lege-aginduz ere, seme-alaba ezkongabeen gainean, adin nagusiko nahiz emantzipatu izan, horiek guraso bat bizirik da-goela ezgaituak izan badira. Ezgaiteta-ebazpenean finkatuko da guraso-ahal horrek zein eduki eta muga dituen.

66. legeak aipaturiko arrazoiez gain, guraso-ahal luzatua azkenduko da ezgaitetaren amaiera dekretatzen denean, eta ezgaitua ezkontzen denean.

68. legea*Seme-alabatasun motak*

Seme-alabatasuna naturaren araberakoa eta adopzio bidezkoa izan daiteke; halaber, lehena ezkontzakoa eta ezkontzaz kanpokoa izan daiteke.

Ezkontzako seme-alabatasunak eta ezkontzaz kanpokoak ondore berberak sortzen dituzte, konpilazio honetako legeek xedatutakoarekin bat etorritz.

Ezkontzako seme edo alabatza hartzen dira:

1. Ezkontza egin denetik ehun eta lau rogei egun igaro ondoren, eta ezkontza hori desegin denetik edo ezkontideak benetan banandu direnetik hirurehun egun igaro baino lehen jaio direnak.

2. Ezkontza egin, eta hurrengo ehun eta lau rogei egunetan jaio direnak, senarrak ez badio aitatasunari ukorik egin agiri kautoan formalizaturiko adierazpenaren bidez, erditzearen berri izan zuenetik sei hilabeteko epean. Senarrak ezin dio aitatasunari uko eraginga-

podrá desconocer eficazmente su paternidad quien la hubiere reconocido con anterioridad, expresa o tácitamente.

3. Los nacidos después de los trescientos días siguientes a la disolución del matrimonio o separación efectiva de los cónyuges, si se prueba su gestación más prolongada, la reunión de los cónyuges separados o la conformidad de éstos en la inscripción del hijo como matrimonial.

Sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación del Registro Civil, la filiación no matrimonial se determina para cada uno de los progenitores por su reconocimiento o por sentencia firme.

El hijo nacido antes del matrimonio de sus progenitores se considerará matrimonial desde que lo contrajeren, siempre que su filiación respecto del padre y de la madre quede legalmente determinada.

No será eficaz la determinación de una filiación en tanto no sea invalidada otra contradictoria anteriormente establecida.

Ley 69

Reconocimiento

El reconocimiento deberá hacerse por declaración ante el encargado del Registro Civil o en testamento u otro documento público.

Los progenitores pueden otorgar el reconocimiento conjunta o separadamente. Si lo hicieren por separado, no

rririk egin, baldin eta alde z aurretik aitatasun hori esanbidez edo isilbidez aitortu badu.

3. Ezkontza desegin denetik edo ezkontideak benetan banandu direnetik hurrengo hirurehun egunetan jaio direnak, frogatzen baldin bada ernaldia ohikoa baino luzeagoa izan dela, banandutako ezkontideak berriro batu direla edota horiek ezkontzako seme edo alaba gisa inskribatzeko adostasuna eman dutela.

Erregistro Zibilari buruzko legerian xedaturikoari kalterik egin gabe, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna guraso bakoitzarentzat zehazten da, horrek egindako aitoparen bidez edo epai irmoaren bitartez.

Gurasoen ezkontzaren aurretik jaiotako semea edo alaba ezkontzako seme edo alabatatz hartuko da gurasoak ezkondu direnetik, horren seme-alabatasuna, aitari eta amari begira, lege zehaztu bada.

Seme-alabatasunaren zehaztapena ez da eragingarria izanen, alde z aurretik ezarrita dagoen eta horren aurkakoa den beste seme-alabatasun bat baliogabetzen ez den bitartean.

69. legea

Aitorpena

Seme-alabatasuna aitortu daiteke Erregistro Zibilaren arduradunari egindako adierazpenaren bidez edota testamentu nahiz beste agiriko publiko baten bidez.

Gurasoek seme-alabatasuna aitortu dezakete, biek batera edo bananduta. Bananduta eginez gero, horretan ezin

podrán manifestar en él la identidad del otro progenitor a no ser que ya estuviese determinada.

Sujetos

Puede reconocer toda persona púber; si es menor de edad o incapacitado, se requerirá aprobación judicial con audiencia del Ministerio Fiscal.

El reconocimiento de un hijo mayor de edad requerirá su consentimiento expreso o tácito; el de menor de edad o incapacitado no está sujeto a requisito alguno supletorio de su consentimiento, pero podrá ser impugnado por su representante legal o por él mismo al alcanzar o recuperar la plena capacidad, en la forma y términos que se establecen en la ley 70.

Ley 70

Acciones de filiación: Disposiciones generales

La paternidad y maternidad podrán ser reclamadas e impugnadas mediante toda clase de pruebas, con arreglo a las disposiciones de esta Compilación. El Juez no admitirá la demanda si con ella no se presenta un principio de prueba de los hechos en que se funde.

No podrá reclamarse una filiación contradictoria con la determinada legalmente sin que al propio tiempo se impugne ésta. Sin embargo, no será impugnable la filiación determinada por sentencia firme.

Durante el procedimiento, el Juez adoptará todas las medidas que estime

izanen dute adierazi beste gurasoa nor den, hori aldez aurretik zehaztuta da-goenean izan ezik.

Subjektuak

Aitorpena puber orok egin dezake; puberra adingabea bada edo ezgaiturik bada, beharrezkoa izanen da epailearen onspena, Fiskaltzak esan beharrezkoa entzunda.

Adin nagusikoaren seme-alabatasuna aitortzeko, beharrezkoa izanen da horren esanbidezko edo isilbidezko adostasuna; adingabe edo ezgaituaren seme-alabatasuna aitortzeko, horren adostasunaren orde ez da beste betekizun osagarririk gauzatu behar, baina haren legezko ordezkariak edo berak gaitasun osoa eskuratu edo berreskuratzean, aitorpena aurkara dezake, 70. legean ezarritako forman eta epeetan.

70. legea

Seme-alabatasunari buruzko akzioak: xedapen orokorrak

Aitatasuna eta amatasuna erreklamatu edo aurkaratu ahal izanen dira orotariko frogabideak erabiliz eta konpilazio honetako xedapenen arabera. Epaileak ez du demanda onartuko, horrekin batera ez bada aurkezten berorren oinarri diren egitateei buruzko froga-abiaburua.

Ezin da erreklamatu legez zehazturiko seme-alabatasunaren aurkako seme-alabatasunik, aldi berean hura aurkaratzen ez bada. Hala ere, ezin aurkara daiteke epai irmoaren bidez zehazturiko seme-alabatasuna.

Prozedura bitartean, epaileak bere ustez egoki diren neurriak hartuko

oportunas para la protección de la persona y bienes del menor o incapacitado cuya filiación sea objeto de demanda.

Las acciones que correspondan al menor de edad o incapacitado podrán ser ejercitadas indistintamente por su representante legal o por el Ministerio Fiscal.

A la muerte del demandante, sus herederos podrán continuar el ejercicio de las acciones ya entabladas.

Impugnación:

a) De la maternidad

La maternidad que conste en la inscripción de nacimiento será impugnada en vía civil probando la suposición de parto o la no identidad del supuesto hijo con el nacido. Si coincide con la posesión de estado, no podrá ser directamente impugnada más que por el hijo y por la mujer que no hubiere participado consciente y voluntariamente en los hechos de que deriva la falsa inscripción de su maternidad o de la filiación determinada por ella. Si falta la posesión de estado coincidente, podrán también impugnarla quienes tengan interés lícito y directo.

b) De la no matrimonial

La paternidad del marido de la madre podrá ser impugnada por éste hasta transcurrido un año desde la inscripción de la filiación en el Registro Ci-

ditu, demandaren gaia zein adingabe edo ezgaituren seme-alabatasuna izan, eta adingabe edo ezgaitu hori bera eta haren ondasunak babesteko.

Adingabe edo ezgaituari dagozkion akzioak horren legezko ordezkariak edo Fiskaltzak egikari ditzakete, batak zein besteak betiere.

Demandatzailea hildakoan, horren jaraunsleek ekin diezaiekete aurretiaz jarritako akzioei.

Aurkarapena:

a) Amatasuna

Jaiotzari buruzko inskripzioan agertzen den amatasuna auzibide zibilean aurkara daiteke, frogatzen baldin bada erditzea sinestarazi dela edo ustezko seme edo alaba eta benetan jaio dena pertsona berberak ez direla. Amatasunak bat egiten badu egoera-edukitzarekin, amatasun hori seme edo alabak eta emakumeak bakarrik aurkaratu ahal izanen dute zuzenean; horretarako, emakumeak ez du modu kontzientean eta borondatez parterik hartu behar izan, amatasunari edo horrek zehazturiko seme-alabatasunari buruzko inskripzioa faltsua izanik, faltsutasun hori eragin duten egitateetan. Amatasunarekin bat egiten duen egoera-edukitzarik ez badago, amatasun hori aurkaratu ahal izanen dute interes zilegi eta zuzeneko dutenek ere.

b) Ezkontzaz kanpokoa

Amaren senarraren aitatasuna aurkaratu ahal izanen du senar horrek, seme-alabatasuna Erregistro Zibilean inskribatu eta hurrengo urtebetean; baina,

vil; pero este plazo no correrá mientras ignore el nacimiento. Si el marido fallciera ignorándolo o sin que se haya practicado dicha inscripción, sus herederos podrán promover la impugnación en el mismo término. La paternidad será también impugnable por el hijo durante el año siguiente a haber alcanzado o recuperado la plena capacidad o a la inscripción de su nacimiento, si fuera posterior.

c) Del reconocimiento

El reconocimiento realizado con vicio del consentimiento podrá ser impugnado por su otorgante dentro del año siguiente a su cesación; el del menor edad o incapacitado podrá serlo, mediante justa causa, por su representante legal y discrecionalmente por el reconocido, al alcanzar la mayoría de edad o recuperar la capacidad, en el plazo de cuatro años, a contar desde que pueda ser ejercitada en cada caso. El reconocimiento de filiación no matrimonial será asimismo impugnable por aquellos a quienes perjudique dentro de los cuatro años siguientes a su inscripción.

Ley 71

Acción de declaración:

a) De la filiación matrimonial

El padre, la madre y el hijo pueden reclamar la filiación matrimonial de éste en cualquier tiempo. Si hubiese posesión de estado, pueden ejercitar la

epe horren zenbaketa ez da hasiko senarrak jaiotzaren berri izan arte. Amaren senarra hiltzen bada, jaiotzaren berririk izan gabe edo horri buruzko inskripziarik egin gabe, haren jaraunsleek epe berean aurkara dezakete aitatasuna. Seme edo alabak berak ere aitatasuna aurkara dezake urtebeteko epean, gaitasun osoa eskuratu edo berreskuratzen duenetik edo, bestela, beraren jaiotza inskribatzen denetik, hori geroagokoa izanez gero.

c) Aitorpena

Seme-alabatasuna aitortzean, adostasunaren inguruko akatsa izan bada, aitorleak hori aurkaratu ahal izanen du, akatsa desagertzen denetik urtebeteko epean; adingabe edo ezgaituak egindako aitorpena aurkaratu ahal izanen du, horretarako arrazoi zuzena izanik, adingabe edo ezgaitu horren legezko ordezkariak, eta aitortuak berak aukeran izanen du adin nagusitasunera heltzean edo gaitasuna berreskuratzean; horretarako, lau urteko epea izanen da, kasuan-kasuan akzioa egikari daitekeenetik zenbatuta. Era berean, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasunari buruzko aitorpena aurkara dezakete horrekin kaltetu gertatu direnek, aitorpen hori inskribatzen denetik hurrengo lau urteetan.

71. legea

Seme-alabatasuna aitortzeko akzioa:

a) Ezkontzako seme-alabatasuna

Aitak, amak eta semeak edo alabak edonoiz erreklama dezakete ezkontzako seme-alabatasuna, semearena edo alabarena. Egoera-educitza izanez gero,

acción los terceros con interés lícito y directo.

b) De la no matrimonial

Los hijos no matrimoniales podrán ejercitar la acción conducente a la declaración de paternidad o maternidad en los casos siguientes:

1. Cuando la madre y el padre presuntos hubiesen convivido notoriamente durante el tiempo de la concepción.
2. Cuando haya posesión de estado de hijo respecto del demandado.
3. Cuando exista declaración del presunto progenitor.
4. Cuando haya pruebas biológicas de la relación paterno-filial.
5. Cuando respecto a la maternidad, haya pruebas del parto.

También podrá ser ejercitada la acción por los descendientes del hijo no matrimonial que hubiese fallecido durante su menor edad o en estado de incapacitación.

Legitimación

La acción para la declaración judicial de paternidad o maternidad, si el padre o la madre hubieren fallecido, podrá dirigirse contra sus herederos.

Ley 72

Contenido y efectos de la paternidad

La paternidad y la maternidad, debidamente determinadas, atribuyen a los progenitores la patria potestad, conforme a las leyes 63 a 67; al hijo,

akzioa egikari dezakete interes zilegi eta zuzeneko duen hirugarrenek ere.

b) Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna

Ezkontzaz kanpoko seme-alabek akzioak egikari ditzakete, aitatasun edo amatasunari buruzko adierazpena lortzeko, ondoko kasuetan:

1. Ustezko ama eta aita elkarrekin ageri-agerian bizi izan direnean, enalkuntza garaian.
2. Semeak edo alabak egoera-erakuntza duenean, demandatuari begira.
3. Ustezko gurasoak adierazpena egin duenean.
4. Guraso eta seme-alaben arteko harremani buruz, froga biologikoak daudenean.
5. Amatasunari dagokionez, erditzeari buruzko frogak daudenean.

Akzioa egikari dezakete ezkontzaz kanpoko seme edo alabaren ondorengoek ere, seme edo alaba hori hil bada, adingabea edo ezgaitua izanik.

Legitimazioa

Aita edo ama hilda badago, haren jaraunsleen aurka egikaritu ahal izanen da epaketan aitatasuna edo amatasuna deklaratzeko akzioa.

72. legea

Gurasotasunaren edukia eta ondoreak

Aitatasun edo amatasunak, behar bezala zehaztuz gero, guraso-ahala eratxikitzen die gurasoei, 63. legetik 67.era-koekin bat etorri; seme edo alabari,

los apellidos, conforme a la legislación del Registro Civil, y a unos y otro, los derechos y deberes reconocidos en esta Compilación.

Cuando la paternidad o la maternidad haya sido determinada judicialmente contra la oposición del progenitor o en sentencia penal condenatoria de éste, no le corresponderá la patria potestad u otra función tuitiva sobre el hijo; ni derechos por ministerio de la ley sobre su patrimonio o en su sucesión mortis causa. Y sólo por voluntad del hijo o de su representante legal se le atribuirán los apellidos de su progenitor.

El padre y la madre, aun cuando no sean titulares de la patria potestad o no les corresponda su ejercicio, están obligados a velar por sus hijos menores o incapacitados y prestarles alimentos.

El progenitor que, por decisión judicial, no tenga en compañía al hijo menor o incapacitado podrá comunicarse con éste en las condiciones que apruebe o, en su caso, determine el Juez.

abizenak, Erregistro Zibilari buruzko legeriarekin bat etorritz; eta horiei guztiei, konpilazio honetan aitortutako eskubide eta eginbeharrak.

Aitatasuna edo amatasuna epaiketa bidez gurasoaren borondatearen aurka zehaztu bada, edota guraso hori kondanatzan duen epai penalaren bidez, orduan, guraso horrek ez du izanen guraso-ahalik, seme edo alabaren gaineko beste babes-eginkizunik, ezta lege-agingiduzko eskubiderik ere, haren ondarearen gain edota horren mortis causa oinordetzaren gain. Eta seme edo alabari gurasoaren abizenak jarriko zaizkio, seme edo alabaren beraren edo horren legezko ordezkariaren borondatez bakarrik.

Aitak eta amak, nahiz eta guraso-ahalaren titular izan ez edo horren egikaritzza eduki ez, euren seme-alaba adingabe edo ezgaituak jagoteko betebeharra dute, bai eta horiei mantenua ematekoa ere.

Gurasoa, epailearen erabakiz, seme-alaba adingabe edo ezgaituekin batera bizi ez bada ere, guraso horrek seme-alabekin harremanak izan ditza-ke, epaileak onartu edo, hala denean, erabakitako baldintzetan.

TÍTULO VI DE LA ADOPCIÓN Y DEL PROHIJAMIENTO

Ley 73 *Adopción*

Pueden adoptar todas las personas capaces conforme a las leyes genera-

VI. TITULUA ADOPZIOA ETA UMEORDETZEA

73. legea *Adopzioa*

Edonork, gaitasuna izanez gero, adopzioa egin dezake, lege orokorre-

les. Si la adopción se formaliza durante segundo o ulterior matrimonio, se aplicará a los hijos adoptivos lo dispuesto en esta Compilación respecto de los hijos de posteriores nupcias. Los que sean púberes conforme a la ley 50 deberán dar su consentimiento para ser adoptados.

Los efectos de la adopción serán los pactados en la escritura en que se formalice y los establecidos en las leyes. Los derechos hereditarios del adoptado y del adoptante y los pactos sucesorios entre ambos se regirán exclusivamente por la voluntad privada y, en su defecto, por lo establecido en esta Compilación.

Los hijos adoptados con adopción plena tendrán los mismos derechos que los hijos de anterior matrimonio en el caso de que el adoptante contrajera nuevas nupcias.

Prohijamiento

Las personas entregadas formalmente por establecimientos tutelares o benéficos y acogidas en prohijamiento, se equiparan a las adoptadas con adopción simple o menos plena, siempre que la relación se haya mantenido durante un plazo de diez años y que la persona que prohijó no tuviera al hacerlo hijos por naturaleza o adopción plena.

kin bat etorritz. Adopzioa formalizatu bada adopzio-hartzailearen bigarren edo geroagoko ezkontza bitartean, adopziopeko seme-alabei aplikatu behar zaie geroko ezkontzetan jaiotako seme-alabei buruz konpilazio honetan xedaturikoa. Norbait puberra baldin bada 50. legearekin bat etorritz, horrek adostasuna eman beharko du adoptatua izateko.

Adopzioaren ondoreak hori formalizatzeko eskrituran itundutakoak eta legeetan ezarritakoak izanen dira. Borondate pribatuak eta, halakorik izan ezean, konpilazio honetan ezarritakoak eraenduko ditu adoptatuaren eta adopzio-hartzailearen jarauntsi-eskubideak, eta bi-bion artean egindako oinordetza-itunak.

Seme-alabak adopzio osoaren bidez adoptatu badira, euren eskubideak eta aurreko ezkontzan izandako seme-alaben eskubideak berberak dira adopzio-hartzailea berriro ezkonduz gero.

Umeordetza

Babes- edo ongintza-establezimenduek forma egokian pertsona batzuk beste batzuen eskuetan jartzen badi-tuzte, eta lehen horiek umeordetzan hartu badira, orduan, eurak eta adopzio soil edo erdi osoaren bidez hartutakoak parekoak dira, baldin eta umeordetza-hartzailearen eta umeordearen arteko harremanek hamar urteko epean iraun badute eta, hori egitean, umeordetza-hartzaileak ez badu izan naturaren araberako edo adopzio osoaren bidezko seme edo alabarik.

Ley 74

Régimen supletorio

En todo lo no previsto en la ley anterior y en las demás de esta Compilación, se aplicará a la adopción y al prohijamiento lo establecido en el Código Civil o en las leyes especiales.

74. legea

Araubide osagarria

Aurreko legeak eta konpilazio honetako beste legeek xedatzen ez dituzten kontuetan, Kode Zibilak edo lege bereziek ezarritakoa aplikatuko zaie adopzioari eta umeordetzari.

**TÍTULO VII
DE LOS PRINCIPIOS
FUNDAMENTALES DEL
RÉGIMEN DE BIENES
EN LA FAMILIA**

Ley 75

*Unidad y continuidad
de la Casa*

En la interpretación de todos los pactos y disposiciones voluntarias, costumbres y leyes se observará el principio fundamental de la unidad de la Casa y de sus explotaciones agrícolas, ganaderas y forestales, así como el de su continuidad y conservación en la familia.

Ley 76

Actos jurídicos entre cónyuges

Los cónyuges podrán celebrar entre sí toda clase de estipulaciones, contratos y donaciones.

Revocación

Las donaciones otorgadas entre cónyuges o prometidos podrán ser revocadas por el cónyuge no culpable

**VII. TITULUA
FAMILIAREN
ONDASUN-ERAENTZARI
BURUZKO OINARRIZKO
PRINTZIOIAK**

75. legea

*Etxearen batasuna
eta irauarazpena*

Itunak edo borondatzeko xedapenak, ohiturak eta legeak interpretatzeko, bete beharko da etxearen eta horren nekazaritza, abeltzaintza edo basoko ustategien batasunari buruzko printzipioa, bai eta halakoak familiaren barruan irauarazi eta artatzeari buruzkoa ere.

76. legea

Ezkontideen arteko egintza juridikoak

Ezkontideek euren artean egin ditzakete orotariko hizpaketa, kontratu eta dohaintzak.

Ezeztatpena

Ezkontideen edo ezkongaien artean egindako dohaintzak ezeztatu ahal izanen ditu ezkontide errugabeak, baldin

cuando el donatario incurra en causa de desheredación del artículo 855 del Código Civil o cuando le sea imputable alguna de las causas de separación o divorcio.

Ley 77

Derechos de los hijos de anterior matrimonio

Los derechos que esta Compilación reconoce a los hijos o descendientes de anterior matrimonio quedarán a salvo de toda estipulación, disposición o renuncia hechas por los cónyuges de segundas o posteriores nupcias, entre sí o con terceros.

eta dohaintza-hartzailea Kode Zibilaren 855. artikuluko jaraunsgabetze-arrazoietan sartu bada edo ezkontide horri banantze- edo dibortzio-arrazoietatik edozein egotzi ahal bazaio.

77. legea

Aurreko ezkontzako seme-alaben eskubideak

Bigarrenez edo gehiagogarrenez ezkontutakoek hizpaketa, xedapen edo ukoak egiten badituzte euren artean edo hirugarrenekin, halakoek ez diete kalterik eginen aurreko ezkontzan izandako seme-alaba edo ondorengozentzat konpilazio honek aitortzen di-tuen eskubideei.

TÍTULO VIII

DE LAS CAPITULACIONES MATRIMONIALES

Ley 78

Tiempo

Las capitulaciones o contratos matrimoniales pueden otorgarse antes o después de celebradas las nupcias. Si se otorgan durante el matrimonio, podrá darse a sus pactos efecto retroactivo a la fecha de celebración de éste, sin perjuicio de los derechos adquiridos por terceros.

Ineficacia

Las capitulaciones quedarán ineficaces si el matrimonio no llegara a ce-

VIII. TITULUA

EZKONTZAKO ITUNAK

78. legea

Denbora

Ezkontzako itun edo kontratuak egin daitezke, ezkondu aurretik edo geroago. Ezkontza bitartean egiten bada, itunoi atzeraeraginezko ondoreak eratziki dakizkieke ezkontzaren datatik aurrera, hirugarrenek eskuraturiko eskubideei kalterik egin gabe.

Eragingabetasuna

Itunak eraginik gabe geratuko dira, ezkontzarik ez bada egiten. Ezkontza-

lebrarse. La nulidad del matrimonio produce la ineficacia de aquéllas desde que la sentencia que la declara sea firme.

Capacidad

Los cónyuges o los prometidos con capacidad para contraer matrimonio pueden otorgar capitulaciones. Para las disposiciones que impliquen transmisión actual de bienes de un cónyuge o prometido menor de edad en favor del otro se estará a lo dispuesto en la ley 66.

Ley 79

Forma

Son nulas las capitulaciones matrimoniales que no se otorguen en escritura pública. Siempre que contengan donaciones de terceros a favor de alguno de los cónyuges, o de éstos entre sí, los bienes objeto de la donación deberán ser descritos en la misma escritura o por rolde o inventario incorporado.

Ley 80

Contenido

Las capitulaciones matrimoniales podrán establecer libremente cualquier régimen de bienes de la familia y ordenar:

1. Las donaciones propter nuptias.
2. Los señalamientos y entregas de dotes y dotaciones.
3. Las renunciaciones de derechos.

ren deuseztasunak haien eragingabetasuna dakar deuseztasuna adierazten duen epaia irmo denetik.

Gaitasuna

Ezkontideek edo ezkontzeko gaitasuna duten ezkongaiak ezkontzako itunak egin ditzakete. Ezkontide batek edo ezkongai adingabe batek bestearen mesederako xedapenak egiten baditu, eta xedapen horiek ondasunak uanean bertan eskualdatzea badakarte, 66. legean xedaturikoa bete beharko da.

79. legea

Forma

Ezkontzako itunak deusezak dira eskritura publikoan egin ez badira. Ezkontzako itunetan jasotzen badira hirugarrenek ezkontide baten mesederako edo ezkontideek euren artean egindako dohaintzak, horien objektu diren ondasunak deskribatu behar dira, eskrituran bertan edo, bestela, horri erantsitako errolda nahiz inbentarioan.

80. legea

Edukia

Ezkontzako itunetan askatasunez ezar daiteke familiako ondasunen gaineko eraentzetatik edozein, bai eta hurrengoak ordenatu ere:

1. Propter nuptias dohaintzak.
2. Ezkonsari eta zuzkiduren seinalamendu edo emateak.
3. Eskubideei egindako ukoak.

4. Las donaciones esponsalicias, las arras y las donaciones entre cónyuges.

5. Los pactos sucesorios.

6. Las disposiciones sobre el usufructo de fidelidad.

7. Cualesquiera otras disposiciones por razón de matrimonio.

Ley 81

Modificación

Las capitulaciones matrimoniales podrán ser modificadas en cualquier tiempo, siempre que se observe la forma establecida en la ley 79 y presten su consentimiento los cónyuges o prometidos y los demás otorgantes que vivan al tiempo de la modificación, en cuanto afecte a los bienes y derechos concedidos por estos últimos o recibidos por ellos.

Fallecido o incapacitado uno de los cónyuges, las capitulaciones no podrán ser modificadas. Incapacitado alguno de los que ordenaron la institución, donación, dote o dotaciones, se suplirá o complementará su consentimiento con arreglo al ordenamiento jurídico.

Se exceptúan de lo prevenido en esta ley las estipulaciones que por pacto expreso o por su naturaleza sean revocables.

Los pactos sucesorios recíprocos entre cónyuges podrán ser modificados o revocados por éstos sin necesidad del acuerdo de los demás otorgantes de los capítulos.

4. Ezkon-hitzezko dohaintzak, erresak eta ezkontideen arteko dohaintzak.

5. Oinordetza-itunak.

6. Fideitasun-gozamenari buruzko xedapenak.

7. Ezkontzaren ondoriozko beste edozein xedapen.

81. legea

Aldarazpena

Ezkontzako itunak edonoiz aldaraz daitezke, baldin eta 79. legeak ezarritako forma betetzen bada, eta ezkontideek edo ezkongaiak eta aldarazpena egiteko unean bizirik dauden beste egileek horretarako adostasuna ematen badute, aldarazpenak azken horiek eman edo jasotako ondasun edo esku-bideetan eragina duen neurrian.

Ezkontide bat hil edo ezgaitu bada, ezkontzako itunak ezin izanen dira aldarazi. Jaraunsle-izendapen, dohaintza, ezkonsari edo zuzkiduren egilea ezgaitua izanez gero, horren adostasuna antolamendu juridikoaren arabera ordeztu edo osatuko da.

Lege honetan ezarritakoari begira, salbuespen gisa har daitezke esanbidezko itunaren ondorioz edo berez ezeztakorrak diren hizpaketak.

Ezkontideek oinordetza-itunak egingen badizkiote elkarri, ezkontideek euren aldaraz edo ezezta ditzakete itun horiek, eta ez da beharrezkoa itunon gainerako egileen adostasuna.

TÍTULO IX
DEL RÉGIMEN DE BIENES
EN EL MATRIMONIO

CAPÍTULO I
De la sociedad conyugal
de conquistas

Ley 82

Régimen legal supletorio

En defecto de otro régimen establecido en capitulaciones matrimoniales, se observará el de conquistas, que se regirá por las disposiciones de esta Compilación en lo que no hubiere sido especialmente pactado.

Bienes de conquista

En el régimen de conquistas se hacen comunes de los cónyuges:

1. Los bienes incluidos en las conquistas en virtud de pactos o disposiciones.

2. Los bienes adquiridos a título oneroso con cargo a bienes de conquista durante el matrimonio por cualquiera de los cónyuges.

3. Los bienes adquiridos a título oneroso con cargo a bienes privativos y que los cónyuges convengan sean bienes de conquista, cualesquiera que fueran el precio o contraprestación y la naturaleza del derecho en cuya virtud fueran adquiridos.

4. Los bienes ganados durante el matrimonio por el trabajo u otra actividad de cualquiera de los cónyuges.

IX. TITULUA
EZKONTZAKO
ONDASUN-ERAENTZA

I. KAPITULUA
Konkisten gaineko
ezkontza-sozietatea

82. legea

Lege-eraentza osagarria

Ezkontzako itunetan bestelako ondasun-eraentzarik ezarri ezean, konkistena beteko da, eta konpilazio honetako xedapenek eraenduko dituzte bereziki itundu ez diren kontuak.

Konkista-ondasunak

Konkista-eraentzan, bi ezkontideenak dira:

1. Itun edo xedapen bidez, konkistetara bildutako ondasunak.

2. Ezkontza bitartean, ezkontideetatik edozeinek kostu bidez eta konkista-ondasunen kontura eskuraturiko ondasunak.

3. Kostu bidez eta banakako ondasunen kontura eskuratutako ondasunak, baldin eta ezkontideen erabakiz horiek konkista-ondasun badira, ondasunon truk emandako prezio, kontraprestazio edo eskubidearen izaera edozein izanda ere.

4. Ezkontza bitartean, ezkontideek euren lanaren bidez edo bestelako jardueraren bidez irabazitako ondasunak.

5. Los frutos y rendimientos de los bienes comunes y de los privativos.

6. Los derechos de arrendatario por contratos celebrados durante el matrimonio.

7. Los bienes adquiridos por derecho de retracto convencional o legal, opción, acceso a la propiedad, suscripción preferente u otro cualquier derecho de adquisición que pertenezca a la sociedad de conquistas.

8. Las accesiones o incrementos de los bienes de conquista.

9. Cualesquiera otros bienes que no sean privativos conforme a la ley siguiente.

Presunción

Se presumen de conquista todos aquellos bienes cuya pertenencia privativa no conste.

Lo establecido en los números 3 y 7 se entenderá sin perjuicio de los reembolsos que procedan.

Ley 83

Bienes privativos

Son bienes privativos de cada cónyuge:

1. Los excluidos de las conquistas en virtud de pactos o disposiciones.

2. Los que a un cónyuge provengan de título oneroso anterior al matrimonio, aunque durante éste tenga lugar la adquisición o aun cuando el precio o contraprestación fuere satisfecho, total

5. Ondasun erkideen nahiz ondasun pribatiboen fruitu eta etekinak.

6. Ezkontza bitartean egindako kontratuen ondorioz, maizterrari dagozkion eskubideak.

7. Hitzarmenezko edo legezko atzera-eskuratze eskubidea, aukera-eskubidea, jabetza lortzeko eskubidea, lehenespenez harpidetzeko eskubidea edota konkista-sozietateari dagozkion bestelako eskuratze-eskubideak erabiltza eskuraturiko ondasunak.

8. Konkista-ondasunen akzesio edo gehikuntzak.

9. Hurrengo legearekin bat etorritz, pribatiboak ez diren beste ondasunak.

Presuntzioa

Ondasunak konkistakoak direla uste da, horiek pribatiboak direla egiaztatzen ez den bitartean.

3 eta 7. zenbakietan ezarritakoa hala ulertuko da, kasuan-kasuan bidezkoak diren itzulketei kalterik egin gabe.

83. legea

Ondasun pribatiboak

Ezkontidearen ondasun pribatibo dira:

1. Itun edo xedapenen bidez konkistetatik baztertutakoak.

2. Ezkontzaren aurretik eta kostu bidezko tituluaren bitartez ezkontide bati datozkion ondasunak, nahiz eta ondasun horien eskuraketa ezkontza bitartean gertatu, edo ondasunon truk

o parcialmente, con fondos del otro cónyuge o de la sociedad de conquistas.

Si se tratara de la vivienda o ajuar familiares, el bien adquirido corresponderá proindiviso a la sociedad de conquistas y al cónyuge o cónyuges en proporción al valor de las aportaciones respectivas.

3. Los adquiridos a título lucrativo antes del matrimonio o durante éste.

4. Los adquiridos por compra, permuta, dación en pago, venta, transacción y por otra subrogación cualquiera de bienes privativos.

5. Los adquiridos con cargo a bienes de conquista si en el título adquisitivo ambos cónyuges hacen constar la atribución privativa a uno de ellos.

6. Los adquiridos por derecho de retracto convencional o legal, opción, acceso a la propiedad, suscripción preferente u otro cualquier derecho de adquisición perteneciente a uno de los cónyuges.

7. Las accesiones o incrementos de los bienes privativos.

8. Los edificios construidos, las nuevas plantaciones y otras cualesquiera mejoras en bienes privativos de uno de los cónyuges.

9. El resarcimiento de daños y la indemnización de perjuicios causados a la persona de un cónyuge o en sus bienes privativos.

emandako prezioa zein kontraprestazioa beste ezkontidearen edo konkista-sozietatearen funtsekin osorik zein zati batez ordaindu.

Familia-etxebizitza edo -ostilamenduaren kasuan, eskuratutako ondasuna indibisoan dagokie konkista-sozietateari eta ezkontideari edo ezkontideei, euren egindako ekarpenen balioen arabera.

3. Ezkondu aurretik edo ezkontza bitartean dohainik eskuraturikoak.

4. Erosketa, trukaketa, ordainean emate, salmenta edo transakzioaren bidez, eta ondasun pribatiboen gaineko beste edozein subrogazioren bidez eskuratutakoak.

5. Konkista-ondasunen kontura eskuratutakoak, baldin eta eskuratze-tituluan bi ezkontideek agerrarazi badute horietako bati ondasun pribatibo gisa egindako eratzikipena.

6. Hitzarmenezko edo legezko atzera-eskuratze eskubidea, aukera-eskubidea, jabetza lortzeko eskubidea, lehenespenez harpidetzeko eskubidea edota ezkontide bati dagozkion bestelako eskuratze-eskubideak erabilia eskuraturiko ondasunak.

7. Ondasun pribatiboen akzesio edo gehikuntzak.

8. Ezkontide bati dagozkion ondasun pribatiboetan egindako eraikinak, landaketa berriak eta bestelako hobekuntzak.

9. Ezkontideari berari edo horren ondasun pribatiboetara eragindako kalte eta galeren ordaina.

10. Los bienes y derechos patrimoniales inherentes a la persona y los no transmisibles inter vivos.

Lo establecido en los números 2, 6, 7 y 8 se entenderá sin perjuicio de los reembolsos que en cada caso procedan.

Ley 84

Cargas y responsabilidad

1. Son de cargo y responsabilidad de la sociedad de conquistas los gastos y obligaciones siguientes:

1) El sostenimiento de la familia, la alimentación y educación de los hijos comunes, así como de los hijos de anterior matrimonio de uno de los cónyuges si éste no hubiere hecho la partición y entrega de bienes a que se refiere la ley 105.

2) Los gastos ordinarios y extraordinarios de la administración de los bienes comunes.

3) Los gastos ordinarios de la administración de los bienes privativos de los cónyuges.

4) Los gastos de la explotación regular de los negocios o los ocasionados por el ejercicio de la profesión, arte u oficio de cada cónyuge.

5) Los gastos necesarios causados en litigios que ambos cónyuges sostengan contra tercero, o por uno sólo, si redundan en provecho de la familia.

6) Las obligaciones contraídas por uno cualquiera de los cónyuges conforme la ley 54.

10. Pertsonari datxezkion ondasunak eta ondare-eskubideak, eta inter vivos eskualdatu ezin direnak.

2, 6, 7 eta 8. zenbakietan ezarritakoa hala ulertuko da, kasuan-kasuan bidezkoak diren itzulketei kalterik egin gabe.

84. legea

Zamak eta erantzukizuna

1. Konkista-sozietatearen ardurapeko eta erantzukizunpeko dira ondoko gastu eta betebeharrak:

1) Familia mantentzea; bi ezkontideen seme-alabak elikatu eta heztea, bai eta ezkontide batek aurreko ezkontza bitartean izandako seme-alabak elikatu eta heztea ere, ezkontide horrek ez baditu egin 105. legeak araturiko ondasunen banaketa eta ematea.

2) Ondasun erkideak administratzeko gastu arruntak eta apartekoak.

3) Ezkontideen ondasun pribatiboak administratzeko gastu arruntak.

4) Ezkontide bakoitzaren negozioetan, ustiapen erregularrak dakartzan gastuak, eta horien lanbide, erti edo ogibidean aritzeak sortzen dituenak.

5) Hirugarrenen aurka bi ezkontideek familiaren probetxurako diren auziak dituztenean, edo auzia batek bakarrik duenean, auzi horietan sorturiko nahitaezko gastuak.

6) 54. legearekin bat etorritik, ezkontide batek bere gain hartutako betebeharrak.

7) Las obligaciones extracontractuales de los cónyuges derivadas de actuaciones realizadas en interés de la sociedad de conquistas o con beneficio para ella, en el ámbito de la administración de los bienes comunes.

2. Las obligaciones extracontractuales que se contraigan en relación con la administración de los bienes privados o sean debidas a dolo o culpa grave del cónyuge deudor serán de responsabilidad, pero no de cargo de la sociedad.

De las obligaciones que contraigan ambos cónyuges o uno de ellos con el consentimiento del otro responderá la sociedad de conquistas sin perjuicio de los reembolsos que, en su caso, procedan.

Ley 85

Cargas privativas

Son de cargo de cada cónyuge los gastos y obligaciones siguientes:

1. El sostenimiento, alimentación y educación de los hijos de anterior matrimonio de uno de los cónyuges cuando se hubiere hecho la partición y entrega de bienes, si procediera, conforme a la ley 105.

2. La alimentación y educación de los hijos no matrimoniales de uno cualquiera de los cónyuges.

3. Las obligaciones contraídas por uno sólo de los cónyuges sin el consentimiento del otro cuando no sean de cargo de la sociedad de conquistas conforme a las leyes 54 y 84.

7) Ezkontideek kontratuz kanpo hartutako betebeharrak, horiek konkista-sozietatearen intereserako edo horren onurarako sortu badira, ondasun erkideei buruzko administrazioaren eremuan.

2. Ondasun pribatiboen administrazioari lotuta, edo ezkontide zordunaren doloaren edo erru astunaren ondorioz, kontratuz kanpo harturiko betebeharrak sozietatearen erantzukizunpekoak izanen dira, baina ez horren ardurapekoak.

Bi ezkontideek edo ezkontide batek bestearen adostasunarekin hartutako betebeharrak konkista-sozietatearen erantzukizunpekoak dira, kasuan-kasuan bidezkoak diren itzulketei kalte-rik egin gabe.

85. legea

Zama pribatiboak

Ezkontide bakoitzaren ardurapekoak dira hurrengo gastu eta betebeharrak:

1. Ezkontide batek aurreko ezkontza bitartean izandako seme-alabak mantendu, elikatu eta heztea ondasunen banaketa eta ematea egin badira, hori bidezkoa izanik, 105. legearekin bat etorritz.

2. Ezkontide batek ezkontzaz kanpo izandako seme-alabak elikatu eta heztea.

3. Ezkontide batek bestearen adostasunik gabe hartutako betebeharrak, horiek 54 eta 84. legeekin bat etorritz konkista-sozietatearen ardurapekoak ez direnean.

4. Lo perdido y pagado en juego por cualquiera de los cónyuges, o lo perdido y no pagado en los juegos en que la ley concede acción para reclamar lo que se gane.

Cada cónyuge responderá de sus deudas propias con su patrimonio privado, y si éste no fuere suficiente, el acreedor podrá pedir el embargo de bienes de conquista, que será inmediatamente notificado al otro cónyuge. Si la ejecución se realizara sobre bienes comunes, se considerará que el cónyuge deudor tiene recibido a cuenta de su participación el valor de aquéllos al tiempo que los abone con caudal propio o al tiempo de liquidación de la sociedad conyugal. No obstante, el cónyuge no deudor podrá exigir, dentro de los nueve días siguientes a la notificación, que en el embargo los bienes comunes sean sustituidos por la parte que al cónyuge deudor corresponda en la sociedad de conquistas, en cuyo caso el embargo llevará consigo la disolución y liquidación de ésta, y se aplicará el régimen de separación de bienes en los términos previstos en la ley 103.

Ley 86

Administración y disposición

La administración y disposición de bienes de conquista se regirá por lo pactado en capitulaciones matrimoniales o en escritura pública. En defecto de pacto corresponderá a ambos cónyuges conjuntamente, sin perjuicio de lo establecido en los apartados siguientes:

1. Cuando uno de los cónyuges se hallare impedido para prestar su con-

4. Ezkontideetatik edozeinek jokoan galdu eta ordaindutakoa, edo jokoan galdu eta ordaintzen ez dena, legeak akzioa ematen badu jokoan irabazitakoa erreklamatzeko.

Ezkontide bakoitzak berak egindako zorrak ordainduko ditu bere ondare pribatiboarekin, eta hori nahiko ez bada, hartzekodunak konkista-ondasunen embargo eska dezake; hori berehala jakinaraziko zaio beste ezkontideari. Exekuzioa ondasun erkideen gain gauzatuz gero, ulertuko da ezkontide zordunak bere partaidetzaren kontura jaso duela ondasun horien balioa, hala bere ondasunekin horiek ordaintzen dituen unean, nola ezkontzako sozietatea likidatzeko unean. Hala ere, zordun ez den ezkontideak galduta dezake, jakinarazpena jaso eta hurrengo bederatzi egunetan, embargo-ondasun erkideen ordezkari konkista-sozietatik ezkontide zordunari dagokion zatia jartzeko; kasu horretan, embargoak konkista-sozietatearen desegite eta likidazioa eraginen ditu, eta ondasunen banantze-erantzua aplikatuko da, 103. legeak agindutakoaren arabera.

86. legea

Administrazioa eta xedapena

Ezkontzako itunetan edo eskritura publikoan hitzarturikoak eraundu dituen konkista-ondasunak administratu eta xedatzeari buruzko kontuak. Ezer hitzartu ezean, bi ezkontideei batera dagozkie halakoak, jarraiko idatz-zatietan ezarritakoari kalterik egin gabe:

1. Ezkontide batek ezintasunen bat badu eta, horren ondorioz, ezin badu

sentimiento sobre uno o varios actos de administración o disposición de bienes de conquista, o se negare injustificadamente a otorgarlo, resolverá el Juez.

2. Cualquiera de los cónyuges podrá realizar por sí solo actos de administración sobre bienes o derechos de la sociedad de conquistas y actos de disposición de dinero o títulos valores de igual carácter, siempre que se encuentren en su poder o figuren a su nombre, así como ejercitar los derechos de crédito que aparezcan constituidos a su favor; todo ello, sin perjuicio de los reembolsos a que hubiere lugar.

3. Si los dos cónyuges fueran menores, será necesaria la asistencia de sus padres o, en su caso, de los Parientes Mayores o del curador para la enajenación o gravamen de inmuebles, establecimientos mercantiles o industriales, sus elementos esenciales u objetos de valor extraordinario comunes.

No será necesaria la asistencia a que se refiere el párrafo anterior si sólo uno de los cónyuges es menor, bastando en tal caso el consentimiento de ambos.

4. La administración y disposición se transferirán por ministerio de la ley al cónyuge que sea tutor o representante legal de su consorte.

5. No podrá suplirse el consentimiento de ninguno de los cónyuges para actos de enajenación o gravamen a título lucrativo de bienes de conquista. Sin embargo, ambos cónyuges po-

adostasunik eman, konkista-ondasunak administratu edo xedatzeko egintza bati edo batzuei begira, edota hori egiteari ezezkoa ematen badio arrazoirik gabe, orduan, epaileak erabakiko du.

2. Ezkontide batek bere kabuz egin ditzake konkista-sozietatearen ondasun edo eskubideen gaineko administrazio-egintzak eta izaera bereko diruaren edo balore-tituluen gaineko xedatze-egintzak, baldin eta horiek beraren eskuetan edo izenean badaude, eta berarentzat eraturiko kreditu-eskubideak egikari ditzake; hori hala da, kasuan-kasuan egin beharreko itzulketei kalterik egin gabe.

3. Bi ezkontideak adingabeak badira, horien gurasoen laguntza edo, hala behar denean, Ahaide Nagusia edo kuradorearena beharrezkoa izanen da, ondasun higiezinak, merkataritzako nahiz industriako establezimenduak, horien oinarritzko osagaiak edo aparteko baliodun objektu erkideak besterendu edota kargatzeko.

Aurreko lerrokadak aipatzen duen laguntza ez da beharrezkoa izanen ezkontide bat bakarrik adingabea denean; halakoetan, nahiko da bi ezkontideen adostasuna.

4. Administrazio eta xedapena ezkontide bati eskualdatuko zaizkio lege-aginduz, hori beste ezkontidearen tutorea edo legezko ordezkaria denean.

5. Ezkontideen adostasuna ezin izanen da ordeztu konkista-ondasunak dohainik besterendu edo kargatzeko. Hala ere, bi ezkontideek euren kabuz egin ditzakete dohaintza neurritzkoak,

drán por sí solos hacer donaciones moderadas conforme a la posición de la familia y los usos sociales.

Ley 87 *Disolución*

Son causas de disolución de la sociedad conyugal de conquistas:

1. Las establecidas en capitulaciones matrimoniales.

2. El acuerdo de ambos cónyuges; pero si anteriormente hubieren otorgado capitulaciones, deberá observarse lo establecido en la ley 81.

3. La disolución del matrimonio o el fallecimiento de uno de los cónyuges, salvo que, en este último caso, se hubiere pactado en capitulaciones matrimoniales la continuación de la sociedad.

4. La declaración de nulidad del matrimonio y toda resolución judicial que decreta la separación de los cónyuges.

5. La resolución judicial que la decreta, a petición de uno de los cónyuges, en cualquiera de los casos siguientes:

a) Si el otro cónyuge hubiere sido judicialmente incapacitado, declarado ausente o en quiebra o concurso de acreedores.

b) Si el otro cónyuge por sí solo realizare actos que entrañen fraude, daño o peligro para los derechos que en la sociedad de conquistas correspondan al que solicite la disolución.

familiaren mailarekin eta gizarte usedioekin bat etorriz.

87. legea *Desegitea*

Konkisten gaineko ezkontza-sozietatea desegiteko arrazoi dira:

1. Ezkontzako itunetan ezarritakoak.

2. Bi ezkontideen arteko adostasuna; baina, alde zuzenetik ezkontzako itunak egin badituzte, 81. legean ezarritakoa bete beharko da.

3. Ezkontza desegitea edo ezkontideetako bat hiltzea, salbu eta, azken kasu horretan, ezkontzako itunetan hizpatu denean sozietatearen iraupena luzatzea.

4. Ezkontzaren deuseztasunari buruzko adierazpena eta ezkontideen bantantzea dekretatzen duten epai-ebazpen guztiak.

5. Ezkontide batek hala eskatuta, hori dekretatzen duen epai-ebazpena, hurrengo kasuetan:

a) Beste ezkontidea epai bidez ezgaitua izan denean, edo horren inguruan absentiari, porrotari zein hartzekodunen konkurtsoari buruzko adierazpena eman denean.

b) Beste ezkontideak bere kabuz zenbait egintza burutzea eta egintza horiek desegitea eskatu duen ezkontideari iruzur, kalte edo arriskua ekartzea, konkista-sozietatean dagozkion eskubideetan.

c) Si llevaran los cónyuges separados de hecho más de un año por mutuo acuerdo o por abandono del hogar.

d) Si se hubiera decretado embargo sobre bienes de conquista, por obligaciones personales del otro cónyuge, conforme a lo previsto en el párrafo último de la ley 85. En cualquiera de los supuestos comprendidos en este número, si hubiera pleito sobre la causa de disolución, iniciada su tramitación, el Juez dispondrá la práctica de inventario y adoptará las medidas necesarias para la administración del caudal de la sociedad de conquistas; asimismo, se requerirá autorización judicial para todo acto que exceda de la administración ordinaria.

Ley 88

Reintegro de lucros sin causa

En todo caso, aun sin disolver la sociedad de conquistas, deberán reintegrarse entre los patrimonios privativos y el de conquistas los lucros que se hubieren producido sin causa a favor de uno de ellos en detrimento del otro.

El importe de los reembolsos será actualizado al momento en que sean hechos efectivos, tanto durante la sociedad conyugal como a la liquidación de ésta.

Ley 89

Liquidación

Disuelta la sociedad se procederá a su liquidación, que comenzará por un

c) Ezkontideak egitez urtebete baino gehiago banandurik daudenean, elkarren arteko adostasunarekin edo ezkontide batek etxea bertan behera uzteagatik.

d) Konkista-ondasunen gainean embargo dekretatu denean beste ezkontidearen betebeharrak pertsonalen ondorioz, 85. legearen azken lerroak araututakoarekin bat etorritik. Zenbaki honetara bildutako kasu guztietan, desegite-arrazoiari buruzko auzia sortzen bada, behin horren izapidetza hasi eta gero, epaileak inbentarioa egiteko aginduko du, eta neurri egokiak hartuko ditu konkista-sozietatearen ondasunak administratzeko; halaber, epailearen baimena beharrezkoa izanen da, administrazio arrunta gaitzen duten egintzak gauzatzeko.

88. legea

Arrazoirik gabeko irabaziak itzultzea

Edozein kasutan, konkista-sozietatea desegin ez bada ere, ondare pribati-boaren eta konkista-ondarearen artean itzulketak egin beharko dira, ondare baten mesederako eta bestearen kalterako irabaziak gertatu badira inolako arrazoirik gabe.

Itzulketen zenbatekoa eguneratu beharko da, horiek egiten diren uneari begira, hala ezkontzako sozietateak dirauen bitartean, nola berori likidatzean.

89. legea

Likidazioa

Behin sozietatea desegin eta gero, horren likidazioa egin beharko da, eta

inventario del activo y del pasivo. No será necesaria la formación de inventario cuando todos los interesados hubieran aceptado el que el cónyuge sobreviviente hubiese hecho para el usufructo viudal.

Activo

El activo comprenderá todos los bienes de conquista existentes en el momento de la disolución, así como los créditos de la sociedad frente a los cónyuges.

Pasivo

El pasivo comprenderá todas las obligaciones pendientes a cargo de la sociedad, incluso por créditos de los cónyuges contra aquélla.

Pago

Terminado el inventario se pagarán las deudas de la sociedad, incluidas las que ésta tenga con los cónyuges, conforme a lo dispuesto para la concurrencia y prelación de créditos.

Los acreedores de la sociedad tendrán en la liquidación de ésta los mismos derechos que por ley les corresponde en la liquidación y partición de la herencia.

Alimentos

De la masa común de bienes se prestarán alimentos a los cónyuges o, en su caso, al sobreviviente y a los hijos, mientras no se hiciera la entrega de los bienes que constituyan su haber.

likidazioari hasiera emanen zaio, aktibo eta pasiboaren inbentarioa eginez. Inbentarioa ez da beharrezkoa izanen, interesdun guztiek onartu badute alar-gunak berari dagokion gozamina dela eta egin duena.

Aktiboa

Aktiboak bere barruan hartuko ditu desgite-unean diren konkista-ondasun guztiak, bai eta sozietateak ezkontideen aurka dituen kredituak ere.

Pasiboa

Pasiboak bere barruan hartuko ditu, sozietatearen ardurapekoak izanik, ordaindu gabe dauden betebeharrak, ezkontideek sozietatearen aurka dituzten kredituen ondoriozkoak barne.

Ordainketa

Behin inbentarioa amaitu eta gero, sozietatearen zorrak ordainduko dira, horrek ezkontideekin dituenak barne, kredituen pilaketa eta hurrenkerari buruzko xedapenekin bat etorritz.

Sozietatearen hartzekodunek horren likidazioan izanen dituzte jarauntsia likidatu eta banatzean legez dagozkien eskubide berberak.

Mantenua

Ondasunen masa erkidetik mantenua emanen zaie ezkontideei edo, hala denean, alargun eta seme-alabei, masa horren hartzekoa osatzen duten ondasunak eman arte. Emandako mante-

Los alimentos prestados se deducirán de los frutos y rendimientos del haber, y de este mismo en lo que excedan.

Ley 90

División

El remanente líquido de los bienes de conquista se dividirá en la proporción pactada o, en su defecto, por mitad entre marido y mujer o sus respectivos herederos.

Derechos de ventajas

Por derecho de mejoría o ventajas, pertenecerán en propiedad al cónyuge sobreviviente, sin que le sean computadas en su parte en las conquistas, las ropas y efectos de uso personal, así como los demás objetos de ajuar de casa cuyo valor no fuere excesivo conforme a la posición de la familia y a los usos sociales. También podrá de traerse como ventajas los instrumentos de trabajo de un valor no desproporcionado al patrimonio común.

Ley 91

Adjudicación preferente

En la liquidación de la sociedad de conquistas cada cónyuge tendrá derecho a que le sean adjudicados en pago de su haber, hasta donde éste alcance, los siguientes bienes siempre que tuvieren la condición de comunes:

1. Los bienes privativos que se hubiesen incorporado en capitulaciones a la sociedad de conquistas por cualquiera de los cónyuges.

nuak hartzekoaren fruitu eta etekinetatik kenduko dira; azken horiek baino gehiago izanez gero, hartzekotik bertatik ere kenduko dira.

90. legea

Zatiketa

Konkista-ondasunen gerakin likidoa zatituko da ezkontideek itundutako proportzioan edo, ezer itundu ezean, senarraren eta emaztearen edo horien jaraunseen artean erdibana.

Abantaila-eskubideak

Hobetzeko eskubidea edo abantaila dela bide, alargunaren jabetzapekoak izanen dira, konkistetatik berari dago-kion zatian zenbatu gabe, jantziak eta norberak erabiltzeko bestelako tresnak, bai eta etxeko ostilamenduaren gainera-ko objektuak ere, horien balioa ez bada gehiegizkoa, familiaren mailarekin eta gizarte usadioekin bat etorritz. Era be-rean, abantaila gisa ere ken daitezke, on-dare erkidearekin alderatuz gero, neurriz kanpoko baliorik ez duten lanabesak ere.

91. legea

Lehenespeneko adjudikazioa

Konkista-sozietatearen likidazioan, ezkontide bakoitzak eskubidea izanen du hurrengo ondasunak berari adjudikatze-ko, bere hartzekoaren ordain gisa eta horren neurrian, betiere, ondasunok erkideak direnean:

1. Ezkontideetatik edozeinek konkista-sozietatera itun bidez erantsitako ondasun pribatiboak.

2. Los objetos de ajuar de casa y los instrumentos de trabajo que no le pertenecieren por derecho de ventajas conforme a la ley 90.

3. La explotación agrícola, ganadera, forestal, comercial o industrial que tuviere a su cargo.

4. El local donde hubiere venido ejerciendo su profesión, arte u oficio.

5. En caso de muerte del otro cónyuge, la vivienda que fuere la residencia habitual del matrimonio.

En los casos de los números 1, 4 y 5, el cónyuge viudo podrá exigir que se le atribuyan los bienes en propiedad o sólo el derecho de uso o habitación sobre los mismos. Si el valor de la propiedad o del derecho, según los casos, excediera del haber del cónyuge adjudicatario, éste deberá abonar la diferencia en dinero. El cónyuge viudo de segundas o posteriores nupcias del finado no podrá exigir el uso o habitación respecto a los bienes adjudicados a los hijos o descendientes de anterior matrimonio del difunto.

CAPÍTULO II

De la sociedad familiar de conquistas

Ley 92

Presunción

Si en las capitulaciones matrimoniales con donación de bienes o nombramiento de heredero se pacta la con-

2. Etxeko ostilamendua osatzen duten objektu eta lanabesak, 90. legearekin bat etorritz horiek ezkontideari ez bada-gozkio abantaila-eskubidea dela bide.

3. Ezkontidearen ardurapeko ustiategia, hori nekazaritza, abeltzaintza, baso, merkataritza nahiz industriakoa izan.

4. Lanbide, erti edo ogibidean aritze-ko, ezkontideak erabili izan duen lokala.

5. Beste ezkontidea hiltzen denean, ezkontideon ohiko bizilekua izan den etxebizitza.

1, 4 eta 5. zenbakietako kasuetan, alargunak galda dezake ondasunen jabetza osoa eratzkitzeko edo, bestela, horien gaineko erabiltze- edo biztan-tze-eskubidea bakarrik. Jabetzaren baliok edo kasuan kasuko eskubidearenak gainditzen badu ezkontide adjudikazio-hartzailearen hartzekoa, ezkontide horrek diruz ordaindu beharko du gaindikina. Norbait bigarrenez edo gehiagogarrenez ezkondu eta alargun gelditu bada, ezin izanen du erabiltze- edo biztante-eskubiderik galdatu hildakoak aurreko ezkontza bitartean izandako seme-alaba edo ondorengoei adjudikatu zaizkien ondasunen gainean.

II. KAPITULUA

Konkisten familia-sozietatea

92. legea

Presuntzioa

Ezkontzako itunetan, ondasunak dohaintzan emateaz gain edo jaraun-lea izendatzeaz gain, dohaintza-emaile

vivencia de donantes o instituyentes y donatarios o instituidos, se presumirá que todos ellos participan en las conquistas que se obtengan, salvo que en la escritura hubiere pactos en contra o incompatibles con la existencia de tal sociedad familiar.

Ley 93

Régimen

La sociedad familiar de conquistas se rige por lo pactado, por la costumbre y, en su defecto, por las disposiciones de este capítulo.

Ley 94

Bienes

Para la determinación de los bienes de conquista o privativos de cada una de las personas que componen esta sociedad, se estará a lo dispuesto para los cónyuges en las leyes 82 y 83.

Ley 95

Cargas

En cuanto a las cargas de la sociedad familiar de conquistas, se aplicará respecto a todos los partícipes lo dispuesto en la ley 84.

Ley 96

Administración

Salvo pacto en contrario, la administración de los bienes de conquista corresponde a los donantes o instituyentes o a los que de ellos sobrevivan.

edo kausatzaileak eta dohaintza-hartzaile edo jaraunsleak elkarrekin biziko direla hitzartzen bada, uste izanen da horiek guztiak parte hartzen dutela ezkontza bitartean lorturiko konkistetan, salbu eta eskrituran bertan azaltzen direnean familia-sozietate horren aurka itunak edo sozietate horrekin bateratu ezin direnak.

93. legea

Araubidea

Konkisten familia-sozietatea erantzen dute itundutakoak eta ohiturak edo, halakorik izan ezean, kapitulu honetako xedapenek.

94. legea

Ondasunak

Familia-sozietatea osatzen duten pertsonen konkista-ondasunak eta ondasun pribatiboak zeintzuk diren zehazteko, 82 eta 83. legeek ezkontideei buruz xedaturikoa bete beharko da.

95. legea

Zamak

Konkisten familia-sozietateak dituen zamei dagokionez, 84. legean xedaturikoa aplikatuko zaie partaide guztiei.

96. legea

Administrazioa

Aurkako itunik izan ezean, konkista-ondasunen administrazioa dagokie dohaintza-emaile edo izendatzaile guztiei, edo horietatik bizirik daudenei.

Enajenación y gravamen

La enajenación o gravamen de bienes conquistados inmuebles, establecimientos industriales o mercantiles o sus elementos esenciales, requiere el consentimiento de los partícipes.

Ley 97*Disolución*

Son causas de disolución de la sociedad familiar de conquistas:

1. Las establecidas en capitulaciones matrimoniales.
2. El acuerdo de todos los partícipes con las formalidades prescritas en la ley 81 para la modificación de las capitulaciones.
3. La declaración de nulidad del matrimonio en contemplación del cual se otorgaron los capítulos.

Sociedad continuada

4. El fallecimiento de uno de los cónyuges donatarios o instituidos, y las causas de separación previstas en la ley 87, número 5, que afecten a los mismos, siempre que los donantes o instituyentes no continúen viviendo con uno solo de ellos. El hecho de existir o no convivencia, caso de ser discutido, será apreciado por los Padres Mayores.

Ley 98*Fallecimiento de donantes*

Al fallecimiento de algunos de los donantes o instituyentes, la sociedad

Besterendu eta kargatzea

Konkistapeko ondasun higiezinak, industria edo merkataritzako establezimenduak edota horien oinarrizko osagaiak besterendu nahiz kargatzeko, beharrezkoa da partaideen adostasuna.

97. legea*Desegitea*

Konkisten familia-sozietatea desegiteko arrazoi dira:

1. Ezkontzako itunetan ezarritakoak.
2. Partaide guztien erabakia, itunak aldarazteko 81. legean agindutako formalitateekin hartu bada.
3. Ezkontzaren deuseztasunari buruzko adierazpena, itunak ezkontza horri begira egin badira.

Sozietate jarraitua

4. Ezkontide dohaintza-hartzaile edo izendatu baten heriotza, eta 87. legeko 5. zenbakian banantzeko ezarritako arrazoiak, arrazoiok haietan eragina dutenean, baldin eta dohaintza-emaile edo izendatzaileak ez badira beste ezkontidearekin bizi. Elkarbizitzarik dagoen ala ez zalantzan izanez gero, Ahai-de Nagusiek erabakiko dute.

98. legea*Dohaintza-emaileen heriotza*

Dohaintza-emaile edo izendatzaileetatik batzuk hil arren, familia-sozieta-

familiar continuará, salvo pacto en contrario, entre los restantes partícipes.

Fallecidos todos los donantes o instituyentes, la sociedad continuará entre los cónyuges, y se regirá por el capítulo primero de este título.

Lo dispuesto en esta ley será sin perjuicio de la liquidación parcial que en su caso procediere.

Ley 99

División

El remanente líquido de los bienes de conquista se dividirá en la proporción pactada y, en su defecto, por cabezas entre los partícipes en la sociedad.

Ley 100

Aplicación supletoria

En lo no previsto por este capítulo se aplicará al régimen familiar de conquistas lo establecido en el anterior para la sociedad conyugal.

CAPÍTULO III

Del régimen de comunidad universal de bienes

Ley 101

Efectos

Los cónyuges pueden pactar el régimen de comunidad universal de bienes en capitulaciones otorgadas antes o después del matrimonio.

teak indarrean dirau, aurkako itunik izan ezean, gainerako partaideen artean.

Dohaintza-emaile edo izendatzaile guztiak hilez gero, sozietateak indarrean dirau ezkontideen artean, eta titulu honetako lehenengo kapituluak eraendu-ko du sozietate hori.

Lege honetan xedaturikoak ez dio kalterik eginen kasuan-kasuan egin beharreko likidazio partzialari.

99. legea

Zatiketa

Konkista-ondasunen gerakin likidoa zatituko da itundutako proportzioan eta, ezer itundu ezean, sozietatearen partaideen artean, buruko bana.

100. legea

Aplikazio osagarria

Kapitulu honek arautzen ez dituen kontuetan, konkisten familia-sozietateari aplikatuko zaio aurreko kapituluaren ezkontzako sozietateari buruz ezarritakoa.

III. KAPITULUA

Ondasunen erkidego unibertsalari buruzko eraentza

101. legea

Ondoreak

Ezkontideek itun dezakete ondasunen erkidego unibertsalari buruzko eraentza, bai ezkontzaren aurretik bai ondoren egindako itunetan.

En defecto de los pactos establecidos, se aplicarán las reglas siguientes:

1. Por este régimen se hacen comunes a los cónyuges todos sus bienes presentes y futuros, sea cual fuere el título de adquisición, oneroso o lucrativo, inter vivos o mortis causa.

2. Serán de cuenta de la comunidad todas las cargas y obligaciones de ambos cónyuges o de cualquiera de ellos, así anteriores como posteriores al matrimonio.

3. Respecto a la administración y disposición de los bienes comunes, será aplicable lo que la ley 86 previene para los bienes de conquista.

4. A la disolución del matrimonio, el remanente líquido de los bienes comunes se dividirá en la proporción convenida o, en defecto de pacto, por mitad entre marido y mujer o sus respectivos herederos.

5. En lo que no hubiese sido pactado o no se halle previsto en esta ley, se aplicarán analógicamente las disposiciones establecidas en esta Compilación para el régimen de conquistas, en cuanto no fuere contradictorio o incompatible con el de comunidad universal de bienes.

Ley 102

Inscripción

Los bienes de la comunidad conyugal se inscribirán en el Registro de la Propiedad conjuntamente a favor de ambos cónyuges. Si estuvieren inscritos a

Itunik ezarri ezean, jarraiko errege-lak aplikatuko dira:

1. Eraentza honen bidez erkide bihurtzen dira ezkontideen oraingo eta etorkizuneko ondasun guztiak, horiek eskuratzeko titulua edozein izanda ere, kostu bidezkoa nahiz dohainekoa, inter vivos zein mortis causa.

2. Erkidegoaren kontura ordainduko dira bi ezkontideek edo horietako batek hartutako zama eta betebeharrak guztiak, horiek ezkontzaren aurrekoak zein ondokoak izan.

3. Ondasun erkideak administratu eta xedatzeari dagokionez, 86. legean konkista-ondasunei buruz arauturikoa aplikatuko da.

4. Ezkontza desegitean, ondasun erkideen gerakin likidoa banatuko da, ezkontideek hitzarturiko proportzioan eta, ezer itundu ezean, senar eta emaztearen artean edo horien jaraunleen artean, erdi bana.

5. Ezkontideek itundu ez dituzten kontuetan edo lege honek arautzen ez dituenetan, analogiaz aplikatuko dira konpilazio honetan konkista-eraentzari buruz ezarritako xedapenak, eraentza hori ondasunen erkidego unibertsalarenaren aurkakoa edo horrekin bateraezina ez den neurrian.

102. legea

Inskripzioa

Ezkontzako erkidegoaren ondasunak Jabetza Erregistroan inskribatuko dira, bi ezkontideen izenean batera. Ezkontide baten izenean bakarrik ins-

favor tan sólo de uno de éstos, podrá hacerse constar aquella circunstancia por medio de nota marginal, previa presentación de la escritura de capitulaciones.

CAPÍTULO IV

Del régimen de separación de bienes

Ley 103

Separación convencional

Los cónyuges pueden pactar el régimen de separación de bienes en capitulaciones otorgadas antes o después del matrimonio.

a) Concepto

Salvo pacto en contrario, este régimen reconoce a cada cónyuge la propiedad de los bienes que tuviese en el momento inicial y los que por cualquier título adquiriera posteriormente, así como el disfrute, administración y disposición por sí solo de sus bienes propios, y le atribuye la responsabilidad exclusiva de las obligaciones por él contraídas; sin perjuicio, en caso de concurso o quiebra del cónyuge deudor, de las acciones por fraude de acreedores. Sin embargo, de las obligaciones contraídas por uno sólo de los cónyuges para atender a las necesidades ordinarias de la familia conforme a las circunstancias de ésta y al uso del lugar, si fuere insuficiente el patrimonio del cónyuge deudor, responderán subsidiariamente los bienes del otro, sin perjuicio del reembolso que procediera.

kribaturik badaude, inguruabar hori bazterreko oharraren bidez agerrarazi ahal izanen da, aldez aurretik ezkontzako itunen eskritura aurkeztuz.

IV. KAPITULUA

Ondasunen banantze-eraentza

103. legea

Hitzarmenezko banantzea

Ezkontideek ondasunen banantze-eraentza itun dezakete, ezkontzaren aurretik zein horren ondoren egindako itunetan.

a) Kontzeptua

Aurkako itunik izan ezean, eraentza horrek ezkontide bakoitzari aitortzen dio, hala ezkontzaren hasierako unean zituen ondasunen jabetza, nola gero edozein tituluren bidez eskuratzen dituenena; orobat, ondasun pribatiboak bere kabuz lupertu, administratu eta xedatzeko aukera ere bai, eta ezkontide horri eratzikitzen dio berorrek harturiko betebeharren gaineko erantzukizun eksklusiboa; hala ere, ezkontide zordunaren konkurtsua edo porrota gertatuz gero, ez zaie hartzekodunen akzioei kalterik eginen, hartzekodunei iruzur egin bazaie. Hala ere, ezkontide batek betebeharrak hartzen baditu, familiak bere mailarekin eta tokiko usadioekin bat etorritz, izan ohi dituen beharrianak asetzeko, eta ezkontide zordunaren ondarea nahiko ez bada, orduan, beste ezkontidearen ondasunek erantzukizun subsidiarioa izanen dute, kasuan-kasuan egin beharreko itzulketei kalterik egin gabe.

b) Sostenimiento de cargas familiares

Respecto al sostenimiento y atenciones de la familia, se estará a lo pactado en las capitulaciones; en su defecto, cada cónyuge puede exigir del otro que contribuya en proporción a sus ingresos y, si no los tuviere o fueran insuficientes, a sus bienes. Este derecho es personalísimo e intransmisible, pero los herederos podrán continuar el ejercicio de la acción si el causante hubiere interpuesto la demanda.

A los efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior, deberá computarse el trabajo en el hogar familiar de cualquiera de los cónyuges.

c) Copropiedad

Se presumirá que pertenecen a los dos cónyuges por mitad y proindiviso los bienes y derechos cuya pertenencia privativa no conste.

Ley 104*Separación judicial*

Podrá decretarse judicialmente la separación por las causas establecidas en la ley 87, número 5, cualquiera que sea el régimen de bienes del matrimonio. En estos casos, la separación de bienes de los cónyuges no obstará a la continuación de la sociedad familiar de conquistas prevista en la ley 97, número 4.

La liquidación se practicará de conformidad con las reglas de esta compilación según el régimen de que se trate.

b) Familiaren zamei aurre egitea

Familia mantentzeari eta horri laguntzeari dagokienez, itunetan hitzarturikoa bete beharko da; ezer hitzartu ezean, ezkontide batek besteari parte hartzeko galda diezaiok, horren diru-sarreraren arabera eta, diru-sarrerarik ez badu edo horiek nahiko ez badira, haren ondasunen arabera. Eskubide hori bere-berezko eta eskualdaezina da, baina kausatzaileak demanda jarri izan badu, jaraunsleek akzioaren egikaritzari eutsi ahal izanen diote.

Aurreko lerrokadan xedaturikoaren ondoretarako, ezkontideetatik edozeinek familiaren etxean egindako lana zenbatu beharko da.

c) Jabekidetasuna

Ondasun eta eskubideak, erdi bana eta indibisoan, bi ezkontideei dagozkiela uste izanen da, horiek pribatiboak direla egiaztatzen ez den bitartean.

104. legea*Epaiketazko banantzea*

Banantzea epaiketa bidez dekreta daiteke, 87. legeko 5. zenbakian ezarritako arrazoien ondorioz, ezkontzako ondasun-eraentza edozein izanda ere. Halako kasuetan, ezkontideen arteko ondasun-banantzeak ez dakar inolako eragozpenik, indarrean iraun dezan 97. legeko 4. zenbakian arauturiko konkisten familia-sozietateak.

Likidazioa konpilazio honetako erregelekin bat etorritz eginen da, kasuan kasuko eraentzaren arabera.

**TÍTULO X
DEL RÉGIMEN
DE BIENES
EN SEGUNDAS O
POSTERIORES NUPCIAS**

Ley 105

*Liquidación de sociedad
de anteriores nupcias*

El padre o madre que contrajera segundas o ulteriores nupcias deberá practicar, conjuntamente con sus hijos o descendientes de matrimonio anterior, la liquidación de la sociedad conyugal disuelta y hacerles formal y efectiva entrega de los bienes que les correspondan.

Los hijos menores no emancipados serán representados por el defensor judicial.

Ley 106

*Participación de los hijos
en las conquistas*

Si antes de celebrar nuevas nupcias, el padre o madre no hubiere cumplido la obligación que le impone la ley precedente, los hijos o descendientes de anterior matrimonio podrán exigir la liquidación; en tanto ésta no se practique, participarán en un tercio de las conquistas obtenidas durante el nuevo matrimonio, pero no les afectarán las pérdidas si las hubiere.

Lo dispuesto en esta ley se observará sea cual fuere el régimen de bienes del nuevo matrimonio.

**X. TITULUA
BIGARRENEZ EDO
GEHIAGOGARRENEZ
EZKONDUTAKOEN
ONDASUN-ERAENTZA**

105. legea

*Aurreko ezkontza-sozietatearen
likidazioa*

Bigarrenez edo gehiagogarrenez ezkontutako aitak edo amak ezkontzako sozietate deseginaren likidazioa egin behar du aurreko ezkontzako seme-alaba edo ondorengoekin batera, eta horiei formaz egoki eta eragin osoz eman behar dizkie eurei dagozkien ondasunak.

Defendatzaile judicialak ordezkatu dituzten seme-alaba adingabeko emantzipatugabeak.

106. legea

*Seme-alabek konkistetan
parte hartzea*

Berriro ezkondu baino lehen, aitak edo amak ez badu betetzen aurreko lege horrek ezartzen dion betebeharra, likidazioa galdatu ahal izanen dute aurreko ezkontzako seme-alaba edo ondorengoek; likidazioa egiten ez den bitartean, seme-alaba edota ondorengook parte hartuko dute ezkontza berria bitartean lortutako konkisten herenean, baina galarak izanez gero, horiek ez dute seme-alaba horien gain eraginik izanen.

Lege honetan xedaturikoa bete behar da, ezkontza berriaren ondasun-eraentza edozein izanda ere.

Ley 107*Excepción*

No será aplicable lo dispuesto en las leyes anteriores en los casos siguientes:

1. Si al fallecimiento de un cónyuge, el sobreviviente fuese único y universal heredero de aquél.

2. Si al tiempo de disolución de la sociedad conyugal no existieren bienes apreciables en base a los cuales se haya obtenido alguna ganancia durante el matrimonio posterior. La inexistencia de bienes se hará constar por el cónyuge bñubo en acta notarial o en acto de conciliación, con notificación o citación de los interesados o de sus legítimos representantes.

Ley 108*Cesación de la participación*

Efectuada la liquidación con formal y efectiva entrega de los bienes que correspondan a los hijos o descendientes de anterior matrimonio, cesará la participación de éstos en las conquistas que en lo sucesivo obtuvieren los nuevos cónyuges.

Ley 109*Liquidación de sociedades de conquistas habiendo descendientes de varios matrimonios anteriores*

Si en la sociedad conyugal de conquistas estuvieron interesados hijos o descendientes de varios matrimonios anteriores, se procederá por separado y

107. legea*Salbuespena*

Aurreko legeetan xedaturikoa ez da aplikatuko honako kasu hauetan:

1. Ezkontide bat hiltzean, alarguna horren jaraunse bakar eta unibertsala denean.

2. Ezkontzako sozietatea desagiteko unean, behar besteko ondasunik ez dagoenean, geroko ezkontza bitartean horiek irabaziak lortu direla uste izateko. Bigarrenez ezkontutako ezkontideak notario-aktan edo adiskidetze-ekitaldian agerrarazi behar du halako ondasunik ez dagoela, interesdunei edo horien legebidezko ordezkariari jakinarazpena edo zitazioa eginez.

108. legea*Partaidetzaren amaiera*

Behin likidazioa egin eta gero, aurreko ezkontzako seme-alaba edo ondorengoei formaz egoki eta eragin osoz eman bazaizkie eurei dagozkien ondasunak, horiek ez dute inongo partaidetzarik izanen, ezkontide berriek aurretzean lortutako konkisten gainean.

109. legea*Konkista-sozietateen likidazioa egitea, aurreko beste ezkontza batzuetako ondorengoak daudela*

Konkisten ezkontza-sozietateari begira, aurreko beste ezkontza batzuetako seme-alaba edo ondorengoek interesa badute, banan-banan eta ondoz

sucesivamente a la liquidación de cada una de las sociedades de conquistas.

Los haberes de los hijos o descendientes de cada matrimonio se integrarán:

1. Por los bienes que al tiempo de celebrarse las siguientes nupcias debieran haberles sido entregados conforme a la ley 105.

2. Por su respectiva participación en las conquistas del siguiente o posteriores matrimonios conforme a la ley 106.

Para el cobro de los haberes determinados en el número 1, tendrán preferencia los hijos o descendientes del matrimonio más antiguo.

Respecto a los del número 2, concurrirán sin preferencia todos los hijos o descendientes de matrimonios anteriores.

Ley 110

Distribución

Concurriendo hijos o descendientes de varios matrimonios anteriores, tanto de uno sólo de los cónyuges como de ambos, la tercera parte de las conquistas se distribuirá por cabezas entre aquellos hijos, con derecho de representación en favor de los descendientes del hijo premuerto.

Ley 111

Sociedad familiar de conquistas

Lo dispuesto en las leyes anteriores será aplicable a la sociedad familiar de

ondo eginen da konkista-sozietate bakoitzaren likidazioa.

Ezkontza bakoitzeko seme-alaba edo ondorengoei dagozkien hartzekoetara bilduko dira:

1. Geroko ezkontza egin aurretik, 105. legearekin bat etorritz horiei eman behar zitzaizkien ondasunak.

2. Hurrengo edo geroko ezkontzen konkistetan, 106. legearekin bat etorritz eurek duten partaidetza.

Lehenengo zenbakian zehazturiko hartzekoak kobratzeko, lehenespena dute ezkontzarik zaharreneko seme-alaba edo ondorengoek.

Bigarren zenbakiko hartzekoei dago-kienez, lehenespunik gabe parte hartuko dute aurreko ezkontzetako seme-alaba edo ondorengo guztiek.

110. legea

Banaketa

Aurreko beste ezkontza batzuetako seme-alaba edo ondorengoak batera pilotzen badira, horiek ezkontide batenak nahiz bienak izan, konkisten herena buruko banatuko da seme-alaba horien artean; aurrez hildako seme edo alabaren ondorengoek ordezkapen-eskubidea izanen dute.

111. legea

Konkisten familia-sozietatea

Aurreko legeetan xedaturikoa aplikatuko zaio IX. tituluko II. kapituluan

conquistas regulada en el capítulo II del título IX.

arauturiko konkisten familia-sozieta-teari.

TÍTULO XI
DE LAS DONACIONES
«PROPTER NUPTIAS»

XI. TITULUA
«PROPTER NUPTIAS»
DOHAINTZAK

Ley 112

Contenido

Las donaciones «propter nuptias» hechas a favor de uno o de ambos cónyuges pueden consistir en la transmisión de todos los bienes presentes y futuros, de sólo los presentes o de alguno de éstos, o de los que quedaren a la muerte del donante; en pleno dominio o con reserva del usufructo; a libre disposición o con limitaciones; con cláusulas de revocación o reversión; con llamamientos sucesorios y fideicomisos; con señalamientos de dotaciones, alimentos o derechos a vivir en la casa los hijos u otras personas; o con otras cualesquiera condiciones lícitas.

Asimismo las donaciones «propter nuptias» pueden contener pactos sobre constitución, dirección y administración, modificación y disolución de la sociedad familiar de convivencia de donantes y donatarios y ruptura de esta convivencia, pactos y estipulaciones sobre usufructo y disposición de bie-

112. legea

Edukia

Ezkontide baten edo bien mesedera-ko egindako «propter nuptias» dohaintzak izan daitezke oraingo eta etorkizuneko ondasun guztien eskualdaketa, oraingo ondasunena bakarrik edo horietako batzuen, edota dohaintza-emailea hiltzean geratzen diren ondasunena; horien gaineko jabetza osoa eman daiteke edo gozamina erreserba daiteke; askatasunez xedatzeko aukerarekin ala mugapenak eta guzti eman daiteke; ezeztatze edo lehengoratzeko klausulen menpe egin daiteke; oinordetzarako deiak eta fideikomisorako deiak erabil daitezke; zuzkidurak seinala daitezke, mantenua emateko agindupean edo seme-alabek nahiz beste pertsona batzuek etxean bizitzeko duten eskubidearekin; edota bestelako baldintza zilegien menpe egin daiteke.

Era berean, «propter nuptias» dohaintzek euren barruan har ditzakete dohaintza-emaile eta dohaintza-hartzailen arteko elkarbizitzaren ondorioz sorturiko familia-sozietatearen eraketa, zuzendaritza, administrazio, aldarazpen eta desegiteari, eta elkarbizitza hori hausteari buruzko itunak, ondasunen

nes, participación en las conquistas y, en general, otros cualesquiera pactos lícitos.

Ley 113

Tiempo y forma

Las donaciones «propter nuptias» pueden hacerse antes o después de celebrado el matrimonio, y deberán otorgarse en capitulaciones matrimoniales o fuera de ellas en escritura pública; en todo caso, con descripción de los bienes en la misma escritura o por rolde o inventario incorporado.

Ley 114

Aceptación

Las donaciones «propter nuptias» requieren la aceptación del donatario, en la misma escritura o en otra separada.

La aceptación podrá hacerse en vida del donante o después de su fallecimiento.

El donante o sus herederos podrán revocar la donación de cuya aceptación no tengan conocimiento, a no ser que el requerimiento que hicieren por acta notarial al donatario fuera seguido de la aceptación por éste.

Ley 115

Régimen

En las donaciones «propter nuptias» se aplicarán las reglas siguientes:

gaineko gozamen eta xedapenari buruzko itun eta hizpaketak, konkisten gaineko partaidetzak eta, orokorrean, bestelako itun zilegiak.

113. legea

Epea eta forma

«Propter nuptias» dohaintzak egin daitezke bai ezkontzaren aurretik bai ondoren, eta ezkontzako itunetan egin beharko dira edo halako itunetatik kanpo, betiere, eskritura publikoan; edozein kasutan, ondasunak deskribatu beharko dira eskrituran bertan edo, bestela, eskriturari erantsitako errolda nahiz inbentarioan.

114. legea

Onarpena

«Propter nuptias» dohaintzetan, nahitaezkoa da dohaintza-hartzailearen onarpena dohaintzaren eskrituran bertan edo bestelako eskritura bananduan.

Onarpena egin ahal izanen da, dohaintza-emailea bizirik dagoela edo hori hil ondotik.

Dohaintza-emaileak edo horren jarraunselek dohaintza ezezta dezakete onarpenaren berririk ez badute, salbu eta, notario-aktaren bidez dohaintza-hartzaileari agindeia egin eta hori jasotzea-ekin batera, horrek onarpena ematen duenean.

115. legea

Araubidea

«Propter nuptias» dohaintzei hurrengo erregelak aplikatuko zaizkie:

1. El donatario universal sucede como heredero; pero no responderá de las deudas que los donantes contrajeren con posterioridad a la donación, salvo si fueren en beneficio de la Casa.

2. En la donación universal de bienes presentes y futuros se presumirá, salvo pacto en contrario, que el donatario adquiere los futuros sólo a la muerte del donante.

3. Cuando en la donación universal los donantes se reservaren a libre disposición bienes o cantidades, se presumirá: a) que la libre disposición será tanto inter vivos como mortis causa; b) que la reserva se hace a favor de los donantes conjuntamente, e íntegramente para el sobreviviente; c) que, fallecidos todos los donantes, los bienes reservados de que no hubiesen dispuesto pertenecerán al donatario como comprendidos en la donación; d) que de las deudas que los donantes ocultaren al hacer la donación responderán preferentemente los bienes que ellos se hubiesen reservado.

4. El que hiciere donación de lo que quedare a su muerte, sólo podrá disponer de sus bienes por actos inter vivos a título oneroso.

5. Si los donantes se reservasen el usufructo y la administración, se presumirá, salvo disposición en contrario, que la reserva se hace conjuntamente

1. Dohaintza-hartzaile unibertzala ondasunen oinordekoa da, jaraunse gisa; baina ez du inolako erantzukizunik dohaintza-emaileek dohaintzaren ondorik egindako zorren gain, horiek etxearen onurarako direnean izan ezik.

2. Oraingo eta etorkizuneko ondasun guztien gaineko dohaintza unibertzalean, eta aurkako itunik izan ezean, uste izanen da dohaintza-hartzaileak etorkizunekoak eskuratzen dituela dohaintza-emailea hildakoan bakarrik.

3. Dohaintza unibertzalean, dohaintza-emaileek eurentzat erreserbatu badute ondasun edo kopuruak askatasunez xedatzeko ahalmena, hauxe uste izanen da: a) xedapen askea inter vivos zein mortis causa egin daitekeela; b) erreserba hori dohaintza-emaile guztientzat batera egin dela, eta dohaintza-emaile bat bakarrik badago bizirik, horrentzat oso-osorik; c) dohaintza-emaile guztiak hiltzean erreserbapeko ondasunak xedatu gabe gelditzen badira, horiek dohaintza-hartzaileari dagozkiola dohaintzaren osagai gisa; d) dohaintza-emaileek, dohaintza egitean, zorrak ezkutatut badituzte, zor horiek lehenespenez ordainduko direla dohaintza-emaile horiek eurentzat erreserburiko ondasunekin.

4. Norbaitek dohaintza egiten badu bera hiltzeko unean geratuko den horren gain, orduan, bere ondasunak kostu bidezko inter vivos egintzen bitartez bakarrik xedatu ahal izanen ditu.

5. Dohaintza-emaileek eurentzat erreserbatu badituzte gozamina eta administrazioa, uste izanen da, aurkako xedapenik izan ezean, erreserba do-

para ambos e íntegramente para el sobreviviente.

6. A falta de otra disposición, el donatario deberá ordenar y costear el entierro, funerales y sufragios por los donantes conforme al uso del lugar y según corresponda a la Casa.

7. Si la donación se hiciere con la carga de vivir el donatario en la Casa, el abandono de ésta permitirá a los donantes o al que de ellos sobreviva revocar la donación. La escritura de revocación podrá otorgarse previa justificación del abandono por acta notarial de notoriedad o información «ad perpetuam memoriam». Fallecidos los donantes, si existieren personas con derecho de acogimiento a la Casa, se estará a lo dispuesto en las leyes 131 y 132.

8. En las reversiones y sustituciones fideicomisarias a favor de personas futuras, se estará a lo dispuesto en la ley 224.

9. Los llamamientos para suceder en favor de cualquier persona se considerarán como donación sólo cuando así se hubiere hecho constar expresamente. En los demás casos no tendrán más valor que el de simples llamamientos sucesorios, por lo que no implicarán prohibición de disponer de los bienes a título oneroso, y los llamados sucederán únicamente en los bienes que queden al fallecimiento del donatario.

haintza-emaile guztiontzat batera egin dela, eta dohaintza-emaile bat bakarrik badago bizirik, horrentzat oso-osorik.

6. Bestelako xedapenik izan ezean, dohaintza-hartzaileak dohaintza-emaileen lurperatze, hileta eta arimakariak ordenatu eta ordaindu beharko ditu, tokiko usadioarekin bat etorritz eta etxeari dagokionaren arabera.

7. Dohaintzaren bidez, dohaintza-hartzaileari etxean bizitzeko zama ezartzen bazaio, etxea bertan behera uzteak dohaintza-emaileei edo horietatik bizirik dagoenari ahalbidetzen die dohaintza ezeztatzea. Ezeztapen-eskritura egilesteke, alde zurretik etxea bertan behera utzi dela egiaztatuko da, bai notarioak egindako nabaritasun-aktaren bidez, bai «ad perpetuam memoriam» informazioa erabiliz. Dohaintza-emaileak hil ondoren, norbaitek etxe-harrerapean hartua izateko eskubidea badu, 131 eta 132. legeetan xedatutakoa bete beharko da.

8. Etorkizuneko gizabanakoentzat egindako lehengorazteetan eta fideikomiso zko orde zpenetan, 224. le gean xedaturikoa bete beharko da.

9. Edozein pertsonari egindako oinordetza-deiak dohaintza moduan hartuko dira, esanbidez hala agerrarazten denean. Gainerako kasuetan, deiok oinordetzarako deien balio hutsa izanen dute; hori dela eta, dei horiek ez dakar te inongo debekurik, ondasunak kostu bidez xedatzeko, eta oinordetzara deituak oinordeko izanen dira, baina dohaintza-emailea hiltzean geratzen diren ondasunetan bakarrik.

10. Si el donante no se hubiere reservado bienes suficientes para atender las dotes o dotaciones a que viniere obligado, se entenderá que éstas quedan a cargo del donatario, aunque no se hubiera consignado expresamente. El donatario no podrá ser relevado de esta obligación por el donante, salvo renuncia del beneficiario.

11. Cuando nada se hubiere pactado sobre administración y dirección de los bienes donados, se entenderá que corresponden a los donantes o al sobreviviente, siempre que éstos se hubieren reservado el usufructo.

12. Cuando convivieren en la Casa donantes y donatarios, los que tengan el disfrute de los bienes deberán alimentos a los otros, conforme al haber y poder de la Casa y según el uso del lugar.

13. Si se hubieren pactado la convivencia entre donatarios y donantes, reservándose éstos el usufructo de los bienes donados, ninguno de ellos sin consentimiento de los otros podrá enajenar la nuda propiedad ni ceder el disfrute ni gravar sus respectivos derechos.

Ley 116

Disposición

Si no se hubiere ordenado otra cosa en el título, el donatario, los hijos del matrimonio en cuya contemplación se

10. Dohaintza-emaileak ez badu behar beste ondasunik erreserbatzen berak eman beharreko ezkonsari edo zuzkidurei aurre egiteko, ulertuko da halakoak dohaintza-hartzailearen ardurapean geratzen direla, nahiz eta hori esanbidez adierazi ez. Dohaintza-emaileak ezin dio dohaintza-hartzaileari betebehari hori kendu, salbu eta onuradunak horri uko egiten diotenean.

11. Dohaintzan emandako ondasunen administrazio eta zuzendaritzari buruz ez bada ezer itundu, ulertuko da horiek dagozkiela dohaintza-emaile guztiei edo horietatik bizirik dagoenari, betiere, horiek eurentzat gozamina erreserbatzen dutenean.

12. Dohaintza-emaileak eta dohaintza-hartzaileak etxean elkarrekin bizi badira, ondasunen gaineko luperketa dutenek mantenua zor diete besteei, etxearen ondasunekin eta ahalarekin bat etorritik, eta tokiko usadioaren arabera.

13. Dohaintza-hartzaile eta dohaintza-emaileen artean elkarbizitza-ituna egin bada, eta azken horiek eurentzat erreserbatu badute dohaintzan emandako ondasunen gozamina, horietatik inork ezin izanen du, gainerakoen adostasunik gabe, jabetza soilu besterendu, horren gaineko luperketa laga, ezta horietako bakoitzari dagozkion eskubideak kargatu ere.

116. legea

Xedapena

Tituluan ez bada bestelakoa agindu, dohaintza-hartzaileak, dohaintza zein ezkontzari begira egin, eta ezkontza

hubiere realizado la donación o los descendientes que sucesivamente hubiesen heredado los bienes donados podrán disponer de los mismos, en todo caso, a título oneroso; a título lucrativo podrá disponer el donatario o sus dichos descendientes con capacidad de testar, así como éstos aunque carezcan de descendencia.

Reversión

Los bienes donados, de los que el donatario o sus dichos descendientes no hubiesen dispuesto válidamente según el párrafo anterior, al fallecimiento del último revertirán al donante. Si se tratare de bienes de conquista de los cónyuges donantes, la reversión se dará en favor de ambos por mitad.

Si hubiere fallecido el donante, los bienes donados revertirán a favor de los más próximos parientes que serían sus herederos legales en el momento de la reversión.

Salvo que hubiere pacto de exclusión del usufructo, la reversión será siempre sin perjuicio del usufructo de fidelidad a favor del cónyuge viudo del donatario o del que correspondiese al cónyuge del donante premuerto, con preferencia a favor de este último si concurrieren ambos usufructos.

Lo dispuesto en esta ley se entenderá siempre que otra cosa no se hubiere es-

horretako seme-alabek, edota dohaintzan emandako ondasunak jarauntsiaren bidez eta ondoz ondo zein ondorengok jaso, eta horrek, ondasunok xedatu ahal izanen dituzte kostu bidez edozein kasutan; dohainik xedatu ahal izanen dituzte dohaintza-hartzaileak edo beraren ondorengok, testamentua egiteko gaitasuna badute, bai eta horiek ere, ondorengorik izan ez arren.

Lehengoratzea

Dohaintza-hartzaileak edo berorren ondorengok ez badituzte baliozkotasunez eta aurreko lerrokadaren arabera xedatu dohaintzan jasotako ondasunak, dohaintza-emaileari lehengoratuko zaizkio haietatik azkena hiltzen denean. Ezkontide dohaintza-emaileen konkista-ondasunak izanez gero, lehengoratzea erdi bana gauzatuko da bi ezkontideen mesederako.

Dohaintza-emailea hiltzen bada, dohaintzan emandako ondasunak ahaiderik hurbilenei lehengoratuko zaizkie, lehengoratzea egiteko unean horiek dohaintza-emailearen legezko jaraunseak badira.

Gozamena baztertzeko itunik egin ezean, lehengoratzea gauzatuko da, dohaintza-hartzailearen alargunarentzat eraturiko fidelitasun-gozamenari kalterik egin gabe edo, dohaintza-emailea ezkontidearen aurretik hilez gero, ezkontideari legokiokeen gozamenari kalterik egin gabe; bi gozamenok aldi berarean pilatuz gero, bigarren horrek izanen du lehenespena.

Lege honetan xedaturikoa hala uler-tuko da, dohaintza-tituluan bestelakoa

tablecido en el título de la donación, y no tendrá lugar la reversión cuando este derecho hubiere sido renunciado por el donante o no hubiere parientes llamados a sucederle por el orden legal.

Ley 117

Ineficacia

Las donaciones «propter nuptias» quedarán ineficaces si el matrimonio no llegara a celebrarse o desde que fuera declarado nulo.

Ley 118

Revocación

Las donaciones «propter nuptias» sólo podrán revocarse:

1. Por las causas pactadas.
2. Por incumplimiento de cargas impuestas al donatario que sean esenciales; en cuanto a las otras, el donante podrá exigir su cumplimiento. Fallecido el donante, se estará a lo dispuesto en el párrafo primero de la ley 162.

La facultad de revocación es intransmisible, pero si los donantes fallecieren habiendo interpuesto la demanda, podrán continuar el ejercicio de la acción las personas que resultarían llamadas a los bienes, caso de prosperar la revocación.

Cuando la donación se hubiere hecho conjuntamente por varios donantes, la revocación deberá hacerse respecto a la totalidad de los bienes y por todos los donantes o sobrevivientes.

ezartzen ez denean, eta lehengoratzeari ez da gertatuko, dohaintza-emaileak eskubide horri uko egiten dionean edo, legezko hurrenkeraren arabera, dohaintza-emailearen oinordeko izateko ahaiderik ez dagoenean.

117. legea

Eragingabetasuna

«Propter nuptias» dohaintzak eragirik gabe geratuko dira, gero ezkontza egiten ez bada edo ezkontzaren deuseztasun-adierazpena ematen bada.

118. legea

Ezeztapena

«Propter nuptias» dohaintzak ezeztatu daitezke:

1. Itundutako arrazoien ondorioz.
2. Dohaintza-hartzaileari ezarritako zama ez betetzeagatik, zamok oinarrikoak direnean; gainerako zamei dagokienez, dohaintza-emaileak horien betetzea galda dezake. Behin dohaintza-emailea hil eta gero, 162. legearen lehenengo letrorikadetan xedaturikoa bete beharko da.

Ezeztatzeko ahalmena eskualdaezina da; baina dohaintza-emaileek demanda jartzen badute hil baino lehen, akzioaren egikaritzari euts diezaiokete ezeztapenak aurrera egitekotan ondasunetara deitutako liratekeen pertsonen.

Dohaintza-emaile bat baino gehiago izanik, guztiek batera egiten badute dohaintza, horiek guztiek edo horietatik bizirik daudenek egin beharko dute ezeztapena; ezeztapenak ondasun guztiak hartuko ditu.

**TÍTULO XII
DE LA DOTE Y DE LAS ARRAS**

**CAPÍTULO I
De la dote**

Ley 119
Concepto

Constituyen dote los bienes que en tal concepto la mujer aporta formalmente al matrimonio, antes o después de su celebración.

Ley 120
Régimen de la dote

La dote se regirá por lo establecido o pactado y, en su defecto, por las reglas siguientes:

1. El marido adquirirá la propiedad de la dote cuando ésta consista en dinero o cosas consumibles. Respecto a los otros bienes, la valoración por sí sola no causará la adquisición de propiedad por el marido.

2. La administración de los bienes dotales corresponderá al marido.

3. El marido podrá disponer por sí solo de la dote, cuya propiedad haya adquirido, siempre que ésta consista en dinero o se hubiere asegurado la restitución de los bienes dotales o el marido hubiere sido relevado de la obligación de asegurar. En otro caso, sólo podrá disponer con el consentimiento de su mujer.

**XII. TITULUA
EZKONSARIA ETA ERRESAK**

**I. KAPITULUA
Ezkonsaria**

119. legea
Kontzeptua

Ezkonsaria osatzen dute emakumeak izaera horrekin eta forma egokian, ezkontzaren aurretik nahiz horren ondoren, ezkontzara ekartzen dituen ondasun guztiek.

120. legea
Ezkonsariaren araubidea

Ezkonsaria eraentzen du horren inguruan ezarri edo itundutakoak eta, ezer ezarri edo itundu ezean, hurrengo erregelak:

1. Senarrak ezkonsariaren gaineko jabetza eskuratuko du, hori diruz edo gauza kontsumikorrez osaturik dagoenean. Gainerako ondasunei dagokienez, balioesteak berez ez dakar senarrak ondasunon gaineko jabetza eskuratzetik.

2. Ezkonsariko ondasunen administrazioa senarrari dagokio.

3. Senarrak bere kabuz xeda dezake ezkonsaria horren gaineko jabetza eskuratu duenean, baldin eta hori dirua bada, ezkonsariko ondasunen itzulketa ziurtatu bada edota senarra itzulketa ziurtatzeko betebeharetik askatu bada. Bestelako kasuetan, xedapen hori emaztearen adostasunarekin bakarrik egin ahal izan du.

4. La mujer, con el consentimiento de su marido, podrá disponer de los bienes dotales cuya propiedad conserve.

Ley 121

Garantía

El marido deberá asegurar la restitución de la dote conforme a lo establecido en la legislación hipotecaria.

Siempre que el todo o una parte de los bienes que constituyan la dote estimada consista en efectos públicos o títulos valores, y mientras su importe no se halle garantizado por la hipoteca que el marido está obligado a prestar, los títulos o documentos que los representan se depositarán a nombre de la mujer, con conocimiento del marido, en un establecimiento público de los destinados al efecto.

Ley 122

Restitución

En los supuestos de nulidad, separación o disolución del matrimonio, la dote se restituirá a la mujer, o a sus herederos, sin perjuicio de lo que, en su caso, dispusieren los Tribunales. Fallecida la mujer, quedará a salvo el derecho de usufructo de fidelidad que pudiera corresponder al marido conforme a las disposiciones de esta Compilación.

Los frutos o rentas de la dote pendientes se liquidarán conforme a lo establecido en la ley 420 para la extinción del usufructo.

4. Emazteak, senarraren adostasunarekin, ezkonsariko ondasunak xeda ditzake, horien gaineko jabetzari eutsi badio.

121. legea

Bermea

Senarrak ezkonsariaren itzulketa ziurtatu beharko du, hipoteka-legerian ezarritakoarekin bat etorritz.

Ezconsaria balioetsita dagoela, hori osatzen duten ondasun guztiak ala batzuk efektu publikoak edo balore-titulak badira, eta horien zenbatekoa senarrak eman beharreko hipotekarekin bermatuta ez dagoen bitartean, orduan, halakoen adierazle diren agiriak emaztearen izenean gordailatuko dira, senarra horren jakitun izanik, horretarako dauden establezimendu publikoetatik batean.

122. legea

Itzulketa

Ezkontzaren deuseztasun-, banantze- edo desegite-kasuetan, ezconsaria emazteari edo horren jaraunsleei itzuliko zaie, auzitegiek xedaturikoari, halakorik bada, kalterik egin gabe. Emaztea hilez gero, fideltasun-gozamenak indarrean iraunen du, baldin eta konpilazio honen xedapenekin bat etorritz eskubide hori senarrari badagokio.

Ezconsariaren fruitu edo errentak banatzeke baldin badaude, likidatu eginen dira, gozamenaren azkentzeari buruz 420. legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Ley 123

Reversión

Será aplicable a la dote el derecho de reversión establecido en la ley 116.

Ley 124

Hijas de anterior matrimonio

Dotada una de las hijas de matrimonio anterior, el padre o madre bñubo no podrá dotar en más a las hijas de matrimonio posterior, y dotada una de éstas no podrá dotar en menos a las del anterior.

Lo dispuesto en esta ley se tendrá en cuenta para el cómputo de liberalidades en favor de las hijas del segundo o posterior matrimonio, a los efectos de lo establecido en la ley 272.

CAPÍTULO II

De las arras

Ley 125

Concepto

Son arras la donación que el esposo hace a la esposa, antes o después del matrimonio, en contraprestación a la dote.

Límite

Las arras no pueden exceder de la octava parte de la dote. La esposa no adquirirá la propiedad de las arras que

123. legea

Lehengoratztea

Ezkonsariari aplikatuko zaio 116. legean ezarritako lehen goratze-eskubidea.

124. legea

Aurreko ezkontzako alabak

Aurreko ezkontzako alabari ezkoncaria eman bazaio, bigarren ezkontutako aitak edo amak ezin izanen die ezkoncari handiagorik eman geroko ezkontzako alabei; horietako bati ezkoncario eman bazaio, ezin izanen die aurreko ezkontzakoei ezkoncari txikiagorik eman.

Bigarren edo geroagoko ezkontzako alaben mesederako eskuzabaltasunak egin badira, eskuzabaltasun horiek zenbatzeko, kontuan hartuko da lege hone-tan xedaturikoa, 272. legean ezarritakoaren ondoretarako.

II. KAPITULUA

Erresak

125. legea

Kontzeptua

Erresak dira senarrak ezkontzaren aurretik nahiz horren ondoren emazteari egindako dohaintzak, ezkoncariaren contraprestazio gisa.

Muga

Erresek ezin dute gaintitu ezkoncariaren zortzirena. Zinez emandako ezkoncariaren zortzirena gaintitzen du-

excedan de la octava parte de la dote efectivamente entregada.

Administración

Salvo pacto en contrario, la administración de las arras corresponde al marido.

Crédito preferente

Las arras no responderán de las deudas del marido; la mujer tendrá crédito preferente en caso de concurso, quiebra o ejecución de bienes.

Ley 126

Disposición

a) Inter vivos

Por actos inter vivos la mujer puede disponer de las arras conforme a lo que para la dote se establece en la ley 120, número 4.

b) Mortis causa

Son válidos los actos de disposición mortis causa sobre las arras otorgados por la mujer, aunque ésta falleciere sin hijos y sobreviviere al marido.

Ley 127

Pérdida

En caso de nulidad del matrimonio, divorcio o separación de los cónyuges, la mujer perderá el derecho a las arras, salvo que los Tribunales, en atención a las circunstancias del caso, resolvieren lo contrario. En caso de pérdida, los descendientes del matri-

ten erresen jabetzarik ez du eskuratuko emazteak.

Administrazioa

Aurkako itunik izan ezean, erresen administrazioa senarrari dagokio.

Lehenespeneko kreditua

Erresekkin ez zaie aurre eginen senarraren zorrei; emazteak lehenespeneko kreditua izanen du, konkurtso, porrot edo ondasunen exekuzio kasuetan.

126. legea

Xedapena

a) Inter vivos

Inter vivos egintzen bitartez, emazteak erresak xeda ditzake, 120. legeko 4. zenbakian ezkonsariari buruz ezarritakoarekin bat etorritz.

b) Mortis causa

Baliozkoak dira erresen gain emazteak mortis causa burututako xedatze-egintzak, nahiz eta senarraren ondotik hil, seme eta alabarik izan gabe.

127. legea

Galera

Ezkontzaren deuseztasun kasuan, eta ezkontideak dibortziatu edo banantzen direnean, emazteak erresen gaineko eskubidea galduko du, salbu eta, auzitegiek, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan izanik, aurkakoa erabakitzen dutenean. Galera-kasuan, ezkontideen

monio adquirirán la propiedad de las arras; si no hubiere descendencia revertirán al marido.

TÍTULO XIII DE LA DISOLUCIÓN DE LAS COMUNIDADES FAMILIARES

Ley 128

Comunidades formalmente constituidas

La disolución de las comunidades familiares formalmente constituidas se regirá por las reglas establecidas en el título de su constitución y, en su defecto, por las siguientes:

1. Se considerará justa causa de disolución de la comunidad toda discordia grave que no pueda dirimirse por la intervención de los Parientes Mayores a quienes corresponderá calificarla, previo requerimiento notarial de parte interesada.

2. Los Parientes Mayores decidirán sobre la separación de personas y procurarán que los «amos viejos» de la Casa permanezcan en ella. En cuanto a los bienes, se atenderán al uso del lugar, manteniendo en lo posible la unidad de la Casa y adjudicando a los miembros de la comunidad disuelta bienes y derechos proporcionados al tiempo que hubieren trabajado en la Casa, al haber y poder de ésta, al número de personas que tuvieran a su cargo y demás circunstancias. Cuando se adjudicare una

ondorengoek erresen jabetza eskuratuko dute; ondorengorik ez badago, senarrari lehengoratuako zaizkio erresok.

XIII. TITULUA FAMILIA-ERKIDEGOAK DESEGITEA

128. legea

Forma egokian eraturiko erkidegoak

Familia-erkidegoak forma egokian eratu badira, beren eraketa-tituluan ezarritako erregelek eta, halakorik izan ezean, ondoko hauek eraenduko dute horien desegitea:

1. Erkidegoa desegiteko arrazoi zuzentzat hartuko da Ahaide Nagusiek konpondu ezin duten desadostasun larria; ahaideoi dagokie desadostasuna kalifikatzea, aurretiaz alderdi interesdunak horretarako notario-agindeia egiten badie.

2. Ahaide Nagusiek erabakiak hartuko dituzte gizabanakoen arteko banantzeari buruz, eta ahaleginak egingen dituzte etxeko «jaun-andre zaharrak» etxean bertan gera daitezen. Ondasunei dago-kienez, tokiko usadioa hartuko dute kontuan, eta, ahal den neurrian, etxearen batasunari eutsiko diote, eta erkidego deseginarene kideei ondasun eta eskubideak adjudikatuko dizkiete, horiek etxean zein epetan lan egin, eta epe horren araber, etxearen ondasun eta ahalaren arabera, eta kideok euren ardurapean di-

pensión, los Parientes Mayores decidirán si procede el aseguramiento de ésta mediante cláusula de estabilización u otra garantía.

Ley 129

Comunidades de hecho

Cuando se hubiera mantenido una situación permanente de convivencia y colaboración entre personas y familias sin haberse establecido las reglas a que hubiera de sujetarse, se aplicarán las siguientes:

1. En todo momento, cualquiera de los miembros de esta comunidad podrá poner fin a la misma libremente.

2. Los beneficios y mejoras por el trabajo en común que subsistan en el momento de la disolución se adjudicarán a los miembros de la comunidad, según el uso del lugar y teniendo en cuenta las aportaciones en bienes o trabajo, los beneficios ya percibidos por cada uno, las causas de la disolución y demás circunstancias.

3. A los efectos de las reglas anteriores no se considerarán miembros de la comunidad los hijos solteros que convivan con sus padres.

Ley 130

Prestación de alimentos

Exista o no convivencia, si los hijos hubieren prestado alimentos a sus pa-

tuzten pertsonen kopuruaren arabera, bai eta gainerako inguruabarren arabera ere. Pentsioa adjudikatzen bada, Ahaide Nagusiek erabakiko dute pentsio hori egonkortasun-klausularekin edo beste berme batekin ziurtatu behar den ala ez.

129. legea

Egitezko erkidegoak

Pertsonen eta familien artean elkarbizitza eta elkarlan egonkorrak izan badira horiek arautzeko erregelarik ezarri gabe, hurrengoak aplikatuko dira:

1. Une oro, erkidego horren kideetatik edozeinek amaiera eman diezaiolke erkidegoari, askatasun osoz.

2. Erkidegoan egindako lanaren ondorioz onura eta hobekuntzak lortu badira, eta erkidegoa desegiteko unean horiek bertan badiraute, erkidegoaren kideei adjudikatuko zaizkie tokiko usadioaren arabera; horretarako, kon-tuan izan beharko dira erkidegora ekarritako ondasunak edo lana, kide bakoitzak jadanik eskuraturiko onurak, desegite-arrazoiak eta gainerako inguruabarrak.

3. Aurreko erregelen ondoretarako, ez dira erkidegoaren kideztat hartuko gurasoekin bizi diren seme-alaba ezkongabeak.

130. legea

Mantenua ematea

Elkarbizitza izan zein ez, seme-alabek euren gurasoei mantenua eman ba-

dres, o les hubiesen atendido en sus necesidades personales, no podrán aquéllos reclamar nada de los padres ni de los herederos de éstos.

TÍTULO XIV DEL ACOGIMIENTO A LA CASA Y DE LAS DOTACIONES

Ley 131

Acogimiento

Cuando en capitulaciones matrimoniales, testamento u otras disposiciones se establezca en favor de alguna persona derechos de vivir en la Casa, de ser alimentada y atendida, tanto en salud como en enfermedad u otros similares, con o sin obligación de trabajar para la Casa, se estará a la disposición que los conceda y a la costumbre del lugar.

Ley 132

Cuestiones y su resolución

Todas las cuestiones que se susciten sobre interpretación, cumplimiento o incumplimiento de los derechos mencionados en la ley anterior se someterán a la decisión de los Parientes Mayores, quienes:

1. En caso de discordia entre el obligado y beneficiarios de los derechos, a requerimiento de cualquiera de las partes, examinarán los motivos de la discordia, determinarán y calificarán, en su caso, el incumplimiento del obli-

diete edo euren beharrian pertsonalak ase badituzte, haiek ezin izanen diete ezer erreklamatu gurasoei nahiz horien jaraunsliei.

XIV. TITULUA ETXE-HARRERA ETA ZUZKIDURAK

131. legea

Harrera

Ezkontzako itunetan, testamentuan edo bestelako xedapenetan, norbaiten mesederako ezartzen badira etxean bizitzeko, mantenua eskuratzeko eta osasuntsu, gaitxo edo horien antzeko egoeretan laguntza jasotzeko eskubideak, etxean lan egiteko betebeharraren menpe edo halakorik gabe, orduan, eskubideok emateko erabili den xedapena eta tokiko ohitura bete beharko dira.

132. legea

Arazoak eta horien konponbidea

Aurreko legean aipaturiko eskubi-deen interpretazioari buruz eta horien betetze edo edo ez-betetzeari buruz arazoak sortzen badira, Ahaide Nagusien erabakimenaren menpe egonen dira, eta ahaideok honela jokatu dute:

1. Betebeharpekoaren eta eskubi-de-onuradunen artean desadostasuna badago, alderdietatik edozeinek hala eskatuta, liskarraren arrazoiak aztertuko dituzte, eta, halakorik denean, betebeharpeko, onuradun edo bi-bion ez-

gado, del beneficiario o de ambos, y la situación de ruptura de la convivencia por peligro notorio o grave violencia moral.

2. Decidirán sobre la necesidad o conveniencia de la enajenación o gravamen de la Casa, vivienda y, en su caso, de la hacienda familiar o de parte de ella, así como sobre el estado o situación del obligado o del beneficiario, o de ambos, que impidan o dificulten el cumplimiento de las obligaciones, su condicionamiento, pendencia o realización.

En todas estas cuestiones, los Parientes Mayores efectuarán las valoraciones de los derechos, pudiendo asegurarlos, liquidarlos, sustituyéndolos por un capital o pensión y, caso de apreciar incumplimiento por parte del beneficiario, declararlos extinguidos.

Ley 133

Dotaciones

a) Concepto y régimen

Las cantidades, bienes o derechos asignados libremente en capitulaciones matrimoniales, testamento u otras disposiciones, a persona distinta del instituido heredero, donatario o legatario de la Casa, tendrán carácter de dotaciones y se regirán por el título en que se hubiesen establecido.

Ley 134

b) Cuantía

Si se establecieron dotaciones a cargo del heredero donatario o legatario

betetzea zehaztu eta kalifikatuko dute, eta, arrisku nabariaren edo indarkeria moral larriaren ondorioz elkarbizitza hausten bada, egoera hori ere zehaztu eta kalifikatuko dute.

2. Erabakiko dute, etxea, etxebizitza eta, hala denean, familiaren etxaldea edo horren zati bat besterendu edo kargatzeko beharizanik dagoen edo hori egokia den, bai eta betebeharpeko, onuradun edo bi-bion egoera zein den, baldin eta eragotzi edo oztopatzen badute betebeharrak betetzea, baldintzape-tzea, betetzeke egotea edo gauzatzea.

Arazo horietan guztietan Ahaide Nagusiek eskubideei buruzko balioes-teak eginen dituzte, eta eskubideok ziurta edo likida ditzakete, horiek kapital edota pensio batekin ordeztuz, eta, onuradunaren ez-betetzea izan bada, horien azkentzea adieraz dezakete.

133. legea

Zuzkidurak

a) Kontzeptua eta araubidea

Ezkontzako itunetan, testamentuan edo beste xedapen batzuetan, kopuru, ondasun edo eskubideak askatasunez esleitzen bazaizkio etxearen jaraunse, dohaintza-hartzaile edo legatu-hartzai-le izendatuaz besteko pertsona bati, es-leipenok zuzkiduratzat hartuko dira, eta euren eraketa-titulua eraenduko ditu halakoak.

134. legea

b) Zenbatekoa

Zuzkidurak ezartzen badira etxearen jaraunse, dohaintza-hartzaile edo lega-

de la Casa, sin haberse determinado su cuantía o el modo de fijarla, se determinará ésta:

1. Por los instituyentes, o el que de ellos sobreviva, de mutuo acuerdo con el obligado.

2. En defecto de aquéllos, por el obligado y el beneficiario de la dotación, según el uso del lugar y el haber y poder de la Casa.

3. En cualquiera de los supuestos anteriores, y a falta de acuerdo entre las personas indicadas, fijarán la cuantía los Parientes Mayores, así como el plazo y la forma de la entrega y las garantías que estimen precisas.

Ley 135

c) Límite

Es aplicable a las dotaciones en favor de hijos o hijas la limitación establecida en la ley 124.

d) Reversión

A las dotaciones hechas por razón de matrimonio se aplicará derecho de reversión establecido en la ley 116.

Ley 136

e) Intransmisibilidad

El derecho a la dotación no será transmisible cuando el beneficiario de la misma no la hubiere exigido y hubiese permanecido hasta su fallecimiento en la Casa. En este caso, el heredero o donatario estará obligado a costear el entierro, funerales y sufragios, según el uso del lugar y el haber y poder de la Casa.

tu-hartzailearen kontura, horien zenbatekoa edo horiek finkatzeko modua zehaztu gabe, hori guztia zehaztuko dute:

1. Izendatzaileek, edo horietatik bizirik dagoenak, betebeharrepekoarekin ados etorriz.

2. Halakorik izan ezean, betebeharrepekoak eta zuzkiduraren onuradunak, tokiko usadioaren, eta etxearen ondasunen eta ahalaren arabera.

3. Aurreko kasuetatik edozeinetan, eta bertan aipaturiko pertsonak ados jarri ezean, Ahaide Nagusiek finkatuko dute zenbatekoa, bai eta hori emateko epea eta forma, eta euren ustez beharrezkoak diren bermeak ere.

135. legea

c) Muga

Seme edo alabentzat egindako zuzkidurei 124. legean ezarritako mugape-na aplikatu dakieke.

d) Lehengoratzea

Ezkontzaren ondorioz egindako zuzkidurei 116. legeak ezarritako lehengoratzee- eskubidea aplikatuko zaie.

136. legea

e) Eskualdaezintasuna

Zuzkidura-eskubidea ezin izanen da eskualdatu, horren onuradunak ez badu hori galdatu eta bera etxean bizi izan bada hil arte. Kasu horretan, jaraunse edo dohaintza-hartzailea behartuta egonen da lurperatze, hileta eta arimakariak ordaintzera, tokiko usadioaren, eta etxearen ondasunen eta ahalaren arabera.

TÍTULO XV
DE LOS PARIENTES MAYORES

Ley 137

Reglas aplicables

Siempre que por disposición de voluntad, costumbre local o ley, se someta determinada cuestión familiar a la intervención de los Parientes Mayores, será aplicable lo establecido en aquéllas y, en su defecto, las reglas contenidas en el presente título.

Ley 138

Parientes llamados

Se entenderán llamados los dos más próximos parientes mayores de edad y residentes en Navarra, determinados conforme a las reglas siguientes:

1. Serán elegidos uno de la línea paterna y otro de la materna; si las personas entre quienes se suscite cuestión tuvieran distintos parientes, será elegido uno por cada parte.

2. En todo caso, serán preferidos los parientes más próximos en grado; en igualdad de grado, los de vínculo doble sobre los de vínculo sencillo; y en las mismas condiciones, los de más edad.

Ley 139

Adoptados

Si se tratare de personas adoptadas con adopción plena, los parientes lla-

XV. TITULUA
AHAIDE NAGUSIAK

137. legea

Aplikatu beharreko erregelak

Borondatezko xedapenaren ondorioz, tokiko ohituraren ondorioz edo lege-aginduz, familiaren arazo zehatza Ahaide Nagusien erabakimenaren menpe jarri bada, xedapen haietan ezarritakoa aplikatuko da, eta, horrelakorik izan ezean, titulu honetan jasotako erregelak aplikatuko dira.

138. legea

Zein ahaideri deitu behar

Bi ahaiderik hurbilenei deitu zaiela ulertuko da, horiek adin nagusikoak izan eta Nafarroan bizi badira; ahaideok zehaztuko dira ondoko erregelekin bat etorritz:

1. Bat aitarengandiko lerrotik aukeratuko da eta bestea amarengandiko lerrotik; arazoa ahaide ezberdinak dituzten pertsonen artean sortzen bada, bat aukeratuko da alderdi bakoitzeko.

2. Edozein kasutan, lehenespena izanen dute gradurik hurbileneko ahaideek; gradu berekoak direnean, lotura bikoitzekoek lotura bakarrekoen gainetik; eta, egoera berean daudenean, ahaide zaharrenek.

139. legea

Adoptatuak

Adopzio osoan harturiko pertsonen kasuan, adopzio-hartzailearen edo adop-

mados serán siempre los del adoptante o adoptantes.

Ley 140

Suplencia

Si, por no existir personas que reúnan las condiciones legales, no pudieran designarse parientes de una línea o de una parte, se procederá de la forma siguiente:

1. La falta de pariente de línea paterna o materna se suplirá con pariente de otra línea.

2. La falta de pariente de una de las partes se suplirá con la persona, sea o no pariente, que el interesado designare.

Ley 141

Carácter personalísimo; delegación

La función de Pariente Mayor es personalísima. No obstante, podrá delegarse en otra persona la simple ejecución o formalización del acuerdo de los Parientes Mayores, siempre que en el correspondiente instrumento de poder conste esencialmente el contenido de su voluntad.

Ley 142

Competencia

Son de competencia de los Parientes Mayores las cuestiones atribuidas por las leyes de esta Compilación y cualesquiera otras de orden familiar de naturaleza análoga que se les enco-

zio-hartzaileen ahaideei deituko zaie beti.

140. legea

Hutsuneak betetzea

Inork ere ez baditu legezko baldintzak betetzen eta, horren ondorioz, ezin bada lerro edo alderdi bateko ahaiderik izendatu, honetara jardun beharko da:

1. Aitarengandiko lerroan ahaiderik ez badago, hutsune hori amarengandiko lerroko ahaidearekin beteko da, eta alderantziz.

2. Alderdi batek ahaiderik izan ezean, hutsune hori betetzeko, interesdunak beste pertsona bat izendatuko du, ahai-de izan zein ez.

141. legea

Bere-berezko izaera; eskuordetza

Ahaide Nagusien eginkizuna bere-berezkoa da. Hala ere, beste inori eskuordetu ahal zaio Ahaide Nagusiek hartutako erabakiaren betearazpena edo formalizazio hutsa, baldin eta ahalorde egokian jasotzen bada funtsean zein eduki duen haien borondateak.

142. legea

Eskumena

Ahaide Nagusien eskumeneoak dira konpilazio honetako legeek eratxikitako arazoak, bai eta horien antzekoak diren bestelako familia-arazoak ere, horiek borondatezko xedapenaren

mienden por disposición voluntaria o costumbre local.

Ley 143

Renuncia y recusación

Los Parientes Mayores no podrán renunciar a su función ni negar su intervención sin causa que impida o gravemente dificulte su gestión; y no podrán ser recusados sino por interés personal directo o por enemistad manifiesta.

Las causas de excusa y las de recusación serán apreciadas por el otro Pariente Mayor y el llamado a la sustitución.

Será sustituto el pariente que siga al sustituido en orden de pelación.

Ley 144

Acuerdo

Los Parientes Mayores, una vez queridos al efecto, habrán de dictar su acuerdo en el plazo más breve posible, según la naturaleza de la cuestión. Cuando se trate de la elección de heredero entre los hijos u otras personas llamadas genéricamente, no estarán obligados a elegir mientras no tome estado o llegue a la mayoría de edad la menor de las personas llamadas.

El acuerdo deberá consignarse en escritura pública siempre que se refiera a bienes inmuebles o afecte a pactos consignados asimismo en escritura pública.

ondorioz edo tokiko ohituraren aginduz ahaideon ardurapean jarri badira.

143. legea

Uko egitea eta ezespena

Ahaide Nagusiek ezin diote ukorik egin euren eginkizunari, ezta euren esku-hartzeari ezezkoa eman ere, euren kudeaketa eragotzi edo modu larrian zailtzen duen arazoia izan gabe; eta ahaideok ezin izanen dira ezetsi, zuzeneko interes pertsonalik edo begibistako areriotasunik ez badago.

Barkatzeko edo ezesteko arrazoiak balioetsiko dituzte beste Ahaide Nagusiak eta ordezpenerako deia jaso duenak.

Ordezko izanen da lehenespenuhurrenkeran ordeztuaren hurrengo dagoen ahaidea.

144. legea

Erabakia

Ahaide Nagusiek, horretarako dei egiten zaienetik, euren erabakia eman beharko dute, ahalik eta epe laburrean, arazoaren izaeraren arabera. Jaraunslea aukeratu behar bada seme-alaben artean edo dei generikoa jaso duten pertsonen artean, ahaideok ez dute izanen aukera egiteko betebeharririk, harik eta deia jaso duten pertsonetatik gazteenak egoera eskuratu edo adin nagusitasunera heldu arte.

Erabakia eskritura publikoan jaso beharko da, betiere, ondasun higiezin bidezkoa denean edo eskritura publikoan jasotako itunetan eragina duenean.

Ley 145

Intervención de un tercer pariente

Cuando los Parientes Mayores no llegaren a ponerse de acuerdo sobre determinada cuestión, requerirán la intervención de un tercer pariente, designado por ellos de conformidad o por sorteo entre los inmediatamente llamados a sustituirlos, y decidirán por mayoría entre las dos soluciones que hubieran motivado el desacuerdo.

Ley 146

Reclamación por preferencia

Si por olvido o desconocimiento de la existencia de algún pariente que tenga preferencia, hubiere intervenido otro, será válido lo acordado o decidido, a menos que ante los propios Parientes Mayores se hubiere reclamado dentro de los quince días desde la fecha del conocimiento de haberse otorgado la escritura pública u otro documento en que conste el acuerdo o decisión.

Ley 147

Impugnación

El acuerdo de los Parientes Mayores sólo podrá ser impugnado ante los Tribunales si se hubiera dictado con dolo o fraude, o incurriere en infracción de costumbre o ley.

Responsabilidad

En todo caso los Parientes Mayores serán personalmente responsables de

145. legea

Hirugarren ahaide baten esku-hartzea

Ahaide Nagusiak ez badira ados jartzten arazo zehatz bati buruz, ahaideok hirugarren ahaide baten esku-hartzea eskatuko dute; ahaideek eurek izendatuko dute ahaide hori, euren arteko adostasunez; bestela, zozketa eginen dute euren berehalako ordezeko izatera deituak direnen artean, eta erabakia gehiengo hartuko dute desadostasuna eragin duten bi irtenbideen artean.

146. legea

Lehenespenaren ondoriozko erreklamazioa

Lehenespeneko ahaideren bat bada-goela ahazteagatik edo hori ez jakiteagatik beste ahaide batek esku hartzen badu, erabakitakoa baliozkoa izanen da, salbu eta Ahaide Nagusiei eurei erreklamazioa egiten zaienean; erreklamazio hori egiteko epea hamabost egunekoa da, erabakia zein eskritura publikotan edo agiritan jaso, eta horren egilespenaren berri jaso denetik zenbatuta.

147. legea

Aurkarapena

Ahaide Nagusien erabakia auzitegietan aurkara daiteke, hori doloz edo iruzurrez hartu bada, edota horrekin ohitura nahiz legea hautsi bada.

Erantzukizuna

Edozein kasutan, Ahaide Nagusiek erantzukizun pertsonala izanen dute,

los daños y perjuicios que causaren por dolo o negligencia en el desempeño de sus funciones.

kalte-galerak eragin badituzte, euren eginkizunak doloz edo zabarkeriaz betetzeagatik.

LIBRO II
DE LAS DONACIONES
Y SUCESIONES

TÍTULO I
PRINCIPIOS FUNDAMENTALES

Ley 148

Ley aplicable

Las donaciones y actos de disposición mortis causa otorgados por disponentes de condición foral se regirán por la presente Compilación. Sin embargo, para que la sucesión se ordene conforme a esta Compilación se requerirá la condición foral del causante al momento de su fallecimiento, sin perjuicio de la validez de los actos en cuanto a su forma según el Derecho a que se hallaren sometidos al tiempo de su celebración.

Ley 149

Libertad de disposición

Los navarros pueden disponer libremente de sus bienes, sin más restricciones que las establecidas en el título X de este libro.

Las disposiciones a título lucrativo pueden ordenarse por donación inter

II. LIBURUA
DOHAINTZAK
ETA OINORDETZAK

I. TITULUA
OINARRIZKO PRINTZIOAK

148. legea

Aplikatu beharreko legea

Konpilazio honek eraenduko ditu dohaintzak eta mortis causa xedatzeko egintzak, xedatzaileek forudunaren izaera badute. Dena den, oinordetza konpilazio honekin bat etorritz antola dadin, beharrezkoa izanen da kausatzaileak, heriotza-unean, forudunaren izaera edukitzea; hala ere, egintzok baliokoak izan daitezke, formari dagozkionez, horiek egiteko unean zein zuzenbideren menpe egon, eta horren arabera.

149. legea

Xedatzeko askatasuna

Nafarrek askatasunez xeda ditzakete euren ondasunak, eta ez dituzte izanen liburu honetako X. tituluan ezarritako murrizketak baino.

Dohaineko xedapenak ordenatzeko, inter vivos nahiz mortis causa dohain-

vivos o mortis causa, pacto sucesorio, testamento y demás actos de disposición reconocidos en esta Compilación. Sólo en defecto de estas disposiciones se aplicará la sucesión legal.

Toda disposición a título lucrativo puede hacerse puramente, con modo o bajo condición o término suspensivos o resolutorios. El día incierto se considera como condición.

Ley 150

Donatario universal

Las donaciones inter vivos o mortis causa que comprendan los bienes presentes y futuros del donante, confieren al donatario la cualidad de heredero.

Ley 151

Fiducia sucesoria

El causante puede delegar en fiduciarios-comisarios o en herederos de confianza la facultad de disponer u ordenar la herencia, bien libremente, bien conforme a instrucciones reservadas, de acuerdo con lo establecido en los títulos XI y XII de este libro.

Poder «post mortem»

El poder otorgado por el causante para después de su muerte será válido en tanto no lo revoque quien se halle preferentemente instituido por el difunto como ejecutor de su voluntad, y

tzak, oinordetza itunak, testamentuak edo konpilazio honetan ezarritako xedatze-egintzetatik beste edozein erabil daitezke. Halako xedapenik ez dagoe-nean bakarrik aplikatuko da legezko oinordetza.

Dohaineiko xedapen oro huts-hutsean egin daiteke, bai eta moduarekin nahiz baldintza edo epe-muga etengarri zein suntsiarazlearen menpe jarrita ere. Egun zehaztugabea baldintza moduan hartuko da.

150. legea

Dohaintza-hartzaile unibertsala

Dohaintza-emailearen oraingo eta etorkizuneko ondasunak hartzen dituzten dohaintzek, inter vivos nahiz mortis causa erakoak izan, jaraunsle-izae-ra eratzkitzen diote dohaintza-hartzai-leari.

151. legea

Oinordetza-fiduzia

Kausatzaileak fiduziario-komisarioari edo konfiantzazko jaraunsleari eskuorde diezaioke jarauntsia xedatu edo ordenatzeko ahalmena, bai askatasunez, bai isilpeko jarraibideekin bat etorriz, liburu honetako XI eta XII. tituletan ezarritakoaren arabera.

«Post mortem» ahalordea

Kausatzaileak ahalordea ematen badu bera hil eta geroko, hori baliozkoa izanen da, baldin eta ahalorde hori ezeztatzen ez badu hildakoaren borondatea betearazteko lehenespenez izen-

siempre sin perjuicio del total cumplimiento de la gestión encomendada al apoderado. Este poder quedará revocado por otro posterior, incompatible, y también se presumirá revocado por el testamento válido posterior a no ser que en él aparezca confirmado.

Ley 152

Disposición en caso de necesidad

Si en cualquier acto de liberalidad se facultare a una persona para disponer en caso de necesidad, salvo que resulte otra cosa, se entenderá:

1. Que la apreciación de la necesidad queda a libre arbitrio de dicha persona.
2. Que si se facultare para disponer sólo con la autorización de persona o personas físicas determinadas, esta limitación quedará sin efecto si aquellas personas hubieren fallecido, renunciado o quedado incapacitadas, a no ser que las personas a quienes corresponda prestar el consentimiento hubieren sido determinadas en función del cargo o función que ocupen.

Ley 153

Capacidad para adquirir

Pueden adquirir a título lucrativo, inter vivos o mortis causa, todas las personas sin más prohibiciones que las siguientes:

datua denak, betiere, ahalduaren ardurapean jarritako kudeaketa oso-osorik betetzeari kalterik egin gabe. Geroko ahalordeak aurrekoa ezeztatuko du, horiek bateraezinak badira, eta uste izanena da, halaber, geroko testamentu baliokoak aurreko ahalordea ezeztatzen duela, geroko testamentu horretan aurreko ahalordea baieztaturik agertzen ez bada.

152. legea

Xedatzea, beharriaz dagoenean

Eskuzabaltasun-egintzaren bitartez, inori xedatze-ahalmena ematen bazaio hori beharriaz-egoeran egikaritzeko, bestelakorik ezarri ezean, hauxe ulertuko da:

1. Pertsona horrek bere erabakimen askearen arabera egin behar duela beharriazaren balioestea.
2. Xedatze hori gauzatzeko, pertsona fisiko jakin baten edo batzuen baime-na beharrezkoa denean, mugapen hori ondorerik gabe geratuko dela, halako pertsonak hil badira, baimena emateari uko egin badiote edo ezgaiturik geratu badira, salbu eta adostasuna eman behar duten horiek euren kargu edo eginkizuna dela-eta zehaztu direnean.

153. legea

Eskuratzeko gaitasuna

Pertsona orok dohainik eskura dezake, inter vivos nahiz mortis causa, horretarako debekuepean dauden pertsona hauek izan ezik:

1. Las personas que hayan intervenido para la formalización del acto.

2. Los tutores respecto a sus pupillos, de conformidad con lo dispuesto para el testamento en el artículo 753 del Código Civil.

3. Las personas incapaces para suceder por las causas previstas en el artículo 756 del Código Civil, salvo que se pruebe que el disponente conocía la causa al tiempo de ordenar la liberalidad.

Ley 154

Disposiciones a favor del nasciturus

Las disposiciones a título lucrativo, por actos inter vivos o mortis causa, pueden hacerse a favor del concebido, e incluso a favor de los hijos aún no concebidos de persona determinada que viva al tiempo de la donación o al de la muerte del testador.

Cuando se trate de disposiciones por actos inter vivos, y salvo lo establecido por el donante, la administración de los bienes donados corresponde al mismo donante o a sus herederos. Los frutos producidos antes del nacimiento del donatario se reservan a éste, si la donación se hiciera a favor del ya concebido; si se hiciera a favor del no concebido, los frutos se reservan al donante, o a sus herederos, hasta el momento del nacimiento del donatario. Los herederos del donante que administraren o percibieren los frutos podrán ser obligados a constituir garantía suficiente.

1. Egintzaren formalizazioan esku hartu duten pertsonek.

2. Tutoreek, euren tutoretzapekoei begira, Kode Zibilaren 753. artikulua testamentuaren inguruan xedatutakoa-ekin bat etorri.

3. Kode Zibilaren 756. artikuluan aipaturiko arrazoi ondoz, oinordeko izateko gai ez diren pertsonak, salbu eta frogatzen denean xedatzaileak arrazoi hori bazekiela eskuzabaltasuna ordenatzeko ulean.

154. legea

Nasciturusarentzako xedapenak

Inter vivos nahiz mortis causa eginzen bidez, dohaineko xedapenak egin daitezke ernalduarentzat, bai eta oraindik ernaldu ez diren seme-alabentzat ere, horien gurasoa zehazturik eta bizi-rik badago dohaintza egin edo testamentugilea hiltzeko ulean.

Inter vivos eginzen bidezko xedapenetan, eta dohaintza-emaileak ezarritakoa salbu, dohaintzan emandako ondatsunen administrazioa dohaintza-emaileari edo beraren jaraunsleei dagokie. Dohaintza-hartzailea jaio baino lehen fruituak sortu direnean, horiek dohaintza-hartzaileari erreserbatzen zaizkio, dohaintza jadanik ernaldurik dagoenarentzat egin bada; ernaldugabearentzat egin bada, fruituak dohaintza-emaileari edo beraren jaraunsleei erreserbatzen zaizkie, dohaintza-hartzailea jaio arte. Dohaintza-emailearen jaraunsleek fruituak administratu edo jasotzen badituzte, behartuak izan daitezke behar adina-ko bermea eratzera.

La aceptación de estas disposiciones y la defensa de los intereses de los hijos, en cuanto a los bienes objeto de la liberalidad, se regirán por lo dispuesto en las leyes 63 y 65.

Ley 155

Renuncia a la herencia futura:

a) Forma

Es válida la renuncia o transacción sobre herencia futura siempre que se otorgue en escritura pública.

Ley 156

b) Efectos

El renunciante quedará excluido de la sucesión deferida por la Ley; no obstante, podrá aceptar las disposiciones que en su favor ordenare el causante.

Ley 157

Derechos de los hijos de anterior matrimonio

Los derechos de los hijos y descendientes de anterior matrimonio quedarán a salvo de toda disposición a título lucrativo hecha por los cónyuges de segundas o posteriores nupcias, entre sí o con terceros.

El disponente podrá establecer que los derechos de los hijos y descendientes de anterior matrimonio sean satisfechos con dinero, aun cuando no lo hubiere en la herencia.

63 eta 65. legeetan xedaturikoak eraenduko ditu xedapen horien onarpena eta seme-alaben interesen defentsa, eskuzabaltasunaren objektu diren ondasunei begira.

155. legea

Etorkizuneko jarauntsiari uko egitea:

a) Forma

Baliozkoa da etorkizuneko jarauntsiari uko egitea edo horren gain transakzioa egitea, eskritura publikoan eginez gero.

156. legea

b) Ondoreak

Uko-egilea lege bidez ordenatutako oinordetzatik kanpo geratuko da; hala ere, onar ditzake berarentzat kausatzai-leak agindu dituen xedapenak.

157. legea

Aurreko ezkontzako seme-alaben eskubideak

Bigarrenez edo gehiagogarrenez ez-kondutakoek euren artean edo hirugarrenekin egindako dohaineko xedapenek ez dute eraginik izanen aurreko ezkontzako seme-alaba eta ondorengo-en eskubideetan.

Xedatzaileak ezar dezake aurreko ezkontzako seme-alaba eta ondorengo-en eskubideak diruz ordaintzeko, nahiz eta jarauntsian halakorik izan ez.

**TÍTULO II
DE LAS DONACIONES
INTER VIVOS**

Ley 158

Concepto

Son donaciones inter vivos las que se hacen sin consideración a la muerte del donante.

Ley 159

Reserva a favor del donante

Cuando el donante no se hubiere reservado en propiedad u otros derechos lo suficiente para atender a sus necesidades según su estado y circunstancias, podrá ejercitar la acción de reducción contra el donatario o sus herederos.

Esta acción es personalísima e intransmisible, pero los herederos del donante podrán continuar su ejercicio si aquél hubiere interpuesto la demanda.

Ley 160

Donaciones universales

Las donaciones universales sólo serán válidas cuando se hagan por razón de matrimonio o en escrituras de nombramiento de heredero, o cuando se establezcan pactos de comunidad familiar o de asistencia entre donantes y donatarios.

A estas donaciones se aplicará lo dispuesto en las leyes 114, 115 y 118,

**II. TITULUA
INTER VIVOS
DOHAINTZAK**

158. legea

Kontzeptua

Inter vivos dohaintzak dira dohaintza-emailearen heriotza aintzat hartu gabe egindakoak.

159. legea

Dohaintza-emailearentzako erreserba

Dohaintza-emaileak ez badu behar besteko jabetzarik edo eskubiderik erreserbatu bere egoera eta inguruabarraren arabera dituen beharrizanak asetzeko, urripen-akzioa egikaritu ahal izanen du dohaintza-hartzaile edo horren jaraunsteen aurka.

Akzio hori bere-berezko eta eskualdaezina da, baina dohaintza-hartzailearen jaraunsteek akzio horren egikaritzari euts diezaioke, hark demanda jarri badu.

160. legea

Dohaintza unibertsalak

Dohaintza unibertsalak hurrengoetan bakarrik izanen dira baliozkoak: ezkontzaren ondorioz edo jaraunstea izendatzeko eskrituran egiten direnean, edo, bestela, familia-erkidegoari buruz edo dohaintza-emaile eta dohaintza-hartzaileen arteko laguntzari buruz itunak ezartzen direnean.

Dohaintzoi 114, 115 eta 118. legeetan xedaturikoa aplikatuko zaie, eta

y deberán otorgarse en la forma prevista en la ley 113.

Ley 161

Perfección:

a) Donaciones de inmuebles

Son nulas las donaciones de bienes inmuebles que no se otorguen en escritura pública. Estas donaciones serán irrevocables cuando la aceptación del donatario conste en la misma escritura o desde el momento en que se hubiese notificado al donante la aceptación en escritura separada.

b) De muebles

Las donaciones de bienes muebles serán revocables mientras el donante no hubiere hecho entrega de los bienes o no le hubiese sido notificada la aceptación del donatario.

c) En favor de personas futuras

Las donaciones de bienes muebles o inmuebles en favor de personas futuras serán irrevocables sin necesidad de la aceptación, a menos que otra cosa se hubiere establecido.

Ley 162

Causas de revocación

No obstante lo establecido en la ley anterior, las donaciones inter vivos podrán ser revocadas por las causas expresamente establecidas por el donante

horiek 113. legean arauturiko forman egin beharko dira.

161. legea

Burutzea:

a) Ondasun higiezinaren gaineko dohaintzak

Deusezak dira ondasun higiezinaren gaineko dohaintzak, horiek ez badira eskritura publikoan egiten. Halako dohaintzak ezeztatzeko izanen dira, dohaintza-hartzailearen onarpena eskrituran bertan agerrarazten denean, edo dohaintza-emaileari onarpen hori eskritura bananduan jakinarazten zaionean.

b) Ondasun higigarrien gainekoak

Ondasun higigarrien gaineko dohaintzak ezeztakorrak dira, dohaintza-emaileak ondasunak ematen ez dituen bitartean, edo dohaintza-emaile horri dohaintza-hartzailearen onarpena jakinarazten ez zaion bitartean.

c) Etorkizuneko gizabanakoen mesederako egindakoak

Ondasun higigarri edo higiezinaren gaineko dohaintzak egiten badira etorkizuneko gizabanakoen mesederako, dohaintza horiek ezeztatzeko izanen dira, onarpenaren beharrik izan gabe, bestelakoa ezarri denean salbu.

162. legea

Ezeztatzeko arrazoiak

Aurreko legean ezarritakoa gorabehera, inter vivos dohaintzak ezeztatu ahal izanen dira dohaintza-emaileak esanbidez ezarritako arrazoien ondo-

o por el incumplimiento de cargas impuestas al donatario. Si éste no las hubiere cumplido a la muerte del donante se entenderán remitidas si fueran a favor del donante, y las que sean a favor de terceras personas se considerarán como legados.

También podrán ser revocadas las donaciones por las causas establecidas en el artículo 648 del Código Civil.

Ley 163

Donación fiduciaria

Cuando el donante imponga al donatario una carga que requiera un cumplimiento continuado o periódico, podrá asegurar la ejecución de la donación fiduciaria nombrando sucesivos donatarios de confianza. A estas donaciones se aplicará lo dispuesto en la ley 293.

Ley 164

Donaciones hechas por el bínubo

Las donaciones hechas por el bínubo en favor de su cónyuge o de los hijos o descendientes habidos en segundas o posteriores nupcias son válidas, en cuanto no perjudiquen los derechos reconocidos a los hijos o descendientes de matrimonios anteriores. En cuanto lesionen estos derechos, las donaciones serán reducibles a petición de los perjudicados y sus causahabientes. El plazo para ejercitar la acción será de cuatro años desde el fallecimiento del donante. Esta acción es renunciabile en

rioz, edo dohaintza-hartzaileari ezarritako zamak ez betetzeagatik. Dohaintza-hartzaileak ez baditu zamok bete dohaintza-emailea hil aurretik, ulertuko da horiek barkatu direla, dohaintza-emailearen mesederako ezarri badira; hirugarrenen mesederako ezarri badira, horiek legatutzat hartuko dira.

Dohaintzak ezeztatu ahal izanen dira, berebat, Kode Zibilaren 648. artikuluan ezarritako arrazoien ondorioz.

163. legea

Fiduziapeko dohaintza

Dohaintza-emaileak dohaintza-hartzaileari ezartzen badio jarraika edo aldizka bete beharreko zama, fiduziapeko dohaintzaren betearazpena bermatu ahal izanen du, konfiantzazko dohaintza-hartzaileak ondoz ondo izendatuz. Dohaintzoi 293. legean xedaturikoa aplikatuko zaie.

164. legea

Bigarren ezkondukoak egindako dohaintzak

Bigarren ezkondukoak dohaintzak egiten baditu, bere ezkontidearentzat edo bigarren nahiz geroagoko ezkontzako seme-alaba eta ondorengoentzat, dohaintza horiek baliozkoak dira, aurreko ezkontzako seme-alaba edo ondorengoan eskubideei kalterik egiten ez badiete. Eskubide horiei kalte egiten zaienean, dohaintzok urritu ahal izanen dira, kaltetunek eta horien kausadunek hala eskatuz gero. Akzio hori egikaritzeko epea lau urtekoa da, dohaintza-emailea hil denetik zenbatuta.

vida del donante mediante declaración expresa o prestando consentimiento a la donación.

Akzio horri uko egin dakioket dohaintza-emailea bizirik dagoela, esanbidezko adierazpena eginez edo dohaintzari adostasuna emanaz.

TÍTULO III DE LAS DONACIONES MORTIS CAUSA

Ley 165

Concepto

Son donaciones mortis causa las que se hacen en consideración a la muerte del donante.

Se presume que la donación se hace en consideración a la muerte del donante cuando la adquisición de los bienes donados queda diferida al fallecimiento de aquél.

Ley 166

Capacidad

Para donar mortis causa es suficiente que el donante tenga capacidad para testar, salvo que se pacte la irrevocabilidad de la donación o ésta se hiciera con entrega de bienes; en estos casos deberá tener también capacidad para disponer inter vivos.

Ley 167

Forma

Las donaciones mortis causa deben otorgarse en escritura pública, con asis-

III. TITULUA MORTIS CAUSA DOHAINTZAK

165. legea

Kontzeptua

Mortis causa dohaintzak dira dohaintza-emailearen heriotza aintzat hartuz egindakoak.

Dohaintza-emailearen heriotza aintzat hartuz egin dela uste izanen da, baldin eta dohaintzan emandako ondasunen eskuraketa haren heriotza arte geroratu bada.

166. legea

Gaitasuna

Mortis causa dohaintzak egiteko, nahiko da dohaintza-emaileak testamentua egiteko gaitasuna izatea, salbu eta dohaintzaren ezeztazintasuna itutzen denean edo, dohaintza egitearekin batera, ondasunak ematen direnean; kasu horietan, inter vivos xedatzeko gaitasuna ere izan beharko du dohaintza-emaileak.

167. legea

Forma

Mortis causa dohaintzak eskritura publikoan egin behar dira; bertan, bi

tencia de dos testigos que reúnan las condiciones requeridas para los testamentos ante Notario, conforme a las leyes 185 y 186.

Ley 168

Aceptación

Para la eficacia de las donaciones mortis causa es necesaria la aceptación del donatario o de las personas que legalmente le representen. La aceptación podrá hacerse, expresa o tácitamente, tanto en vida del donante como después de su fallecimiento.

Ley 169

Revocación

El donante podrá en cualquier momento revocar libremente la donación, salvo pacto en contrario o renuncia de la facultad de revocar.

a) Expresa

Para la revocación de estas donaciones se observarán las mismas formalidades que para su otorgamiento. Si la aceptación de la donación hubiere sido comunicada al donante o éste hubiese hecho entrega de los bienes, la revocación no surtirá efecto mientras no sea notificada al donatario.

b) Tácita

Cuando no se haya dispuesto otra cosa, las donaciones mortis causa quedarán revocadas sin necesidad de formalidad alguna si el donatario muere en vida del donante, salvo el derecho

lekukok egon behar dute, eta lekuko horiek bete behar dituzte 185 eta 186. legeekin bat etorri notarioaren aurreko testamentuetan beharrezkoak diren baldintzak.

168. legea

Onarpena

Mortis causa dohaintzak eragingarriak izan daitezen, beharrezkoa da dohaintza-hartzailearen edo horren legezko ordezkarien onarpena. Onarpena egin daiteke, esanbidez zein isilbidez, dohaintza-emailea bizirik dagoela edo hori hil ondoren.

169. legea

Ezeztapena

Dohaintza-emaileak edonoiz eta askatasunez ezezta dezake dohaintza, salbu eta aurkako ituna dagoenean edo ezeztatzeko ahalmenari uko egin zaionean.

a) Esanbidezkoa

Halako dohaintzak ezeztatzeko eta beroriek egiteko, formalitate berberak bete beharko dira. Dohaintza-emaileari dohaintzaren onarpenaren berri eman bazaio edo horrek ondasunak eman baditu, ezeztapenak ez du ondorerik sortuko, hori dohaintza-hartzaileari jakinarazten ez zaion bitartean.

b) Isilbidezkoa

Bestelakoa xedatu ezik, mortis causa dohaintzak ezeztaturik geratuko dira, inolako formalitaterik gabe, baldin eta dohaintza-hartzailea hiltzen bada, dohaintza-emailea bizirik dagoela, haren

de representación de los descendientes de aquél. Tampoco será necesaria la revocación expresa cuando claramente se hubiere supeditado la donación a la muerte esperada por el donante en una determinada ocasión, si éste no falleciera en el momento previsto.

Ley 170

Toma de posesión

Los bienes donados mortis causa no forman parte de la herencia, y el donatario podrá tomar posesión de ellos sin intervención de los herederos o albaceas del donante.

Ley 171

Donaciones supeditadas a la muerte de un tercero

Las donaciones que se supeditan a la muerte de un tercero se considerarán como donaciones inter vivos bajo condición.

ondorengoez izan dezaketen ordezkapen-eskubidea salbu. Berebat, ez da esanbidezko ezeztapenik behar, dohaintza egin bada dohaintza-emaileane jakin batean hilgo dela uste izanik eta hori ez bada gertatzen aurreikusitako uanean.

170. legea

Edukitzea eskuratzea

Ondasunak mortis causa dohaintzaren bidez eman badira, horiek ez dira jarauntsiaren osagai, eta dohaintza-hartzaileak horien edukitzea eskura dezake, dohaintza-emailearen jaraunse edo albazeen esku-hartzerik gabe.

171. legea

Dohaintzak egitea, hirugarren baten heriotzaren menpe

Dohaintzak hirugarren baten heriotzaren menpe egiten badira, dohaintzok inter vivos eta baldintzapeko dohaintza moduan hartuko dira.

TÍTULO IV

DE LOS PACTOS O CONTRATOS SUCESORIOS

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Ley 172

Concepto

Por pacto sucesorio se puede establecer, modificar, extinguir o renunciar

IV. TITULUA

OINORDETZAKO ITUN EDO KONTRATUAK

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

172. legea

Kontzeptua

Oinordetza-itunaren bidez, jarauntsi osoaren edo zati baten gainean, mortis

derechos de sucesión mortis causa de una herencia o parte de ella, en vida del causante de la misma. Cuando estos actos impliquen cesión de tales derechos a un tercero será necesario el consentimiento del causante.

Ley 173

Capacidad

Los otorgantes de cualesquiera pactos sucesorios deben ser mayores de edad. Para los contenidos en capitulaciones matrimoniales se observará, sin embargo, lo establecido en la ley 78.

Carácter personalísimo. Delegación

El otorgamiento del pacto sucesorio es acto personalísimo. No obstante, puede delegarse en otra persona su formalización, siempre que en el correspondiente instrumento de poder conste esencialmente el contenido de la voluntad.

Ley 174

Forma

Son nulos los pactos sucesorios no otorgados en capitulaciones matrimoniales o en otra escritura pública.

Ley 175

Pactos contenidos en capitulaciones

Los pactos sucesorios contenidos en capitulaciones matrimoniales se rigen por las leyes del título XI del libro

causa oinordetzako eskubideak ezar, aldaraz edo azken daitezke, eta horiei uko egin dakieke, oinordetza horren kausatzailea bizirik dagoela. Egintza horiek eskubideok hirugarren bati lagatzea badakarte, beharrezkoa izanen da kausatzailearen adostasuna.

173. legea

Gaitasuna

Edozein oinordetza-itunen egileek adin nagusiko izan behar dute. Ezkontzako itunetan jasotakoei dagokienez, ordea, 78. legean ezarritakoa beteko da.

Bere-berezko izaera. Eskuordetza

Oinordetza-itunaren egilespena bere-berezko egintza da. Hala ere, beste inori eskuorde dakiok haren formalizazioa, baldin eta ahalordearen agerkai egokian jasotzen bada borondatearen eduki nagusia.

174. legea

Forma

Deusezak dira ezkontzako itunen bidez edo bestelako eskritura publikoaren bidez egiletsi ez diren oinordetza-itunak.

175. legea

Ezkontzako itunetan jasotako oinordetza-itunak

Lehenengo liburuko XI. tituluaren legeek eta, horiez gain, titulu honetan ezarritakoak eraentzen dituzte ezkon-

primero y, además, por lo establecido en el presente título.

Ley 176

Interpretación e integración

Los pactos sucesorios se interpretarán e integrarán conforme a la costumbre del lugar y, supletoriamente, según las disposiciones de esta Compilación sobre otros actos de última voluntad.

CAPÍTULO II

Disposiciones especiales sobre pactos de institución

Ley 177

Contenido y clases

Los pactos sucesorios pueden contener cualesquiera disposiciones mortis causa a favor de los contratantes, de uno de ellos o de tercero, a título universal o singular, con las sustituciones, modalidades, reservas, cláusulas de reversión, cargas y obligaciones que los otorgantes establezcan.

La institución podrá hacerse determinando en el propio pacto las personas llamadas a la herencia o estableciendo las reglas conforme a las cuales debe ésta deferirse en lo futuro o delegando en una o más personas la facultad de ordenar la sucesión.

Los pactos de institución pueden asimismo implicar simples llamamientos a la sucesión o contener también transmisión actual de todos o parte de los bienes.

tzako itunetan jasotako oinordetza-itunak.

176. legea

Interpretazioa eta integrazioa

Oinordetza-itunak tokiko ohiturarekin bat etorritz interpretatu eta integratuko dira, eta, osagarri moduan, azken nahiaren egintzei buruz konpilazio honetan jasotako xedapenen arabera.

II. KAPITULUA

Xedapen bereziak, jaraunslea izendatzeko itunei buruz

177. legea

Edukia eta motak

Oinordetza-itunek edozein motatako mortis causa xedapenak jaso ditzakete bi kontratugileen, horietako baten edo hirugarren baten mesederako, titulu unibertsalaren nahiz banakako tituluaren bidez, eta egileek ezarritako ordezen, aldaera, erreserba, lehengoratzeklausa, zama eta betebeharrekin.

Izendapena egin ahal izanen da, jarauntsira deitutako pertsonak itunean bertan zehaztuz, jarauntsia etorkizunean antolatzeke erregelak ezarritik, edota pertsona bati zein gehiagori oinordetza ordenatzeko ahalmena eskuordetuz.

Halaber, jaraunslea izendatzeko itunek jarauntsirako dei hutsak jaso ditzakete edo, horiek jasotzearekin batera, ondasun guztien edo batzuen oraingo eskualdaketa eragin dezakete.

Ley 178

Irrevocabilidad

Los nombramientos de heredero pactados entre dos o más personas en beneficio mutuo o en beneficio de un tercero son irrevocables. A los nombramientos contractuales de heredero otorgados unilateralmente se aplicará lo dispuesto en la ley 114.

Ley 179

Efectos

Los pactos sucesorios sin transmisión actual de bienes confieren únicamente la cualidad de heredero contractual, que será inalienable e inembargable. El instituyente conservará hasta su muerte la propiedad de los bienes, pero no podrá disponer de éstos a título lucrativo sin consentimiento del instituido.

En los pactos sucesorios con transmisión actual de bienes, el instituyente podrá reservarse la facultad de disponer por cualquier título o sólo por título oneroso. Los actos de disposición no reservados serán nulos sin el consentimiento expreso del instituido. Las acciones de nulidad sólo podrán ejercitarlas el instituido y sus causahabientes, incluso en vida del instituyente.

Ley 180

Derecho de transmisión

Si el instituido en pacto sucesorio premuere al instituyente dejando descendencia, transmite a ésta su derecho,

178. legea

Ezeztazintasuna

Bi pertsonak edo gehiagok, elkarren mesederako edo hirugarren baten mesederako, jaraunsle-izendapenak egin badituzte, izendapen horiek ezeztazinak dira. Jaraunslea izendatzeko kontratua alde bakarrekoa baldin bada, horri 114. legean xedaturikoa aplikatuko zaio.

179. legea

Ondoreak

Oinordetza-itunekin batera ez badira ondasunak eskualdatzen, itun horiek kontratuzko jaraunslaren izaera baino ez dute ematen; izaera hori besterenduezin eta enbargaezina izanen da. Izendatzaileak ondasunen gaineko jabetzari eutsiko dio hil arte; baina ezin izanen ditu horiek dohainik xedatu izendatuaren adostasunik gabe.

Oinordetza-itunek ondasunen eskualdaketa badakarte, itun horietan izendatzaileak bere buruarentzat erreserba dezake edozein tituluren bidez edo bakarrik kostu bidez xedatzeko ahalmena. Erreserbatu ez diren xedatze-egintzak deusezak izanen dira, izendatuaren esanbidezko adostasunik gabe. Izendatuak eta beraren kausadunek bakarrik egikari ditzakete deuseztasun-akzioak, baita izendatzailea bizirik dagoela ere.

180. legea

Eskualdatzeko eskubidea

Oinordetza-itunean jaraunsle izendatzen dena izendatzailea baino lehen hiltzen bada ondorengoak dituela, horiei eskual-

salvo lo establecido en el propio pacto. Si fuesen varios los descendientes y el nombramiento de heredero se hubiese hecho sin transmisión actual de bienes, la designación del que haya de subrogarse en los derechos del instituido corresponderá a los instituyentes o sobrevivientes de éstos y, en su defecto, a los Parientes Mayores; pero si el nombramiento se hubiese hecho con transmisión actual de bienes, podrá el instituido hacer esta designación; si falleciera sin hacerla, tal facultad corresponderá a los instituyentes o, en su defecto, a los Parientes Mayores.

En todo caso, si el instituido dejara un sólo descendiente, sucederá éste y podrá exigir de los instituyentes o, a falta de éstos, de los Parientes Mayores la declaración de su cualidad de heredero. La condición de único descendiente se probará por acta notarial de notoriedad o información *ad perpetuam memoriam*.

Ley 181

Cláusulas de sustitución

Respecto a las cláusulas de sustitución establecidas en pactos sucesorios se observará lo establecido en el título VIII de este libro.

Ley 182

Revocación y modificación

Los pactos sucesorios no podrán ser revocados ni modificados sin el consentimiento de todos sus otorgantes declarado en acto inter vivos o mortis causa.

datzen zaie haren eskubidea, itunean bertan ezarritakoa salbu. Ondorengoak bat baino gehiago badira, eta jaraunslea izendatzearekin batera ez badira ondasunak eskualdatu, orduan, izendatzaile guztiei, horietatik bizirik dagoenari edo, halakorik izan ezean, Ahaide Nagusiei dagokie izendatuaren eskubideetan subrogatuko dena izendatzea; baina, izendapena egitearekin batera ondasunak eskualdatu badira, izendatuak berak egin dezake halako izendapena; izendatua hori egin gabe hiltzen bada, ahalmena izendatzaileei dagokie eta, halakorik izan ezean, Ahaide Nagusiei.

Edozein kasutan ere, jaraunsle izendatuak ondorengo bat bakarrik badu, hori izanen da oinordeko, eta horrek izendatzaileei edo, halakorik izan ezean, Ahaide Nagusiei galda diezaieke, bere jaraunsle izaera adieraz dezaten. Oinordeko bakarraren izaera notarioak emandako nabaritasun-aktaren bitartez edo *ad perpetuam memoriam* informazioaren bitartez frogatuko da.

181. legea

Ordezpen-klausulak

Oinordetza-itunetan ezarritako ordezen-klausulei dagokienez, liburu honetako VIII. tituluaren ezarritakoa bete da.

182. legea

Ezeztapena eta aldarazpena

Oinordetza-itunak ezin izanen dira ezeztatu edo aldarazi, horien egile guztiek, inter vivos nahiz mortis causa egingizaren bidez, adostasuna adierazten ez badute.

Las disposiciones contenidas en pactos sucesorios quedarán revocadas por premoriencia del instituido, salvo el derecho de transmisión, cuando proceda, conforme a lo dispuesto en la ley 180.

Estas disposiciones serán revocables por las causas previstas para las donaciones «propter nuptias» en la ley 118, y el ejercicio de la acción por los instituyentes se ajustará a lo dispuesto en dicha ley.

Si se hubieren ordenado en capitulaciones se estará a lo establecido en la ley 81.

Ley 183

Promesa de nombrar heredero

Se tendrá por nombramiento de heredero la promesa de nombrarlo hecha en pacto sucesorio y producirá los mismos efectos establecidos en las leyes 179 y 180 para los pactos sucesorios sin transmisión actual de bienes.

TÍTULO V DEL TESTAMENTO Y SUS FORMAS

CAPÍTULO I Disposiciones generales

Ley 184

Incapacidad para testar

Son incapaces para testar:

1. Los impúberes.

Oinordetza-itunetan jasotako xedapenak ezeztaturik geratuko dira, izendatua aurrez hiltzen bada; salbuespen da eskualdatze-eskubidea, 180. legeak xedatutakoarekin bat etorri hori bidezkoa denean.

Xedapen horiek 118. legean «propter nuptias» dohaintzei buruz ezarritako arrazoien ondorioz ezeztatu ahal izanen dira; eta, izendatzaileek akzio hori egikaritzen badute, lege horretan xedatutakoari egokituko zaio egikaritzea hori.

Oinordetza-itunak ezkontzako itunetan ordenatu izan badira, 81. legean ezarritakoa beteko da.

183. legea

Jaraunslea izendatzeko hitzemia

Jaraunsle-izendapentzat hartuko da oinordetza-itunean hori izendatzeko egin den hitzemia, eta berberak izanen dira horren ondoreak, eta ondasunak eskualdatu gabe egindako oinordetza-itunei buruz 179 eta 180. legeetan ezarritakoak.

V. TITULUA TESTAMENTUA ETA HORREN FORMAK

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

184. legea

Testamentua egiteko ezgaitasuna

Testamentua egiteko ezgai dira:

1. Inpuberrak.

2. Los que en el momento de otorgar testamento no se hallaren en su cabal juicio. Respecto al testamento otorgado en intervalo lúcido se estará a lo dispuesto en el Código Civil.

Ley 185

Idoneidad y rogación de testigos

En los testamentos otorgados en Navarra los testigos deberán ser idóneos y rogados.

Ley 186

Condiciones de los testigos, según los testamentos

En los testamentos no otorgados ante Notario, los testigos deben conocer al testador y apreciar su capacidad, y cuando fueren otorgados sólo ante testigos, éstos deben tener además la vecindad del testador.

En los testamentos otorgados ante Notario no se requiere que los testigos aprecien la capacidad del testador ni que, en su calidad de testigos instrumentales, conozcan a éste, siempre que sean vecinos del lugar del otorgamiento. Podrán ser testigos los empleados o dependientes del Notario.

En los testamentos otorgados ante Notario, Párroco o Clérigo ordenado de Presbítero, uno de los testigos al menos ha de poder leer y escribir. En los testamentos otorgados sólo ante

2. Testamentua egiteko uanean, zentzutasunik ez dutenak. Argialdian egingako testamentuari dagokionez, Kode Zibilean xedaturikoa beteko da.

185. legea

Lekuko en egokitasuna eta lekuko horiek eskari bidez izendatzea

Nafarroan egindako testamentuetan, lekukoak egokiak eta eskari bidez izendatuak izan behar dira.

186. legea

Lekukoek bete beharreko baldintzak, testamentuz testamentu

Notarioaren aurrean egiten ez diren testamentuetan, lekukoek testamentugilea ezagutu eta horren gaitasuna balietsi behar dute; testamentu horiek lekuko en aurrean bakarrik eginez gero, aurrekoaz gain, lekukook testamentugilearen auzotartasun bera izan behar dute.

Notarioaren aurrean egindako testamentuetan, ez da beharrezkoa lekukoek testamentugilearen gaitasuna baliostea, ezta, lekuko instrumental gisa, horiek testamentugilea ezagutzea ere, egilespen-lekuko auzotarrak badira. Lekuko izan daitezke notarioaren enplegatu edo mendekoak ere.

Notarioaren, parrokoaren edo presbítero ordena duen elizgizonaren aurrean egindako testamentuetan, lekuko bat gutxienez, irakurri eta idazteko gaitza izan behar da. Lekuko en aurrean ba-

testigos, dos de éstos al menos han de poder leer y escribir.

Ley 187

Mandas pías

En los testamentos abiertos, otorgados ante Notario, Párroco u otro Clérigo ordenado de Presbítero, deberá consignarse la advertencia hecha al testador sobre si desea o no ordenar mandas pías o benéficas.

CAPÍTULO II

De las formas del testamento

Ley 188

Testamento ante Notario

Los testamentos abiertos otorgados ante Notario requieren la intervención de dos testigos.

Los testamentos cerrados autorizados por Notario requieren la intervención de siete testigos.

En lo demás se aplicarán las disposiciones del Código Civil.

Ley 189

Testamento ante Párroco

Si el testador se hallare en peligro inminente de muerte y no pudiera obtenerse la presencia de Notario, podrá otorgarse el testamento ante el Párroco del lugar u otro Clérigo ordenado de Presbítero, y en todo caso con la presencia de dos testigos.

karrik egindako testamentuetan, horietatik bi gutxienez, irakurri eta idazteko gauza izan behar dira.

187. legea

Erruki-agintzak

Notarioaren, parrokoaren edo presbítero ordena duen elizgizonaren aurrean egindako testamendu irekietan, testamentugileari ohartaraziko zaio erruki-edo ongintza-agintzarik egin nahi duen ala ez, eta hori testamentuan bertan jasoko da.

II. KAPITULUA

Testamentuaren formak

188. legea

Notarioaren aurreko testamentua

Notarioaren aurrean egindako testamendu irekietan, nahitaezkoa da bi lekukoren esku-hartzea.

Notarioak eskuetsitako testamendu itxietan, nahitaezkoa da zazpi lekukoren esku-hartzea.

Gainerakoetan, Kode Zibilaren xedapenak aplikatuko dira.

189. legea

Parrokoaren aurreko testamentua

Testamentugilea hur-hurreko heriotza arriskuan badago, eta ezin bada lortu notarioa bertan izatea, testamentua egin ahal izanen da tokiko parrokoaren edo presbítero ordena duen elizgizonaren aurrean; eta, edozein kasutan, bi lekuko egon beharko dira bertan.

Ley 190*Testamento ante testigos*

En el mismo supuesto de la ley anterior, si no pudiera obtenerse la presencia del Párroco u otro Clérigo ordenado de Presbítero, podrá otorgarse el testamento con la intervención de tres testigos.

Ley 191*Requisitos comunes a testamentos ante Párroco y ante testigos*

A los testamentos a que se refieren las dos leyes anteriores se aplicarán las reglas siguientes:

1. Deberán redactarse por escrito, con expresión del día, mes y año en el mismo acto o inmediatamente después que el testador haya declarado con palabras dispositivas su última voluntad.

2. Serán firmados por el testador y personas que intervengan en el acto. Si cualquiera de ellas no supiera o no pudiese firmar, se consignará esta circunstancia en el mismo documento.

3. El Párroco, Clérigo o, en su caso, los testigos deberán conservar el documento o requerir a Notario para su custodia.

4. Perderán su eficacia a los dos meses de haber salido el testador del peligro de muerte.

5. Dentro del plazo del año y día, a contar de la fecha del fallecimiento del testador, deberán presentarse para su abonamiento o adverbación, sin cuyo re-

190. legea*Lekukoen aurreko testamentua*

Aurreko legeak ezarritako kasu berean, ezin bada lortu parrokoa edo presbítero ordena duen elizgizona bertan egotea, testamentua egin ahal izanenda, hiru lekukoren esku-hartzearekin.

191. legea*Parrokoaren aurreko eta lekukoen aurreko testamentu guztietarako betekizunak*

Aurreko bi legeek aipaturiko testamentuei hurrengo erregelak aplikatuko zaizkie:

1. Idatziz jaso beharko dira, eta bertan eguna, hilabetea eta urtea adierazi beharko dira, egintza berean edo, bestela, testamentugileak bere azken nahia hitz xedatzaileen bidez adierazi eta behalaxe.

2. Testamentuotan sinatuko dute testamentugileak eta egintza horretan esku hartuko duten pertsona guztiek. Horietatik edonork ez badaki sinatzen edo ezin badu sinatu, agirian bertan jasoko da inguruabar hori.

3. Parrokoak, elizgizonak edo, hala denean, lekukoek euren eskuetan gorde beharko dute agiria; bestela, notarioari eskatu behar diote agiria zaintzeko.

4. Testamentuok eragina galduko dute, testamentugilea heriotza-arriskutik onik atera eta bi hilabete igaro ondoren.

5. Urtebete eta egun bateko epean, testamentugilearen heriotza-datatik zenbatuta, testamentuak aurkeztu beharko dira horiek ontzat hartu eta egiaztatu.

quisito quedarán ineficaces. A tal efecto, la persona que tenga el testamento en su poder deberá presentarlo al Juzgado de Primer Instancia del Partido a que corresponda el lugar en que se otorgó. La presentación podrá ser exigida por el Ministerio Fiscal o por cualquier persona que se crea interesada.

Ley 192

Testamentos en vascuence

Los navarros podrán testar en vascuence. Cuando el testamento se otorgare ante Notario y éste no conociera el vascuence, se precisará la intervención de dos intérpretes elegidos por el testador que traduzcan su disposición al castellano; el testamento se escribirá en las dos lenguas, conforme se establece en el Reglamento Notarial.

Ley 193

Otros testamentos

Se aplicarán en Navarra las disposiciones de los artículos 688 a 693, 697 y 698, 701 y 702 y 716 a 736 del Código Civil, en cuanto a los respectivos testamentos.

CAPÍTULO III

Del codicilo

Ley 194

Conceptos

Son codicilos aquellos actos de última voluntad que, sin revocar el testa-

razteko; hori egin gabe, testamentuak eraginik gabe geratuko dira. Ondore horretarako, testamentua eskuetan duenak hori aurkeztu behar du, egilespen-tokiari dagokion barrutiko lehen auzialdiko epaitegian. Aurkezpen hori egitea galda dezake Fiskaltzak, edo beste edonork ere bai, horretarako interesa duela uste badu.

192. legea

Euskaraz egindako testamentuak

Nafarrek euskaraz egin dezakete testamentua. Testamentua notarioaren aurrean egiten bada, eta horrek ez badaki euskaraz, beharrezkoa izanen da testamentugileak aukeraturiko bi interpretatzaileen esku-hartzea, horiek testamentugilearen xedapena gaztelaniara itzul dezaten; testamentua bi hizkuntzotan idatziko da, Notario Erregelamenduak ezartzen duenarekin bat etorritz.

193. legea

Beste testamentu batzuk

Testamentuei dagozkienez, Kode Zibilaren 688. artikulutik 693. erako, 697 eta 698. artikulua, 701 eta 702. artikulua, eta 716. artikulutik 736. erakoena xedapenak aplikatuko dira Nafarroan.

III. KAPITULUA

Kodiziloa

194. legea

Kontzeptuak

Azken nahiaren egintzak kodizilo dira, baldin eta testamentuari, testa-

mento, le adicionan algo o modifican sus disposiciones.

Forma

Se otorgarán en cualquiera de las formas previstas para los testamentos y con los requisitos exigidos a las mismas.

Ley 195

Contenido

Los codicilos podrán contener cualesquiera disposiciones de última voluntad, excepto la institución de heredero, las sustituciones hereditarias, modificaciones de una y otras, desheredaciones y la institución en la legítima foral.

CAPÍTULO IV **De las memorias testamentarias**

Ley 196

Concepto

Pueden otorgarse memorias testamentarias como rectificación o complemento de un testamento anterior, siempre que el testador o testadores se hubieren reservado la facultad de otorgarlas determinando a la vez los lemas, signos u otros requisitos que habrán de contener para su eficacia.

mentua bera ezeztatu gabe, zerbait gehitzen badiote edo horren xedapenak aldatzen badituzte.

Forma

Kodiziloak eginen dira testamentuetarako arauturiko formetatik edozein erabiliz eta horiei buruz ezarritako betekizunekin.

195. legea

Edukia

Kodiziloek euren barruan har ditzakete azken nahiaren xedapen guztiak, salbu eta jaraunsle-izendapena, jaraunsi-ordezpenak, haren eta horien aldarazpenak, jaraungabetzeak eta foru-senipartearen gaineko izendapena.

IV. KAPITULUA **Testamentuko memoriak**

196. legea

Kontzeptua

Testamentuko memoriak egin daitezke aurreko testamentuaren zuzenke-ta edo osagarri gisa, baldin eta testamentugileak edo testamentugileek eurentzat erreserbatu badute halakoak egiteko ahalmena, eta, aldi berean, zehaztu badituzte memorion eragingarritasunerako horietan nahitaez jaso behar diren ikurritz, zeinu edo bestelako betekizunak.

Forma

Deberán estar firmadas en todas sus hojas por el testador o testadores y llevar los lemas o signos y cumplir los demás requisitos prevenidos en el testamento. También pueden otorgarse estas memorias como complemento de cualquier otro acto de última voluntad.

Ley 197*Contenido*

Se aplicará a las memorias lo establecido para los codicilos en la ley 195.

Ley 198*Adveración*

Dentro del plazo de cinco años, a contar de la fecha del fallecimiento del testador, las memorias testamentarias deberán presentarse para su abonamiento o adveración y protocolización, sin cuyo requisito quedarán ineficaces. En las otorgadas conjuntamente por dos o más personas, el plazo se contará a partir del fallecimiento de la última de éstas, a no ser que se ordene otra cosa en el testamento o en la propia memoria.

Protocolización

Para la protocolización habrán de cumplirse los trámites establecidos en la Ley de Enjuiciamiento Civil. Si las memorias hubieran sido otorgadas en el extranjero, las diligencias de protocolización podrán también practicarse ante Cónsul o Vicecónsul de España.

Forma

Testamentugileak edo testamentugileek memoriën orri guztietan sinatuko dute, eta memoriotan jaso beharko dira testamentuan adierazitako ikurriz, zeinu edo bestelako betekizunak. Era berean, halako memoriak egin daitezke, azken nahiaren egintzetatik beste edozeinen osagarri gisa.

197. legea*Edukia*

195. legean kodiziloari buruz ezarritakoa aplikatuko zaie memoriari.

198. legea*Egiaztaraztea*

Bost urteko epean, testamentugilearen heriotza-datatik zenbatuta, testamentuko memoriak aurkeztu beharko dira horiek ontzat hartu, egiaztarazi eta protokolatzeko; hori egin gabe, eraginik gabe geratuko dira. Bi pertsonak edo gehiagok batera egindako memoriatan, horietatik azkena hiltzen denetik hasita zenbatuko da epe hori, salbu eta testamentuan edo memorian bertan bestelakoa agindu denean.

Protokolatzea

Memoriak protokolatzeko, Prozedura Zibilaren Legean ezarritako izapideak bete beharko dira. Memoriak atzerrian egin badira, horiek protokolatzeko eginbideak Espainiako kontsularen nahiz kontsulordearen aurrean burutu ahal izanen dira.

CAPÍTULO V
Del testamento
de hermandad

Ley 199

Concepto

Es testamento de hermandad el otorgado en un mismo instrumento por dos o más personas.

Formas

Con excepción de la forma ológrafa, el testamento de hermandad puede revestir cualquier otra forma admitida en esta Compilación, en tanto se cumplan todos los requisitos establecidos para cada una de ellas.

A los efectos de lo dispuesto en las leyes 189 y 190, la circunstancia del peligro inminente de muerte bastará que concurra en uno de los otorgantes.

Ley 200

Ley personal

Los navarros pueden otorgar testamento de hermandad tanto en Navarra como fuera de ella, así en España como en el extranjero.

Ley 201

Ineficacia

Si el testamento de hermandad se hubiera otorgado por marido y mujer, la sentencia posterior de nulidad del

V. KAPITULUA
Ermandadeko
testamentua

199. legea

Kontzeptua

Ermandadekoa da bi pertsonak edo gehiagok agerkai berean egindako testamentua.

Formak

Forma olografoa salbu, konpilazio honetan onarturiko formetatik edozein izan dezake ermandadeko testametuak, baldin eta forma horietako bakoitzari buruz ezarritako betekizun guztiak betetzen badira.

189 eta 190. legeetan xedatutakoaren ondoretarako, nahiko da egileetatik batek bakarrik betetzea hur-hurreko heriotza-arriskua.

200. legea

Lege pertsonala

Nafarrek ermandadeko testamentua egin dezakete Nafarroan nahiz Nafarroatik kanpo, Espainian zein atzerrian.

201. legea

Eragingabetasuna

Senar-emazteek ermandadeko testamentua egiten badute eta, geroago, ezkontzaren deuseztasunari edo di-

matrimonio, de divorcio o de separación produce la ineficacia de las liberalidades que en él se hubieran concedido los cónyuges y de las demás disposiciones que uno de los testadores hubiera establecido sobre su propia herencia y que tenga su causa en las disposiciones del otro.

Revocación

a) En vida de todos los otorgantes

En vida de todos los otorgantes, el testamento de hermandad podrá revocarse:

1. Por todos ellos conjuntamente.

b) El cónyuge que incurrió en causa de separación por abandono del hogar familiar, infidelidad conyugal, incumplimiento grave o reiterado de los deberes conyugales o familiares o por haber atentado contra la vida del otro.

c) El cónyuge que la haya pedido en razón a la separación de hecho no consentida por el otro.

d) Ninguno de los cónyuges en los demás casos de separación.

3. El cónyuge que hubiere sido ejecutoriamente condenado por haber atentado contra la vida del otro.

4. El que, por sentencia firme, hubiere sido privado de la patria potestad sobre los hijos comunes.

En testamento o contrato sucesorio, un cónyuge podrá privar del usufructo de fidelidad al otro, si éste hubiere incurrido en cualquiera de las causas previstas en el apartado 2.b de esta ley, aunque no haya separación.

Ley 255

Extensión

El usufructo se extiende a los bienes y derechos pertenecientes al cónyuge premuerto, aunque estén afectos a llamamiento, reversión o restitución, con excepción de los siguientes:

a) Ezkontideetatik inork ere ez, biek hitzartu edo adostu badute banantze hori.

b) Banantze-arrazoian sartu den ezkontideak, hori gertatu bada familiaren etxea bertan behera uzteagatik, ezkontideen artean fideltasunik ez izateagatik, ezkontzako nahiz familiako egin-beharren ez-betetze larri edo errepikatuaengatik, edo beste ezkontidearen bizitzaren aurka atentatzeagatik.

c) Banantzea eskatu duen ezkontideak, hori eskatzeko arrazoa izan bada besteak adostu ez duen egitezko banantzea.

d) Ezkontideetatik batek ere ez, gainerako banantze-kasuetan.

3. Betearazpen-bidean kondenatua izan den ezkontideak, hori gertatu bada bestearen bizitzaren aurka atentatzeagatik.

4. Epai irmoaren bidez, bi ezkontideen seme-alaben gaineko guraso-ahalga galdu duenak.

Testamentuan edo oinordetza-itu-nean, ezkontide batek besteari ken diezaiokoe fideltasun-gozamena, azken hori sartu denean lege honetako 2.b idatz-zatian aipaturiko arrazoietatik batean, nahiz eta banantzerik egon ez.

255. legea

Hedadura

Gozamena hedatzen da, aurrez hildako ezkontideari dagozkion ondasun eta eskubideetara, nahiz eta horiek dei, lehengoratze edo itzulketari lotuta egon, jarraiko ondasun eta eskubideak salbu:

Bienes excluidos

1. Los bienes sujetos a sustitución fideicomisaria, salvo que el disponente establezca lo contrario.

2. Los derechos de usufructo, uso, habitación u otros de carácter vitalicio y personal.

3. Los bienes que el cónyuge premuerto hubiere recibido por título lucrativo y con expresa exclusión del usufructo de fidelidad.

4. Los bienes que hubieren sido objeto de donación mortis causa.

5. Los legados piadosos o para entierro y funerales.

6. Los legados para dotación de hijos u otros parientes a los que el testador se hallare obligado a dotar.

7. Y los legados remuneratorios, siempre que conste la existencia del servicio remunerado.

Ley 256*Caso de segundas nupcias*

Del usufructo del cónyuge viudo de segundas o ulteriores nupcias del premuerto quedan excluidos los bienes siguientes:

1. Los que deben reservarse en favor de los hijos o descendientes de matrimonio anterior, conforme a lo establecido en las leyes 274 y 275.

2. Los que el cónyuge bñubo deba dejar en favor de los mismos hijos y descendientes con preferencia respecto

Baztertutako ondasunak

1. Fideikomisozko ordezenaren mendeko ondasunak, xedatzaileak aurkakoa ezartzen duenean izan ezik.

2. Gozamina, erabili eta biztantzeko eskubideak edota bizi arteko izaera pertsonala duten beste eskubideak.

3. Aurrez hildako ezkontideak dohainik eskuraturiko ondasunak, horiek fidelitasun-gozamenetik esanbidez baztertu badira.

4. Mortis causa dohaintzaren objektu izan diren ondasunak.

5. Erruki-legatuak edo lurperatzea eta hiletak ordaintzeko emandakoak.

6. Seme-alabei zuzkidura egiteko legatuak edo, testamentugileak ahaideei zuzkidura emateko betebeharra badu, betebeharrori gauzatzeko legatua.

7. Eta ordain gisa emandako legatuak, zurrada bada ordaindu beharreko zerbitzua egin dela.

256. legea*Bigarrenez ezkondurik egotea*

Aurrez hildakoaren bigarren edo gehiagogarren ezkontzakoa bada alarguna, alargun horri dagokion gozamenetik baztertuta geratzen dira hurrengo ondasunak:

1. Aurreko ezkontzako seme-alaba edo ondorengoztat erreserbatu beharrekoak, 274 eta 275. legeetan ezarritakoarekin bat etorritz.

2. Bigarrenez ezkondukoak seme-alaba eta ondorengo berberentzat lehenespenez utzi beharrekoak, geroko

a los del matrimonio posterior, según lo establecido en la ley 272.

3. Los que el cónyuge bínubo hubiere adquirido por título lucrativo con llamamiento sucesorio en favor de hijos o descendientes de anterior matrimonio, si éstos sobrevivieren. Se exceptúa el caso de que para las segundas o posteriores nupcias se hubiese obtenido el consentimiento de todas las personas que ordenaron el llamamiento, o de las sobrevivientes.

Ley 257

Inventario

El cónyuge viudo no adquirirá el usufructo de fidelidad si no hiciere inventario de todos los bienes a que conocidamente se extienda el usufructo. El inventario, que debe constar en escritura pública, se iniciará dentro de los cincuenta días siguientes a la fecha de la muerte o de la declaración de fallecimiento del consorte y se terminará dentro de otros cincuenta. Dentro de este plazo de cien días podrán adicionarse en nuevos inventarios los bienes que se hubieran omitido. En caso de fuerza mayor, se suspenderán estos plazos mientras la causa dure.

Si el usufructo de fidelidad no hubiere de empezar hasta extinguirse un usufructo establecido en favor de otras personas, estos plazos empezarán a contarse a partir de la fecha de extinción del usufructo voluntario.

En cualquier supuesto de nulidad del testamento o del contrato sucesorio

ezkontzako en aurretik, 272. legean ezarritakoaren arabera.

3. Bigarrenez ezkontutakoak dohai-nik eskuratu dituenak, baldin eta aurreko ezkontzako seme-alaba edo ondorengoei oinordetzara deitu bazaie eta horiek bizirik badaude. Salbuespen gisa har daiteke, bigarrenez edo gehiagogarrenez ezkontzeko, deia ordenatu duten pertsona guztiek edo horietatik bizirik daudenek euren adostasuna ematea.

257. legea

Inbentarioa

Alargunak ez du fideltasun-gozamenik eskuraturiko, baldin eta gozamen horren hedadura ezagunean sartzen diren ondasun guztiekien ez badu inbentarioa egiten. Inbentarioa eskritura publikoan agerrarazi behar da, eta horri hasiera emanen zaio, ezkontidearen heriotza gertatu edo horren heriotza-adierazpena egin eta hurrengo berrogeita hamar egunetan, eta amaiera emanen zaio beste berrogeita hamar egunetan. Ehun eguneko epe horretan, inbentario berrien bidez gehi daitezke sartu gabe geratu diren ondasunak. Ezinbesteko kasuetan, epeok eten eginen dira arrazoiak dirauen artean.

Fideltasun-gozamenak ez badu hasi behar beste pertsona batzuentzat ezarritako gozamina azkendu arte, epeon zenbaketa hasiko da borondatezko gozamina azkentzen denean.

Testamentua, oinordetza-ituna edo halako egintzetan ordenaturiko jarauns-

rio, o de la institución de heredero ordenada en dichos actos, los plazos para la formalización de inventario empezarán a contarse a partir de la fecha en que al cónyuge viudo le fuera notificada la sentencia firme que hubiese declarado la nulidad.

A requerimiento del nudo propietario, el usufructuario está obligado a declarar ante qué Notario formalizó el inventario o adición al mismo. El nudo propietario tendrá derecho a obtener copia, y podrá requerir al usufructuario para que subsane en escritura pública los errores y omisiones en que se hubiere incurrido.

Ley 258

Derechos

El cónyuge viudo tendrá todos los derechos que, en general, corresponden al usufructuario conforme al capítulo primero del título IV del libro tercero, y los que, en su caso, voluntariamente, le hubiesen sido concedidos por el cónyuge premuerto o hubieran sido pactados.

Además, cuando el usufructo de fidelidad recaiga sobre acciones de sociedades anónimas, y siempre que los estatutos, pactos o acuerdos sociales no dispongan otra cosa, se observarán las reglas siguientes:

1. El derecho preferente para suscribir nuevas acciones corresponde exclusivamente al nudo propietario; pero si éste no hiciere uso de su derecho, el usufructuario podrá suscribir por sí mismo a nombre del nudo propietario,

le-izendapena deuseza bada, inbentarioa egiteko epeen zenbaketa hasiko da deuseztasuna deklaratzeko epai irmoa alargunari jakinarazten zaionean.

Jabe soilak hala eskatuta, gozamen-dunak nahitaez adierazi beharko du zein notarioren aurrean egin duen inbentarioa edo horri egindako gehikuntza. Jabe soilak inbentarioaren kopia lortzeko eskubidea du, eta gozamendunari eskatu ahal izanen dio ongi ditzan eskritura publikoaren bidez inbentari-ozan izandako oker eta hutsuneak.

258. legea

Eskubideak

Alargunak izanen ditu gozamendunari orokorrean dagozkion eskubide guztiak, hirugarren liburuko IV. titulua-ren lehenengo kapituluarekin bat etorriz, bai eta, hala denean, aurrez hildako ezkontideak, borondatez, berari eman dizkionak edo itundu dituenak ere.

Gainera, fideltasun-gozamena sozietate anonimoen akzioen gainean eratzen bada, eta sozietatearen estatutu, itun edo erabakiek bestelakoa xedatzen ez badute, hurrengo erregelak beteko dira:

1. Jabe soilari dagokio, eta berari bakarrik, akzio berriak harpidetzeko lehenespen-eskubidea; baina horrek ez badu eskubidea erabiltzen, gozamen-dunak bere kabuz egin ahal izanen du harpidetza, jabe soilaren izenean, or-

abonando los desembolsos y gastos correspondientes, y en caso de no ejercer esta facultad podrá exigir el valor de los derechos de suscripción que se hubieren enajenado.

2. El usufructo se extenderá a las nuevas acciones suscritas; pero el usufructuario deberá abonar al nudo propietario todos los desembolsos y gastos que la suscripción le hubiere reportado, y si no lo hiciera en el plazo de treinta días a contar del requerimiento del nudo propietario, no tendrá el usufructo sobre las nuevas acciones, y en tal caso le corresponderá el importe de los derechos de suscripción realizados por el nudo propietario. En los supuestos en que el usufructuario deba indemnizar al nudo propietario por los gastos y desembolsos ocasionados, no tendrá derecho de reembolso.

3. En caso de sustitución de títulos o de amortización de acciones, el usufructo recaerá por subrogación sobre los nuevos títulos o el importe de la amortización.

4. En el usufructo de obligaciones que se conviertan en acciones, el usufructo recaerá sobre las acciones, y se aplicará lo dispuesto en los números anteriores.

Las disposiciones de esta ley sobre usufructo de acciones se observarán, en la medida en que por su naturaleza sean aplicables, al usufructo de participaciones de sociedades de responsabilidad limitada y de cuotas sociales en sociedades colectivas, comanditarias o sociedades civiles.

dainketa edo gastu egokiak eginez, eta, ahalmen hori egikaritzen ez badu, besterendutako harpidetza-eskubideen balioa galda dezake.

2. Gozamina hedatuko da harpidetu diren akzio berrietara; gozamedunak jabe soilari eman beharko dizkio harpidetzaren ondorioz horrek izan dituen ordainketa eta gastu guztiak, eta ez badu hori egiten jabe soilaren agindeitik hogeita hamar eguneko epean, ez du gozamenik izanen akzio berrien gainean; kasu horretan, jabe soilak besterendutako harpidetze-eskubideen zenbatekoa bakarrik hartuko du. Gozamedunak jabe soilari eman behar badizkio horrek egindako gastu eta ordainketak, ez du itzulketa eskubiderik izanen.

3. Tituluak ordeztu edo akzioak amortizatzen badira, gozamina titulu berrien gainekoa edo amortizazioaren zenbatekoaren gainekoa izanen da, subrogazio bidez.

4. Gozamina eratu bada akzio bihur daitezkeen obligazioen gainean, gozamina akzioen gainekoa izanen da, eta aurreko zenbakietan xedaturikoa aplikatuko da.

Akzioen gaineko gozamenari buruz lege honetan ezarritako xedapenak aplikatuko zaizkie, horien izaeraren arabera aplikagarri diren neurrian, bestelako gozamenei ere, horiek erantzukizun mugatuko sozietateen partaidetzen gain eta sozietate kolektibo, komanditako sozietate edo sozietate zibilen kuoten gain eratu badira.

Ley 259*Obligaciones*

El cónyuge usufructuario debe:

1. Administrar y explotar los bienes con la diligencia de un buen padre de familia.

2. Pagar los gastos de última enfermedad, entierro, funerales y sufragios del cónyuge premuerto.

3. Prestar alimentos, dentro de los límites del disfrute, a los hijos y descendientes del cónyuge premuerto, a quienes éste tuviere obligación de prestarlos, y siempre que los alimentistas se hallaren en situación legal de exigirlos.

4. Pagar con dinero de la herencia las deudas del cónyuge premuerto que fueren exigibles. Si no hubiere dinero suficiente, podrá enajenar bienes de la herencia previo acuerdo con los nudo propietarios, y a falta de acuerdo o si los nudo propietarios fueren desconocidos o estuvieron ausentes, será necesaria la autorización judicial para enajenar bienes.

5. Pagar todas las cargas inherentes al usufructo.

Ley 260*Transformación*

Si el usufructuario desatendiere las indicaciones o advertencias que respecta a la administración y explotación de los bienes le hicieren los nudo propietarios, éstos podrán acudir al Juez.

259. legea*Betebeharrak*

Ezkontide gozamendunak ondokoak egin behar ditu:

1. Ondasunak administratu eta usiatu, familiako guraso on batek egingo lukeen moduan.

2. Aurrez hildako ezkontidearen azken gaixoaldi, lurperatze, hileta eta ari-makarien ondoriozko gastuak ordaindu.

3. Mantenua eman, luperketaren mugen barruan, aurrez hildako ezkontidearen seme-alaba eta ondorengoei, aurrez hildakoak hori emateko betebeharra bazuen, betiere, mantenu-hartzaileek hori galdatzeko legezko egoera betetzen dutenean.

4. Aurrez hildako ezkontidearen zor-rak jarauntsiaren diruarekin ordaindu, zorrok galdatzeko modukoak direnean. Ez badago behar beste dirurik, jarauntsiko ondasunak besterendu ahal izanen ditu, aldez aurretik jabe soilekin akordioa eginez; akordiorik lortu ezean, jabe soilak ezezagunak badira edo absente badaude, beharrezkoa izanen da epailearen baimena ondasunak besterentzeko.

5. Gozamenari datzekion zama guztiak ordaindu.

260. legea*Transformazioa*

Gozamendunak ez badie jaramonik egiten jabe soilek administrazio eta ustiapenaren inguruan emandako jarraibide edo oharrei, horiek epailearengana jo ahal izanen dute.

Si el viudo usufructuario no pudiera o no se aviniere a cumplir la decisión judicial, los nudo propietarios podrán pedir la entrega de los bienes y la sustitución del usufructo por una renta a su cargo no inferior al rendimiento medio obtenido en los cinco últimos años y revisable cuando varíen las circunstancias objetivas.

Ley 261

Extinción

El usufructo de fidelidad se extingue:

1. Por muerte del usufructuario.
2. Por renuncia expresa en escritura pública.
3. Por contraer el usufructuario nuevas nupcias, salvo pacto o disposición en contrario del cónyuge premuerto.

Ley 262

Privación

El viudo, a petición de los nudo propietarios, perderá el usufructo de fidelidad:

1. Si viviera maritalmente con otra persona.
2. Si llevare vida notoriamente licenciosa, o corrompiera a los hijos.
3. Si enajenare o gravare bienes, salvo los casos previstos en las leyes 253 y 259, número 4, y a no ser que se hallare debidamente autorizado para ello

Alargun gozamedunak ezin badu epailearen erabakia bete edo hori bete nahi ez badu, jabe soilek ondasunak emateko eta gozamina errenta batez ordetzeko eskatu ahal izanen dute; errenta hori jabe soilaren kontura emanen da eta ezin izanen da izan azken bost urteetan lorturiko batez besteko etekina baino txikiagoa, eta hori berrikusteko modukoa izan beharko da inguruabar objektiboak aldatzen direnean.

261. legea

Azkentzea

Fideltasun-gozamina azkentzen da:

1. Gozameduna hiltzen denean.
2. Horri eskritura publikoan esanbidez uko egiten zaionean.
3. Gozameduna berriro ezkontzen denean, aurrez hildako ezkontideak aurkako itun edo xedapena egin duenean izan ezik.

262. legea

Gozamina galtzea

Alargunak, jabe soilek hala eskatuta, fideltasun-gozamina galduko du:

1. Beste norbaitekin ezkondu-bizimodua egiten duenean.
2. Ageri-agerian bizimodu lizuna duenean, edo seme-alabak gaizpideratzen dituztenean.
3. Ondasunak besterendu edo kargatzen dituztenean, 253. legeak eta 259. legeko 4. zenbakiak ezarritako kasuetan salbu, eta itun bidez nahiz aurrez hilda-

por pacto o disposición del cónyuge premuerto.

4. Si incumpliere sus obligaciones con dolo o negligencia grave.

5. Si durante un año y un día hubiere incumplido de modo general, con negligencia, las obligaciones inherentes al usufructo de fidelidad conforme a la ley 259.

Ley 263

Interdicto

Terminado el usufructo de fidelidad, los nudo propietarios podrán hacer efectiva la posesión de los bienes por medio de interdicto.

Ley 264

Modificaciones voluntarias

Por voluntad del disponente o por pacto se podrá:

1. Dispensar de la obligación de hacer inventario, salvo el caso de segundas o posteriores nupcias habiendo hijos o descendientes de anterior matrimonio.

2. Facultar para enajenar o gravar los bienes.

3. Autorizar la conservación del usufructo aunque el usufructuario contraiga nuevas nupcias.

4. Exigir la constitución de garantía para el ejercicio del usufructo.

5. Imponer plazos, condiciones y cargas, o modificar de cualquier modo

ko ezkontidearen xedapen bidez horretarako baimen egokia ematen zaionean izan ezik.

4. Bere betebeharrak betetzen ez dituenean, doloaz edo zabarkeria astunaz.

5. Urtebete eta egun bateko epean zehar, orokorrean eta zabarkeriaz, fidelitasun-gozamenari datxezkion betebeharrak betetzen ez dituenean, 259. legearekin bat etorritz.

263. legea

Interdiktua

Fideltasun-gozamena bukatu eta gero, jabe soilek ondasunen edukitza eskura dezakete interdiktua bitartez.

264. legea

Borondatezko aldarazpenak

Xedatzailearen borondatez edo itun bidez, ondoko gerta daiteke:

1. Inbentarioa egiteko betebeharrak kentzea, salbu eta, bigarren edo geroagoko ezkontza izanik, aurreko ezkontzaren seme-alaba edo ondorengoak daudenean.

2. Ondasunak besterendu edo kargatzeko ahalmena ematea.

3. Gozamenari eusteko baimena ematea, nahiz eta gozamenaduna berriro ezkondu.

4. Gozamena egikaritu ahal izateko, bermea era dadin galdatzea.

5. Epe, baldintza eta zamak ezartzea, edo eskubidearen eskuraketa, egi-

la adquisición, ejercicio y extinción del derecho.

En los casos previstos en los números 4 y 5 será necesario el consentimiento y aceptación del cónyuge usufructuario.

Ley 265

Analogía

En el usufructo voluntario universal o sobre bienes determinados, otorgado con condición de viudedad, a favor de cualquier persona, serán aplicables, en cuanto no se opongan al pacto o disposición que lo conceda, las leyes del presente capítulo.

Ley 266

Normas subsidiarias

En lo no establecido por este capítulo, el usufructo de fidelidad se entenderá sometido a las disposiciones generales sobre el usufructo del capítulo I del título IV del libro tercero.

CAPÍTULO II

De la legítima

Ley 267

Concepto

La legítima navarra consiste en la atribución formal a cada uno de los herederos forzosos de cinco sueldos «febles» o «carlines» por bienes muebles y una robada de tierra en los montes

karitza eta azkentzea edozein modutan aldaraztea.

4 eta 5. zenbakietan arauturiko kasuetan, beharrezkoak izanen dira ezkontide gozamedunaren adostasuna eta onarpena.

265. legea

Analogia

Edozein pertsonari, alarguntasun-baldintzaren menpe, borondatezko gozamen unibertzala nahiz ondasun zehatzen gaineko gozamena eman bazaio, gozamen horri kapitulu honetako legeak aplikatuko zaizkio, legeok gozamena emateko itun edo xedapenaren aurkakoak ez diren neurrian.

266. legea

Arau subsidiarioak

Kapitulu honek ezartzen ez dituen kontuetan, fideltasun-gozamena hirugarren liburuko IV. tituluaren I. kapituluaren gozamenari buruz emandako xedapen orokorren menpe dagoela ulertuko da.

II. KAPITULUA

Senipartea

267. legea

Kontzeptua

Nafarroako senipartea dela bide, nahitaezko jaraunsle bakoitzari forma egokian eratzikitzen zaizkio, ondasun higigarriei dagokienez, bost alokairu «feble» edo «carlin» eta, ondasun hi-

comunes por inmuebles. Esta legítima no tiene contenido patrimonial exigible ni atribuye la cualidad de heredero, y el instituido en ella no responderá en ningún caso de las deudas hereditarias ni podrá ejercitar las acciones propias del heredero.

Ley 268

Legitimarios

En testamento y pactos sucesorios deberán ser instituidos en la legítima foral:

1. Los hijos matrimoniales, los no matrimoniales y los adoptados con adopción plena.

2. En defecto de cualquiera de ellos, sus respectivos descendientes de grado más próximo.

Ley 269

Forma

La institución en la legítima foral podrá hacerse para todos los legitimarios en forma colectiva.

Ley 270

Excepciones

No será necesaria la institución en la legítima foral cuando el disponente hubiera dotado a los legitimarios, les hubiese atribuido cualquier liberalidad a título mortis causa, o los hubiere desheredado por justa causa, o ellos hubieran renunciado a la herencia de aquél o hubiesen premuerto sin dejar

giezinei dagokienez, herri-mendietako errege bat lur. Seniparte horrek ez du galdatzeko moduko ondare-edukirik, eta ez du jaraunsle-izaerarik eratzikitzen; senipartearen gainean izendatuak ez du inolako erantzukizunik izanen jarauntsiko zorren gainean, eta ezin izanen du jaraunslearen beraren eskubiderik egikaritu.

268. legea

Senipartedunak

Testamentuaren bidez eta oinordetza-itunen bidez, foru-senipartearen gain izendatu behar dira:

1. Ezkontzako seme-alabak, ezkontzaz kanpokoak eta adopzio osoan hartutakoak.

2. Halakorik izan ezean, horien gradurik hurbileneko ondorengoak.

269. legea

Forma

Foru-senipartearen gaineko izendapena senipartedun guztientzat egin daiteke modu kolektiboan.

270. legea

Salbuespenak

Ez da beharrezkoa foru-senipartearen gaineko izendapenik egitea, xedatzaileak senipartedunei zuzkidura eman dienean, mortis causa tituluaren bidez edozein eskuzabaltasun eratziki dienean, arrazoi zuzena dela-eta horiek jaraunsgabetu dituenan, senipartedunok haren jarauntsiari uko egin diotenean, edota horiek

descendencia con derecho a legítima. Serán justas causas de desheredación las comprendidas en los artículos 852 y 853 del Código Civil.

Ley 271

Preterición

La preterición tiene por efecto la nulidad de la institución de heredero, pero deja a salvo las demás disposiciones. Únicamente podrán ejercitar la acción de impugnación el legítimarlo preterido o sus herederos.

CAPÍTULO III

De los derechos de los hijos de anterior matrimonio

Ley 272

Limitación de disposiciones

Los hijos de anterior matrimonio no deberán recibir de sus padres menos que el más favorecido de los hijos o cónyuge de ulterior matrimonio. Si los hijos de cualquier matrimonio premurieran se dará en todo caso el derecho de representación en favor de sus respectivos descendientes.

Si recibieren menos, el defecto se corregirá igualando a los perjudicados con cargo a los beneficiarios, sin alterar las participaciones de los demás. Sólo podrán ejercitar la acción de inoficiosidad los hijos o descendientes perjudica-

aurrez hil direnean seniparte-eskubide-dun ondorengorik utzi gabe. Jaraunsgabetzeko arrazoi zuzen izanen dira Kode Zibilaren 852 eta 853. artikuluetara bildutakoak.

271. legea

Preterizioa

Preterizioak ondore gisa dakar jaraunse-izendapenaren deuseztasuna; baina preterizio horrek ez die kalterik eginen gainerako xedapenei. Senipartedun preterituak edo horren jaraunseleek bakarrik egikari dezakete aurkaratze-akzioa.

III. KAPITULUA

Aurreko ezkontzako seme-alaben eskubideak

272. legea

Xedapenak mugatzea

Aurreko ezkontzako seme-alabek ezin dute euren gurasoengandik jaso geroko ezkontzako seme-alaba edo ezkontidearen artetik onura gehien lortu dituenak baino gutxiago. Ezkontza horretako seme-alabak aurrez hiltzen bada, beti ordezkapen-eskubidea geratuko da haien ondorengoan mesederako.

Gutxiago eskuratuz gero, akatsa zuzenduko da kaltetun guztiak berdine-tsiz, onuradunen kontura eta gainerako-en partaidetzak aldatu gabe. Ez-ofiziosotasunaren ondoriozko akzioa egikaritu ahal izanen dute seme-alaba edo ondo-

dos o sus causahabientes y habrán de interponerla dentro de los cuatro años siguientes a contar del fallecimiento del disponente. Cuando el causante, en acto inter vivos o mortis causa, hubiera atribuido al nuevo cónyuge o a los descendientes de ulterior matrimonio bienes determinados cuyo valor resulte excesivo, podrán aquéllos compensar a los descendientes de anterior matrimonio con bienes de la herencia o con dinero.

Este derecho de los hijos de anterior matrimonio no se dará respecto a las disposiciones en favor de cualesquiera otras personas.

Lo establecido en esta ley no se aplicará a los hijos de anterior matrimonio que en testamento o pacto sucesorio hubieren sido desheredados por cualquiera de las causas de los artículos 852 y 853 del Código Civil.

Ley 273

Bienes excluidos

A efectos de la ley anterior, no se computarán:

1. Los bienes que, conforme a lo que establece el capítulo siguiente, el padre o madre bínubo debe reservar a los hijos de anterior matrimonio, y que han de quedar íntegramente para éstos.

2. Los bienes que el padre o madre bínubo hubiera adquirido a título lucrativo del nuevo cónyuge o de los ascendientes o descendientes de éste, pues de tales bienes podrá aquél disponer libremente.

rengo kaltetunek edo horien kausadunek bakarrik, eta hori jarri beharko dute xedatzailea hil eta hurrengo lau urteetan zehar. Kausatzaileak, inter vivos nahiz mortis causa egintzetan, ezkontide berriari edo geroko ezkontzan izandako ondorengoei eratziki badizkie ondasun jakin batzuk, eta horien balioa gehiegizkoa bada, konpentsazioa eman ahal izanen diete aurreko ezkontzako ondorengoei, jarauntsiko ondasunekin edo diruarekin.

Aurreko ezkontzako seme-alaben eskubide hori ez da gertatuko beste pertsona batzuentzako xedapenei dagokienez.

Lege honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko aurreko ezkontzako seme-alabei, horiek testamentu bidez edo oinordetza-itunaren bidez jaraunsgabetu badira, Kode Zibilaren 852 eta 853. artikuluetako arazoietatik edozein dela bide.

273. legea

Baztertutako ondasunak

Aurreko legearen ondoretarako, ez dira zenbatuko:

1. Hurrengo kapituluan ezarritakoa erekin bat etorritz, bigarrenez ezkontutako aitak edo amak aurreko ezkontzan izandako seme-alabentzat erreserbatu beharreko ondasunak, horien esku geratu behar baitira oso-osorik.

2. Bigarrenez ezkontutako aitak edo amak ezkontide berriaren edo horren aurreko zein ondorengoan eskutik dohainik harturiko ondasunak, hark ondasunok askatasunez xeda baititzake.

CAPÍTULO IV

**De la reserva
del bínubo****Ley 274***Obligación de reservar*

El padre o madre que reiterase nupcias está obligado a reservar y dejar a los hijos del matrimonio anterior, o a los descendientes de los mismos, la propiedad de todos los bienes que por cualquier título lucrativo, a excepción de las arras, hubiera recibido de su anterior cónyuge, de los hijos que de él hubiera tenido o de los descendientes de éstos.

Esta obligación subsistirá mientras existan descendientes reservatarios, aunque el padre o madre bínubo enviudare y muriese en tal estado.

Será nula la dispensa de la obligación de reservar hecha por un cónyuge en favor del otro para el caso de que éste contrajera nuevas nupcias.

Será también nula toda disposición del padre o madre bínubo que contraveniga de cualquier otro modo lo establecido en esta ley.

El padre o madre bínubo puede disponer de los bienes reservables con entera libertad entre los hijos o descendientes reservatarios. Si no dispusiera de los bienes, los heredarán los reservatarios conforme a lo establecido para la sucesión legal.

IV. KAPITULUA

**Bigarrenez ezkontutakoak
egin beharreko erreserba****274. legea***Erreserbatzeko betebeharra*

Berriro ezkontutako aitak edo amak aurreko ezkontzan izandako seme-alaba edo horien ondorengoei erreserbatu eta utzi behar die berak aurreko ezkontidearen, horrekin izandako seme-alaben edo horien ondorengo eskutik eta dohaineko edozein tituluren bidez eskuratu dituen ondasun guztien jabetza, erresen gainekoa salbu.

Betebehar horrek indarrean dirau, ondorengo erreserba-hartzaileak dauden artean, nahiz eta bigarrenez ezkontutako aita edo ama alargun geratu eta egoera horretan hil.

Deuseza izanen da erreserba egiteko betebeharra kentzea, hori ezkontide batek bestearen mesederako egiten badu berriro ezkontzen den kasurako.

Era berean, deuseza izanen da bigarrenez ezkonturiko aitak edo amak egindako xedapena, lege honetan ezarritakoa urratzen badu.

Bigarrenez ezkontutako aitak edo amak erreserbapeko ondasunak askatasunez xeda ditzake seme-alaba edota ondorengo erreserba-hartzaileen artean. Ondasunak xedatzen ez baditu, erreserba-hartzaileak ondasunon jarraunle izanen dira, legezko oinordezari buruz ezarritakoarekin bat etorritik.

Ley 275*Determinación
de los reservatarios*

La determinación de los reservatarios, cuando éstos deban heredar conforme al orden de sucesión legal, podrá hacerse por acta notarial de notoriedad o información ad perpetuam memoriam.

Ley 276*Extinción de la reserva*

Se extinguirá la obligación de reservar cuando todos los reservatarios renunciaren a su derecho, fueren incapaces de suceder, hubiesen sido legalmente desheredados o no sobrevivieren al reservista, salvo el derecho de representación para el caso de premoriencia.

Ley 277*Enajenación
de bienes reservables*

Respecto a los actos de enajenación o gravamen de bienes reservables, muebles o inmuebles, se aplicarán las disposiciones del Código Civil y de la legislación hipotecaria. Sin embargo, tendrán validez y definitiva eficacia los actos que el reservista realizare con el consentimiento de todos los que, al tiempo de la enajenación o gravamen, fuesen hijos reservatarios o descendientes de los premuertos.

275. legea*Erreserba-hartzaileak
nortzuk diren zehaztea*

Erreserba-hartzaileek jaraunse izan behar badute legezko oinordetzarako hurrenkerarekin bat etorritz, horiek nortzuk diren zehaztu ahal izanen da, notarioak egindako nabaritasun-aktaren edo ad perpetuam memoriam informazioaren bitartez.

276. legea*Erreserba azkentzea*

Erreserba egiteko betebeharra azkenduko da erreserba-hartzaile guztiek euren eskubideei uko egiten dietenean, horiek oinordeko izateko gaitasunik ez dutenean, legez jaraungabetuak izan direnean edota erreserbagilea baino lehenago hil direnean, aurrez hiltze kasuetarako ordezkapen-eskubidea salbu.

277. legea*Erreserbapeko
ondasunak besterentzea*

Erreserbapeko ondasun higiezin edo higigarrien gainean, besterentze- edo kargatze-egintzak burutu badira, horiei Kode Zibilaren eta hipoteka legeriaren xedapenak aplikatuko zaizkie. Hala ere, baliozkotasuna eta behin betiko eragingarritasuna izanen dute erreserbagileak gauzaturiko egintzek, baldin eta, besterentzea edo kargatzea gauzatzeko unean, aurrez hildakoen seme-alaba erreserba-hartzaile edo ondorengo diren guztien adostasuna badu.

En caso de enajenación de bienes reservables, la reserva tendrá por objeto los bienes subrogados.

Ley 278

Normas supletorias

Se aplicarán a la reserva establecida en este capítulo las disposiciones del Código Civil y de la Ley Hipotecaria sobre inventario y garantías de los reservatarios.

CAPÍTULO V

De la reversión de bienes

Ley 279

Reversión de liberalidades de los ascendientes

Salvo renuncia del donante o disposición en contrario, harán reversión al ascendiente los bienes que éste hubiere transmitido por título lucrativo a un hijo por naturaleza o adopción plena u otro descendiente que, sin dejar posteridad, hubiera premuerto al donante. Si los bienes hubieren sido enajenados, la reversión tendrá por objeto exclusivamente los bienes o derechos subrogados.

Ley 280

Reversión en casos especiales

Si se tratare de bienes que el causante hubiere adquirido por donación

Erreserbapeko ondasunak besterenduz gero, erreserbaren objektu izanen dira subrogatutako ondasunak.

278. legea

Arau osagarriak

Kapitulu honetan ezarritako erreserbari aplikatuko zaizkio Kode Zibilean eta Hipoteka Legean inbentarioari buruz eta erreserba-hartzaileen bermeei buruz ezarritako xedapenak.

V. KAPITULUA

Ondasunak lehengoratzea

279. legea

Aurrekoei eskuzabaltasunak lehengoratzea

Dohaintza-emailearen uko egiterik izan ezean, edo aurkako xedapenik izan ezean, aurrekoak ondasun batzuk eskualdatu badizkio dohainik naturaren araberako edo adopzio osoaren bidezko seme-alabari edota dohaintza-emaile bano lehen eta ondorengorik gabe hildako ondorengoari, ondasunok aurrekoari lehengoratuko zaizkio. Ondasunok besterendu badira, lehengoratzearen objektu izanen dira subrogatutako ondasun edo eskubideak bakarrik.

280. legea

Lehengoratzea kasu berezietan

Kausatzaileak ondasun batzuk eskuratu baditu propter nuptias dohain-

«propter nuptias», dote o dotación, se estará a lo especialmente dispuesto en las leyes 116, 123 y 135, párrafo segundo.

tzaren bidez edo ezkonsari nahiz zuzkiduraren bidez, orduan, 116 eta 123. legeetan, eta 135. legeko bigarren lerrokadan xedaturikoa beteko da.

TÍTULO XI DE LOS FIDUCIARIOS- COMISARIOS

Ley 281

Concepto

Para el caso de fallecer el causante sin haber ordenado de otro modo su sucesión, puede aquél delegar en un fiduciario-comisario, por testamento, capitulaciones u otra escritura pública, las facultades de designar heredero o donatario universal, señalar dotaciones y disponer legados, dentro de los límites establecidos en la delegación y conforme a lo dispuesto en el presente título. La delegación puede conferirse al cónyuge u otras personas individual, conjunta o subsidiariamente; cuando se haya conferido genéricamente a los «parientes», se entenderá a los Parientes Mayores.

Interpretación

En la fiducia sucesoria, la interpretación e integración de la voluntad del causante deben ajustarse a la costumbre del lugar y a los usos de la familia. Salvo que otra cosa se hubiere establecido, se observarán las leyes siguientes.

XI. TITULUA FIDUZIARIO- KOMISARIOAK

281. legea

Kontzeptua

Kausatzailea hiltzen bada oinordetza bestelako moduan ordenatu gabe, kausatzaile horrek fiduziario-komisario bati eskuorde diezazkioke testamantuan, ezkontzako itunetan edo beste eskritura publiko batean, jaraunsle edo dohaintza-hartzaile unibertsala izendatzeko ahalmenak, bai eta zuzkidurak seinatu eta legatuak xedatzekoak ere, eskuordetzan ezarritako mugen barruan eta titulu honetan xedatutakoarekin bat etorritik. Eskuordetza ezkontideari edo beste pertsona batzuei eman dakieke, banaka, guztiei batera edo modu subsidiarioan; «ahaideei» modu generikoan eman bazaie, ulertuko da Ahaide Nagusiei utzi zaiela.

Interpretazioa

Oinordetza-fiduzian, kausatzailearen borondateari buruz egindako interpretazioa eta integrazioa tokiko ohiturei eta familiaren usadioei egokitu behar zaizkie. Bestelakorik ezarri ezean, hurrengo legeak beteko dira.

Ley 282

Delegación

La función de fiduciario-comisario es personalísima, pero la simple ejecución o formalización del acto podrá delegarse en otra persona, siempre que en el correspondiente instrumento de poder conste esencialmente el contenido de la voluntad.

Ley 283

Actuación

Si fueren varios los fiduciarios decidirán por mayoría. Si los fiduciarios fueren los Parientes Mayores se estará a lo dispuesto en la ley 145.

Ley 284

Capacidad

El fiduciario deberá ser mayor de edad en el momento de ejercer su función, pero si es el cónyuge, bastará que tenga capacidad para testar.

El cónyuge viudo que contraiga nuevas nupcias perderá su cualidad de fiduciario.

Asimismo, el nombramiento de fiduciario conferido por un cónyuge en favor del otro quedará sin efecto por sentencia firme de nulidad, separación o divorcio.

Ley 285

Facultades

Si el causante hubiera nombrado fiduciarios a otras personas, solas o en

282. legea

Eskuordetzea

Fiduziario-komisarioaren eginkizuna bere-berezkoa da; baina egintzaren betearazpen edo formalizazio hutsa beste inori eskuorde dakioko, baldin eta ahalordearen agerkai egokian jasotzen bada borondatearen eduki nagusia.

283. legea

Jarduteko modua

Fiduziarioak bat baino gehiago badira, horiek gehiengoz hartuko dituzte erabakiak. Ahaide Nagusiak badira fiduziario, 145. legean xedaturikoa beteko da.

284. legea

Gaitasuna

Fiduziarioak adin nagusiko izan behar du bere eginkizuna betetzeko unean, baina ezkontidea bada fiduziario, nahiko izanen da horrek testamentu egiteko gaitasuna izatea.

Berriro ezkonduetako alargunak fiduziario-izaera galduko du.

Halaber, ezkontide batek bestea izendatu badu fiduziario, izendapen hori eraginik gabe geldituko da, deuseztasun, banantze edo dibortzioaren gaineko epai irmoaren bidez.

285. legea

Ahalmenak

Kausatzaileak fiduziario izendatu baditu beste pertsona batzuk, banaka

concurrencia con el cónyuge o ascendientes, las designaciones de heredero o donatario universal deberán hacerse conforme a lo dispuesto para los Padres Mayores en la ley 144.

Cualesquiera que sean los fiduciarios, antes de efectuar las designaciones pueden hacer también, en uno o varios actos, señalamientos y entregas de dotaciones y demás derechos con cargo a la Casa. Estos señalamientos no obstarán para que la designación de heredero o donatario pueda recaer posteriormente en alguno de los beneficiarios, si al hacer los señalamientos no se hubiere establecido otra cosa.

Ley 286

Forma

Los fiduciarios deben hacer las designaciones en testamento o en escritura pública; en este último caso serán irrevocables salvo lo dispuesto en la ley 114.

Ley 287

Situación de dependencia

Siempre que los fiduciarios fueren el cónyuge o los ascendientes del causante, en tanto no hubieren cumplido enteramente su cometido, tendrán facultades de administración y disposición sobre los bienes de los que todavía no hayan dispuesto. Cuando se trate de otros fiduciarios, se aplicarán las reglas de la comunidad hereditaria entre los llamados, pero si alguno de éstos es menor o incapaz, se requerirá para los actos de disposición el consentimiento de los adjudicatarios.

edo ezkontidearekin nahiz aurrekoekin batera, jaraunse edo dohaintza-hartzaille unibertsalaren izendapenak egin beharko dira, 144. legean Ahaide Nagusi buruz xedatutakoarekin bat etorritz.

Fiduziarioak edozein izanda ere, izendapenak egin baino lehen, fiduziario horiek, egintza batean edo batzuetan zuzkidurak edo bestelako eskubideak seinala eta eman ditzakete etxearen kontura. Seinalamendu horiek ez dakarte inolako eragozpenik geroago onuradunetatik bat jaraunse edo dohaintza-hartzaille izendatzeko, seinalamenduak egi-tean bestelakoa ezarri ez bada.

286. legea

Forma

Fiduziarioek izendapenak egin behar dituzte testamentuan edo eskritura publikoan; azken kasu horretan, izendapenok ezeztatzeko izanen dira, 114. legean xedaturikoa salbu.

287. legea

Mendekotasun-egoera

Fiduziarioak badira kausatzailearen ezkontidea edo aurrekoak, euren eginkizuna oso-osorik betetzen ez duten bitartean administratzeko eta xedatzeko ahalmenak izanen dituzte oraindik xedatu ez dituzten ondasunen gainean. Fiduziarioak bestelakoak badira, jaraunsi-erki-degoari buruzko erregelak aplikatuko dira deitzen artean, baina horietako bat adingabea edo ezgaia bada, adjudikazio-hartzaileren adostasuna beharrezkoa izanen da xedatze-egintzak gauzatzeko.

Ley 288*Imposibilidad de ejecución*

Si por fallecimiento, renuncia, imposibilidad o cualquier otra causa la designación de heredero o donatario universal por los fiduciarios no llegara a realizarse y tampoco fuere posible la designación por los Parientes Mayores, podrá pedir que se le declare heredero el mayor de los hijos o, en defecto de éstos, el mayor de los demás descendientes que vivieran en la Casa y que no hubiesen sido excluidos ni hubieran renunciado. Si ninguno lo pide, se abrirá la sucesión legal.

TÍTULO XII

**DE LOS HEREDEROS
DE CONFIANZA****Ley 289***Concepto*

El testador puede instituir herederos de confianza o fiduciarios a personas individuales o jurídicas a quienes faculte para hacerse cargo de toda o parte de la herencia y disponer de ésta conforme al destino expresado en las instrucciones escritas o verbales que confidencialmente les haya dado.

Ley 290*Revelación de la confianza*

Salvo disposición en contrario, el heredero fiduciario no está obligado en

288. legea*Beteazteko ezintasuna*

Heriotza, uko egite, ezintasun edo beste arrazoi baten ondorioz, fiduziariek ezin badute jaraunsle edo dohaintza-hartzaille unibertzala izendatu, eta ezinezkoa bada Ahaide Nagusiek izendapen hori egitea, seme edo alaba nagusiak eska dezake bera jaraunsle izendatzeko edo, halakorik ez badago, etxean bizi diren ondorengoetatik nagusiak, horiek ez badira baztertu edo ez badute ukorik egin. Inork ere ez badu halakorik eskatzen, legezko oinordetza irekiko da.

XII. TITULUA

**KONFIANTZAZKO
JARAUNSLAK****289. legea***Kontzeptua*

Testamentugileak konfiantzazko jaraunsle edo fiduziario izenda ditzake norbanakoak edo pertsona juridikoak, baldin eta horiei ahalmenak ematen badizkie jarauntsi osoaren edo zati baten ardura euren gain hartzeko eta jarauntsia xedatzeko; betiere, testamentugileak idatziz edo hitzez sekretupean eman dizkien jarraibideetan adierazitako xedearekin bat etorritz.

290. legea*Konfiantza jendaurrean agertzea*

Aurkako xedapenik izan ezean, jaraunsle-fiduziarioak ez du inongo bete-

momento alguno a revelar la confianza recibida ni a dar cuenta de su gestión.

Cuando, por razón de los plazos establecidos en la legislación fiscal, el fiduciario tuviere que declarar la confianza, será suficiente una indicación genérica de la misma.

El testador puede disponer que, en caso de contienda sobre la eficacia de la institución o sobre la gestión del heredero fiduciario, sea éste considerado pura y simplemente como heredero.

Ley 291

Naturalaleza

En tanto el heredero de confianza no revele ésta, puede ejercitar todos los derechos propios de heredero. Una vez manifestada la confianza, se le considerará, respecto a los bienes comprendidos en la institución, como ejecutor de la voluntad del testador, con todas las facultades de albacea, contador-partidor y representante de la herencia, las cuales podrá ejercitar sin limitación de tiempo, a no ser que el testador le hubiere señalado plazo.

Ley 292

Actuación

Si otra cosa no se hubiere establecido, los herederos de confianza actuarán por mayoría, conjuntamente si son dos y por sí cuando quede uno sólo.

beharrik berak jasotako konfiantza jendaurrean agertzeko, ezta bere kudeaketaren kontuak emateko ere.

Zerga-legerian ezarritako epeen ondorioz, fiduziarioak konfiantza jendaurrean agertu behar badu, nahiko izanen da horri buruz adierazpen generikoa egitea.

Izendapenaren eragingarritasunari buruz edo jaraunsle-fiduziarioak egindako kudeaketari buruz liskarra izanez gero, testamentugileak xeda dezake hori jaraunsletzat besterik ez hartzea.

291. legea

Izaera

Konfiantzazko jaraunsleak, konfiantza jendaurrean agertzen ez duen artean, jaraunsleari dagozkion eskubide guztiak egikari ditzake. Behin konfiantza adierazi eta gero, jaraunslea testamentugilearen borondatearen betearazletzat hartuko da izendapenera bildutako ondasunei begira; jaraunsle horrek izanen ditu albazeari, kontulari-banatzaileri eta jarauntsiaren ordekoari dagozkien ahalmenak, eta horiek egikaritu ahal izanen ditu iraupen mugaturik gabe, salbu eta testamentugileak horretarako epea zehaztu duenean.

292. legea

Jarduteko modua

Besterik ezarri ez bada, konfiantzazko jaraunsleek gehiengoz jardunen dute; jaraunsleok bi badira, bi-biok batera; eta bat bakarrik geratuz gero, bere kabuz.

Delegación

Si el testador lo hubiere autorizado expresamente, el heredero de confianza podrá, por acto mortis causa, delegar su función total o parcialmente en otra u otras personas, bien revelando la confianza, bien transmitiendo reservadamente, de palabra o por escrito, las instrucciones recibidas del testador.

Ley 293*Fiducia continuada*

El testador puede establecer una fiducia continuada que no se extinga por la simple revelación de la confianza o la desaparición de la persona del fiduciario. En esta fiducia se observará lo siguiente:

1. El testador puede asegurar la continuidad temporal o ilimitada de la fiducia, bien nombrando sustitutos para los herederos de confianza, bien determinando la forma de hacer las sucesivas sustituciones, bien facultando a los primeros o sucesivos herederos fiduciarios para hacer ulteriores nombramientos.

2. La titularidad de los bienes corresponde siempre a la herencia de confianza del causante, y los sucesivos cambios de fiduciarios no implicarán transmisión alguna de los mismos bienes.

3. A no ser que el testador lo hubiere ordenado de otra forma, la revelación de la confianza no privará a los primeros ni sucesivos fiduciarios de las facultades de representación, judicial o

Eskuordetza

Testamentugileak esanbidez baimean eman badu, konfiantzazko jaraunseak, mortis causa egintzaren bitartez, bere eginkizuna osorik edo zati batez eskuorde diezaieke beste pertsona bati edo batzuei, dela konfiantza jendaurrean agertuz, dela testamentugilearengandik jasotako jarraibideak isilpean eskualdatuz, hitzez ala idatziz.

293. legea*Fiduzia jarraitua*

Testamentugileak fiduzia jarraitua ezar dezake, eta hori ez da azkenduko, konfiantza jendaurrean agertze hutsagatik edo fiduziarioaren pertsona desagertzeagatik. Fiduzia horretan, ondokoa beteko da:

1. Testamentugileak fiduziaren aldi baterako iraupena edo iraupen mugagabea ziurta dezake, bai konfiantzazko jaraunseentzat ordezkioak izendatuz, bai ondoz ondoko ordezkien egiteko modua zehaztuz, bai lehenengo edo ondoz ondoko jaraunse-fiduziarioei geroko izendapenak egiteko ahalmena emanaz.

2. Ondasunen gaineko titulartasuna kausatzailearen konfiantzazko jaraunsiari dagokio beti, eta fiduziarioak ondoz ondo aldatzeak ez dakar ondasun horiek eskualdatzerik.

3. Testamentugileak beste modu batera ordenatu ezik, konfiantza jendaurrean agertzeak ez die lehenengo edo ondoz ondoko fiduziarioei kentzen testamentugilea epaiketan nahiz epaie-

extrajudicial, posesión, administración y libre disposición de los bienes, en orden al cumplimiento de la voluntad del testador.

4. Salvo disposición en contrario, cuando de la constitución de la fiducia se deriven expectativas de derecho a favor de personas determinadas o que reúnan las condiciones previstas o que reúnan las condiciones previstas, podrán aquéllas reclamar del fiduciario.

5. Para el caso de que llegue a extinguirse la fiducia, el testador podrá establecer el destino de los bienes o facultar a los fiduciarios para que lo determinen. Faltando la determinación, se abrirá la sucesión a favor de los más próximos parientes del testador, que serían sus herederos legales en el momento de extinguirse la fiducia.

Ley 294

Retribución

El heredero fiduciario, aunque haya recibido cualquier liberalidad del testador, se entenderá facultado por el mismo, de no haber éste dispuesto otra cosa, para asignarse con cargo a la herencia o a sus frutos la retribución que estime adecuada a su trabajo.

Ley 295

Aplicación del pacto sucesorio

Todas las disposiciones de este título se aplicarán a la fiducia o herencia

tatik kanpo ordezkatzeko ahalmena, ezta ondasunen edukitzea, administrazioa edo horien gaineko xedapen askeare, horiek testamentugilearen borondatea betetzeko beharrezkoak diren neurrian.

4. Aurkako xedapenik izan ezean, fiduzia eratzean eskubide-igurikime-nak sortzen badira, pertsona jakinentzat edo baldintza zehatzak dituzten pertsonentzat, horiek erreklamazioa egin ahal izanen diote fiduziarioari.

5. Fiduzia azkentzen denerako, testamentugileak ondasunen xedea ezar dezake; bestela, fiduziarioei ahalmena eman diezaike hori zehaztu dezaten. Zehaztapenik izan ezean, oinordetza irekiko da testamentugilearen ahaide hurbilenekoen mesederako, fiduzia azkentzeko unean ahaideok haren legezko jaraunsleak diren neurrian.

294. legea

Ordainsaria

Jaraunsle-fiduziarioak testamentugilearen eskuzabaltasunen bat hartu badu ere, ulertuko da testamentugileak hura ahaldundu duela, bestelakoa xedatu ezik, beraren lanaren arabera egokia den ordainsaria bere buruari esleitzeko, jarauntsiaren edo horren fruituen kontura.

295. legea

Oinordetza-itunaren aplikazioa

Titulu honetako xedapen guztiak aplikatuko zaizkio oinordetza-itun bi-

de confianza instituida por pacto sucesorio.

dez izendaturiko fiduzia edo konfiantzazko jarauntsiari.

TÍTULO XIII DE LOS ALBACEAS

Ley 296 *Facultades*

Los albaceas nombrados para ejecutar la voluntad del causante tendrán todas las facultades que éste les hubiera concedido, las cuales, si no se hubiese establecido otra cosa, podrán ejercitar por sí solos, aunque impliquen disposiciones sobre bienes inmuebles.

a) Albaceas singulares

Los albaceas singulares designados únicamente para actos o fines concretos y determinados, tendrán sólo las facultades necesarias para el cumplimiento de la misión encomendada.

b) Albaceas universales

Los albaceas universales nombrados en términos generales, con o sin indicación de algunos fines determinados, además de las facultades expresamente concedidas por el causante, y salvo que éste hubiere dispuesto otra cosa, tendrán también las siguientes funciones:

1. Tomar posesión de la herencia y administrar los bienes hereditarios, for-

XIII. TITULUA ALBAZEAK

296. legea *Ahalmenak*

Albazeak izendatu badira kausatzai-
learen borondatea betearazteko, kausa-
tzaileak euri emandako ahalmen guz-
tiak izanen dituzte albazea horiek; beste-
rik ezarri ez bada, euren kabuz egikaritu
ahal izanen dituzte ahalmenok, nahiz eta
horrekin ondasun higiezinak xedatu.

a) Albazea bereziak

Albazea bereziak izendatu badira
egintza edo xede zehatz eta jakinak gau-
zatzeko, albazea horiek izanen dituzte
euren ardurapean jarritako eginkizuna
betetzeko beharrezkoak diren ahalme-
nak bakarrik.

b) Albazea unibertsalak

Albazea unibertsalak izendatu badi-
ra orokorrean, xede zehatzei buruzko
aipamenarekin edo halako aipamenik
gabe, orduan, kausatzaileak euri esan-
Finka itxita dagoela ulertuko da, hori pezo-horma edo hormaz, alanbre-dun sare, palaxu edo oholesiz nahiz beste modu batera inguraturik badago, eta horretan atea, «langa» edo «kereta» jarri bada, tokiko usadio edo ohiturarekin bat etorritz.

Hesia berrezartzen denean, 368. legean xedaturikoa beteko da.

349. legea

Mugaketa

Ondasun higiezinaren jabeak eta ondasun horren gaineko eskubide errealearen titular guztiek epaileari eska diezaiokete euren finka mugatu eta horretan mugariak jartzeko. Finka baten ageriko mugei buruz ez bada eztabaidarik izan hogeita hamar urtetan, muga horiek ezin izanen dira ondore horietarako berrikusi.

350. legea

Obra berria salatzea

Jabeak auzotar baten obra berria salatzen badu bere eskubidearen aurka-

su derecho, se podrá proseguir la construcción dando garantía de la eventual demolición o indemnización si procediere; en otro caso, se estará a lo dispuesto en la Ley de Enjuiciamiento Civil para el interdicto de obra nueva.

Ley 351

Perjuicios provenientes de finca vecina

El poseedor de un inmueble no podrá alterar, en perjuicio de su vecino, la forma y curso actual de las aguas sobre su finca.

Cuando de algún modo pueda temerse en una finca cualquier daño proveniente de otra vecina, y no se imponga por la Administración la reparación de la causa del posible perjuicio, el propietario que tema aquel daño puede exigir del poseedor de la otra finca una garantía de indemnidad.

Ley 352

Cosas fungibles

Las cosas se determinan por su individualidad específica o por la cantidad del género a que pertenecen; estas últimas se llaman cosas fungibles.

Cosas consumibles

Son consumibles aquellas cosas de las que no se puede hacer uso apropiado sin consumirlas de hecho o perder su propiedad.

koa izateagatik, eraikitzeari ekin ahal izanen zaio, egin behar litekeen errauspenaren edo eman behar litekeen kalte-ordainaren gaineko bermea emanaz; bestelakoetan, Prozedura Zibilarren Legeak obra berriaren gaineko interdiktuen inguruan xedaturikoa beteko da.

351. legea

Alboko finkak eragindako kalteak

Ondasun higiezinaren edukitzaileak ezin izanen ditu albokoaren kalterako aldatu bere finkatik zein ur igaro eta ur horien oraingo forma eta norabidea.

Nola edo hala beldur izan badaiteke finka batek, alboko baten eraginez, kalteak jasanen dituen, eta Administrazioak ez badu ezartzen balizko kalte horren arrazoiaren konponketa, orduan, kaltearen beldur den jabeak beste finKaren edukitzaileari galda diezaioke kalterik eragin ez delako bermea.

352. legea

Gauza suntsikorrak

Gauzak zehazten dira beren banakotasun jakinaren arabera, edo, bestela, horiek zein generotakoak izan, eta horren kopuruaren arabera; azken horiei gauza suntsikor deritze.

Gauza kontsumikorrak

Gauzak kontsumikorrak dira, baldin eta egitez kontsumitu gabe edo horien gaineko jabetza galdu gabe ezin badira modu egokian erabili.

Ley 353

Frutos
a) *En general*

Los frutos pertenecen al propietario de la cosa principal. Cuando otra persona distinta del propietario tiene derecho a los frutos, adquiere los naturales por su percepción, salvo lo dispuesto en la ley siguiente; y los que consisten en una cantidad de dinero, día a día. Cuando los frutos se perciban por mediación de un aparcerero, se observará lo dispuesto para los frutos naturales.

El poseedor de buena fe debe restituir al propietario los frutos por él percibidos pero no consumidos.

Ley 354

b) *En heredades*

Quando el propietario u otra persona que tenga derecho a los frutos deba cesar en la posesión de la heredad que los produce, le corresponderán éstos como aparentes, conforme a las reglas siguientes:

1. Si la heredad es de tierra blanca o destinada al cultivo de cereales, si cesare en la posesión después del día 25 de marzo, festividad de la Anunciación de Nuestra Señora.

2. Si se trata de viñas u olivares, si cesare en la posesión después del día 24 de junio, festividad de San Juan Bautista.

3. En todo otro tipo de cultivo, si cesare en la posesión después de que los frutos se consideren aparentes según los usos del lugar.

353. legea

Fruituak
a) *Orokorrean*

Fruituak gauza nagusiaren jabeari dagozkio. Jabeaz besteko norbaitek fruituen gaineko eskubidea badu, fruitu naturalak eskuratzen ditu horiek jasotzean, hurrengo legean xedaturikoa salbu; diru-kopuruak badira, egunean-egunean. Fruituak apartzeroaren bitartez jasotzen badira, fruitu naturalei buruz xedaturikoa beteko da.

Edukitzaille onustedunak jabeari itzuli behar dizkio berak jasotako fruituetatik kontsumitu ez dituenak.

354. legea

b) *Landetan*

Landak fruituak ematen baditu, eta jabeak edo fruituak jasotzeko eskubidea duen beste norbaitek landa hori edukitzeari utzi behar badio, fruituak berari dagozkio ageriko gisa, hurrengo erregelekin bat etorritz:

1. Landa lur zurikoa bada, edo zerealak haztera destinatuturik badago, edukitzeari uzten dionean, martxoaren 25aren ondoren, hau da, Andre Mariaren Iratzte egunaren ondoren.

2. Mahastiak edo olibadiak badira, edukitzeari uzten dionean ekainaren 24aren ondoren, hau da, done Joan Bataiatzailearen egunaren ondoren.

3. Beste edozein motatako lugintzetan, edukitzeari uzten dionean tokiko usadioen arabera fruituak agerikotzat jo ondoren.

Cuando los frutos pertenecieren al poseedor entrante, deberá éste abonar al saliente los gastos correspondientes al cultivo y labores.

Ley 355

Adquisición de la propiedad

La propiedad de las cosas se adquiere por acto de disposición mortis causa o por la entrega de las mismas hecha por su propietario en virtud de un convenio que justifique la transmisión. También puede adquirirse por la usucapión o prescripción adquisitiva, por hacerse una cosa accesoria de otra principal y por disposición de la ley.

Ley 356

Usucapión a) Plazos

La usucapión de los bienes muebles es de tres años. La de los inmuebles es de veinte años si el propietario desposeído se halla domiciliado en Navarra, y de treinta años en otro caso. En la usucapión de veinte años no se computará el tiempo de ausencia.

Ley 357

b) Requisitos

Para adquirir la propiedad por usucapión se requiere que el adquirente posea como propietario con justa causa y buena fe. Probada la causa justificativa de su posesión, se presume que posee de buena fe, y no se admite la prueba de haberla perdido después de iniciada la posesión. Se entiende por

Fruituak edukitzaile hasi berriari badagozkio, edukitzaile izateari utzi dionari ordaindu beharko dizkio lurgintzaren eta gainerako lanen gastuak.

355. legea

Jabetza eskuratzea

Gauzen gaineko jabetza eskuratzen da mortis causa erako xedatze-egintzen bidez edo, eskualdaketa justifikatzen duen hitzarmena dela eta, jabeak gauza horiek emanaz. Era berean, eskuraketa gerta daiteke, usukapioaren edo preskripzio eskuratzailaren bitartez, gauza bat beste gauza nagusi baten gauza erantsi bihurtzeagatik eta legearen aginduz.

356. legea

Usukapioa a) Epeak

Ondasun higigarrien gaineko usukapioa hiru urtekoa da. Ondasun higiezinena hogeitau urtekoa da, edukitza galdu duen jabearen egoitza Nafarroan bada, eta hogeitau hamar urtekoa, bestelako kasuetan. Hogeitau urteko usukapioaren eza da zenbatuko absentzia-epea.

357. legea

b) Betekizunak

Jabetza usukapioaren bidez eskuratzeke, beharrezkoa da eskuratzailak gauza jabe gisa edukitzea, arrazoi zuzenaz eta onustez. Edukitza justifikatzen duen arrazoia frogatuz gero, uste izanen da edukitza onustekoa dela, eta ez da onartuko edukitza hasi ondotik hori galdu delako frogarik. Norbait

buena fe la creencia de poder poseer como titular del derecho.

Prescripción extraordinaria

Cuando no pueda probarse la justa causa, la propiedad se adquirirá por la pacífica posesión como propietario durante cuarenta años, salvo que el propietario hubiere estado ausente de Navarra durante todo este tiempo.

Ley 358

Bienes de entidades públicas

No se requiere transcurso de tiempo para la adquisición de las cosas recibidas de instituciones del Estado o de entidades públicas.

Ley 359

Interrupción

La usucapición se interrumpe por la pérdida de la posesión o por la reclamación judicial.

Ley 360

Apariencia de derecho

Quien por sí o por mediación de otros ejercita sin contradicción un derecho que aparentemente tiene, se presume que es titular del mismo en tanto no se pruebe lo contrario.

Libros de abolengo

Los «libros de abolengo» constituirán prueba de la titularidad dominical originaria de la finca.

onusteduna dela ulertuko da, baldin eta horrek uste badu eskubidearen titular gisa edukitzeko ahalmena duela.

Preskripzio berezia

Ezin bada frogatu arrazoi zuzenik dagoen, jabetza eskuratuko da jabe gisa berrogei urteko edukitza baketsua izateagatik, salbu eta jabea Nafarroatik kanpo egon denean denbora horretan guztian.

358. legea

Erakunde publikoen ondasunak

Ez da beharrezkoa epea igarotzea, estatuaren erakundeen edo erakunde publikoen eskutik jasotako gauzak eskuratzeko.

359. legea

Geldiarazpena

Usukapioa geldiarazten da edukitza galtzean edo epaiketazko erreklama-zioa egitean.

360. legea

Eskubide-itxura

Norbaitek, bere kabuz edo beste inoren bitartez, aurkatasunik gabe egikaritzen badu berak itxuraz duen eskubidea, uste izanen da horren titularrak dela, aurkakoa frogatzen ez den bitartean.

Abolengo-liburuak

«Abolengo-liburuek» froga egiten dute finkaren jabari-titulartasun jatorrizkoari buruz.

Ley 361*Sucesión en la posesión*

El heredero tan sólo es poseedor de los bienes hereditarios desde que se hace cargo de ellos, pero el tiempo que poseyó el causante le aprovecha a efectos de la usucapión. También aprovecha al adquirente a título singular el tiempo que poseyó el causante. En todo caso, los requisitos de la posesión, necesarios para la usucapión de que se trate, habrán de concurrir en el causante y en el causahabiente.

Ley 362*Posesión de buena fe*

El poseedor de buena fe que deba restituir la cosa poseída tiene derecho a retenerla para exigir el abono de los gastos necesarios y mejoras útiles que hizo en la cosa y no puedan estimarse compensados con los frutos que percibió. Respecto a las mejoras de puro embellecimiento o suntuarias que haya introducido en la cosa, sólo tendrá derecho a retirar aquellas que puedan ser separadas sin deterioro de la cosa principal.

Posesión de mala fe

El poseedor de mala fe, siempre que no haya poseído por sustracción de la cosa, podrá reclamar los gastos necesarios y retirar del mismo modo los útiles o suntuarios.

361. legea*Edukitzaren gaineko oinordetza*

Jaraunslea jarauntsiko ondasunen edukitzaile hutsa da horien ardura bere gain hartzen duenetik, baina kausatzailearen edukitza-epea onuragarria izanen da berarentzat, usukapioaren ondoretarako. Era berean, banakako tituluaren bidezko eskuratzailarentzat onuragarria da kausatzailearen edukitza-epea. Edozein kasutan, edukitzaren betekizunak, kasuan kasuko usukapioarentzat beharrezkoak direnak, gertatu beharko dira kausatzaile eta kausadunaren gainean.

362. legea*Onusteko edukitza*

Edukitzaile onustedunak edukitako gauza itzuli behar badu, gauza atxikitzeko eskubidea du nahitaezko gastuen eta gauza horretan egindako hobekuntza onuragarrien ordainketa galdatzeko, horiek konpentsatzen ez direnean berak harturiko fruituekin. Gauzari erantsitako apaingarriei edo luxuzko hobekuntzei dagokienez, edukitzaile onustedunak horiek kentzeko eskubidea izanen du, halakoak gauza nagusitik banandu ahal badira horri kalterik egin gabe.

Gaitzusteko edukitza

Edukitzaile gaitzustedunak, baldin eta edukitza hori ostuta lortu ez badu, nahitaezko gastuak erreklamatu ahal izanen ditu, eta, modu berean, gauzatik gastu erabilgarri edo apaingarriak kendu ahal izanen ditu.

Ley 363

Representación del poseedor

La posesión se puede adquirir y retener por mediación de otra persona que ejerce el poder sobre la cosa como representante. Este no puede empezar a poseer personalmente como propietario sin especial permiso del poseedor.

Ley 364

Pérdida de la posesión

Se pierde la posesión cuando se transfiere, abandona o de cualquier modo cesa el ejercicio efectivo del derecho en beneficio de otra persona. Cuando se pierda la tenencia de un inmueble, la posesión se considerará perdida al año y día de la tenencia efectiva por otra persona.

CAPÍTULO II

De las limitaciones de la propiedad

Ley 365

Clases

Las limitaciones de la propiedad son impuestas por la ley o de carácter voluntario, como las servidumbres u otros derechos reales constituidos sobre cosa ajena.

Ley 366

Cosas litigiosas

No se puede vender, donar ni en general disponer de las cosas litigiosas,

363. legea

Edukitzailea ordezkatea

Edukitza eskura eta atxiki daiteke beste inoren bitartez; horrek gauzaren gainean ahalmena egikaritzen du, ordezkari gisa. Horrek ezin du gauza modu pertsonalean eduki, jabe gisa, edukitzai-learen baimen berezirik gabe.

364. legea

Edukitza galtzea

Edukitza galtzen da hori eskualdatu edo bertan behera uzten denean, edota eskubidearen egikaritza eragingarria amaitzen denean beste norbaiten onurarako. Ondasun higiezinaren ukantza galduz gero, ulertuko da edukitza galdu dela, baldin eta beste norbaitek, urtebete eta egun batean zehar, gauzaren edukitza eragingarria badu.

II. KAPITULUA

Jabetzaren mugapenak

365. legea

Motak

Jabetzaren mugapenak legez edo borondatez ezartzen dira, hala nola, zortasunak edo inoren gauzaren gainean eraturtako eskubide errealak.

366. legea

Gauza auzigaiak

Gauza auzigaiak ezin dira saldu, dohaintzan eman, ezta orokorrean xedatu

en tanto no se declare quién tiene derecho a hacerlo, a no ser que se haga bajo condición suspensiva de confirmarse la propiedad del disponente.

Ley 367

Limitaciones en inmuebles

a) Principio general

Los propietarios u otros usuarios de inmuebles no pueden causar riesgo a sus vecinos ni más incomodidad que la que pueda resultar del uso razonable de su derecho, habida cuenta de las necesidades de cada finca, el uso del lugar y la equidad.

b) Árboles

Cuando las raíces de un árbol se introduzcan en la tierra de una finca vecina, el propietario de ésta podrá proceder directamente a la corta de aquellas raíces en la medida en que excedan del límite. Si la introducción es de las ramas, el propietario del árbol deberá talarlas, a no ser que el propietario de la finca perjudicada prefiera indemnizarle con la mitad de los frutos producidos por aquellas ramas.

e) Eras

El propietario de una era puede impedir que se levanten edificaciones en las fincas colindantes, siempre que pruebe que perjudican su labor y que se halla en el uso efectivo de la era.

Ley 368

Reconstrucción de cerramiento

El propietario que quisiere rehacer o mejorar los cerramientos de su finca,

ere, horretarako eskubidea nork duen adierazi arte, salbu eta hori egiten denean xedatzailearen jabetza baieztatze-ko baldintza etengarriean.

367. legea

Ondasun higiezin mugapenak

a) Printzipio orokorra

Ondasun higiezin jabeek edo beste erabiltzaileek ezin diete euren auzotarrei arriskurik eragin, ezta eskubidearen zentzuzko erabilerak dakarrena baino deserosotasun handiagoa jasanarazi, finka bakoitzaren beharrianak, tokiko usadioa eta ekitatea kontuan harturik.

b) Zuhaitzak

Zuhaitz baten sustraiak alboko fincaren lurtean sartzen badira, finka horren jabeak zuzenean moztu ahal izanen ditu sustraiok, muga gainditzen duten neurrian. Adarrak sartuz gero, zuhaitzaren jabeak horiek moztu beharko ditu, salbu eta finka kaltetunaren jabeak hobesten duenean hari kalte-ordain gisa ematea adarrotatik sorturiko fruituen erdia.

e) Larrainak

Larrainaren jabeak eragotz dezake finka mugakideetan eraikinak egitea, frogatzen baldin badu horiek bere lanarentzat kaltegarriak direla eta larraina modu eragingarrian erabiltzen duela.

368. legea

Itxitura berregitea

Jabeak bere finkako itxiturak berregin edo hobetu nahi baditu, finka muga-

podrá ocupar de la colindante la mitad del terreno necesario; pero si antes no hubieran existido cerramientos, el que los levantara deberá hacerlo sólo en su terreno, salvo que el colindante quisiera ceder la parte necesaria del suyo.

Ley 369

Colmenas

No se pueden instalar nuevas colmenas, «vasos de ventura» o artificios propios para captar enjambres, sino a la distancia de doscientos treinta y cinco metros, al menos, respecto a otra colmena ocupada o a finca habitada.

TÍTULO II DE LAS COMUNIDADES DE BIENES Y DERECHOS

CAPÍTULO I Principios generales

Ley 370

Constitución

Las comunidades se constituyen:

1. Cuando dos o más personas adquieren conjuntamente unos bienes o derechos por cualquier título voluntario o legal.
2. Cuando el propietario único de una cosa o el titular de un derecho enajena una cuota indivisa.
3. Cuando dos o más personas ponen en común determinados bienes de

kidean okupatu ahal izanen du horretarako behar duen lurraren erdia; baina aldez aurretik ez badira itxiturak egon, horiek altxatu nahi dituenak bere lurrean bakarrik jaso beharko ditu, salbu eta jabe mugakideak bere lurretik beharrezkoa den zatia lagatzen duenean.

369. legea

Erlauntzak

Ezin da erlauntz berririk, «mentura-hodirik» edo erlekumeak erakartzeko trikimailu berezirik jarri, berrehun eta hogeita hamabost metroko tartean gutxienez, beste erlauntz okupatu batetik edo finka biztanledunetik neurtuta.

II. TITULUA ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ERKIDEGOAK

I. KAPITULUA Printzipio orokorrak

370. legea

Eraketa

Erkidegoak eratzen dira:

1. Bi pertsonak edo gehiagok batera ondasun nahiz eskubideak eskuratzen dituztenean borondatezko edo legezko edozein tituluren bidez.
2. Gauzaren jabe bakarrak edo eskubidearen titularrak kuota indibisioa besterentzen duenean.
3. Bi pertsonak edo gehiagok erkidegoan jartzen dituztenean euren jabe-

su respectiva propiedad para su atribución conjunta a todos ellos mediante la asignación de cuotas indivisas. Si se pusieren en común fincas colindantes, podrán ser agrupadas para constituir una sola, que corresponderá a los comuneros por cuotas indivisas en proporción a sus respectivas aportaciones.

Ley 371

Régimen

Las comunidades de bienes o derechos se rigen por el título de constitución y, en su defecto, por los usos y costumbres y por las disposiciones del presente título.

Supletoriedad de la comunidad por indiviso

Las comunidades especiales y las corralizas se regirán, respectivamente, por las disposiciones de los capítulos III y IV y, supletoriamente, por las del capítulo II de este título.

CAPÍTULO II

De la comunidad pro indiviso

Ley 372

Actos de disposición

En la propiedad pro indiviso, cada titular puede disponer de su propia cuota, quedando a salvo el derecho de retracto de los otros copropietarios conforme a lo dispuesto en el Código Civil.

Para que se pueda constituir una servidumbre u otro derecho indivisible, se requerirá la disposición unánime de to-

tzapeko ondasunak, eurei guztiei batera ondasunok kuota indibisoetan esleitzeko. Finka mugakideak jartzen badira erkidegoan, horiek batu daitezke finka bakarra eratzeko, eta finka hori erkideei dagokie kuota indibisoetan, euren egindako ekarrien arabera.

371. legea

Araubidea

Ondasun edo eskubideen erkidegoa horren eraketa-titulua eraentzen du, eta, halakorik izan ezean, usadio eta ohi-turek, eta titulu honetako xedapenek.

Erkidego indibisoaren arau osagarriak

III eta IV. kapituluetako xedapenek eta, osagarri moduan, titulu honetako II. kapitulukoek eraentzen dituzte, hurrenez hurren, erkidego bereziak eta bazkalekuak.

II. KAPITULUA

Erkidego indibisoa

372. legea

Xedatze-egintzak

Jabetza indibisoan, titular bakoitzak bere kuota xeda dezake, gainerako jabe-kideek atzera-eskuratzeo duten eskubideari kalterik egin gabe, Kode Zibilean xedatutakoarekin bat etorritz.

Zortasuna edo bestelako eskubide zatiezina eratu ahal izateko, beharrezkoa da jabe-kide guztien aho bateko xe-

dos los condueños, pero la constitución parcial obliga al que la hace a tolerar el ejercicio de hecho del derecho que quiso constituir. En este caso, el adquirente que no consiga la constitución por parte de los otros copropietarios podrá pedir la resolución del contrato. Si el copropietario constituyente llegare a ser propietario de la cosa entera, o de la parte realmente gravada por aquel derecho, el adquirente del mismo podrá exigir la constitución total mediante complemento del precio, si procede.

Actos de uso o administración

En los actos de simple uso, administración o modificación material de la cosa común, cada titular puede oponerse judicialmente al otro que intenta realizarlos, y toda gestión ya realizada quedará sin efecto en la medida en que resulte perjudicial a los intereses de la comunidad según arbitrio del Juez.

Ley 373

Convenios

Los titulares pueden modificar el régimen de la comunidad mediante convenio, que valdrá entre ellos como contrato de sociedad. A falta de pacto, las cuotas se presumirán iguales, tanto para las cargas como para los provechos de la comunidad.

Ley 374

Divisibilidad

La comunidad pro indiviso es en cualquier momento divisible a petición

dapena; baina zatikako eraketak horren egilea behartzen du, eratu nahi izan den eskubidearen egitezko egikaritzaz jasatera. Kasu horretan, eskuratzailleak ez badu lortzen gainerako jabekideen eraketarik, kontratuaren suntsiarazpena eskatu ahal izanen du. Jabekide eratzaillea gauza osoaren jabe edo halako eskubideak benetan kargatzen duen zatiaren jabe suertatuz gero, horren eskuratzailleak galdatu ahal izanen du eskubidea osorik eratzeko, prezioaren osagarriaren bidez, hori bidezkoa bada.

Erabili edo administratzeko egintzak

Gauza erkidea huts-hutsean erabili, administratu edo modu materialean aldarazteko egintzetan, titular bakoitza jar daiteke, epaiketa bidez, halakoak gauzatu nahi dituenaren aurka, eta jadanik gauzaturiko kudeaketa oro eraginik gabe geratuko da, hori erkidegoaren interesetarako kaltegarri den neurrian, epailearen erabakimenaren arabera.

373. legea

Hitzarmenak

Titularrek erkidegoaren eraentza aldaraz dezakete hitzarmen bidez, eta horrek titularren artean sozietate-kontratuaren balioa izanen du. Hitzarmenik egin ezean, uste izanen da kuotak berberak direla, bai zamei begira, bai erkidegoaren probetxuei begira.

374. legea

Zatigarritasuna

Erkidego indibisioa edozein unetan zati daiteke, titular batek edo gehiagok

de uno o más titulares. Sin embargo, cuando se solicite la división contra la buena fe que se debe al acuerdo comunitario, expreso o tácito, habrá obligación de indemnizar el daño causado.

El pacto de renuncia temporal a la acción divisoria es válido y obliga no sólo a los copropietarios, sino también a sus causahabientes; no obstante, podrá ser dejado sin efecto por la decisión del Juez fundada en la falta de utilidad de la indivisión. Lo mismo valdrá cuando el que ha constituido la propiedad pro indiviso declare su voluntad de que aquélla permanezca sin dividir. Se considerará temporal la indivisibilidad cuando no exceda de noventa y nueve años.

La división convenida por los titulares deberá ser aprobada por unanimidad. Si no hubiere acuerdo, se hará la división judicialmente, y si la cosa fuere indivisible, podrá el Juez proponer la adjudicación de la cosa entera a favor del copropietario que la acepte por su tasación judicial, con la condición suspensiva de pagar en dinero a los demás la compensación correspondiente. Dentro del plazo de seis días, a contar de la adjudicación, cualquiera de los copropietarios podrá pedir que se le adjudique la cosa, consignando el precio de la tasación judicial mejorado en una sexta parte, por lo menos. Caso de ser varios los que hubieren ejercido este derecho, dentro de los cuatro días siguientes se celebrará entre todos los copropietarios una subasta cuyo remate será definitivo.

hala eskatuta. Dena den, onustea zorzaio erkidegoak esanbidez edo isilbidez hartutako erabakiari, eta, onuste horren aurka, zatiketa eskatzen bada, eragindako kalteen ordaina eman beharko da.

Ituna egiten bada zatiketa-akzioari aldi baterako uko egiteko, itun hori baliokoa da, eta betebeharpean jartzen ditu, jabekideak ez ezik, horien kausadunak ere bai; hala ere, ituna eraginik gabe utzi ahal izanen da, epaileak erabakitzen badu indibisoak ez duela erabiltasunik. Gauza bera gertatuko da, baldin eta jabetza indibisoaren eratzailak adierazten badu hori zatitu gabe iraunarazteko borondatea. Zatiezintasuna aldi baterakoa dela ulertuko da, laurogeita hemeretzi urtetik gorakoa ez denean.

Titularrek zatiketa itun dezaten, hori aho batez onetsi beharko da. Akordiorik ez badago, zatiketa epaiketa bidez egiten da, eta, gauza zatiezina izanez gero, epaileak proposatu ahal izanen du gauza osoa jabekide bati esleitzea, jabekide horrek hori onartzen badu, tasazio judicialaren truk betiere, gainerako jabekideei konpentsazio egokia diruz ordaintzeko baldintza etengarriean. Adjudikaziotik zenbatuta, sei eguneko epean, jabekideetatik edozeinek eska dezake gauza berari adjudikatzeko, tasazio judicialaren prezioa zainpean jarritz, seiren batean hobeturik, gutxienez. Esku-bide hori jabekide batek baino gehiagok egikaritzen badute, ondorengo lau egunetan enkantea eginen da jabekide guztien artean, eta horren errematea behin betikoa izanen da.

Al tiempo de efectuar la división judicial se podrá, si fuere necesario, adjudicar a uno de los copropietarios el usufructo y a otro la nuda propiedad, y constituir servidumbres entre las fincas resultantes de la división.

En el caso de que la adjudicación no fuere posible en favor de un copropietario, el Juez procederá a la venta de la cosa en pública subasta, conforme a la ley 575.

La división de la cosa común no afectará a los derechos reales de quienes no hubieren sido parte en aquélla.

Ley 375

Comunidad de otros derechos

Las reglas de las leyes anteriores se aplicarán a la comunidad de otros derechos que sean divisibles.

CAPÍTULO III

De las comunidades especiales

Ley 376

Pertenencias comunes

Salvo acuerdo unánime, la comunidad sobre elementos al servicio de varias fincas, como paredes, muros, cercas o vallados medianeros, así como molinos, hornos, eras, pozos, norias, acequias u otros semejantes, será indivisible y ningún comunero podrá disponer de su parte separadamente de las fincas a que aquellos elementos sirvan.

Zatiketa judiziala egiteko unean, eta beharrezkoa izanez gero, jabekideetatik bati gozamina adjudika dakioko, eta besteari jabetza soila, eta, zatiketa-
ren ondorioz sorturiko finken artean, zortasunak era daitezke.

Adjudikazioa ezin bada egin jabekideetatik baten mesederako, epaileak jendaurreko enkantean salduko du gauza, 575. legearekin bat etorritz.

Gauza erkidearen zatiketak ez du eraginik izanen horretan parterik izan ez dutenen eskubide errealetan.

375. legea

Beste eskubide batzuen gaineko erkidegoa

Aurreko legeen erregelak aplikatu-
ko zaizkio beste eskubide zatigarri batzuen gainean eraturiko erkidegoari.

III. KAPITULUA

Erkidego bereziak

376. legea

Osagai erkideak

Aho bateko adostasuna izan ezik, erkidegoa badago finka batzuen zerbitzupeko osagaien gainean, esaterako, mehelin diren horma, murre, hesi edo itxituren, eta errota, labe, larrain, putzu, noria, erreten edo antzeko osagaien gainean, erkidego hori zatiezina izanen da, eta erkideetatik inork ere ezin izanen du bere zatia xedatu, halako osagaiak zein finkaren zerbitzupekoak izan, eta finka horretatik bananduta.

Se presumen comunes a las edificaciones los vanos entre las fincas urbanas conocidos con el nombre de «beleanas» o «etxeakoartes», que se registrarán por lo dispuesto en esta ley y en el párrafo segundo de la ley 404.

Ley 377

Comunidad en mancomún

La comunidad en mancomún, que exista por costumbre o establecida por voluntad de los constituyentes, será indivisible, salvo pacto unánime. Ningún comunero podrá disponer de su parte sin consentimiento de todos los demás titulares.

Ley 378

Comunidad solidaria

La comunidad en la propiedad o en cualquier derecho real a favor de varios titulares será solidaria cuando así se disponga en el título de su constitución. En la comunidad solidaria cada comunero puede por sí solo ejercitar plenamente el derecho y disponer de la totalidad del mismo, sin perjuicio de su responsabilidad frente a los demás titulares.

CAPÍTULO IV

De las «corralizas»

Ley 379

Concepto

Salvo los casos en que la denominación de «corraliza» aparezca empleada

Uste izanen da eraikinen osagai erkideak direla hiri-finken arteko baoak, alegia, «beleana» edo «etxeakoarte» ize-naz ezagutzen direnak, eta lege hone-tan eta 404. legeko bigarren lerrokadan xedaturikoak eraenduko ditu halakoak.

377. legea

Erkidego komuna

Erkidego komuna ohituraz eratu bada, edo eratzailen borondateak ezarri badu, erkidego hori zatiezina izanen da, aho bateko itunik izan ezean. Erki-de batek ere ezin du bere zatia xedatu gainerako titular guztien adostasunik gabe.

378. legea

Erkidego solidarioa

Jabetzaren edo eskubide erreale baten gainean erkidegoa eratu bada titular batzuen mesederako, erkidego hori solidarioa izanen da, horren eraketa-tituluak hala xedatu duenean. Erkidego solidarioan, erkide bakoitzak bere kabuz egikari dezake eskubidea bete-betean, bai eta hori oso-osorik xedatu ere, gainerako titularrei begira duen erantzukizunari kalterik egin gabe.

IV. KAPITULUA

«Bazkalekuak»

379. legea

Kontzeptua

Finka baten edo finka-multzo baten izaera nahiz xedea adierazteko, «baz-

exclusivamente para expresar la naturaleza o destino de una finca o de un coto de fincas, se entiende por «corraliza», bien un derecho de aprovechamiento parcial sobre la finca ajena, bien la comunidad indivisible constituida por la concurrencia de diversos titulares dominicales, con atribución, a uno o a varios, de los aprovechamientos especiales de pastos, hierbas, aguas, leñas, siembras u otros similares. Estos derechos especiales son transmisibles inter vivos o mortis causa.

En las «corralizas» constituidas sobre fincas de origen comunal se presume, a no ser que resulte lo contrario, que la propiedad del suelo corresponde al Municipio.

Ley 380

Régimen

La «corraliza» se regirá por el título y los usos y, en su defecto, por la costumbre local o general. De no resultar de ellos otra cosa, cada titular podrá ejercitar su aprovechamiento en toda la extensión que consienta el disfrute correspondiente a los demás titulares.

Ley 381

Limitaciones usuales

El derecho de pastos en la «corraliza» se entenderá limitado, a no haber pacto, uso o costumbre en contrario, al tiempo en que estuvieren levantadas las cosechas, y deberá ejercitarse respetando las «sobreguas» y los terrenos «riciados».

kaleku» adierazmoldea erabiltzen denean izan ezik, ulertu behar da «bazkaleku» direla, dela inoren finka zatika aprobetxatzeko eskubidea, dela jabiariaren titular batzuk pilatzean eraturiko erkidego zatiezina, baldin eta titular horietako bati edo batzuei eratraxkitzen bazaizkie bazka, belar, ur, egur, ereintzak edo antzeko aprobetxamendu bereziak. Eskubide berezi horiek inter vivos nahiz mortis causa eskualda daitezke.

«Bazkalekuak» herri-finken gain eratu badira, lurraren jabetza udalerriri dagokiola uste izanen da, aurkakoa ondorioztatzen denean izan ezik.

380. legea

Araubidea

«Bazkalekua» eraentzen dute tituluak eta usadioek, eta, halakorik izan ezean, tokiko ohiturak edo ohitura orokorrak. Horiek bestelakoa ondorioztatzen ez badute, titular bakoitzak bere aprobetxamendua erabili ahal izanen du, gainerako titularrek zein luperketa izan eta luperketa horrek ahalbidetzen duen hedadura osoan.

381. legea

Ohiko mugapenak

Aurkako itun, usadio edo ohiturarik izan ezean, «bazkalekuen» gaineko bazka-eskubidea mugatuta dagoela ulertuko da, uztak zein epetan bildurik egon, eta epe horretara; eskubide hori «urgainak» eta «zuhain-lurrak» errespetatuz egikaritu beharko da.

Ley 382*Redención*

Las «corralizas» serán redimibles:

1. Por voluntad unánime de los partícipes.

2. Cuando graven fincas comunales, a instancia del Municipio.

3. En las demás fincas, cuando el Juez estime en juicio contencioso que la subsistencia de estos derechos dificulta notablemente el cultivo o la explotación racional de las fincas según su naturaleza.

4. Y, en todo caso, cuando los corraliceros se opongan a las modificaciones que se introduzcan en las fincas para su mejora y que total o parcialmente resulten incompatibles con el ejercicio del derecho de «corraliza».

En los supuestos previstos en los números dos, tres y cuatro, el capital que haya de abonarse por la redención se determinará en consideración al valor de los aprovechamientos y al beneficio que la redención reporte al dueño del terreno. Cuando el Juez lo considere conveniente podrá sustituir el pago de la estimación por la adjudicación de tierra en propiedad.

Ley 383*Retracto*

Si alguno de los titulares enajenare su derecho, los partícipes podrán ejer-

382. legea*Askatzea*

«Bazkalekuak» askatu ahal izanen dira:

1. Partaideen aho bateko borondatez.

2. Herri-finkak kargatzen dituztenean, udalerrriak hala eskatuta.

3. Gainerako finketan, epaileak auzibidezko epaiketan erabakitzen duenean eskubide horien iraupenak ageri-agerian oztopatzen duela finkak euren izaeraren arabera zentzuz landatu edo ustiatzea.

4. Eta, edozein kasutan, bazkaleku-eskubidedunak finketan egindako aldarazpenen aurka jartzen direnean, baldin eta halakoak finkak hobetzeko egin badira, eta horiek oso-osorik edo zati batez bateraezinak badira «bazkaleku» eskubidearen egikaritzarekin.

Bi, hiru eta laugarren zenbakietan aipaturiko kasuetan, bazkalekutik askatzeagatik kapitala ordaindu behar da, eta kapital hori zehaztuko da, aprobeztxamenduen balioa eta askatzeak lurarren jabeari dakarzkion onurak kontuan hartuta. Epaileak egoki baderitzo, zerbatespenaren ordainketaren ordeztu, lurarren jabetza adjudika dezake.

383. legea*Atzera-eskuratzea*

Titular batek bere eskubidea beste-
rentzen duenean, partaideek erkideen

citar el retracto de comuneros, prefiriéndose, en caso de concurrencia, al retrayente titular de aprovechamiento de la misma naturaleza que el enajenado.

Cuando se enajenare el derecho de cultivo sobre una parcela determinada de la finca, se dará preferencia en el retracto al que tenga derecho a cultivar la parcela de mayor extensión.

CAPÍTULO V

De las «facerías», «helechales», «dominio concellar» y «vecindades foranas»

Ley 384

«Facería»

La «facería» consiste en una servidumbre recíproca entre varias fincas de propiedad colectiva o privada.

Las «facerías» se rigen por el título, pactos o concordias que hubiese establecidos, por las disposiciones de esta Compilación a ellas referentes y, en lo no previsto, por lo dispuesto para las servidumbres o las comunidades en su caso.

Ley 385

Limitaciones usuales

En las «facerías» los ganados podrán pastar de sol a sol en el término facero, pero no podrán acercarse a los

arteko atzera-eskuratzea egikaritu ahal izanen dute, eta, pilatzea badago, titular atzera-eskuratzaileak lehentasuna izanen du, bere titulartasunpeko aprobetxamendua eta besterendutakoa izatera berekoak badira.

Finkaren lurzati zehatza landatzeko eskubidea besterentzen denean, atzera-eskuratzeke lehenespena emanen zaio luze-zabalik handiena duen lurzatia landatzeko eskubidea duenari.

V. KAPITULUA

«Fazeriak», «iralekuak», «kontzeju-jabaria» eta «kanpoko auzotartasunak»

384. legea

«Fazeriak»

«Fazeria» da jabetza kolektibo edo pribatupeko finka batzuen gainean elkarrekiko eraturiko zortasuna.

«Fazeriak» eraentzen dituzte berorien tituluak, alde zurretik ezarritako itun edo hitzarmenek, haiei buruz konpilazio honetan jasotako xedapenek eta, araturik gabe dauden kontuetan, zortasunei edo, hala denean, erkidegoei buruz xedatutakoak.

385. legea

Ohiko mugapenak

«Fazeria» izenekoetan abelburuek bazka egin dezakete argi hastetik ilundu arte fazeriako eremuan, baina abel-

terrenos sembrados o con frutos pendientes de recolección.

Ley 386

«Comunidad facera»

La «comunidad facera» consiste en la concurrencia de varios titulares dominicales que constituyen una comunidad para un determinado aprovechamiento solidario, que se regirá por lo dispuesto en las leyes 377 y 378, en cuanto no se opongan a lo establecido en este capítulo.

Ley 387

Divisibilidad

La «comunidad facera» es divisible, salvo que se hubiere constituido por un tiempo determinado o como indivisible a perpetuidad, en cuyo caso podrá dividirse sólo excepcionalmente cuando el Juez considere gravemente lesiva la permanencia en la indivisión.

Cuando se trate de «comunidades faceras» entre villas o pueblos y no consten las cuotas o aportaciones respectivas, en defecto de otra regla aplicable se estará al número de vecinos de cada villa o pueblo al tiempo de pedirse la división.

Ley 388

«Helechales». Concepto

Bajo esta denominación de «helechal», cuando este término no aparezca empleado exclusivamente para expre-

buruok ezin izanen dira hurbildu erein-dako lurretara edo biltzeke dauden lur fruitudunetara.

386. legea

«Fazeriako erkidegoa»

«Fazeriako erkidegoa» da jabaria-ren titular batzuk pilatzea, aprobetxamendu solidario jakin baterako erkidegoa eratzeko; 377 eta 378. legeetan xedaturikoak eratzten du erkidego hori, kapitulu honek ezarritakoaren aurkako ez bada.

387. legea

Zatigarritasuna

«Fazeriako erkidegoa» zatigarria da, salbu eta hori eratu izan denean epe zehatz baterako edo, zatiezin gisa, betiko; kasu horretan, hori zatitu ahal izan da, salbuespenez bakarrik, epailearen ustez erabat kaltegarria denean indibisio-egoerari eustea.

«Fazeriako erkidegoak» hiribildu edo herrien artekoak badira, eta horien kuota edo ekarriak ez badira agerrarazi, orduan, bestelako erregela aplikagarri izan ezean, kontuan izan beharko da hiribildu edo herri bakoitzaren auzotarren kopurua, zatiketa eskatzeko unean.

388. legea

«Iralekuak». Kontzeptua

«Iraleku» adierazmoldea modu esklusiboan erabiltzen ez bada finka baten izaera edo xedea adierazteko, uler-

sar la naturaleza o destino de una finca, se entienden los derechos de aprovechamiento de las producciones espontáneas de helecho de montes comunales.

Ley 389

Limitaciones usuales

Ni el dueño del aprovechamiento puede hacer cierres, plantaciones o siembras en el helechal, ni el dueño del terreno puede realizar acto alguno que perjudique el aprovechamiento.

Ley 390

Retracto y redención

Respecto a la redención y al retracto de los «helechales», se estará a lo dispuesto para las «corralizas» en las leyes 382 y 383.

Ley 391

«Dominio concellar»

El patrimonio forestal y cualesquiera otras propiedades, aprovechamientos o derechos pertenecientes a las Juntas Generales de los Valles del Roncal y Salazar, y que estén destinados a satisfacer necesidades colectivas de sus vecinos, son de «dominio concellar», que se regulará por las ordenanzas, acuerdos legítimamente adoptados, convenios y costumbres locales. El «dominio concellar» es indivisible.

Corresponden a la Junta General todas las facultades de administración y disposición, que deberá ejercitar atendiendo a las necesidades y convenien-

tu behar da izen horretara biltzen direla herri-mendietan berez sortutako irak aprobetxatzeko eskubideak.

389. legea

Ohiko mugapenak

Aprobetxamenduaren jabeak ezin du iralekuan itxitura, landaketa edo ereiterik egin, ezta lurraren jabeak aprobetxamenduarentzat kaltegarri den egintzarik gauzatu ere.

390. legea

Atzera-eskuratzea eta askatzea

«Iralekuak» askatu eta horiek atzera-eskuratzeari buruz, kontuan izan behar harko da 382 eta 383. legeek «bazkalekuei» buruz xedaturikoa.

391. legea

«Kontzeju-jabarria»

Erronkari eta Zaraitzuko haranetako Batzarreen baso-ondareak edo bestelako jabetza, aprobetxamendu edo eskubideek xede badute haran horietako auzotarren beharizan kolektiboak asetzea, horiek «kontzeju-jabarikoak» dira; jabari hori arautzen dute ordenantzek, legebidez hartutako akordioek, hitzarmenek eta tokiko ohiturek. «Kontzeju-jabarria» zatiezina da.

Batzarreari dagozkio administratu eta xedatzeko ahalmen guztiak, eta horiek egikarituko ditu, haranak nahiz bertako auzotarrek zuzenean edo ze-

cias directas o indirectas del Valle o de sus vecinos.

Ley 392

«Vecindad forana»

La participación en el disfrute de los bienes comunales, concedida por los municipios como «vecindad forana», aun constituida por título administrativo, tiene naturaleza civil y carácter de derecho real.

Los pueblos cuyos terrenos comunales se hallen gravados con «vecindades foranas» podrán redimirlas mediante el pago de su valor a los que tengan derecho a ellas. A falta de convenio, el capital para la redención se determinará en consideración al valor de los aprovechamientos y al beneficio que la redención reporte.

Si se enajenare la «vecindad forana», el Municipio tendrá derecho de retracto a favor de la comunidad de vecinos. Este derecho se registrará en cuanto a los plazos por lo establecido en la ley 458 para el retracto gentilicio, y será preferente a éste. En caso de permuta, se determinará el valor de la vecindad por tasación de dos peritos nombrados uno por cada parte, y, si hay discordia de un tercero, por acuerdo de aquéllos o, en defecto de acuerdo, por el Juez.

En lo sucesivo no podrán constituirse «vecindades foranas».

La adquisición de la propiedad por el comprador requiere la entrega de la cosa vendida.

harka dituzten beharizan eta egokie-
rak asetzeko.

392. legea

«Kanpoko auzotartasuna»

Udalerriek «kanpoko auzotartasun» gisa eman badute herri-ondasunen luperketan parte hartzeko eskubidea, parte-hartze horrek izaera zibila du nahiz eta administrazio-tituluaren bidez eratu, eta eskubide erreala da.

Herri-lurak «kanpoko auzotartasunarekin» kargatuta badaude, herri horiek kargetatik aska ditzakete lurrok, kargen gaineko eskubidea duenari euren balioa ordainduz. Hitzarmenik izan ezean, askatzeko kapitala zehaztuko da, aprobetxamenduen balioa eta askatzeak dakarren onura kontuan hartuz.

«Kanpoko auzotartasuna» besteren-tzen bada, udalerrak eskubidea du hori auzotarren erkidegoarentzat atzera-eskuratzeke. Epeei dagokienez, eskubide hori eraenduko du 458. legean atzera-eskuratze jentilizioari buruz ezarritakoak, eta lehenespena izanen du horren gaintik. Trukaketa kasuan, auzotartasunaren balioa zehaztuko da, alderdiek —bakoitzak bat— izendaturiko bi adituren tasazioa erabiliz, eta, aurkatasuna azalduz gero, hirugarren adituaren tasazioa erabiliz, haien adostasunez aukeratuta, edo, adostasunik izan ezean, epailearen erabakiz.

Aurrerantzean ezin izanen da «kanpoko auzotartasunik» eratu.

Erosleak jabetza eskuratzeko, beharrezkoa da saldutako gauza ematea.

**TÍTULO III
DE LAS SERVIDUMBRES**

Ley 393

Concepto

Son servidumbres los derechos reales establecidos sobre una finca en beneficio de otra colindante o vecina, y que consisten en el ejercicio de un determinado uso de ella, o en la limitación de cualquiera de las facultades del propietario.

Ley 394

Distinción

No son servidumbres:

1. Las limitaciones legales por razón de vecindad.

2. Los derechos de uso o aprovechamiento establecidos en favor de una persona sobre finca ajena, con independencia de toda relación entre predios, los cuales se regirán por lo establecido en el capítulo II del título IV de este libro.

Ley 395

Caracteres

El derecho de servidumbre es indivisible e inseparable del fundo dominante y tiene carácter permanente cuando no se hubiere constituido bajo término o condición. Se consideran constituidas bajo condición las servidumbres referidas a inmuebles de futura construcción o derribo, así como aquellas cuyo contenido consista en una utilidad futura.

**III. TITULUA
ZORTASUNAK**

393. legea

Kontzeptua

Zortasunak dira finka baten gain ezarritako eskubide errealak, mugakide den edo alboan dagoen beste baten onurarako; zortasunon bitartez, haren erabilera jakinen bat egikaritzen da, edo jabearen ahalmenetatik edozein mugatzen da.

394. legea

Bereziketa

Ez dira zortasun:

1. Auzotartasunaren ondoriozko legezko mugapenak.

2. Pertsona batentzat inoren finka-ren gain ezarritako erabilera eta aprobetxamendu eskubideak, lurren artean inolako harremanik ez badago; liburu honetako IV. tituluaren II. kapituluan ezarritakoak eraentzen ditu halakoak.

395. legea

Berezitasunak

Zortasun-eskubidea ezin da zatitu edo banandu funts nagusitik, eta horren izaera iraunkorra da epe edo baldintzapean eratu ez denean. Ulertu behar da baldintzapean eratu direla, bai etorkizunean eraiki edo eraitsiko diren ondasun higiezinaren gaineko zortasunak, bai eta eduki gisa etorkizuneko erabileren bat dutenak ere.

Ley 396*Constitución*

Las servidumbres pueden constituirse por actos inter vivos o mortis causa y por adjudicación judicial en juicio divisorio o por acto particional.

Cuando en el acto de constitución no haya determinación precisa del contenido de la servidumbre, se llevará a efecto esta determinación, a falta de acuerdo entre los interesados, por la persona facultada para ello por el constituyente o, en su defecto, por decisión judicial en atención a los signos aparentes, las circunstancias de los predios y el uso del lugar.

Ley 397*Prescripción*

Las servidumbres se adquieren por la prescripción ordinaria de bienes inmuebles o por la extraordinaria. El tiempo empezará a contar en las servidumbres positivas desde el primer acto de su ejercicio; en las negativas aparentes, desde la aparición de los signos de servidumbre, y en las negativas no aparentes, desde la prohibición formal del acto que la servidumbre impediría realizar.

Largo tiempo

En todo caso, se respetará el uso de una servidumbre aparente cuyo ejercicio indiscutido durante largo tiempo se estime que puede continuar sin perjuicio para la finca que lo padece.

396. legea*Eraketa*

Zortasunak era daitezke inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez, bai eta zatiketa-epaiketean egindako adjudikazio judizialaren bidez edo banaketa-egintzaren bidez ere.

Eraketa-egintzan ez bada argi zehaztu zein den zortasunaren edukia, zehaztuzpen hori interesdunak horretan ados jartzen ez direnean gauzatuko da, eratzailak horretarako ahaldundu duen pertsonaren eskutik edo, halakorik izan ezean, epailearen erabakiz, betiere, ageriko zeinuak, lurren inguruabarrak eta tokiko usadioak kontuan hartuta.

397. legea*Preskripzioa*

Zortasunak eskuratzen dira, ondasun higiezinaren gaineko preskripzio arruntaren bidez edo preskripzio bereziaren bitartez. Epearen zenbaketa hasiko da, zortasun positiboetan, hori egikaritzeko gauzatu den lehenengo egintzatik; ageriko zortasun negatiboetan, zortasunaren zeinuak agertu direnetik; eta, agerikoak ez diren zortasun negatiboetan, zortasunak eragozten duen egintza zein izan, eta horixe gauzatzeko debeku formal ezarri denetik.

Epe luzea

Edozein kasutan ere, ageriko zortasunaren erabilera errespetatuko da, hori epe luzean zehar aurkakotasunik gabe erabili bada, eta uste bada erabilerak iraun ahal duela horren mendeko finkari kalterik egin gabe.

Asimismo se considerarán como servidumbre los servicios establecidos con signo aparente entre fincas de un mismo propietario, cuando se separe la propiedad de ambas por actos inter vivos o de última voluntad de aquél, si al tiempo de la separación subsiste el signo y si el título de disposición no excluye expresamente la servidumbre.

Ley 398

Interrupción de la prescripción

La prescripción tan sólo se interrumpirá por la reclamación judicial conforme a la ley 40, y por la formalización de un acto obstativo o por un ostensible signo prohibitivo.

Ley 399

Constitución o modificación por Ley

Cuando una ley haga necesaria la constitución o modificación de una servidumbre, sólo podrán ser exigidas por el titular de la finca favorecida en la forma menos gravosa para el que deba padecerlas y previo, siempre, el pago de la justa indemnización. En defecto de convenio, la servidumbre quedará constituida o modificada por decisión judicial o administrativa, según corresponda.

El mismo derecho tendrá el propietario de una finca enclavada para que se constituya una servidumbre de paso sobre aquellas heredades en que resulte menos gravosa la servidumbre.

Era berean, zortasuntzat hartuko dira jabe berberaren finken artean ageriko zeinuarekin ezarritako zerbitzuak, finka horien gaineko jabetza inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez banantzen denean, baldin eta banantzea gertatzeko anean zeinuak bere horretan badirau, eta xedatze-tituluak ez badu zortasuna esanbidez baztertzen.

398. legea

Preskripzioa geldiaraztea

Preskripzioa geldiaraziko da, 40. legearekin bat etorritz, epaiketaren bidez erreklamazioa egiten denean, eta egintza eragozlea formalizatzen denean edo debekuzko zeinu nabaria dagoenean.

399. legea

Legez eratu edo aldaraztea

Lege-aginduz zortasuna eratu edo aldarazi behar bada, finka onuradunaren titularrak bakarrik galda dezake eraketa edo aldarazpena, hori jasan behar duenari ahalik eta kargarik gutxien eginez, eta beti aurretiaz kalte-ordain zuzena ordainduz. Hitzarmenik izan ezean, zortasuna eratu edo aldaraziko da epailearen edo Administrazioaren erabakiaren bidez, kasuan-kasuan.

Bide-zorra era dadin, eskubide bera izanen du finka batzuen artean kokatutako finkaren jabeak, eta halakoa ezarriko da zortasunarekin ahalik eta kargarik txikiena jasanen duten landen gainean.

Ley 400*Ampliación de servidumbre*

Cuando una servidumbre de paso llegare a ser insuficiente para las necesidades del predio dominante, el dueño de éste podrá pedir la ampliación en la medida en que tales necesidades lo exigieron, siempre que el estado del predio sirviente lo permita sin grave perjuicio y mediante abono de la justa indemnización.

Ley 401*Modificación de servidumbre*

El propietario de la finca gravada por la servidumbre no puede perjudicar el uso de la misma, pero podrá solicitar por vía judicial la variación de su forma cuando necesite razonablemente de la plena disposición de la parte de la finca afectada por la servidumbre, siempre que no cause perjuicio al titular de ésta.

Ley 402*Pastos*

El propietario de una finca gravada con servidumbre de pastos podrá cerrarla, pero para el acceso del ganado de la finca dominante deberá dejar paso, «langa» o «queleta».

Ley 403*Luces y vistas*

Las servidumbres de luces y vistas dan a su titular el derecho de mantener en su pared huecos que le permitan recibir luz por el fundo sirviente o el de proyectar la mirada sobre él. Estas ser-

400. legea*Zortasuna zabaltzea*

Bide-zorra nahiko ez bada lur nagusiaren beharrizanak asetzeko, lur horren jabeak zortasuna zabaltzeko eskatu ahal izanen du, beharrizan horiek betetzeko beharrezkoa den neurrian, betiere, zortasunpeko lurraren egoerak kalte larririk eragin gabe hori ahalbidetzen duenean, eta horren truk kalte-ordain zuzena emanez.

401. legea*Zortasuna aldaraztea*

Zortasunarekin kargaturiko finKaren jabeak ezin dio finkaren erabilerari kalterik egin, baina auzibidean horren forma aldatzeko eskatu ahal izanen du, zortasunak eragindako finka-zatiaren gaineko xedapen osoa zentzuz behar duenean, horrekin zortasunaren titularrari kalterik egiten ez dionean betiere.

402. legea*Bazkak*

Bazka-zortasunarekin kargaturiko finKaren jabeak hori itxi ahal izanen du, baina jabe horrek bidea, «langa» edo «kereta» zabaldu beharko du, lur nagusiko abelburuak bertara sar daitezten.

403. legea*Argi-bistak*

Argi-bisten zortasunek horien titularrari eskubidea ematen diote beraren horman zuloak zabalik izateko, eta zortasunpeko funtsetik argia jasotzeko edo funts horren gainetik begiratzeko.

vidumbres impiden al dueño del predio sirviente la construcción a distancia menor de tres metros de la pared o del voladizo, en cuanto reduzca o dificulte las luces o las vistas.

Ley 404

Huecos para luces

El propietario de un fundo podrá abrir en su pared contigua a otro fundo huecos hasta de una vara en cuadro, cerrados mediante barrotes remetidos y con red metálica, salvo la costumbre local. Estos huecos podrán ser cerrados cuando se edifique en la finca vecina, y no serán tomados como signos de aparente servidumbre a efectos de la prescripción.

En las «belenas» o «etxekoartes» comunes a varios propietarios, cualquiera de éstos podrá abrir en pared propia huecos sin saledizos, con la limitación de no causar molestia a los demás propietarios.

Ley 405

Obligaciones del dueño de finca sirviente

En las servidumbres que facultan para apoyar alguna construcción sobre muro o edificio ajeno, el propietario del fundo sirviente debe hacer a su costa las reparaciones necesarias para mantener la solidez de la estructura sirviente. En las otras servidumbres debe tolerar que se hagan las obras necesarias para el buen uso del servicio.

Halako zortasunek zortasunpeko lurra- ren jabeari eragozten diote horma edo hegalkinetik hiru metro baino tarte laburragoan eraikitzea, horrekin argiak edo bistak urritu edo oztopatzen diren neurrian.

404. legea

Argiak hartzeko zuloak

Funts baten jabeak, horren alboko funtsarekin mugakide den horman, zuloak zabal ditzake kana beteko zabaleradun laukian; zuloak estalita egon behar dira hormara jositako burdinez eta alanbre-sarez, tokiko ohitura bestelakoa denean salbu. Zulo horiek itxi ahal izanen dira alboko finkan eraikina egiten denean, eta horiek ez dira zortasunaren ageriko zeinutzat hartuko preskripzioaren ondoretarako.

Jabe batzuei dagozkien «belena» edo «etxekoarte» erkideetan, jabe horietatik edozeinek bere horman ireki ditzake hegalkinik gabeko zuloak, gainerako jabeen enbarazurik ez egiteko mugapean.

405. legea

Zortasunpeko finkaren jabeak dituen betebeharrak

Zortasunek ahalmena ematen badute inoren horma edo egituren bat eraikin baten euskarri gisa erabiltzeko, zortasunpeko funtsaren jabeak bere kontura egin behar ditu zortasunpeko egituraren sendotasunari eusteko beharrezkoak diren konponketak. Gainerako zortasunetan, zerbitzuaren erabilera onerako beharrezkoak diren obrak jasan behar ditu.

Abandono liberatorio

El propietario de la finca sirviente podrá exonerarse del deber a que se refiere el párrafo anterior, así como de toda otra obligación de reparar que hubiere contraído expresamente, mediante abandono de la finca a favor del titular de la servidumbre.

Ley 406*Extinción*

Las servidumbres se extinguen por la renuncia de su titular, formalizada como acto de disposición sobre inmuebles y por la confusión de propiedades. En este último caso será suficiente la adquisición del terreno estrictamente afectado por la servidumbre y quedará libre de ella el resto de la finca gravada. Cuando se adquiera sólo una parte del terreno afectado, la servidumbre se considerará extinguida en esa parte exclusivamente.

Cuando lo que se adquiere es una parte indivisa, la servidumbre no se considera extinguida.

También se extinguen las servidumbres por la falta de uso durante el plazo de prescripción. En las servidumbres positivas la prescripción liberatoria se contará a partir del momento en que dejara de usarse, y en las negativas, desde que se realice un acto obstativo.

Ley 407*Imposibilidad temporal*

Cuando por el estado de las fincas la servidumbre pierda su utilidad, si no

Bertan behera uzte askatzailea

Zortasunpeko finkaren jabea gera daiteke aurreko lerrokadan aipaturiko eginbeharretik aske, bai eta berak esanbidez harturiko konponketa betebeharetatik ere, zortasunaren titularrarentzat finka bertan behera utziz gero.

406. legea*Azkontzea*

Zortasunak azkentzen dira titularrak uko egiten duenean, uko egitea ondasun higiezinaren gaineko egintza gisa formalizatuz, bai eta jabetzak esku berera helzen direnean ere. Azken kasu horretan, nahiko da zortasunak zehatz-mehatz eragiten duen lurra bakarrik eskuratzea, eta horretatik aske geratuko da kargapeko finkaren gainerako zatia. Eragindako lurraren zati bat bakarrik eskuratzen bada, zortasuna azkendutzat hartuko da, baina zati horretan bakarrik.

Eskuratutakoa zati indibisioa bada, zortasuna ez da azkendutzat joko.

Zortasunak azkentzen dira, halaber, preskripzio-epean zehar horiek ez erabiltzeagatik. Zortasun positiboetan, preskripzio askatzailea zenbatuko da, horiek erabiltzeari utzi zaion unetik, eta, negatiboetan, egintza eragozlea gauzatu denetik.

407. legea*Aldi baterako ezintasuna*

Finken egoeraren ondorioz zortasunak erabilgarritasuna galdu badu eta

transcurriere el plazo de la prescripción extintiva podrá ejercitarse de nuevo tan pronto cese el estado impositivo.

**TÍTULO IV
DEL USUFRUCTO,
HABITACIÓN, USO Y OTROS
DERECHOS SIMILARES**

**CAPÍTULO I
Del usufructo**

Ley 408

Concepto

El derecho real de usufructo concede a su titular, por tiempo limitado, las facultades dominicales con exclusión de la de disponer de la cosa objeto del usufructo. El usufructuario podrá ejercitar con este fin todas las acciones pertinentes y recabar del nudo propietario lo necesario para su ejercicio.

El usufructuario no podrá ceder su derecho, pero sí el ejercicio del mismo por el tiempo que dure el usufructo. El arrendamiento establecido por el usufructuario se resolverá, en todo caso, al extinguirse el usufructo; pero los arrendamientos rústicos subsistirán hasta la terminación del año agrícola.

Ley 409

Constitución

El usufructo se constituye por disposición de la ley o por voluntad del pro-

preskripzio azkentzailerako epea igaro ez bada, zortasuna berriro erabili ahal izanen da, egoera eragozlea amaitzea-ekin batera.

**IV. TITULUA
GOZAMENA, BIZTANTZEA,
ERABILTZEA ETA ANTZEKO
BESTE ESKUBIDEAK**

I. KAPITULUA

Gozamena

408. legea

Kontzeptua

Gozamen eskubide errealak horren titularrari ematen dizkio, epe mugatuan zehar, jabari-ahalmenak, gozamenpeko gauza xedatzeko ahalmena salbu. Gozamendunak, helburu horrekin, egokiak diren akzio guztiak egikaritu ahal izanen ditu, eta jabe soilari eskatu ahal izanen dio egikaritza horretarako beharrezkoa den guztia.

Gozamendunak ezin izanen du bere eskubidea laga; bai, ordea, horren egikaritza, gozamenak dirauen eperako. Gozamendunak ezarritako errentamendua suntsiarazi egingen da, edozein kasutan, gozamena azkentzean; baina landa-errentamenduek indarrean diraute, nekazaritzako urtea amaitu arte.

409. legea

Eraketa

Gozamena eratzen da legearen aginduz edo jabearen borondatez, boronda-

pietario, manifestada tanto en actos mortis causa como inter vivos, sea por constitución directa a favor de otra persona, sea mediante reserva de ese derecho en un acto de transmisión de la propiedad.

También puede constituirse el usufructo por la adjudicación en juicio divisorio o por acto particional.

Ley 410

Objeto

El usufructo puede constituirse sobre toda clase de bienes, aunque no produzcan frutos, y sobre la totalidad o parte alícuota de un patrimonio.

Cuando el usufructo verse sobre bienes consumibles, el usufructuario adquirirá sobre ellos la plena disposición, pero deberá restituir una cantidad igual del mismo género y calidad.

Inventario y garantía

Para hacer entrega de los bienes al usufructuario, o en cualquier otro momento, el propietario podrá exigir la formación de un inventario y la constitución de una garantía de la obligación de restituir y de indemnización de daños causados. No serán necesarios el inventario o la constitución de garantía cuando el usufructuario estuviera relevado de hacerlo por disposición de la ley o por el constituyente, o cuando el Juez lo estimare innecesario.

Para la constitución de la garantía se estará a lo dispuesto para el fiduciario en la ley 231.

te hori mortis causa nahiz inter vivos egintzetan agerturik, bai zuzenean beste inoren onurarako, bai eskubide hori erreserbatuz, jabetza eskualdatzeko egintzaren bidez.

Gozamena era daiteke, berebat, epaileak zatiketa-epaiketan egindako adjudikazioaren bidez edo banaketa-egintzaren bidez ere era daiteke.

410. legea

Objektua

Gozamena era daiteke mota guztietako ondasunen gainean, nahiz eta horiek fruiturik eman ez, eta ondare oso baten gainean edo horren zati alikuotaren gainean.

Gozamena gauza kontsumikorren gainekoa denean, gozamendunak erabateko xedapena eskuratuko du horien gainean, baina genero eta kalitate bereko beste horrenbeste itzuli beharko du.

Inbentarioa eta bermea

Gozamendunari ondasunak emateko unean, edo beste edozein unetan, jabeak inbentarioa egiteko galda dezake eta, horrez gain, bermea eratzeko ere bai, ondasunok itzuli eta eragindako kalteen ordaina emateko betebeharra ziurtatze aldera. Inbentarioa egitea edo bermea eratzeari ez da beharrezkoa izan, baldin eta gozamenduna betebeharrak horretatik aske geratu bada lege-aginduz edo eratzailaren borondatez, edota epaileak horiek alferrekoak direla uste izan badu.

Bermea eratzeko, kontuan izan behar da 231. legeak fiduziarioari buruz xedaturikoa.

Ley 411

Duración

El usufructo será vitalicio, salvo que conste haberse constituido por tiempo determinado.

Cuando el titular es una persona jurídica, el usufructo que no tenga otro plazo se extingue a los cien años.

Ley 412

Usufructo a favor de varias personas

El usufructo puede establecerse conjunta o sucesivamente a favor de personas que vivan o estén concebidas en el momento de su constitución. Respecto a otras personas, sólo podrá constituirse dentro de los límites establecidos en el párrafo segundo de la ley 224.

Cuando se constituya el usufructo a favor de varias personas, éstas podrán usar solidariamente las cosas objeto de su derecho, y se repartirán los frutos por partes iguales, salvo que otra cosa se hubiere dispuesto en el título de su constitución. Al extinguirse el derecho de uno de los usufructuarios, su parte acrecerá a los otros titulares.

Ley 413

Redención

Salvo que el título de su constitución estableciera lo contrario, el derecho de usufructo no será redimible contra la voluntad de usufructuario.

411. legea

Iraupena

Gozamena bizi artekoa izanen da, salbu eta gozamen hori epe zehatzera-ko eratu dela agerrarazi denean.

Titularra pertsona juridikoa bada, eta gozamenak beste eperik ez badu, gozamen hori ehun urte igarotakoan azkentzen da.

412. legea

Pertsona batzuen mesederako eraturiko gozamena

Gozamena ezar daiteke, batera nahiz ondoz ondo, hori eratzeko unean bizirik edo ernaldurik dauden pertsonen mesederako. Beste pertsona batzuei begira, gozamena eratu ahal izanen da 224. legearen bigarren lerrokadak ezarritako mugen barruan bakarrik.

Gozamena pertsona batzuen mesederako eratzen denean, horiek modu solidarioan erabili ahal izanen dituzte euren eskubidepeko gauzak, eta fruituak euren artean hainbanatuko dituzte, gozamena eratzeko tituluan bestelakoa xedatu denean salbu. Gozamenkide baten eskubidea azkendutakoan, horren zatia beste titularrei gehiagotuko zaie.

413. legea

Askatzea

Eraketa-tituluak aurkakoa ezarri ezik, gozamen eskubidea ezin izanen da askatu gozamendunaren borondatearen aurka.

Ley 414*Cargas. Seguros*

Las cargas y contribuciones que gravan estrictamente la propiedad serán de cuenta del nudo propietario. Todas las demás, así como los gastos necesarios, serán de cuenta de usufructuario, excepto las que no tengan carácter periódico, las cuales se abonarán por ambos en proporción al valor de sus respectivos derechos. También se abonarán, en la misma proporción, las primas de los seguros de la cosa usufructuada en el caso de que cualquiera de ellos exigiere concertarlos.

Ley 415*Frutos*

El usufructuario adquiere los frutos conforme a lo dispuesto en las leyes 353 y 354. Al terminar el usufructo podrá exigir una indemnización proporcionada a los gastos de producción de los frutos que no adquiera.

Ley 416*Usufructo de rebaño*

El usufructuario de un rebaño, para mantener la totalidad del mismo, deberá reponer las cabezas consumidas, y hará suyas las excedentes.

Ley 417*Usufructo de montes*

En el usufructo de montes, salvo que el título de su constitución ordenare otra cosa, se observarán las reglas siguientes:

414. legea*Zamak. Aseguruak*

Zama eta kontribuzioek jabetza kargatzen dutenean, jabe soilak ordaindu behar ditu zama eta kontribuzio horiek. Gainerakoak eta nahitaezko gastuak gozamen dunak ordaindu behar ditu, al-dizkako izaerarik ez dutenak izan ezik; halakoak bi-biok ordainduko dituzte, eurei dagozkien eskubideen balioaren arabera. Proporzio berean ordainduko dira gozamenpeko gauzaren aseguru-primak, haietatik edozeinek halakoak ituntzea galdatu duenean.

415. legea*Fruituak*

Gozamen dunak fruituak eskuratzen ditu, 353 eta 354. legeetan xedatutakoarekin bat etorritz. Gozamena amaitzean, kalte-ordaina galdatu ahal izanen du, berak zenbait fruitu eskuratu ez baina fruitu horiek ekoizteko egin dituen gastuen arabera.

416. legea*Abere-taldearen gaineko gozamena*

Abere-taldearen gozamen dunak, hori oso-osorik irauarazteko, kontsumituko abelburuak birjarri beharko ditu, eta bere eginen ditu gaindikinak.

417. legea*Mendien gaineko gozamena*

Mendien gaineko gozamen ean, eraketa-tituluak bestelakoa agintzen ez badu, ondoko erregelak beteko dira:

1. El usufructuario podrá hacer los aprovechamientos ordinarios con arreglo a la naturaleza del predio y a los usos del lugar.

2. Tratándose de montes maderables, podrá también hacer entresacas o cortas conforme a lo expresado en el número anterior. En las cortas a mata rasa de montes que no sean de producción espontánea, el usufructuario tendrá el deber de repoblar.

3. El beneficio de las cortas pertenecerá al usufructuario en proporción al tiempo que lleve en el usufructo, en relación con el período de producción de los árboles.

4. En todo caso, el usufructuario, haciéndolo saber previamente al nudo propietario, podrá cortar árboles por el pie para las reparaciones y mejoras que pretenda realizar en el predio. El nudo propietario podrá oponerse a la tala por mejoras; y a las de reparaciones, cuando tome éstas a su cargo.

Ley 418

Usufructo de crédito

En caso de usufructo de crédito, el derecho se entiende constituido sobre su importe. El usufructuario percibirá los intereses que el crédito devengue y, al cobro del mismo, se aplicará lo dispuesto en el párrafo segundo de la ley 410.

1. Gozamendunak aprobetxamendu arruntak egin ahal izanen ditu lurraren izaeraren eta tokiko usadioen arabera.

2. Mendietatik zura atera daitekeen, meazketa eta ebaketak egin ahal izanen ditu, aurreko zenbakian adierazitakoarekin bat etorritz. Mendietan ez badira landareak berez hazten, eta mendi horietan errotik ebaketak egiten badira, gozamendunak birlandatzeko eginbeharra izanen du.

3. Ebaketen onura gozamendunari dagokio, horrek gozamenean dirauen denboraren arabera; betiere, zuhaitzen ekoizpen-epa kontuan hartuta.

4. Edozein kasutan ere, gozamendunak, jabe soilari alde zuzenetik horren berri emanez, zuhaitzak oinetik ebaki ahal izanen ditu, lurrean gauzatu nahi dituen konponketa eta hobekuntzak egiteko. Jabe soilak hobekuntzaren ondoriozko ebaketaren aurka jarri ahal izanen da, eta konponketen ondoriozkoa egitearen aurka ere bai, horiek bere ardurapean hartzen baiditu.

418. legea

Kredituaren gaineko gozamina

Kredituaren gaineko gozamenean, ulertzen da horren zenbatekoaren gainean eratu dela eskubidea. Gozamendunak jasoko ditu kredituak sortutako korrituak, eta kredituaren kobrantzari 410. legearen bigarren lerrokadan xedatutakoa aplikatuko zaio.

Usufructo de renta

El usufructuario de una renta adquiere la misma por vencimientos, hasta la extinción del usufructo.

Usufructo de acciones

Cuando el usufructo recaiga sobre acciones, participaciones o cuotas sociales será de aplicación lo establecido en la ley 258.

Ley 419*Ley 419
Usufructo sobre derecho
de retracto*

Cuando en el patrimonio objeto de un usufructo universal exista un derecho de retracto respecto a bienes vendidos con pacto de retro o a carta de gracia, podrán ejercitar el retracto tanto el nudo propietario como el usufructuario, y el usufructo se extenderá a los bienes retraídos; cuando lo hubiere ejercitado el usufructuario, podrá exigir el reembolso del importe al término del usufructo.

En los demás casos de usufructo, el retracto corresponderá exclusivamente al nudo propietario, y el usufructo no se extenderá a los bienes retraídos.

Ley 420*Derecho de retención*

Al extinguirse el usufructo sobre bienes que deban recaer o revertir en favor de persona no determinada, el usufructuario o sus herederos habrán

Errentaren gaineko gozamena

Errentaren gozamedunak errenta eskuratzen du mugaegunetik mugaegunera, gozamena azkendu arte.

Akzioen gaineko gozamena

Gozamena sozietatearen akzio, partaidetza edo kuoten gainekoa bada, 258. legean ezarritakoa aplikatuko da.

419. legea*419. legea
Atzera-eskuratze
eskubidearen gaineko gozamena*

Gozamen unibertsala ondarearen gainekoa bada eta, ondare horretan, atzera-eskuratze eskubidea badago atzera-eskuratze itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin saldutako ondasunak direla eta, atzera-eskuratzea egikaritu ahal izanen dute, bai jabe soilak bai gozamedunak, eta gozamena hedatuko da atzera-eskuratutako ondasunetara; gozamedunak egikaritu badu atzera-eskuratzea, horren zenbatekoa itzultzeko galda dezake gozamena amaitutakoan.

Gozamenaren gainerako kasuetan, atzera-eskuratzea jabe soilari dagokio modu esklusiboan, eta gozamena ez da hedatuko atzera-eskuratutako ondasunetara.

420. legea*420. legea
Atxikitze eskubidea*

Ondasunen gain gozamena badago, eta ondasun horiek zehazturik ez dagoen pertsonari eman edo itzuli behar bazaizkio, orduan, gozamena azkentzean, go-

de continuar como administradores de aquellos bienes hasta que se determine la persona a quien deban entregarse los mismos, y podrán cobrarse los gastos con cargo a los frutos percibidos, así como retener la posesión hasta el total abono.

Ley 421

Extinción

El derecho de usufructo se extingue por muerte del usufructuario o renuncia de éste, por la falta de ejercicio durante el plazo ordinario de la usucapición de la propiedad, por vencimiento del término o el cumplimiento de la condición resolutoria, por la consolidación con la nuda propiedad o la pérdida de la cosa usufrutuada.

Ley 422

Transformación

En los casos de expropiación y sustitución forzosa, o de indemnizaciones por pérdida total o parcial, el derecho de usufructo recaerá sobre las indemnizaciones u otros bienes subrogados.

CAPÍTULO II

**De la habitación, uso
y otros derechos similares**

Ley 423

Régimen

Los derechos de habitación, uso u otros similares de aprovechamiento

zamendunak edo horren jaraunsleek ondasun horien administratzaile gisa iraun behar dute, halakoak nori eman behar zaizkion zehaztu arte; gastuak kobratu ahal izanen dituzte jasotako fruituen kontura, bai eta edukitza atxiki ere, haiek guztiak ordaindu arte.

421. legea

Az kentzea

Gozamen-eskubidea honela azkentzen da: gozamen-duna hildakoan edo horrek uko egindakoan, jabetza usukapitzeko epe arruntean gozamina egikaritu gabe utzitakoan, epe-muga heldutakoan edo baldintza suntsiarazlea betetakoan, gozamina eta jabetza soila bateratutakoan, edota gozamenpeko gauza galdutakoan.

422. legea

Transformazioa

Nahitaz jabetza kendu edo ordeztu pena gertatzen denean, edota erabateko nahiz zati bateko galeraren ondorioz kalte-ordaina ematen denean, gozamen-eskubideak kargatuko ditu kalte-ordainak edo beste ondasun subrogatu batzuk.

II. KAPITULUA

Biztantzea, erabiltzea eta antzeko beste eskubide batzuk

423. legea

Araubidea

Biztandu, erabili eta inoren gauza zatika aprobetxatzeko eskubideak era-

parcial de cosa ajena, se rigen por lo establecido en el título de su constitución y, en su defecto, por las disposiciones siguientes:

Constitución

1. Pueden constituirse por los mismos modos que el usufructo; pero lo dispuesto en la ley 410 respecto a la garantía, tan sólo les será aplicable si así lo hubiera ordenado el constituyente o comprendieran también bienes muebles; en este último caso, se exigirá inventario, salvo dispensa del constituyente.

Gastos

2. Se presumen gratuitos y vitalicios. El titular sólo tendrá obligación de pagar las contribuciones que graven precisamente el uso exclusivo que él haga de la cosa; asimismo deberá hacer las reparaciones que exija el desgaste por el uso ordinario.

Extinción

3. Se extinguirán por las mismas causas que el usufructo y por el abuso grave de la cosa. También se extinguirán cuando el uso o aprovechamiento determinado a que se refieren se haga imposible, pero el propietario deberá indemnizar la pérdida o merma que supongan para el ejercicio de aquéllos las modificaciones por él introducidas en la cosa objeto de los mismos. El derecho de habitación no es en caso alguno

entzen ditu horien eraketa-tituluan ezarritakoak eta, horrelakorik izan ezean, ondoko xedapenek:

Eraketa

1. Halakoak era daitezke gozame-na eratzeko bide berberetatik, baina 410. legeak bermeari buruz ezarritakoa bakar-bakarrik aplikatuko zaie eratzai-leak hala agindu duenean edo eskubideotara ondasun higigarriak bildu direnean; azken kasu horretan, inbentarioa egin beharko da, eratzai-leak betebeh-ar hori salbuetsi ezik.

Gastuak

2. Eskubide horiek dohaineko eta bizi artekoak direla uste izanen da. Titularraren betebeh-ar bakarra izanen da kontribuzioak ordaintzea, kontribuzio horiek kargatzen badute berak gauza-ren gainean izandako erabilera eskuliboa; era berean, titularrak konponketak egin beharko ditu, eguneroko erabileraren ondorioz haren higadura gertatzen bada.

Az kentzea

3. Eskubide horiek azkenduko dira, gozame-na azkentzeko arrazoi berberak direla bide, bai eta gauzaz bidegabe abusatzeagatik ere. Eskubideok azkenduko dira, orobat, eskubidepeko erabiler-a edo aprobetxamendu zehatza ezinezko suertatzen denean, baina jabeak kalte-ordaina eman beharko du, eskubidepeko gauza aldarazten badu eta, horren ondorioz, eskubideon egikaritz-a galarazi edo urritzen bada. Biztantzeko

redimible contra la voluntad de su titular. Los derechos, siempre que no se hubieren constituido por tiempo determinado, serán redimibles conforme a lo establecido para las «corralizas» en la ley 382.

Ley 424

Contenido

a) Habitación

A no ser que el título hubiese limitado el derecho de habitación, se presumirá que éste concede a su titular la facultad de ocupar la vivienda total y exclusivamente, para sí y los que con él convivan, así como de arrendar la vivienda total o parcialmente, y el arrendamiento cesará al extinguirse el derecho de habitación, sin prórroga alguna.

Ley 425

b) Uso

y otros derechos

Salvo lo establecido en la ley anterior respecto a la habitación, los titulares de estos derechos concurrirán en su ejercicio con el uso ordinario del propietario o persona que le sustituya; y no podrán ceder totalmente su derecho, aunque sí compartir su ejercicio con otras personas, tanto mediante retribución como sin ella.

Ley 426

Frutos y productos

En los derechos que no se refieran a un aprovechamiento determinado de

eskubidea ezin da inola ere askatu horren titularraren borondatearen aurka. Eskubideak ez badira epe zehatzerako eratu, horiek askatzeko modukoak izanen dira, 382. legean «bazkalekuei» buruz ezarritakoarekin bat etorritz.

424. legea

Edukia

a) Biztantzeko eskubidea

Tituluak biztantzeko-eskubidea mugatzen duenean izan ezik, uste izanen da eskubide horrek titularrari ahalmena ematen diola, etxebizitza osorik eta modu eskusiboan okupatzeko, berarentzat eta berarekin batera bizi direnentzat, bai eta etxebizitza osorik edo zati batez errentan emateko ere; errentamendua amaituko da, biztantzeko eskubidea azkentzean, inolako luzapenik gabe.

425. legea

b) Erabiltzeko eskubidea

eta beste eskubide batzuk

Aurreko legeak biztantzeari buruz ezarritakoa izan ezik, halako eskubideen titularren egikaritzea pilotuko da jabearen edo hori ordeztzen duen pertsonaren erabilera arruntarekin; haiek ezin izanen dute euren eskubidea osorik laga, baina eskubide horien egikaritzea beste pertsona batzuekin elkarbanatu dezaketete, horren truk ordainketa jasoz edo hori jaso gabe.

426. legea

Fruitu eta produktuak

Eskubideak ez badira fruituen edo berezko produktuen gaineko aprobe-

los frutos o productos naturales, el titular podrá aprovechar todos los que la cosa produzca, pero tan sólo en la medida del consumo ordinario de las personas que participan en el ejercicio del derecho, y sin facultad de venderlos.

txamendu jakin bati buruzkoak, titularrak aprobetxatu ahal izanen ditu gauzak ekoizten dituen guztiak; betiere, eskubidearen egikaritzan parte hartzen duten pertsonen kontsumo arruntaren neurrian bakarrik eta horiek saltzeko ahalmenik gabe.

TÍTULO V
DEL DERECHO DE SUPERFICIE
Y OTROS DERECHOS
SIMILARES

CAPÍTULO I
Disposiciones generales

Ley 427

Principio general

Se presume que lo unido inseparablemente al suelo accede a la propiedad de éste, pero puede existir un derecho real sobre lo edificado o plantado en suelo ajeno, como derechos de superficie, de sobreedificación o subedificación, de propiedad horizontal y de plantación.

Ley aplicable

En cuanto al régimen de propiedad horizontal, se estará a lo dispuesto en el Código Civil y leyes que lo desarrollan. Para los demás derechos mencionados se observará lo dispuesto en el presente título.

V. TITULUA
AZALERA-ESKUBIDEA
ETA ANTZEKO BESTE
ESKUBIDE BATZUK

I. KAPITULUA
Xedapen orokorrak

427. legea

Printzipio orokorra

Lurrari modu banaezinean batutakoa horren jabetzapean sartzen dela uste izan da, baina inoren lurreen eraikitakoaren edo landatutakoaren gainean izan daiteke eskubide errealean bat, besteak beste, azalera-eskubidea, inoren eraikinaren gainean edo azpian eraikitzeko eskubidea, jabetza horizontalaren gaineko eskubidea eta landatzeko eskubidea.

Aplikatu beharreko legea

Jabetza horizontalaren araubideari dagokionez, Kode Zibilean eta hori garatzen duten legeetan xedaturikoa beteko da. Aipaturiko beste eskubideei buruz, titulu honetan xedaturikoa beteko da.

Ley 428

Régimen

Los derechos mencionados en la ley anterior se regirán por las reglas siguientes:

1. Pueden constituirse por actos inter vivos o mortis causa, a título oneroso o lucrativo, bien por constitución directa mediante enajenación o concesión, bien mediante reserva o retención en un acto de transmisión de la propiedad.

2. Pueden establecerse por tiempo determinado o a perpetuidad, presumiéndose esto último si no se dispone lo contrario.

3. Son inscribibles en el Registro de la Propiedad, aunque no se determinen los elementos accidentales, como plazo de iniciación o terminación, características, presupuestos, mejoras, usos, explotación, destino o conservación de la obra a realizar.

4. Son transmisibles por actos inter vivos o mortis causa, a no ser que se constituyesen como personalísimos o se hubiere condicionado su transmisión al consentimiento del propietario, o limitado de otro modo su transmisibilidad.

5. Son hipotecadas en la misma medida que son transmisibles. Lo edificado o plantado en ejercicio de estos derechos quedará sujeto a la misma hipoteca.

6. Pueden ser objeto de usufructo y otros derechos similares, pero no pueden gravarse con servidumbres sin con-

428. legea

Araubidea

Ondoko erregelek eraenduko dituzte aurreko legean aipatutako eskubideak:

1. Eskubideok inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez era daitezke, kostu bidez nahiz dohainik, dela zuzenean besterentze edo ematearen bidez, dela erreserba edo atxikitzearen bidez jabetza eskualdatzeko egintzan bertan.

2. Epe mugaturako edo betiko ezar daitezke; aurrakoa xedatzen ez denean, azken hori uste izanen da.

3. Jabetza Erregistroan inskriba daitezke, nahiz eta aldian aldiko osagaiak zehaztu ez; esaterako, egiteke dagoen obra hasi edo amaitzeko epeak, horren berezitasunak, aurrekontuak, hobekuntzak, erabilerak, ustiapena, xedea edo artapena.

4. Inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez eskualda daitezke, salbu eta bere-berezko gisa eratu direnean, horien eskualdaketa jabearen adostasunaren baldintzapean jarri denean edota euren eskualdagarritasuna bestelako moduan mugatu denean.

5. Hipotekatzeko modukoak dira, eskualdagarriak diren neurrian. Eskubide horiek egikaritzuz zerbait eraiki edo landatzen bada, hori ere hipotekaren menpe geratuko da.

6. Gozamenaren eta antzeko eskubideen objektu izan daitezke, baina ezin dira zortasunekin kargatu jabearen

sentimiento del propietario. En el caso de establecerse sin este consentimiento será aplicable lo que respecto a la comunidad dispone la ley 372.

7. El titular puede, por sí solo, constituir servidumbres a favor del inmueble a que tales derechos se refieren, y en ningún caso puede el propietario por sí solo extinguir las servidumbres en perjuicio de aquellos derechos.

8. Salvo disposición en contrario, no son redimibles contra la voluntad de su titular.

9. En caso de enajenación de estos derechos o de la propiedad, no habrá lugar al tanteo y retracto.

Ley 429

Confusión

Si se reunieran en un mismo titular la propiedad del suelo y uno de estos derechos especiales sobre el mismo, los derechos reales que afecten a una y otros continuarán gravándoos separadamente.

CAPÍTULO II

Del derecho de superficie

Ley 430

Concepto

El derecho real de superficie confiere la facultad de construir en suelo ajeno y de mantener separada la pro-

adostasunik gabe. Halako adostasuna izan ez arren, eskubideok ezartzen bada, 372. legeak erkidegoari buruz xedaturikoa aplikatuko da.

7. Titularrak bere kabuz era ditzake zortasunak, eskubideon objektu den ondasun higiezinaren mesederako, eta jabeak ezin ditu inola ere bere kabuz zortasunak azkendu halako eskubideen kalterako.

8. Aurkako xedapenik izan ezean, eskubideok ezin daitezke askatu horien titularraren borondatearen aurka.

9. Eskubide horiek edo jabetza besterentzen direnean, ez da egonen eros-lehentasunik, ezta atzera-eskuratzerik ere.

429. legea

Bateratzea

Titular berberak eskuratzen baditu lurraren jabetza eta horren gaineko eskubide berezietatik batzuk, batari eta besteei eragiten dieten eskubideek modu bananduan kargatzen jarraituko dute.

II. KAPITULUA

Azalera-eskubidea

430. legea

Kontzeptua

Azalera-eskubide errealak ahalmena ematen du inoren lurrean eraikitze-ko, bai eta eraikitakoaren jabetza ba-

piedad de lo construido. Este derecho puede referirse también a edificación subterránea.

Extensión

La extensión del derecho del superficiario alcanza a aquella parte del subsuelo que normalmente se precisa para el aprovechamiento de la superficie a los efectos de cimientos, desagües, ventilación y demás necesidades propias del edificio según su naturaleza.

Ley 431

Cargas

Salvo pacto en contrario, el superficiario, desde que inicie la construcción, pagará todos los impuestos, contribuciones y cargas por razón del inmueble. En caso de pluralidad de construcciones, cada titular pagará, íntegra y exclusivamente, las que correspondan a la suya.

Ley 432

Propiedad horizontal

El régimen de propiedad horizontal de un edificio construido por el superficiario no se extiende al suelo.

Ley 433

Perecimiento del edificio

Si la edificación pereciere, no se extinguirá el derecho de superficie y el

nanduari eusteko ere. Eskubide hori lurpean eraikitzea ere izan daiteke.

Hedadura

Azaleradunaren eskubidearen hedadak bere barruan hartzen du lurpea, lurpe hori azalera aprobetxatzeko beharrezkoa izan ohi den neurrian, eta, betiere, eraikinaren zimendu-, hustubide-, aireztapen-ondoretarako, bai eta eraikinak bere izaeraren arabera dituen gainerako beharriazentarako ere.

431. legea

Zamak

Aurkako itunik izan ezean, azalera-dunak, eraikuntzari hasiera ematen dionetik, ondasun higiezinaren ondoriozko zerga, kontribuzio eta zama guztiak ordainduko ditu. Eraikin anitz izanez gero, titular bakoitzak ordainduko ditu oso-osorik eta berak bakarrik bere eraikinari dagozkionak.

432. legea

Jabetza horizontala

Azaleradunak eraikina egin badu eta eraikin horrek jabetza horizontalaren araubidea badu, araubide hori ez da lurrera hedatzen.

433. legea

Eraikina suntsitzea

Eraikina suntsitu arren, ez da azalera-eskubidea azkenduko, eta azalera-

superficiario podrá proceder a la reconstrucción.

Ley 434

Reversión

Cuando la superficie se hubiere establecido por tiempo determinado o bajo condición resolutoria, al vencimiento de éstos lo edificado revertirá a la propiedad, sin compensación o con ella según se haya pactado.

dunak berreraikitzeari ekin ahal izanendio.

434. legea

Lehengoratzea

Azalera-eskubidea epe jakinerako edo baldintza suntsiarazlearen menpe ezartzen bada, orduan, horiek mugaguneratutakoan, eraikitakoa jabetzari lehengoratuko zaio, konpentsaziorik gabe edo konpentsazioarekin, kasuan-kasuan itundu denaren arabera.

CAPÍTULO III

De los derechos de sobreedificación y subedificación

Ley 435

Concepto

Los derechos reales de sobreedificación y subedificación conceden a su titular la facultad de construir una o más plantas sobre un edificio o por debajo de éste, respectivamente, en un edificio ya existente o que se construir con posterioridad.

Ejercicio

Para su ejercicio se requiere siempre, además de la correspondiente aprobación administrativa, la determinación de los derechos sobre los elementos comunes del inmueble, en relación con la naturaleza de la obra, la seguridad del edificio y las limitaciones legales. En todo caso, los propietarios, arrenda-

III. KAPITULUA

Eraikin baten gainean eta azpian eraikitzeko eskubideak

435. legea

Kontzeptua

Eraikin baten gainean edo azpian eraikitzeko eskubide errealek ahalmena ematen diote horien titularrari eraikin baten gainean edo azpian solairu bat edo gehiago eraikitzeko, hurrenez hurren, jadanik eginda dagoen edo etorkizunean eginen den eraikinean.

Egikaritzea

Eskubide horiek egikaritzeko, beharrezkoa da beti, Administrazioaren onspen egokia ez ezik, eraikinaren osagai erkideen gaineko eskubideen zehaztapena ere, obraren izaerari, eraikinaren segurtasunari eta legezko mugapenei lotuta. Edozein kasutan, eraikinaren jabe, maizter edo beste erabiltzaileei

tarios u otros usuarios del edificio deberán ser indemnizados de los daños y perjuicios que ocasione el ejercicio de estos derechos.

Ley 436

Copropiedad y propiedad horizontal

Cuando el edificio se halle en régimen de copropiedad o de propiedad horizontal, la facultad de sobreedificar o subedificar pertenecerá a los condueños en proporción a sus respectivas cuotas en la propiedad o en los elementos comunes. En ambos casos la concesión de estos derechos requerirá el consentimiento de todos los partícipes.

Ley 437

Contenido

El titular puede construir el número de plantas que el título hubiere fijado. En defecto de determinación, se entenderá autorizado para construir cuantas fueren posibles, sin más limitaciones que las administrativas y las que imponga la seguridad del inmueble. Salvo pacto en contrario, quedarán extinguidos estos derechos una vez terminada la construcción realizada en ejercicio de los mismos.

Ley 438

Limitaciones administrativas

Las limitaciones administrativas que impidan al titular del derecho su ejercicio total o parcial, salvo pacto en

eman beharko zaie eskubide horien egikaritzak eragin dizkien kalte-galeren ordaina.

436. legea

Jabekidetasuna eta jabetza horizontala

Eraikina jabekidetasunaren edo jabetza horizontalaren araubidepean badago, jabekideei dagokie horren gainean edo azpian eraikitzeo ahalmena; betiere, jabetzan edo osagai erkideetan dituzten kuoten arabera. Bi kasuotan, halako eskubideak emateko, beharrezkoa izanen da partaide guztien adostasuna.

437. legea

Edukia

Titularrak eraiki dezake tituluaz zehazturiko solairu-kopurua. Zehaztapenik egin ezean, ulertuko da titularrak baimena duela, eraiki ahal diren solairu guztiak egiteko; horretarako, Administrazioak eta eraikinaren segurtasunak ezarritako mugapenak baino ez ditu izanen. Aurkako itunik izan ezean, eskubideok azkenduko dira, horiek egikaritzu eraikitako egitura amaitu ondoren.

438. legea

Administrazio-mugapenak

Administrazio-mugapenek titularrari eragozten badiote bere eskubidea oso-osorik edo zati batez egikari de-

contrario, no extinguirán este derecho ni darán lugar a responsabilidad por parte del concedente.

Ley 439

Régimen de las nuevas edificaciones

Las construcciones realizadas en ejercicio de estos derechos se constituirán en régimen de propiedad horizontal con el resto del edificio.

Cuando las cuotas sobre los elementos comunes no se hubieren establecido en el título, ni se hubiere fijado el procedimiento para determinarlas, se requerirá el consentimiento de todos los propietarios del inmueble. Sin embargo, respecto a las construcciones subterráneas, podrá convenirse que sean accesorias de otras preexistentes, sin modificar las cuotas ya establecidas en los elementos comunes.

Ley 440

Declaración de obra nueva

Salvo pacto en contrario, el titular puede otorgar por sí solo la escritura pública de declaración de obra nueva y de rectificación de la descripción del edificio.

Ley 441

Perecimiento del edificio

Si la edificación pereciere, no se extinguirán estos derechos, y sus titulares conservarán respecto al edificio

zan, mugapen horiek ez dute eskubidea azkenduko eta eskubide-emaileari ez diote erantzukizunik ekarriko, aurkako itunik izan ezean.

439. legea

Eraikin berrien gaineko araubidea

Eskubide horiek egikaritzuz zerbait eraikitzen bada, eraikitakoa jabetza horizontalaren araubidepean jarriko da eraikin osoarekin batera.

Osagai erkideen gaineko kuotak ez badira tituluaren ezarri, eta titulu horretan ez bada finkatu kuotok zehazteko prozesurik, beharrezkoa izanen da eraikinaren jabe guztien adostasuna. Hala eta guztiz ere, lurpeko eraikinei dago kienez, hitzartu ahal izanen da horiek jadanik eginda dauden beste eraikin batzuen erantsiak izatea, osagai erkideen gainean ezarritako kuotak aldarazi gabe.

440. legea

Obra berriari buruzko adierazpena

Aurkako itunik izan ezean, titularrak bere kabuz egin ditzake obra berriari buruzko adierazpenaren eskritura publikoa eta eraikinaren deskripzioa zuzentzekoa.

441. legea

Eraikina suntsitzea

Eraikina suntsitu arren, ez dira eskubide horiek azkenduko, eta, eraikitako egiturari begira, haien titularrek al-

construido el mismo derecho que anteriormente tenían.

Ley 442

Ordenación urbana

Si a consecuencia de la ordenación o urbanización del suelo se subrogare en lugar del inmueble una parcela con otro volumen de edificabilidad, el titular de los derechos de sobreedificación o subedificación tendrá en el nuevo volumen una parte proporcional al derecho que antes tenía.

dez aurretik zuten eskubide bera izanen dute.

442. legea

Hiri antolamendua

Lurraren antolamendu edo urbanizazioaren ondorioz, ondasun higiezinaren lekuan subrogatzen bada bestelako eraikigarritasun-bolumena duen lurzatia, orduan, eraikin baten gainean edo azpian eraikitzeko eskubideen titularrak bolumen berri horretan izanen du aurretiaz zuten eskubidearen portortziozko zatia.

CAPÍTULO IV

Del derecho de plantaciones en suelo ajeno

Ley 443

Concepto

Podrá constituirse un derecho real de plantación en suelo ajeno. En tal caso, pertenece al concesionario la propiedad de la plantación separadamente del dominio del suelo.

Ley 444

Redención

Cuando este derecho se constituya por tiempo indefinido, no se aplicará lo dispuesto en los números ocho y nueve de la ley 428, sino que será redimible y tendrá lugar el derecho de retracto, conforme a lo establecido para las «corralizas» en las leyes 382 y 383.

IV. KAPITULUA

Inoren lurrean landatzeko eskubidea

443. legea

Kontzeptua

Inoren lurrean landatzeko eskubide erreala eratu ahal izanen da. Kasu horretan, emakidadunari landaketaren gaineko jabetza dagokio, lurraren jabaririk bananduta.

444. legea

Askatzea

Eskubide hori epe mugarik gabe eratu bada, ez da aplikatuko 428. legeko zortzi eta bederatzigarren zenbakietan xedaturikoa; aitzitik, eskubidea askatzeko modukoa izanen da, eta atzera-eskuratzeko eskubidea egikaritu ahal izanen da, 382 eta 383. legeek «bazkalekuei» buruz ezarritakoarekin bat etorritz.

TÍTULO VI

**DE LOS RETRACTOS Y OTROS
DERECHOS DE ADQUISICIÓN
PREFERENTE**

CAPÍTULO I

Disposiciones generales**Ley 445***Efecto*

Los derechos de tanteo y retracto legal y los demás derechos reales de adquisición limitan el poder de disposición del dueño de la cosa y facultan a su titular para adquirirla, con preferencia a terceros, en caso de transmisión onerosa.

El derecho de retracto presupone siempre el derecho de tanteo; pero cuando se haya efectuado la debida notificación para el ejercicio del derecho de tanteo y no se haya hecho uso de éste, dentro del plazo que en cada caso corresponda, quedará excluido el derecho de retracto.

Ley 446*Prelación*

Los retractos legales gratuitos, de «vecindad forana», «corralizas» o «helechales» y el gentilicio, por este orden, tienen prioridad respecto a los de comuneros, colindantes, arrendatarios, enfiteutas y a cualesquiera otros derechos de adquisición preferente de carácter civil o administrativo.

VI. TITULUA

**ATZERA-ESKURATZEA ET
LEHENESPENEZ ESKURATZE-
KO BESTE ESKUBIDE BATZUK**

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak**445. legea***Ondorea*

Eroslehentasun-eskubideek, legeko atzera-eskuratzeoek eta lehenespenez eskuratzeko gainerako eskubide errealek mugatu egiten dute gauzaren jabeak duen xedapen-ahalmena, eta euren titularri gauza eskuratzeko ahalmena ematen diote, hirugarrenen aurretik, gauza hori kostu bidez eskualdatzen denean.

Atzera-eskuratzeko eskubideak berez dakar beti eroslehentasun-eskubidea; baina, eroslehentasun-eskubidea egikaritzeko beharrezkoa den jakinarazpena egiten bada eta gero eskubide hori erabiltzen ez bada kasuan-kasuan egoki den epean, atzera-eskuratzeko eskubidea baztertuta geratuko da.

446. legea*Lehenespena*

Legezko eta grazia bidezko atzera-eskuratzeek, «kanpoko auzotartasun», «bazkaleku» eta «iralekuei» buruzkoek, eta atzera-eskuratze jentilizioak, hurrenkeran horretan, lehentasuna dute erdide, mugakide, maizter eta enfiteusidunen atzera-eskuratzeen aurretik, bai eta lehenespenez eskuratzeko bestelako eskubideen aurretik ere, horiek zibilak nahiz administraziokoak izan.

Los retractos legales prevalecen sobre los derechos convencionales de opción, tanteo y retracto.

Ley 447

Renuncia

Es válida la renuncia del derecho de tanteo y retracto legal con relación a una determinada enajenación y aun cuando se hubiere hecho con anterioridad a ésta.

Ley 448

Ejercicio

En las enajenaciones sometidas a condición o término suspensivos, el derecho de retracto sólo podrá ejercitarse desde el cumplimiento de la condición o el vencimiento del término.

El retracto tendrá lugar aunque la enajenación se hubiere realizado en suabasta judicial o extrajudicial.

Ley 449

Impugnación del precio

En caso de impugnación del precio, se suspenderá el plazo de ejercicio del retracto hasta que aquélla se resuelva.

Ley 450

Precio, gastos y frutos

El ejercicio de la acción de retracto exige la consignación por el retrayente del precio de la enajenación o, si no es conocido, el ofrecimiento de consignarlo cuando lo sea y, en todo caso, el de

Legezko atzera-eskuratzeek lehen-tasuna dute hitzarmenezko aukera- eta eroslehetasun-eskubideen, eta atzera-eskuratzekeen aurretik.

447. legea

Uko egitea

Baliozkoa da eroslehetasun-eskubideari eta legezko atzera-eskuratzeari uko egitea, besterentze jakin bati begira, nahiz eta uko hori besterentzea baino lehenago egin.

448. legea

Egikaritzea

Baldintza edo epe-muga etengarri-peko besterentzeetan, atzera-eskuratze-ko eskubidea egikaritu ahal izanen da baldintza betetzen denetik edo epe-muga heltzen denetik bakarrik.

Atzera-eskuratzea gertatuko da, nahiz eta besterentzea epaiketazko edo epai- ketatik kanpoko enkantean gauzatu.

449. legea

Prezioa aurkaratzea

Prezioa aurkaratzen bada, atzera-es- kuratzea egikaritzeko epea etenda ger- ratuko da harik eta hura erabaki arte.

450. legea

Prezioa, gastuak eta fruituak

Atzera-eskuratze-ko akzioa egikari- tze-ko, beharrezkoa da atzera-eskura- tzaileak besterentzearen prezioa zain- pean jartzea edo, prezio hori ezaguna ez bada, eskaintza egitea, hori ezaguna de-

pagar los gastos de legítimo abono. Para la atribución de los frutos se estará a lo dispuesto en las leyes 353 y 354.

nean berori zainpean jartzeko, eta, edozein kasutan, legebidezko ordainketaren gastuak ordaintzeko. Fruituak eratzikitzeko, 353 eta 354. legeetan xedaturikoa beteko da.

CAPÍTULO II

Del retracto gracioso

Ley 451

Concepto y plazo

En todos los casos de ejecución patrimonial, el deudor ejecutado podrá retraer los bienes definitivamente adjudicados, en el plazo de nueve días, mediante el pago del precio y gastos de legítimo abono.

II. KAPITULUA

Grazia bidezko atzera-eskuratzea

451. legea

Kontzeptua eta epea

Ondare-exekuzioaren kasu guztietan, exekuziopeko zordunak behin betiko adjudikatu diren ondasunak atzera-eskuratatu ahal izanen ditu bederatzi eguneko epean, prezioaren eta legebidez ordaindu beharreko gastuen pagamendua eginez.

CAPÍTULO III

Del retracto gentilicio

Ley 452

Concepto

El retracto gentilicio, familiar o de sangre, podrá ejercitarse para rescatar determinados bienes inmuebles o cuotas indivisas de éstos.

Ley aplicable

Este derecho de retracto se dará sobre inmuebles sitos en Navarra y únicamente a favor de personas que tengan la condición foral de navarros.

III. KAPITULUA

Atzera-eskuratze jentilizioa

452. legea

Kontzeptua

Atzera-eskuratze jentilizioa, ahaideen artekoa nahiz odolekoa, egikaritu ahal izanen da ondasun higiezin zehatzak edo horien gaineko kuota indibisoak berreskuratuzeko.

Aplikatu beharreko legea

Atzera-eskuratze eskubide hori gauzatuko da Nafarroan dauden ondasun higiezinaren gainean, eta Nafarroako forudunaren izaera duten pertsonen mesederako bakarrik.

Ley 453

Retrayentes

Sólo pueden ejercitar el derecho de retracto:

1. Respecto de los bienes de abolorio o de patrimonio, los descendientes del enajenante y los parientes colaterales del mismo dentro del cuarto grado y de la misma línea de procedencia de los bienes.

2. Respecto a los bienes conquistados o adquiridos por el enajenante o por sus padres, los descendientes de aquél.

A estos efectos, se entiende por bienes de abolorio todos los que, habiendo pertenecido al abuelo del enajenante, hubieren sido recibidos por éste a título lucrativo directamente del mismo abuelo; por bienes de patrimonio, todos los que, habiendo pertenecido al abuelo, hubieran sido recibidos por el enajenante, siempre a título lucrativo, a través del padre o de otro descendiente del mismo abuelo; y por bienes conquistados, todos los que hubieran sido adquiridos, a título oneroso o lucrativo, por el enajenante o por sus padres.

Ley 454

Enajenación a pariente

En el caso de que los bienes se hubieren enajenado a un pariente con derecho a retraerlos, los demás parientes no podrán ejercitar el retracto aunque fuesen de condición preferente.

453. legea

Atzera-eskuratzaileak

Atzera-eskuratzeke eskubidea egikari dezakete, bakar-bakarrik:

1. Abolorio- edo ondare-ondasunei dagokienez, besterentzailearen ondorengoez, eta horren alboko ahaideek ere bai, baldin eta horiek laugarren gradurainokoak badira, ondasunak zein lerrotatik etorri, eta lerro horretakoak.

2. Besterentzaileak edo horren gurasoek konkistatu edo eskuraturiko ondasunei begira, haren ondorengoez.

Ondore horietarako, ulertzen da abolorio-ondasun direla, besterentzaileak, bere aitonarenak izanik, dohainik eta zuzenean aitona horrengandik hartu dituenak; ondare-ondasun dira, ordea, aitonarenak izanik, besterentzaileak dohainik aitarengandik edo aitonaren beste ondorengo batengandik hartutakoak; eta ondasun konkistatuak, azkenik, besterentzaileak edo horren gurasoek dohainik nahiz kostu bidez eskuraturiko ondasun guztiak.

454. legea

Ahaideari besterentzea

Ondasunak besterentzen bazaizkio horiek atzera-eskuratzeke eskubidea duen ahaideari, gainerako ahaideek ezin izanen dute atzera-eskuratzerik egikaritu, nahiz eta ahaide horiek lehenespenekoak izan.

Ley 455*Pluralidad de retrayentes*

Si concurrieren al retracto parientes de grado distinto, será preferido el más próximo; en igualdad de grado, tendrá preferencia el ascendiente, y en la línea colateral, el entroncado en ascendiente anterior. En ambos casos será preferido, en igualdad de condiciones, el pariente de más edad.

Ley 456*Pluralidad de demandas*

Ez da inolako eskubiderik izanen hobekuntzen ordainketa eskatzeko, baina demandatuak hobekuntzok kendu ahal izanen ditu, euren euskarri den gauzari kalterik egin gabe banan badaitezke.

c) Prezioaren osagarria

Itzulketa ezin bada gauzatu demandatuak gauza bere esku ez izateagatik, prezio, balio edo zenbatespenaren osagarria bakarrik ordaindu beharko du, legezko korrituekin batera.

Kalte-ordaina

Edozein kasutan, aurreko lerrokadan aipaturiko kalte-ordaina emanaz, hutsalketa saihestu ahal izanen da.

507. legea

Akzioaren zatiezintasuna

Hutsalketa-akzioa zatiezina da, eta modu baterakoan egikaritu beharko dute horretarako eskubidea duten guztiek betebeharreko guztien aurka, edo haietatik edozeinek kontratu osoari begira.

Ez da hutsalketarik gertatuko betebeharreko guztiak kalte-ordaina ema-

do en indemnizar, y deberán hacerlo en la proporción que a cada uno corresponda.

Cuando sólo uno se disponga a ejercitar la acción, deberá notificarlo previamente a los otros que tengan derecho a la rescisión, para que puedan concurrir al litigio. Después de haberse ejercitado la acción por uno de ellos, deberá éste hacer partícipe a los otros del resultado favorable de la acción por él ejercida, deducidos los gastos de litigio.

tearekin ados daudenean; kalte-ordain hori eman beharko dute bakoitzari dagokion proportzioa errespetatuz.

Batek bakarrik badu akzioa egikaritzeko asmoa, aldez aurretik asmo hori jakinarazi behar die hutsalketarako eskubidea duten gainerakoei, auzian parte hartzeko aukera izan dezaten. Horietatik batek bakarrik akzioa egikaritu ondoren, gainerakoekin banatu behar du berak egikaritutako akzioaren emaitza onuragarria, auziaren gastuak kenduta.

CAPÍTULO IV

Del enriquecimiento sin causa

Ley 508

Clases

El que adquiere o retiene sin causa un lucro recibido de otra persona queda obligado a restituir.

Se entiende por adquisición sin causa la que se ha hecho a consecuencia de un acto ilícito o de un convenio prohibido o que es inmoral para el adquirente, quien queda obligado a restituir lo recibido e indemnizar el perjuicio sufrido sin posible limitación por la pérdida fortuita, a no ser que se trate de un incapaz, en cuyo caso responderá tan sólo del enriquecimiento.

Se entiende que se retiene sin causa cuando se recibió una cosa para reali-

IV. KAPITULUA

Arrazoirik gabe aberastea

508. legea

Motak

Norbaitek arrazoirik gabe eskuratu edo atxikitzen badu beste pertsona batengandik jasotako irabazia, hori itzultzeko betebeharrara du.

Ulertzen da arrazoirik gabeko eskuraketa dela egintza ez-zilegi, hitzarmen debekatu edo eskuratzaillearentzat moralaren aurkakoa den hitzarmenaren ondorioz gauzaturikoa; eskuratzailleak betebeharrara du berak jasotakoa itzultzeko eta eragindako kalteen ordaina emateko, ezusteko galeraren ondoriozko mugapenik egin gabe, salbu eta eskuratzaillea ezgaia denean, halakoetan aberastearen gaineko erantzukizun hutsa baitu.

Ulertzen da arrazoirik gabe atxikitzen dela gauza bat jaso denean kontra-

zar una contraprestación que no se ha cumplido o en cobro de una obligación indebida con error por parte del que pagó y del que cobró, o cuando se recibió una cosa por causa inicialmente válida, pero que posteriormente ha dejado de justificar la retención de lo adquirido. En estos casos, el adquirente está obligado a restituir su enriquecimiento.

Ley 509

Prueba en el pago de lo indebido

El que repite un pago indebido debe probar que lo realizó y la inexistencia de la obligación.

Cuando el que cobró niegue formalmente haber cobrado, una vez que se pruebe el pago, deberá probar él la existencia de la obligación.

El que cobró lo no debido podrá retener lo cobrado cuando pruebe que quien pagó lo hizo sin error.

Si se prueba la mala fe del que cobró, se considerará a éste como adquirente por acto ilícito.

Ley 510

Obligaciones naturales

No será repetible el pago cuando se haya hecho en cumplimiento de un deber moral, o impuesto por el uso, aun-

prestazio bat gauzatzeko eta hori ez denean gauzatu, edo ordaindu eta kobratu dutenen okerra dela-eta zor ez den betebeharra kobratzeko, eta, berebat, gauza bat jaso denean, jatorrian baliozkoa izan den arrazoiaren ondorioz, baina gero arrazoi horrek ez duenean justifikatzen eskuratutakoaren atxikipena. Kasu horietan, eskuratzaileak betebeharra du bere aberastea itzultzeko.

509. legea

Zor ez denaren ordainketari buruzko frog

Norbaitek berreskaera-eskubidea badu zor ez denaren ordainketari begira, frogatu behar du ordainketa hori egin duela eta ez dela horretarako betebeharririk izan.

Kobratu duenak forma egokian ukatzen badu berak kobratu duela, behin ordainketa frogatu eta gero, frogatu behar du horretarako betebeharra izan dela.

Zor ez dena kobratu duenak atxiki ahal izanen du kobratutakoa, baldin eta frogatzen badu ordainketa egin duenak okerririk gabe egin duela.

Kobratu duenaren gaitzuste frogatzen bada, bera hartuko da egintza ez-zilegiaren ondoriozko eskuratzailetzat.

510. legea

Betebehar naturalak

Ordainketaren ondorioz ez da berreskaera-eskubiderik izanen, ordainketa hori eginbehar morala betetzeko

que no sea judicialmente exigible. El reconocimiento, la novación, la compensación y la garantía de las obligaciones naturales producen efectos civiles.

*Causa inmoral
para el que pagó*

Asimismo es irrepetible lo que se da a causa de un convenio inmoral para el que pagó, aunque lo sea también para el que cobró.

CAPÍTULO V

De la cesión de las obligaciones

Ley 511

Cesión de créditos

El acreedor puede ceder su derecho contra el deudor; pero cuando la cesión sea a título oneroso, el deudor quedará liberado abonando al cesionario el precio que éste pagó más los intereses legales y los gastos que le hubiere ocasionado la reclamación del crédito.

Ley 512

Asunción de deudas

El tercero que asume una obligación ajena queda obligado para con el deudor o acreedor con quienes haya contraído la asunción de la obligación, en los términos de la misma, y, de no haberse establecido otra cosa, asume

egin bada edo usadioaren eraginez ezarri bada, nahiz eta ordainketa epaiketari galdatzeko modukoa izan ez. Betebehar naturalei buruzko aitorpenak, aldarriketak, konpentsazio eta bermeak ondore zibilak sortzen dituzte.

*Moralaren aurkako arrazoia,
ordaindu duenarentzat*

Era berean, berreskaezina da ordaindu duenarentzat, moralaren aurkako den hitzarmenaren ondorioz emandakoa, nahiz eta kobratu duenarentzat ere halakoa izan.

V. KAPITULUA

Betebeharrak lagatzea

511. legea

Kredituak lagatzea

Hartzekodunak laga dezake berak zordunaren aurka duen eskubidea; baina lagapena kostu bidezkoa bada, zorduna aske geldituko da, lagapen-hartzaileari ordaintzen badizkio horrek ordaindutakoa, legezko korrituak eta kreditua erreklamatzeko berak izandako gastuak.

512. legea

Zorrek bereganatzea

Hirugarrenak inoren betebeharrak bereganatzen badu, hirugarren hori betebeharpean geratzen da betebeharrak bereganatzea hitzartu duen zordun edo hartzekodunarekin; bestelakorik ezarri ezean, hirugarrenak bere gain hartzen

también todas las obligaciones accesorias o derivadas de la principal.

La asunción no aceptada por el acreedor no libera de responsabilidad al deudor en tanto no quede cumplida la obligación.

La aceptación por el acreedor de la sustitución del deudor podrá prestarse expresamente o por actos que impliquen inequívocamente la liberación del primer acreedor*.

Los terceros que hubieren garantizado el cumplimiento de la obligación quedarán liberados por la asunción, a no ser que hubieren prestado su consentimiento.

Ley 513

Cesión de contrato

Todo contratante puede ceder el contrato a un tercero, para quedar sustituido por éste en las relaciones pendientes que no tengan carácter personalísimo.

Si una de las partes hubiere consentido preventivamente la cesión del contrato a un tercero, la sustitución será eficaz, respecto a aquélla, desde el momento en que le hubiere sido notificada; si no hubiere consentido preventivamente la cesión, ésta sólo le afectará si la aceptare.

* Donde, por error, dice «acreedor», debe entenderse «deudor».

ditu betebehar erantsi guztiak eta bete-behar nagusiak erakarritakoak.

Hartzekodunak ez badu bereganatzea onartu, bereganatze horrek ez du zorduna erantzukizunetik askatzen bete-beharra betetzen ez den bitartean.

Hartzekodunak zorduna ordeztuari onarpena eman ahal izanen dio, esanbidez edo lehenengo hartzekoduna* ezbairik gabe askatzen duten egintzen bidez.

Hirugarrenek betebeharraren bete-tzea bermatu badute, hirugarren horiek aske geratuko dira bereganatzearen ondorioz, salbu eta horri euren adostasuna eman diotenean.

513. legea

Kontratua lagatzea

Kontratugile orok hirugarren bati laga diezaioke kontratua, horrek kontratugilea ordeztetan, gauzatzeke dau-den eta bere-berezkoak ez diren harremanetan.

Alderdi batek aurreneurri gisa adostasuna eman badio kontratua hirugarren bati lagatzeari, ordeztetara eragin-garria izanen da hari begira, hori jakin-arazten zaion unetik; ez badio aurreneurri gisa adostasunik eman lagapenari, lagapen horrek alderdiarengan eragina izanen du hori onartzen duenean bakarrik.

* Testuak «hartzekodun» hitza erabiltzen du okerretara; horren ordeztetan, «zordun» hitza jarri behar da.

Desde que sea eficaz la sustitución, por la notificación o aceptación en sus respectivos casos, el cedente queda desligado del contrato, y el cesionario subrogado en su lugar.

El contratante cedido puede oponer al cesionario todas las excepciones derivadas del contrato, pero no las fundadas en otras relaciones con el cedente.

Los terceros que hubieren garantizado el cumplimiento del contrato quedarán liberados por la cesión, a no ser que hubiesen prestado su consentimiento.

Ley 514

Contrato con facultad de subrogación

Puede concertarse un contrato con facultad, para cualquiera de las partes, de designar posteriormente la persona que deba subrogarse en sus derechos y obligaciones. El otro contratante, en cualquier momento, podrá requerir a quien esté facultado para que haga la designación dentro del plazo máximo de año y día, a contar del requerimiento, a no ser que en el contrato, o por ley, se hubiere establecido otro término.

La declaración que designe la persona deberá notificarse a la otra dentro del plazo. Hecha la notificación, la persona designada se subroga en los derechos y asume las obligaciones de la parte que le designó, con efecto desde el momento de la celebración del contrato.

Jakinarazpenaren edo onarpenaren bidez, kasuan-kasuan, ordezpena eragingarria denetik, lagatzailea kontratutik aske geratzen da eta lagapen-hartzailea horren lekuan subrogatzen da.

Lagatako kontratugileak lagapen-hartzailearen aurka jar ditzake kontratuak ondorioztaturiko salbuespen guztiak; ez, ordea, lagatzailearekin dituen beste harremanetan oinarritutakoak.

Hirugarrenek kontratuaren betetzea bermatu badute, hirugarren horiek aske geratzen dira lagapenaren ondorioz, salbu eta horri euren adostasuna eman diotenean.

514. legea

Subrogatzeko ahalmena dakarren kontratua

Kontratuaren bidez, kontratugileetatik edozeini ahalmena eman dakioko beraren eskubide eta betebeharretan gero subrogatuko den pertsona izendatzeko. Beste kontratugileak edozein unetan eskatu ahal izanen dio ahaldu-nari izendapena egin dezan urtebete eta egun bateko gehieneko epean, eskaera egiten denetik zenbatuta, kontratuan edo lege-aginduz beste epe bat ezarri denean izan ezik.

Pertsona izendatzeko adierazpena epean jakinarazi behar zaio besteari. Behin jakinarazpena egin eta gero, pertsona izendatua subrogatzen da izendapen hori egin duenaren eskubideetan, eta bere gain hartzen ditu haren betebeharrak, kontratua egiten denetik ondoreak izanik.

Si dentro del plazo no se notificare la designación de persona, el contrato producirá todos los efectos entre las partes que lo celebraron.

TÍTULO IX DE LAS ESTIPULACIONES

CAPÍTULO I De las promesas en general

Ley 515 *Concepto*

Son estipulaciones los actos por los que una persona, mediante su promesa, se hace deudora de otra sin que ésta quede contractualmente obligada a cumplir una contraprestación.

Ley 516 *Promesa de contrato*

La promesa de concluir un contrato futuro obliga a quien la hace siempre que se hayan determinado los elementos esenciales del contrato cuya aceptación se promete.

El convenio consensual preparatorio de un contrato futuro, aunque no reúna todos los requisitos exigidos para la celebración del contrato previsto, obliga a las dos partes.

La obligación de contratar que resulta de estas promesas se regirá por

Pertsonaren izendapena ez bada epean jakinarazten, kontratuak ondore guztiak sortuko ditu izendapen hori egin duten alderdien artean.

IX. TITULUA HIZPAKETAK

I. KAPITULUA Hitzemateak orokorrean

515. legea *Kontzeptua*

Hizpaketak dira norbaitek bere hitzematearen bidez gauzaturiko egingizak, baldin eta horien ondorioz pertsona hori beste inoren zordun bihurtzen bada, kontraprestazioa betetzeko kontratuzko betebeharra hartu gabe.

516. legea *Kontratua egiteko hitzematea*

Norbaitek etorkizunean kontratu bat egiteko hitza ematen bada, hitzemate horrek betebeharrean jartzen du bere egilea; betiere, hitza zein kontraturren onarpenerako eman, eta kontratu horren oinarrizko osagaiak zehaztu direnean.

Etorkizuneko kontratua prestatzeko adostasuneko hitzarmena egin bada, hitzarmen horrek, nahiz eta kontratua egiteko beharrezkoak diren betekizun guztiak izan ez, bi alderdiak jartzen ditu betebeharrean.

Hitzemate horietatik kontratatzeko betebeharra sortzen da, eta betebeharr

las reglas aplicables al contrato prometido. Los elementos accidentales del contrato no previstos en la promesa se determinará conforme al uso, la costumbre y la ley, o, en su defecto, por el Juez.

Ley 517

Opción de compra

La promesa de opción de compra que produzca efectos reales se registrará por las leyes 460 y 461.

Ley 518

Estipulación penal

La estipulación de pagar una cantidad como pena por el incumplimiento de una prestación lícita obliga al prominente, y la pena convenida no podrá ser reducida por el arbitrio judicial. El deudor no quedará liberado de la obligación penal aunque concurra alguna causa que pudiera liberarle de la obligación principal.

La obligación de pagar la pena, salvo pacto en contrario, no tiene carácter alternativo, sino subsidiario, y el acreedor podrá rechazar la oferta de pago de la pena estipulada y exigir la indemnización que resulte debida por el incumplimiento de obligación principal.

Cuando el acreedor acepte el cumplimiento de la obligación, aunque éste sea parcial, se entenderá renunciada la estipulación penal, salvo que otra cosa se hubiere pactado. Cuando cobre la

hori eraentzen dute hitzemandako kontratuari aplikatu behar zaizkion erregelak. Hitzematean ez badira aipatu kontratuaren aldian aldiko osagaiak, horiek zehaztuko dira usadio, ohitura eta legearekin bat etorritz; halakorik izan ezean, epailearen erabakiz.

517. legea

Erosteko aukera

Erosteko aukerari buruzko hitzema-teak ondore errealak sortzen baditu, hitzemate hori 460 eta 461. legeek eranduko dute.

518. legea

Hizpaketa penal

Prestazio zilegiaren ez-betetzeagatik, zigor gisa, kopuru bat ordaintzeko beharra hizpatu bada, hizpaketa horrek betebeharpean jartzen du hitz-emailea, eta hitzarturiko zigorra ezin izanen da urritu epailearen erabakimenez. Zorduna ez da zigor-betebeharretik askatuko, nahiz eta betebehar nagusitik askatze-ko arrazoiren bat gertatu.

Zigorra ordaintzeko betebeharrak, aurkako itunik izan ezean, ez du hautabidezko izaerarik, subsidiarioa baizik; hartzekodunak ezezkoa eman diezaioko zigor hizpatuaren ordainketaren gain egindako eskaintzari, eta kalte-ordaina galda dezake, betebehar nagusia ez-betetzeagatik hori zor bazaio.

Hartzekodunak betebeharraren betetzea onartzen badu, nahiz eta hori zati batekoa izan, ulertuko da hizpaketa penalari uko egiten zaiola, bestelakoa itundu denean izan ezik. Zigorra

pena, y luego exija la indemnización por incumplimiento, la pena cobrada se deducirá de la indemnización que resulte deberse en virtud del contrato.

Ley 519

Condición y término

Las promesas pueden someterse a condición y término. Las condicionales no nacen hasta el cumplimiento de la condición, pero ésta tiene efecto retroactivo. Las sometidas a término existen desde el primer momento, pero no se pueden exigir antes de la llegada del término. Las condicionadas a un hecho imposible, inmoral o ilícito se tendrán por nulas.

Ley 520

Estipulación de renta

La promesa de pagar periódicamente una cantidad de dinero o cosa fungible debe quedar necesariamente limitada por un plazo final o por el tiempo que viva el acreedor o una tercera persona determinada, presente o futura, cuya existencia deberá justificarse al reclamar el pago de la cantidad periódica correspondiente.

Esta obligación puede constituirse también mediante un contrato de cesión de bienes a cambio de la misma. Si al hacer la cesión no se hubiere pactado otra cosa, una vez que se haya empezado a cumplir la obligación, el contrato no podrá resolverse a causa

kobratu ondotik, ez-betetzeagatiko kalte-ordaina eskatuz gero, kobraturiko zigorra kenduko da kontratuaren ondorioz zor den kalte-ordainetik.

519. legea

Baldintza eta epe-muga

Hitzemateak baldintza eta epe-muga-ean jar daitezke. Baldintzapekoak ez dira sortzen, harik eta baldintza bete arte; baina horrek atzeraeraginezko ondorena du. Epe-muga-ekoak hasiera-hasieratik sortzen dira; baina ezin da horien betetzea galdatu epe-muga heldu baino lehen. Hitzemateei baldintza jarri bazaie eta baldintza hori egitate ezinezko, moralaren aurkako edo ez-zilegia bada, hitzemateok deuseztat hartuko dira.

520. legea

Errentaren gaineko hizpaketa

Diru-kopurua edo gauza suntsikorra aldizka ordaintzeko hitzematea nahitaez mugatu behar da, edo amaierako epe-muga heldu arte, edo, bestela, hartzekodunaren edo beste pertsona jakin baten heriotza gertatu arte; azken hori bizirik dagoena edo etorkizuneko izan daiteke, eta pertsona hori badela egiztatu beharko da aldizkako diru-kopuruaren ordainketa eskatzen denean.

Betebehar hori era daiteke, halaber, horren truk ondasunak lagatzeko kontratua eginez. Lagapena egitean ez bada bestelakorik itundu behin betebeharraren betetzea hasi eta gero, kontratua ezin izanen da suntsiarazi geroko ez-betetzearen ondorioz; baina laga-

del ulterior incumplimiento, pero el cedente podrá exigir garantía del pago de las cantidades que se devenguen en el futuro. El pacto de que el incumplimiento valga como condición resolutoria tendrá efecto real y será inscribible en el Registro. La acción de resolución deberá ejercitarse en los términos y con los requisitos fijados para la venta con pacto de retro en la ley 477. Salvo pacto en contrario, el cesionario no podrá repetir las cantidades abonadas.

Ley 521

Oferta pública

Toda promesa sobre cosa y bajo condición lícita obliga al que la hace desde que es objeto de publicación suficiente, aunque nadie haya notificado su aceptación. Si el promitente no hubiere fijado plazo, se entenderá mantenida la oferta durante el tiempo que parezca necesario según el arbitrio del Juez. Si una persona determinada hubiere notificado al promitente su aceptación antes de caducar la oferta, ésta se entenderá mantenida, respecto al aceptante, durante un año y día, a no ser que en el momento de la aceptación se hubiere convenido otro plazo.

Ley 522

Estipulaciones para después de la muerte

La estipulación hecha para después de la muerte del promitente obliga a su

tzaileak galdatu ahal izanen du etorkizunean sortuko diren kopuruen ordainketaren bermea. Itun bidez erabaki bada ez-betetzeak baldintza suntsiarazlearen baliozkotasuna izatea, itun horrek ondore erreala izanen du, eta Erregistroan inskribatu ahal izanen da. Suntsiarazpen-akzioa egikaritu behar da, atzera-eskuratzeo ituna duen salmentari buruzko 477. legeak ezarritako modu eta betekizunekin. Aurkako itunik izan ezean, lagapen-hartzaileak ezin izanen ditu berreskaera-eskubidearen bitartez erreklamatu berak ordaindutako kopuruak.

521. legea

Eskaintza publikoa

Gauza baten gain eta baldintza zilegipean hitza eman bada, hitzemate horrek betebeharean jartzen du hitz-emailea, hitzemate horri nahiko publikitate ematen zaionetik, nahiz eta inork onarpena jakinarazi ez. Hitz-emaileak ez badu eperik finkatu, ulertuko da eskaintzari eusten zaiola epailearen erabakimeneren arabera beharrezkoa den epean zehar. Pertsona jakinak hitz-emaileari bere onarpena jakinarazten badio eskaintza iraungi baino lehen, ulertuko da eskaintzari eusten zaiola, onartzaileari begira, urtebete eta egun bateko epean, salbu eta onarpena egiteko unean beste epe bat hitzartu denean.

522. legea

Hizpaketak, hitz-emailea hil eta geroko

Hizpaketa egiten bada hitz-emailea hil eta geroko, hitzemate horrek hitz-

heredero, y la que se hiciere para después de la muerte del acreedor favorece al heredero de éste.

Ley 523

Estipulación a favor de tercero

Es válida la estipulación a favor de tercero siempre que éste sea heredero del estipulante, o a favor del pignorante para que pueda rescatar objeto pignorado y luego vendido. También es válida cuando se haga para gravar a un donatario o para constituir un crédito de restitución de dote o de cosa comodada o depositada, y en todo caso en que pueda apreciarse un interés razonable del tercero.

El cumplimiento de tal obligación puede ser exigido no sólo por el estipulante, sino también por la persona a cuyo favor se constituye la obligación, sin que sea necesaria, por parte de ésta, la previa aceptación; sin embargo, antes de que la aceptación sea notificada al estipulante, podrá éste revocar la estipulación, a no ser que se haya hecho en cumplimiento de una obligación previamente contraída por el estipulante frente al tercero favorecido por la estipulación.

En caso de ser varios los estipulantes, se entenderá salvo pacto en contrario, que la estipulación fue hecha por cada uno de ellos en cumplimiento de una obligación recíproca; en conse-

-emailearen jaraunslea jartzen du bete-beharpean, eta egiten bada hartzekoduna hil eta geroko, onuragarria da horren jaraunslearentzat.

523. legea

Hirugarrenaren mesederako egindako hizpaketa

Baliozkoa da hirugarrenaren mesederako egindako hizpaketa, hirugarren hori hizpaketagilearen jaraunslea bada; era berean, pignoratzailearen mesederako eginikoa baliozkoa da, pignoratu eta saldutako objektua berreskuratzeko denean. Hizpaketa baliozkoa da, berebat, hori egiten denean, dohaintza-hartzailea kargatzeko edota ezkonsariaren nahiz komodatu edo gordailupeko gauzaren itzulketari buruzko kreditua eratzeko, eta, edozein kasutan, hirugarrenaren zentzuzko interesa atzeman daitekeenean.

Betebehar hori betetzea galdatu ahal izanen du, hizpaketagileak ez ezik, betebeharra noren mesederako eratu, eta pertsona horrek ere bai, horren aurretiazko onarpena beharrezkoa izan gabe; dena den, hizpaketagileari onarpena jakinarazi baino lehen, horrek hizpaketa ezeza dezake, salbu eta hizpaketa egin denean, hizpaketagileak hizpaketaren onuradun den hirugarrenari begira aurretiaz hartu duen betebeharra betetzeko.

Hizpaketagileak bat baino gehiago badira, eta aurkako itunik izan ezean, ulertuko da horietako bakoitzak hizpaketa egin duela, elkarrekiko betebeharraren betetzea gauzatzeko; ondorenez,

cuencia, la revocación sólo podrá hacerse por todos los estipulantes conjuntamente; muerto uno de ellos, la estipulación será irrevocable para los sobrevivientes.

Ley 524

Estipulaciones a cargo de tercero

Las estipulaciones a cargo de tercero no obligan a éste si no es heredero del promitente, ni al mismo promitente; pero en los contratos puede una de las partes obligarse a que un tercero realice una prestación, y responderá de ella por el incumplimiento del tercero.

Cuando el tercero acepte la obligación estipulada a su cargo, quedará personalmente obligado en concepto de promitente.

CAPÍTULO II

De la fianza

Ley 525

Promesa de fianza

Por la promesa de fianza se obliga el promitente a cumplir la obligación si el deudor principal no lo hiciera.

Beneficios

a) De excusión

Salvo pacto en contrario, el fiador puede oponerse a la reclamación del

hizpaketagile guztiak batera bakarrik egin dezakete ezeztapena; horietako bat hildakoan, hizpaketa ezeztazina izanen da bizirik daudentzat.

524. legea

Hizpaketak, hirugarrenen kontura

Hizpaketak hirugarrenaren kontura egin badira, hizpaketa horiek ez dute betebeharean jartzen hirugarren hori, hitz-emailearen jaraunse ez bada, ezta hizpaketagilea bera ere; baina, kontratuetan, alderdi batek bere gain betebeharra har dezake hirugarren batek prestazioa egin dezan, eta alderdiak horren gaineko erantzukizuna du hirugarrenaren ez-betetzearengatik.

Hirugarrenak onartzen badu bere kontura hizpaturiko betebeharra, betebeharrak pertsonala izanen du hitz-emaile gisa.

II. KAPITULUA

Fidantza

525. legea

Fidantza-hitzematea

Fidantza-hitzematearen bidez, hitz-emaileak bere gain hartzen du betebeharra betetzeko ardura, zordun nagusiak hori egiten ez badu.

Onurak

a) Eskusioa

Aurkako itunik izan ezean, fidantza-emailea hartzekodunaren errekla-

acreedor que no ha agotado previamente la solvencia del deudor principal.

b) De regreso

El fiador que hubiere liberado al deudor principal tendrá contra éste la acción de regreso.

c) De división

Si fueren varios los fiadores y no se hubiese pactado lo contrario, tendrá el acreedor que dividir entre ellos la reclamación, pero cada uno de ellos es también fiador de los otros.

Ley 526

Mandato de crédito

Quien manda a otro que preste una cantidad o conceda un crédito a un tercero se hace fiador de la obligación contraída por éste. El mandatario podrá liberarse del mandato si las condiciones patrimoniales del mandante o del tercero se hubieran hecho tales que resulte más difícil la satisfacción de la deuda.

Ley 527

Incapacidades

No pueden ser fiadores los religiosos profesos que, por razón de sus votos, carezcan notoriamente de patrimonio.

Los fiadores no pueden actuar como abogados en las causas que les afecten por razón de la garantía.

mazioaren aurka jar daiteke, horrek aldez aurretik ez badu zordun nagusiaren kaudimena agortu.

b) Atzerabidezkoa

Fidantza-emaileak zordun nagusia askatu badu, horren aurka izanen du atzerabidezko akzioa.

c) Zatiketa

Fidantza-emaileak bat baino gehiago badira eta aurkakoa itundu ez bada, hartzekodunak horien artean zatitu beharko du erreklamazioa, baina horietatik bakoitza gainerakoen fidantza-emaile ere bada.

526. legea

Kreditu-mandatua

Norbaitek inori ezartzen badio hirugarren bati diru-kopurua maileguan eman edo kreditu jakina emateko mandatua, hura bihurtzen da beste horrek hartutako betebeharraren fidantza-emaile. Mandataria mandatutik askatu ahal izanen da, baldin eta mandatugile edo hirugarrenaren ondare-egoerak txarrera egiteagatik zailago suertatzen bada zorraren ordainketa egitea.

527. legea

Ezgaitasunak

Ezin dira fidantza-emaile izan botoak egin dituzten erlijiosoak, baldin eta, boto horien ondorioz, nabaria bada ondarerik ez dutela.

Fidantza-emaileek ezin dute auzietan abokatu gisa jardun, auzi horiek euren eragina badute bermearen ondorioz.

Ley 528*Solvencia*

Cuando la ley exija la presentación de fiadores y el acreedor no estime solventes los que el deudor presente, el Juez decidirá acerca de la solvencia de los fiadores.

Ley 529*Moratoria*

Cuando el acreedor proceda contra el fiador alegando que el deudor se halla en ignorado paradero, el fiador dispondrá de una moratoria legal de treinta días para averiguar dónde se halla el deudor principal.

Ley 530*Garantías*

El fiador podrá solicitar por vía judicial que se impida la enajenación o gravamen de bienes del deudor y que se practique en el Registro la correspondiente anotación preventiva, a no ser que aquél le dé fianza de su eventual obligación de reembolso.

Ley 531*Responsabilidad de los herederos*

La obligación del fiador se transmite a los herederos. Sin embargo, si la responsabilidad derivada de la fianza les resultase extraordinariamente onerosa, podrán solicitar la revisión judicial de la obligación, de acuerdo con lo dispuesto en el último párrafo de la ley 493.

528. legea*Kaudimena*

Legearen aginduz fidantza-emaileak aurkeztu behar badira, eta hartzekodunaren ustez zordunak aurkezturikoa kaudimendunak ez badira, epaileak erabakiko du fidantza-emaileen kaudimenari buruz.

529. legea*Luzamendua*

Hartzekodunak fidantza-emailearen aurka egiten badu, zordunaren egonlekua ezezaguna dela alegatuz, fidantza-emailea hogeita hamar eguneko legezko luzapenez balia daiteke zordun nagusia non dagoen ikertzeko.

530. legea*Bermeak*

Fidantza-emaileak auzibidean eska dezake, bai zordunaren ondasunak bes-terendu edo kargatu ez daitezen, bai Erregistroan aurreneurrizko idatzoharra egin dadin, salbu eta zordunak horri fidantza ematen dionean kasuan kasuko itzulketa-betebeharraren gain.

531. legea*Jaraunsteen erantzukizuna*

Fidantza-emailearen betebeharra horren jaraunstei eskualdatzen zaie. Hala ere, fidantzaren ondoriozko erantzukizunak karga handiegia badakar-kie jaraunstei, eskatu ahal izanen dute epaileak betebeharra berrikus dezan, 493. legearen azken lerrokadak ezarri-takoaren arabera.

**TÍTULO X
DE LOS PRÉSTAMOS**

Ley 532

Efecto

Quien entrega a otro una cosa sin ánimo de donarla, puede reclamar su restitución. Cuando se haya convenido una prestación a cambio de la cosa recibida, si esta prestación no se realiza, quien entregó la cosa podrá elegir entre reclamar la restitución de la misma o exigir el cumplimiento del contrato.

Quien recibe una cantidad de cosa fungible en préstamo puede disponer libremente de ella y queda obligado a restituir una cantidad igual, del mismo género y calidad.

Ley 533

Reconocimiento de préstamo

Quien ha reconocido en un documento haber recibido una cantidad en préstamo, quedará obligado a la restitución, salvo que impugne el documento y pruebe la inexistencia de la entrega.

Ley 534

Pactos

En todo préstamo pueden convenirse plazos y condiciones, y asegurarse la restitución con garantías de cualquier clase.

Plazo

Si no se ha pactado plazo para la restitución, se entiende que la obliga-

**X. TITULUA
MAILEGUAK**

532. legea

Ondorea

Norbaitek inori gauza ematen badio hori dohaintzan emateko asmorik gabe, horren itzulketa erreklamatu ahal izanen du. Prestazioa hitzartu bada jasotako gauzaren truk, eta prestazio hori ez bada egiten, gauza eman duenak aukeratu du horren itzulketa erreklamatu edo kontratuaren betetzea galdatzea.

Norbaitek maileguan hartu badu gauza suntsikorretan halako kopurua, askatasunez xeda dezake kopuru hori, eta genero eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko betebeharra izanen du.

533. legea

Maileguari buruzko aitortpena

Norbaitek agiri bidez aitortzen badu kopurua maileguan hartu duela, hori itzultzeko betebeharraren menpe gertatzen da, salbu eta agiria aurkaratu eta ematerik gertatu ez dela frogatzen duenean.

534. legea

Itunak

Mailegu orotan, epeak eta baldintzak itun daitezke, bai eta itzulketa ziurtatu ere, orotariko bermeen bitartez.

Epea

Itzulketarako eperik ez bada itundu, ulertu behar da betebeharra hasierako

ción nace desde el primer momento, pero el Juez podrá fijar un plazo equitativo para su cumplimiento.

Ley 535

Interés

En el préstamo de dinero se puede estipular intereses dentro de los límites lícitos; si no se determina la cuantía de los intereses sólo se devengarán los legales; y, a falta de estipulación de intereses, se devengarán los legales desde que el deudor se haya constituido en mora.

Ley 536

Conversión

Cualquier deuda vencida de cantidad determinada puede convertirse en deuda de préstamo por el simple acuerdo de las partes. En este caso, se presume que se devengarán los intereses legales desde el momento del acuerdo.

Ley 537

Venta con pacto de retro

En la venta con pacto de retro o a carta de gracia, cuando, conforme a la ley 584, deba presumirse su fin de garantía, se entenderá haber un préstamo de la cantidad que figura como precio, con la garantía de retener la propiedad del objeto que figura como vendido y adquirir la propiedad definitiva del mismo si no se restituye la cantidad dentro del plazo pactado.

unetik sortzen dela, baina epaileak ekitatezko epea finka dezake hura betetzeko.

535. legea

Korritua

Diruzko maileguan, korrituak itun daitezke muga zilegien barruan; korrituon zenbatekoa ez bada zehaztu, legezkoak bakarrik sortuko dira; korrituei buruzko hizpakterik izan ezean, legezkoak sortuko dira zorduna berandutza-egoeran jartzen denetik.

536. legea

Bihurketa

Kopuru jakinaren gaineko zor muageneratu guztiak mailegu-zor bihur daitezke alderdien arteko erabaki hutsaren bitartez. Kasu horretan, uste izan da legezko korrituak erabakia hartu den unetik sortzen direla.

537. legea

Salmenta egitea, atzera-eskuratzeko itunarekin

Salmenta atzera-eskuratzeko itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egin bada, eta 584. legearekin bat etorri uste izan behar bada horrek berme-xedea duela, ulertuko da prezio gisa adierazitako kopuruaren mailegua eratu dela; berme gisa, saldutako objektuaren jabetza atxiki eta objektuaren jabetza behin betiko eskuratuko da, kopuru hori itzultzen ez bada itundutako epean.

Ley 538

*Préstamo al hijo
de familia*

El que presta a un hijo de familia no emancipado que vive en compañía de su padre, si prestó sin consentimiento de éste, carece de acción para reclamar la cantidad prestada, incluso después de desaparecer las causas de la incapacidad; pero si la cantidad es pagada voluntariamente, no habrá lugar a la repetición de la misma como indebida. Queda exceptuado el caso de conversión en el préstamo conforme a la ley 536, o el de enriquecimiento del padre con la cantidad prestada.

Ley 539

Comodato

Por el préstamo de uso o comodato se concede gratuitamente el uso determinado de una cosa específica, mueble o inmueble, incluso ajena, con la obligación por parte del comodatario de devolverla una vez que haya terminado el uso convenido.

Ley 540

Responsabilidad del comodatario

El comodatario debe soportar los gastos ordinarios de conservación y reparación de la cosa prestada y responde de la pérdida de la misma, salvo si es por fuerza mayor, en cuyo caso sólo responde si salvó del mismo siniestro otras cosas de su propiedad. Cuando se

538. legea

*Familiako seme
edo alabari emandako mailegua*

Seme edo alaba emantzipatugabea gurasoarekin batera bizi bada, eta norbaitek seme edo alaba horri mailegua ematen badio, horretarako gurasoaren adostasunik gabe, horrek ez du inolako akziorik mailegupeko kopurua erreklamatzeko, nahiz eta geroago ezgaitasun-arrazoiak desagertu; baina, diru-kopuru hori borondatez ordaindu bada, ezin izanen da berreskaera-eskubiderik erabili, zor ez den kopuru gisa hori erreklamatzeko. Salbuespen gisa har daiteke 536. legearekin bat etorritz maileguan bihurtuta gertatzea, edo mailegupeko kopuruaren ondorioz gurasoa aberastea.

539. legea

Komodatua

Erabilera-mailegua edo komodatua dela bide, dohainik ematen da gauza higigarri edo higiezin jakin baten erabilera zehatza, gauza hori inorena izan arren; komodatudunak bere gain hartzen du gauza itzultzeko betebeharra, behin hitzarturiko erabilera amaitu eta gero.

540. legea

Komodatudunaren erantzukizuna

Komodatudunak ordaindu behar ditu mailegupeko gauza artatu eta konpontzeko gastu arruntak, eta erantzukizuna du gauzaren galeraren gain, salbu eta hori gertatzen denean ezinbesteko kasuaren ondorioz; halakoetan, ezbehar beretik bere jabetzapeko gauza batzuk

tratare de préstamo de semovientes, el comodatario que responde de su pérdida deberá abonar el valor máximo que el semoviente tuvo en el año anterior, o lo que el comodante hubiere pagado al adquirirlo.

Cuando el comodatario hubiere hecho un uso distinto del convenido o hubiere recibido la cosa con tasación, responderá de todo evento.

Ley 541

Gastos. Derecho de retención

El comodante debe pagar las contribuciones y seguros, y debe asimismo abonar al comodatario los gastos extraordinarios que la cosa haya causado, e indemnizarle los daños producidos por vicios de la cosa prestada que el comodante conocía y no declaró. El comodatario podrá también retener la cosa prestada hasta que el comodante cumpla esta obligación.

onik atera dituenean, orduan bakarrik, izango du erantzukizuna. Abereak eman badira maileguan, eta komodatudunak erantzukizuna badu horien galeraren gain, komodatudun horrek ordaindu beharko du aurreko urtean abereak izan duten gehieneko balioa, edo komodatugileak horiek eskuratzeko ordaindu duena.

Komodatudunak gauza erabiltzen badu hitzarturikoaz bestelako moduan, edota gauza tasaziopean jasotzen badu, erantzukizuna izanen du orotariko gertaeren gainean.

541. legea

Gastuak. Atxikitzeko eskubidea

Komodatugileak ordaindu behar ditu kontribuzio eta aseguruak; era berean, komodatudunari eman behar dizkio, bai gauzak erakarritako aparteko gastuak, bai mailegupeko gauzaren akatsek eragindako kalteen ordaina, komodatugileak akatson berririk eman ez badu horiek ezagutu arren. Komodatudunak mailegupeko gauza atxiki ahal izanen du komodatugileak betebehar hori bete arte.

TÍTULO XI DEL CENSO CONSIGNATIVO

Ley 542

Constitución

El censo consignativo sólo podrá imponerse sobre inmuebles fructíferos

XI. TITULUA ZAINPEKETA-ZENTSUA

542. legea

Eraketa

Zainpeketa-zentsua ezarri ahal izanen da ondasun higiezin fruitudunen

y mediante la entrega en el acto del otorgamiento, que necesariamente habrá de hacerse en escritura pública, de un capital en dinero o signo que lo represente.

Ley 543

Laudemio y comiso

La finca sujeta a censo consignativo podrá ser vendida sin pago de laudemio o luismo, y no caerá en comiso por falta de pago de la pensión, sin perjuicio de la acción personal o real para reclamar el pago.

Ley 544

Pactos prohibidos

Son nulos el pacto de abono anticipado de pensiones y el pacto de que los casos fortuitos queden a cargo del censatario.

Ley 545

Redención

El censatario podrá redimir el censo en cualquier momento, previa notificación al censalista con dos meses de anticipación. Transcurrido un año, no podrá efectuarse la redención sin dar otro nuevo aviso.

El capital para la redención, a falta de acuerdo, se determinará en consideración al valor del dinero y al beneficio que la redención reporte al censatario.

gainean bakarrik; horretarako, eskritura publikoan jaso beharreko egilespen-egintzan bertan, kapitala eman behar da, diruz edo hori ordezkatzeko duen beste edozein zeinuren bidez.

543. legea

Laudemio eta komisoa

Zainpeketa-zentsupeko finka saldu ahal izanen da laudemio edo luismorik ordaindu gabe; pentsioa ez ordaintzeagatik, ez da komisorik gertatuko; betiere, ordainketa erreklamatzeko akzio pertsonal edo errealarari kalterik egin gabe.

544. legea

Itun debekatuak

Deusezak dira pentsioak aurreraturik ordaintzeko ituna eta ezusteko kasuak zentsu-hartzailearen ardurapean jartzeko ituna.

545. legea

Askatzea

Zentsu-hartzaileak edozein unetan askatu ahal izanen du zentsua, hori gertatu baino bi hilabete lehenago zentsu-emaileari hori jakinarazten badio. Behin urtebete igaro eta gero, ezin izanen da askatzea gauzatu beste abisu bat egin gabe.

Akordiorik izan ezean, askatzeko kapitala zehaztuko da, kontuan hartuta diruaren balioa eta askatzeak zentsu-hartzaileari ekarriko dion onura.

TÍTULO XII
DE LOS CONTRATOS
DE CUSTODIA

Ley 546

Concepto

Por los contratos de custodia una persona encomienda a otra de su confianza una cosa para su guarda leal, con retribución o sin ella.

Obligaciones

El depositario está obligado a custodiar la cosa y a atender a su conservación conforme a lo pactado, pero en todo caso responderá de la pérdida por dolo o culpa grave.

Ley 547

Constitución

El depósito se constituye por la entrega de una cosa mueble a una persona que la recibe para su custodia.

La promesa de recibir una cosa en depósito obliga al promitente a título de estipulación.

Gratuidad

A falta de acuerdo sobre su onerosidad, el depósito se entiende gratuito; sin embargo, cuando el depositario se dedique habitualmente a esta clase de operaciones, se presumirá oneroso.

XII. TITULUA
ZAINZA-KONTRATUAK

546. legea

Kontzeptua

Zaintza-kontratuaren bidez, norbaitek gauza bat uzten du bere konfiantzapeko pertsona baten ardurapean, horrek gauza zintzo zain dezan, ordainsariaren truk edo halakorik gabe.

Betebeharrak

Gordailuzainak bere gain hartzen du gauza zaintzeko betebeharra, bai eta gauza artatzekoa ere, itundutakoarekin bat etorritz; baina, edozein kasutan, erantzukizuna izanen du, doloaren edo erru astunaren ondorioz gertatutako galerarengatik.

547. legea

Eraketa

Gordailua eraten da norbaiti gauza higigarri bat eman eta jasotzen duenak zaintzeko helburuz hartzen duenean.

Norbaitek gauza bat gordailupean jasotzeko hitza eman badu, hitzemandak horrek betebeharrean jartzen du hitz-emalea, hizpaketa gisa.

Doakotasuna

Kostu bidezkotasanari buruzko hitzarmenik izan ezean, gordailua dohai-nekoa dela ulertu behar da; hala ere, gordailuzainak horrelako eragiketak egin ohi baditu, kostu bidezkoa dela uste izanen da.

Ley 548

Devolución

La cosa depositada debe ser devuelta al depositante, o a la persona por él designada, cuando lo pida, aunque no hubiere transcurrido el plazo señalado.

a) Varios depositantes

Cuando fueren varios los depositantes, deberá devolverse a todos conjuntamente, salvo que se haya pactado hacerlo a uno de ellos determinado previamente o por un evento posterior.

Ley 549

b) Fallecido el depositante

Fallecido el depositante, y salvo que otra cosa se hubiere establecido, el depositario podrá devolver la cosa depositada a los albaceas u otras personas facultades para representar la herencia o, en su caso, al usufructuario universal o al legatario de la cosa depositada autorizado para ello. En defecto de estas personas, deberá hacerlo al heredero y, si fueran varios los herederos, a todos ellos conjuntamente o, no habiendo acuerdo unánime entre éstos, al contador designado conforme a la ley 345.

Ley 550

c) Varios depositarios

Si el depósito se hubiere constituido en poder de dos o más personas con-

548. legea

Itzulketa

Gordailupeko gauza gordailugileari edo horrek izendaturiko pertsonari itzuli behar zaio berak hala eskatzen duenean, nahiz eta zehazturiko epea igaro ez.

a) Gordailugileak bat baino gehiago izatea

Gordailugileak bat baino gehiago badira, itzulketa egin behar zaie guztiei batera, salbu eta itzulketa horietatik bati egitea itundu denean; gordailugile hori alde zehaztuta egon daiteke edo geroko jazokuntzaren bitartez zehaztu daiteke.

549. legea

b) Gordailugilea hil eta gero

Gordailugilea hil eta gero, eta beste-lakoa ezartzen denean izan ezik, gordailuzainak gordailupeko gauza itzuli ahal izanen die albaceei, jarauntsia ordezkatzeko ahalmenak dituzten beste pertsonari edo, hala denean, gozamedun unibertsalari edo gordailupeko gauzaren legatu-hartzaileari, horretarako baimena baldin badu. Halako pertsonarik izan ezean, jaraunslari egin beharko zaio itzulketa, eta, jaraunslak bat baino gehiago izanez gero, horiei guztiei batera edo, horien artean aho bateko akordiorik ez badago, 345. legearekin bat etorritz izendaturiko kontulariari.

550. legea

c) Gordailuzain bat baino gehiago izatea

Gordailua bi pertsonaren edo gehiagoren eskuetan eratu bada batera, gor-

juntamente, la acción del depositante podrá dirigirse contra cualquiera de ellas por el todo.

Ley 551

Gastos

El depositario tendrá acción para reclamar del depositante la indemnización correspondiente por los gastos y perjuicios que le haya ocasionado el depósito. Sin embargo, no podrá retener la cosa depositada por razón de este derecho u otro cualquiera que tenga contra el depositante.

Ley 552

Depósito e interés de tercero

En el depósito hecho en interés de tercero que ha notificado al depositante y al depositario su aceptación, el depositario no podrá devolver la cosa al depositante sin el consentimiento del tercero interesado. En este contrato se estará a lo establecido para la estipulación en favor de tercero en la ley 523.

Ley 553

Aplicación analógica

Salvo que por pacto o disposiciones legales o por la naturaleza del acto proceda otra cosa, en toda relación que imponga un deber de custodia serán exigibles las obligaciones propias del depositario.

dailugilearen akzioa horietatik edozeinen aurka zuzendu ahal izanen da, gordailu osoa eskatzeko.

551. legea

Gastuak

Gordailuzainak akzioa izanen du gordailugileari gordailuaren ondorioz izandako gastu eta galeren ordaina erreklamatzeko. Dena den, ezin izanen du gordailupeko gauza atxiki eskubide horren ondorioz edo gordailugilearen aurka duen beste edozein eskubideren ondorioz.

552. legea

Gordailua eta hirugarrenaren interesa

Gordailua hirugarrenaren intereserako egin bada, eta horrek gordailugileari eta gordailuzainari onarpena jakinarazi badie, gordailuzainak ezin izanen dio gordailugileari gauza itzuli, hirugarren interesdunaren adostasunik gabe. Kontratu horretan bete beharko da hirugarrenaren mesederako egindako hizpaktari buruz 523. legean ezarritakoa.

553. legea

Aplikazio analogikoa

Harremanek zaintza-betebeharra ezartzen badute, gordailuzainari dagozkion betebeharrak galdatzeko modukoak izanen dira, itunak, legezko xedapenek edo egintzaren izaerak bestelakoa erakartzen dutenean izan ezik.

Ley 554*Depósito irregular*

Cuando en el depósito de cosa fungible se den al depositario, expresa o tácitamente facultades de disposición, se aplicará lo dispuesto para el préstamo de dinero en las leyes 532, 534 y 535.

554. legea*Gordailu irregularra*

Gauza suntsikorraren gordailuan, esanbidez nahiz isilbidez gordailuzainari xedatze-ahalmenak eman bazaizkio, 532, 534 eta 535. legeek diruzko maileguari buruz xedaturikoa aplikatuko da.

TÍTULO XIII

DEL CONTRATO DE MANDATO Y DE LA GESTIÓN DE NEGOCIOS**Ley 555***Concepto*

Por el contrato de mandato, el mandatario que acepta el encargo de realizar una gestión que interesa al mandante se obliga a cumplirla diligentemente y a rendir cuenta de la misma, pero no responde del resultado de ella. Cuando se interviene en asunto de otra persona a petición de ésta, pero sin ánimo de aceptar un mandato, sólo se responde del daño causado por el propio dolo.

Indemnización

En todo caso, el que encarga a otro una gestión quedará obligado a indemnizar al mandatario de los gastos y perjuicios que la gestión le haya reportado y a proveerlo de las cantidades necesarias para realizarla.

XIII. TITULUA

MANDATU-KONTRATUA ETA NEGOZIOEN KUDEAKETA**555. legea***Kontzeptua*

Mandatu-kontratua dela bide, mandataria onartu egiten du mandatugilearen intereseko kudeaketa egiteko ardurara, eta bere gain hartzen du kudeaketa hori arretaz betetzeko betebeharra, bai eta horren kontuak ematekoa ere, baina ez du erantzukizunik hartzen horren emaitzaren gainean. Beste inoren arzoan esku hartzen bada horrek hala eskatuta, baina mandatua onartzeko asmorik gabe, orduan, norberaren doloaz eragindako kaltearen gainean, eta horretan bakarrik, egongo da erantzukizuna.

Kalte-ordaina

Edozein kasutan, norbaitek inoren ardurapean jartzen badu kudeaketa, hark mandataritari eman behar dizkio, bai horrek kudeaketaren ondorioz izandako gastu eta galeren ordaina, bai eta kudeaketa egiteko behar diren diru-kopuruak ere.

Ley 556*Interés del mandante*

El mandato debe interesar al mandante; y se entiende que le interesa en los casos previstos en la ley 526.

Del simple consejo no se deriva para quien lo da más obligación que la de indemnizar el daño causado por su dolo.

Ley 557*Efectos para el mandante*

De la actuación del mandatario tan sólo se deriva adquisición de derechos y obligaciones para el mandante cuando se pruebe el consentimiento previo o subsiguiente de éste.

Ley 558*Gratuidad*

El mandato se presume gratuito, salvo cuando el mandatario se dedique habitualmente a gestiones como la encomendada.

Ley 559*Extinción*

El mandato se extingue por la muerte del mandante o del mandatario. El mandatario queda obligado a cumplir el encargo que se le encomendó para después de morir el mandante.

El mandato puede extinguirse por la sola voluntad del mandante o del mandatario.

Extinguido el mandato, el mandatario debe abstenerse de realizar nuevas

556. legea*Mandatugilearen interesa*

Mandatua interesekoa izan behar da mandatugilearentzat, eta interesekoa dela ulertzen da 526. legean arauturiko kasuetan.

Aholku hutsak ez dakarkio horren emailari doloaz eragindako kaltearen ordaina emateko betebeharra baino.

557. legea*Mandatugilearentzako ondoreak*

Mandatariaren jardunak berarekin dakar mandatugileak eskubide eta betebeharrak eskuratzea, baldin eta frogatzen bada horrek alde aurretiko edo geroagoko adostasuna eman duela.

558. legea*Doakotasuna*

Mandatua dohainekoa dela uste da, mandatariak antzeko kudeaketetan jardun ohi duenean izan ezik.

559. legea*Az kentzea*

Mandatua azkentzen da mandatugile edo mandatariaren heriotzarengatik. Mandatariak bere gain hartzen du mandatugilea hil eta geroko berari agindutakoa betetzeko betebeharra.

Mandatua azken daiteke mandatugile edo mandatariaren borondate hutsaren ondorioz.

Behin mandatua azkendu eta gero, mandatariak ezin du kudeaketa berririk

gestiones, y quedará obligado a devolver al mandante todos los documentos que éste le hubiere entregado y el instrumento de poder que, en su caso, le hubiese conferido. El mandante y el mandatario o, en su caso, sus herederos responderán de los daños causados por su culpa en la terminación o liquidación del contrato.

Ley 560

Gestión de negocios

Cuando una persona realiza una gestión en interés de otra, sin haber recibido encargo de ésta, queda obligada a terminar la gestión comenzada y rendir cuentas de la misma. La persona en cuyo interés se hizo la gestión deberá indemnizar al gestor todos los gastos y perjuicios que haya tenido, siempre que la gestión hubiera sido razonablemente asumida y realizada, aunque no se hubiese conseguido el resultado deseado y pueda presumirse que el gestor no obró con ánimo de liberalidad.

Ley 561

Ratificación

Si la persona en cuyo interés se hizo la gestión la ratifica, queda obligada en los mismos términos que un mandante. Si con anterioridad hubiere prohibido la gestión, no quedará obligada a indemnización alguna.

Ley 562

Contrato de prestación de servicios

Las disposiciones del presente título se aplicarán al contrato de prestación de

egin, eta mandatugileari itzuli behar dizkio horrek aldez aurretik emandako agiri guztiak, bai eta, hala denean, berari eman dion ahalordea ere. Mandatugileak eta mandatariak edo, hala denean, horien jaraunsleek erantzukizuna dute euren erruz eragindako kalteen gainean, kontratua amaitu edo likidatzean.

560. legea

Negozioen kudeaketa

Norbaitek beste inoren intereserako kudeaketa egiten badu horren agindurik jaso gabe, berak hasitako kudeaketa amaitzeko betebeharra du, eta horri buruzko kontuak eman beharko ditu. Kudeaketa noren intereserako egin, eta pertsona horrek gastu eta galera guttien ordaina eman beharko dio kudeatzaileari, baldin eta kudeaketa zentzuz bereganatu eta gauzatu bada, nahiz eta lortu nahi den emaitza bete ez, eta uste izan badaiteke kudeatzaileak ez duela eskuzabaltasun asmoz jardun.

561. legea

Berrespena

Kudeaketa noren intereserako egin, eta pertsona horrek kudeaketa berresten badu, betebeharpean geratzen da mandatugile baten moduan. Aldez aurretik kudeaketa debekatu badu, ordea, ez da behartuta egonen kalte-ordaina ematera.

562. legea

Zerbitzuak egiteko kontratua

Titulu honetako xedapenak zerbitzuak egiteko kontratuari aplikatuko

servicios, en la medida en que no esté regulado por disposiciones especiales.

zaizkio, hori xedapen berezietan arauturik ez dagoen neurrian.

**TÍTULO XIV
DE LA COMPRAVENTA
Y DE LA PERMUTA**

**XIV. TITULUA
SALEROSKETA
ETA TRUKAKETA**

**CAPÍTULO I
De la compraventa**

**I. KAPITULUA
Salerosketa**

Ley 563
Perfección

563. legea
Burutzea

La compraventa se perfecciona por el consentimiento de las partes sobre sus elementos esenciales, pero, cuando se trate de cosas fungibles a tanto por unidad, no se perfecciona hasta que se hayan contado, pesado o medido. Cuando se haya convenido la perfección mediante una forma determinada, se aplicará lo dispuesto en la ley 18.

Salerosketa burutzen da alderdiek horren oinarrizko osagaien gain adostasuna ematen dutenean; baina gauza suntsikorak saltzen badira unitate bakoitzeko diru kopuru baten truk, salerosketa ez da burutuko unitateak zenbatu, pisatu edo neurtu arte. Salerosketa burutzeko forma zehatza betetzea hitzartzen bada, 18. legean xedaturikoa aplikatuko da.

Ley 564
Adquisición de la propiedad

564. legea
Jabetza eskuratzea

La adquisición de la propiedad por el comprador requiere la entrega de la cosa vendida.

Erosleak jabetza eskura dezan, beharrezkoa da saldutako gauza ematea.

Ley 565
Condición suspensiva

565. legea
Baldintza etengarria

Aunque no hubiere pacto de reserva de dominio en la compraventa, mientras el vendedor* no pague el precio, la

Salerosketan jabaria erreserbatzeko ituna egin ez bada ere, saltzaileak* prezioa ordaintzen ez duen bitartean,

* Donde, por error, dice «vendedor», debe entenderse «comprador».

* Testuak «saltzaile» hitza erabiltzen du okerrertara; horren ordez, «erosle» hitza jarri behar da.

transmisión de dominio se presumirá sometida a condición suspensiva, a no ser que se hubiese fijado un plazo para el pago del precio o convenido considerar éste como cantidad prestada o constituido garantía real o personal.

Ley 566

Doble venta

Si por contratos distintos dos o más personas han comprado de buena fe una misma cosa, tendrá preferencia sobre ésta la que haya recibido antes la posesión. Si ninguna de ellas posee, la que haya pagado al vendedor en la forma convenida, y si varias pagaron, la que ostente un contrato de fecha fehaciente más antigua. En todo caso, el comprador de buena fe será preferido al de mala fe; y si todos fueran de mala fe, se aplicarán las reglas establecidas para el caso de que todos fueran de buena fe.

Los compradores que conforme al párrafo anterior quedaren excluidos de la cosa sólo podrán reclamar del vendedor el resarcimiento de daños e indemnización de perjuicios.

Lo establecido en esta ley se aplicará también a la permuta, adjudicación en pago y otros contratos traslativos a título oneroso.

Si alguno de los compradores hubiese inscrito en el Registro de la Propiedad, se estará a lo dispuesto en la Ley Hipotecaria.

uste izanen da jabariaren eskualdaketa baldintza etengarripean geratzen dela, salbu eta prezioa ordaintzeko epe jakina finkatu, prezioa mailegupeko kopurutzat hartu edota berme erreal nahiz pertsonala eratzen denean.

566. legea

Salmenta bikoitza

Zenbait kontraturen bitartez, bi pertsonak edo gehiagok onustez gauza bera erosi badute, gauzaren gainean lehenespena izanen du horren edukitza lehenik eskuratu duenak. Pertsona horietatik inork ere ez badu edukitzarik, hitzarturiko moduan saltzaileari ordaindu dionak, eta, batek baino gehiagok ordaindu badiote, data sinegarrietatik antzinakoena duen kontratua egin duenak. Edozein kasutan, erosle onustedunak lehenespena izanen du, gaitzustedunaren gainetik, eta, horiek guztiak gaitzustedunak badira, guztiak onustedunak izanez gero aplikatuko litzaizkiekeen erregelak aplikatuko zaizkie.

Aurreko lerrokadarekin bat etorritz, erosle batzuk gauzatik baztertuta geratu badira, kalte eta galeren ordaina barkarik erreklamatu ahal izanen diote erosleok saltzaileari.

Lege honetan ezarritakoa aplikatuko zaie trukaketari, ordainean egin-dako adjudikazioari, bai eta kostu bidez eskualdatzeko beste kontratuei ere.

Erosleetatik batek Jabetza Erregistroan egin badu inskripzioa, Hipoteka Legean xedaturikoa beteko da.

Ley 567*Obligaciones del vendedor*

Por el contrato de compraventa, el vendedor se obliga a entregar la libre posesión de la cosa vendida; queda igualmente obligado a hacer todo lo posible para que el comprador adquiera la propiedad sobre la misma. Asimismo se obliga el vendedor al saneamiento por evicción y vicios ocultos, salvo que las partes hubieren pactado lo contrario.

Ley 568*Entrega de la cosa*

La cosa vendida se entenderá entregada cuando haya sido puesta a disposición del comprador, según la naturaleza de la cosa y conforme a los usos del lugar.

El uso de la cosa o el ejercicio del derecho por el comprador se equipara a la entrega. El otorgamiento de la escritura pública de compraventa, salvo pacto en contrario, equivale también a la entrega.

Ley 569*Riesgos*

Perfeccionada la venta, debe el vendedor custodiar diligentemente la cosa vendida hasta su entrega y avisar al comprador de los posibles riesgos; responderá de la pérdida o daños causados por su negligencia en el cumplimiento de esta obligación. Todos los demás riesgos serán a cargo del com-

567. legea*Saltzailearen betebeharrak*

Salerosketa-kontratuaren bidez, saltzaileak bere gain hartzen du saldu-tako gauzaren edukitza askea emateko betebeharra; era berean, bere esku dagoen guztia egin behar du, erosleak gauzaren gaineko jabetza eskura dezan. Halaber, saltzailea betebeharrean geratzen da ebikzioaren eta ezkutuko akatsen saneamenduari begira, alderdiek horren aurkakoa itundu dutenean izan ezik.

568. legea*Gauza ematea*

Saldutako gauza eman dela ulertuko da hori eroslearen esku jartzen denean, gauzaren izaeraren arabera eta tokiko usadioekin bat etorritz.

Erosleak gauza erabiltzea edo esku-bidea egikaritzea ematearen parekoa da. Salerosketaren eskritura publikoa egitea ere, aurkako itunik izan ezean, ematearen parekoa da.

569. legea*Arriskuak*

Behin salmenta burutu eta gero, saltzaileak arretarekin zaindu behar du saldutako gauza, hori eman arte, eta gerta daitezkeen arriskuen berri eman behar dio erosleari; erantzukizuna izanen du bere zabarkeriaz betebehar hori betetzean gertaturiko galera edo eragindako kalteen gain. Gainerako arris-

prador, aunque éste no haya incurrido en mora para aceptar la entrega. En caso de mora del vendedor, no queda obligado a entregar sino lo que subsista de la cosa vendida.

En las ventas hechas bajo condición suspensiva, si antes del cumplimiento de ésta se perdiera la cosa, quedará sin efecto el contrato; sin embargo, cumplida la condición, el menoscabo anterior será a cargo del comprador.

Ley 570

Evicción

En caso de producirse la evicción de la cosa vendida, el vendedor deberá indemnizar al comprador todo menoscabo patrimonial sufrido por éste a consecuencia de la evicción.

Ley 571

Compra de cosa propia del comprador

La compra de cosa propia del comprador es nula, salvo que resulte hecha bajo la condición suspensiva de perder aquél la propiedad de la cosa o que se haga tan sólo para obtener la posesión o los derechos que sobre la cosa pueden corresponder al vendedor.

Ley 572

Facultad de disentir

Cuando las partes se hubieren reservado el derecho de disentir de la compraventa, dejándola sin efecto, y no se hubiere señalado plazo para el ejercicio de este derecho, se entenderá que

kuak eroslearen ardurapekoak izanen dira, nahiz eta hori, ematea onartzean, berandutza-egoeran izan ez. Saltzailea berandutza-egoeran izanez gero, saldutako gauzatik geratzen dena bakarrik eman beharko du.

Baldintza etengarrieko salmentetan, gauza galtzen bada baldintza bete baino lehen, kontratua ondorerik gabe geratuko da; alabaina, baldintza betez gero, eroslearen ardurapekoa izanen da gauzak aurretiaz izandako urripena.

570. legea

Ebikzioa

Saldutako gauzaren ebikzioa gertatzen bada, saltzaileak erosleari eman beharko dio horrek ebikzioaren ondorioz jasandako ondare-urripenaren ordaina.

571. legea

Erosleak bere gauza erostea

Erosleak bere gauza erosten badu, erosketa hori deuseza da, salbu eta erosleak gauzaren jabetza galduko duelako baldintza etengarriean egiten denean, edo, besterik gabe, saltzaileari gauzaren gainean dagozkion edukitza edo eskubideak eskuratzeko asmoz egiten denean.

572. legea

Ados ez egoteko ahalmena

Alderdiek eurentzat erreserbatu badute salerosketarekin ados ez egoteko eskubidea, salerosketa ondorerik gabe uztekoa, eta ez bada zehaztu eskubide hori egikaritzeko eperik, ulertuko da

caduca pasados un mes y un día contados a partir del requerimiento fehaciente.

Ley 573

Venta en función de garantía

Para las ventas con pacto de retro, reserva de dominio o condición resolutoria en función de garantía se observará, respectivamente, lo dispuesto en los capítulos IV, VI y VII del título VII de este libro.

Ley 574

Gastos de escritura

Salvo pacto en contrario, los gastos de otorgamiento de la escritura u otro documento serán por mitad a cargo de comprador y vendedor.

Son válidos y surtirán plenos efectos los pactos sobre el pago de impuestos y otros gastos derivados de la compraventa, no obstante lo establecido en cualesquiera disposiciones legales.

Ley 575

Venta en pública subasta

La venta de cosas en pública subasta, voluntaria o forzosa, se regirá por lo establecido en el pliego de condiciones, y en defecto de éste, por las reglas siguientes:

1. En las subastas por pliegos cerrados, una vez presentados, éstos no podrán ser retirados, y el acto de su aper-

eskubidea iraungitzen dela hilabete eta egun bat igarotakoan, alderdior agindei sinesgarria egin zaienetik zenbatuta.

573. legea

Salmentak berme-eginkizuna betetzea

Salmentak atzera-eskuratzekeo itunarekin, jabaria erreserbatzeko itunarekin edo baldintza suntsiarazlearekin egin badira, eta salmenta horiek berme-eginkizuna betetzen badute, liburu honetako VII. tituluaren IV, VI eta VII. kapituluetan xedaturikoa betekoda hurrenez hurren.

574. legea

Esakturaren gastuak

Aurkako itunik izan ezean, erosleak eta saltzaileak ordainduko dituzte erdi bana eskritura edo bestelako agiriren bat egiteagatik sortzen diren gastuak.

Baliozkoak dira eta ondore guztiak sortuko dituzte salerosketaren gaineko zergeri eta salerosketaren ondoriozko beste gastuei buruzko itunek, legezko xedapenetan ezarritakoa gorabehera.

575. legea

Jendaurreko enkantean egindako salmenta

Gauzen salmenta, borondatezko zein nahitaezkoa, jendaurreko enkantean egin ez gero, salmenta hori eraenduko du baldintzen pleguan ezarritakoak eta, halakorik izan ezean, hurrengo erregelek:

1. Enkanteak plegu itxien bidez egin badira, aurkeztu ondoren ezin dira enkantetik atera, eta eurok irekitzeko

tura será público. Se adjudicará provisionalmente el remate a la proposición más ventajosa; si las proposiciones fueran iguales, en el mismo acto se verificará entre los proponentes una licitación por pujas a la llana durante diez minutos; si terminado este tiempo subsistiese la igualdad, se decidirá por sorteo la adjudicación provisional.

2. En las subastas por pujas a viva voz o a la llana los licitantes pujarán conforme a los usos y costumbres.

3. Antes de levantarse la sesión, se extenderá acta de la subasta con las formalidades debidas. Leída el acta, deberá ser firmada por el adjudicatario, interesados que quieran hacerlo y, en su caso, por el autorizante.

4. El resultado de la subasta se hará público en el tablón de anuncios del Ayuntamiento o en cualquiera otra forma acostumbrada en la localidad.

5. Dentro del plazo de seis días a contar de la adjudicación provisional, cualquiera de los licitadores podrá pedir que se le adjudique la cosa, consignando el precio de la adjudicación provisional mejorado en una sexta parte por lo menos. En caso de ser varios los que hubieren ejercitado este derecho, dentro de los cuatro días siguientes se celebrará sólo entre los mejorantes una nueva subasta, cuyo remate será definitivo.

6. Las subastas judiciales o administrativas se registrarán, respectivamente,

egintza jendaurrekoa izanen da. Errematea behin-behinean adjudikatuko zaio proposamenik abantailatsuenari; proposamenak berdinak badira, egintza berean ahozko posturen bidezko lizitazioa egingen da proposamengileen artean, hamar minutuan zehar; epe hori amaitutakoan, berdintasunak bere horretan badirau, behin-behineko adjudikazioa zozketaz erabakiko da.

2. Enkanteak gauzatu badira ozenki edo ahoz egindako posturen bidez, lizitatzailleak posturaka arituko dira usadio eta ohiturekin bat etorriz.

3. Bilera amaitu baino lehen, enkantearen akta egingen da, bete beharreko formalitateekin. Behin akta irakurri ondoren, akta sinatu beharko dute adjudikazio-hartzaileak, hori egin nahi duten interesdunek eta, hala denean, egileak ere.

4. Enkantearen emaitza jendaurrean agertuko da, udaletxeko iragarki-oholean edo, bestela, enkantea zein herri-tan egin, eta herri horretan erabili ohi den bestelako moduan.

5. Behin-behineko adjudikazioa egiten denetik, hurrengo sei eguneko epean, lizitatzailleetatik edozeinek eska dezake gauza berari adjudikatzeko, behin-behineko adjudikazioaren prezioa zainpean jarriz, seiren batean hobetarik, gutxienez. Eskubide hori batek baino gehiagok egikaritu badute, hurrengo lau egunetan beste enkante bat egingen da prezioa hobetzen duten artean, eta horren errematea behin betikoa izanen da.

6. Prozedura Zibilaren Legean eta Nafarroako Udal Administrazioaren-

por lo dispuesto en la Ley de Enjuiciamiento Civil y en el Reglamento para la Administración Municipal de Navarra.

7. Salvo lo dispuesto en la Ley de Enjuiciamiento Civil y en la Ley Hipotecaria, deberán elevarse a escritura pública las compraventas de bienes inmuebles adquiridos en subasta.

CAPÍTULO II

De la venta a retro

Ley 576

Concepto

Por el contrato de venta con pacto de retro o a carta de gracia, el vendedor se reserva el derecho real de recuperar la cosa vendida mediante el reintegro del precio recibido, los gastos de legítimo abono y las impensas necesarias y útiles.

Ley 577

Plazo

El derecho del vendedor a recuperar la cosa puede establecerse por tiempo determinado, indefinido o perpetuo. Sólo se entenderá perpetuo si expresamente fuesen empleadas las palabras «para perpetuo», «siempre», «cada y cuando quisiere» u otras semejantes que indiquen claramente este carácter.

tzako Erregelamenduan xedaturikoez eraenduko dituzte, hurrenez hurren, epaiketako enkanketak eta administraziozko enkanteak.

7. Prozedura Zibilaren Legean eta Hipoteka Legean xedaturikoa izan ezik, eskritura publiko bihurtu beharko dira enkantean eskuraturiko ondasun higiezinaren gaineko salmentak.

II. KAPITULUA

Salmenta atzera-eskuratze- kitunarekin gitea

576. legea

Kontzeptua

Salmenta-kontratua atzera-eskuratze-
kitunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egin bada, saltzaileak berarentzat erreserbatzen du, kontratu horren bitartez, saldutako gauza berreskuratze-
kitunarekin eskubide erreala; horretarako, itzuli egin beharko ditu berak jasotako prezioa, legebidez ordainduriko gastuak, nahitaezko gastuak eta gastu onuragarriak.

577. legea

Epea

Saltzaileak gauza berreskuratze-
kitunarekin eskubidea duenean, eskubide hori ezar daiteke epe jakin baterako, epe-mugarik gabe edo betiko. Betiko ezarri dela ulertuko da, baldin eta esanbidez erabiltzen badira «betiko», «beti», «noiz-nahi eta nolnahi gogo duenean» edo antzeko hitzak, berbok halako izaera argiro adierazten duten neurrian.

Ley 578

Precio

Si el derecho de retraer se hubiese establecido a perpetuidad o sin tiempo determinado, el retrayente deberá abonar los dos tercios del justo valor de la cosa al tiempo de retraerla, siempre que esta cantidad sea superior al precio que recibió.

Ley 579

Transmisibilidad

El derecho de retraer es transmisible por actos inter vivos o mortis causa e hipotecable y adjudicable, a no ser que se hubiere establecido como personalísimo.

Se podrá ejercer contra el comprador y contra todos aquellos que de él traigan causa.

Ley 580

Pluralidad de personas

El comprador podrá oponerse al ejercicio parcial del retracto.

Si la cosa objeto del mismo perteneciere a varias personas, el retracto podrá ejercitarse contra cada una de éstas por su parte.

Si el derecho a retraer perteneciere conjuntamente a varias personas, cualquiera de ellas podrá ejercitarlo solidariamente por la totalidad; los cotitula-

578. legea

Prezioa

Atzera-eskuratzeako eskubidea betiko edo epe-mugarik gabe ezarri bada, atzera-eskuratzaileak ordaindu beharko ditu gauza atzera-eskuratzeako unean horrek duen balioespen zuzenaren bi herenak; betiere, kopuru hori berak eskuraturiko prezioa baino handiagoa denean.

579. legea

Eskualdagarritasuna

Atzera-eskuratzeako eskubidea eskualdatzeko modukoa da inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez, eta hipotekatu edo adjudikatzeako modukoa ere bada, bere-berezko eskubide gisa ezarri denean izan ezik.

Eskubide hori egikaritu ahal izanen da eroslearen aurka eta horren eskutik eskuratu duten guztien aurka ere bai.

580. legea

Pertsonen aniztasuna

Atzera-eskuratzea zati bateko egikaritu nahi denean, eroslea horren aurka jarri ahal izanen da.

Atzera-eskuratzeakoa den gauza pertsona bat baino gehiagori badagokio, atzera-eskuratzea egikaritu ahal izanen da horietako bakoitzaren aurka, bakoitzari dagokion zatiaren gainean.

Atzera-eskuratzeako eskubidea pertsona bati baino gehiagori batera badagokio, horietatik edozeinek modu solidarioan egikari dezake eskubidea, gau-

res que no hubiesen hecho uso de su derecho podrán reclamar del retrayente la parte que les corresponda en la cosa retraída, dentro del plazo de treinta días a partir de la notificación, o dentro del tiempo que falte para finalizar el plazo de ejercicio del retracto si este tiempo fuese mayor, o dentro del plazo de año y día a contar de la notificación cuando el derecho a retraer se hubiese establecido por tiempo indefinido o a perpetuidad. Cuando se hubiese establecido la posibilidad de prórrogas, el ejercicio del retracto por uno de los cotitulares impedirá a los demás hacer valer contra él nuevas prórrogas.

Los cotitulares que hagan uso de este derecho deberán abonar al retrayente la parte del precio que les corresponda más los intereses y gastos.

Ley 581

Ejercicio por los acreedores del vendedor

Los acreedores del vendedor no podrán ejercitar por subrogación el derecho a retraer, sino que habrán de proceder judicialmente para cobrar sus créditos con cargo a aquel derecho.

Ley 582

Frutos

Para la atribución de los frutos en el ejercicio de este derecho se aplicará lo establecido en las leyes 353 y 354.

za osoaren gainean; titularkideek, eskubide hori erabili ez duten neurrian, atzera-eskuratzaileari erreklamatu ahal izanen diote atzera-eskuratutako gauzatik eurei dagokien zatia; jakinarazpena egin denetik, hogeita hamar eguneko epean egin beharko dute hori, edo, epe hori luzeagoa bada, atzera-eskuratzea egikaritzeko epea agortzeko falta den epean, edo, atzera-eskuratzeo eskubide hori epe-mugarik gabe edo betiko ezarri bada, urtebete eta egun bateko epean, jakinarazpena egin denetik zenbatuta. Luzapenak izateko aukera ezarri bada, eta titularkide batek atzera-eskuratzeo eskubidea egikaritzen badu, horrek gainerakoei eragotziko die luzapen berriak haren aurka baliaraztea.

Titularkideek eskubide hori erabiltzen badute, atzera-eskuratzaileari ordaindu behar diote prezioetik eurei dagokien zatia, bai eta korrituak eta gastuak ere.

581. legea

Saltzailearen hartzekodunek eskubidea egikaritzea

Saltzailearen hartzekodunek ezin dute subrogazio bidez atzera-eskuratzeo eskubidea egikaritu; aitzitik, hartzekodunok epaiketa bidez jardun beharko dute euren kredituak eskubide horren kontura kobratzeko.

582. legea

Fruituak

Eskubide hori egikaritzean, eta fruituak eratxikitzeo, 353 eta 354. legeetan ezarritakoa aplikatuko da.

Ley 583

Prescripción

En la carta de gracia por tiempo indefinido o «para perpetuo», la acción para retraer prescribirá a los treinta años.

Ley 584

Carta de gracia como garantía

La venta con pacto de retro o a carta de gracia por tiempo determinado se presumirá como forma de garantía real siempre que el vendedor continúe por cualquier título en posesión de la cosa; en este caso, le serán aplicables las disposiciones del capítulo II del título VII de este libro.

583. legea

Preskripzioa

Epe-mugarik gabeko edo «betiko» grazia-agiriari dagokionez, atzera-eskuratzeko akzioa hogeita hamar urte igarotakoan preskribatuko da.

584. legea

Grazia-agiria, berme gisa

Salmenta atzera-eskuratzeko itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egin bada epe jakin baterako, salmenta horri buruz uste izanen da berori berme erre-al gisa egin dela, baldin eta saltzaileak edozein tituluren bidez gauzaren edukitzari eusten badio; kasu horretan, liburu honetako VII. tituluko II. kapituluaren xedapenak aplikatuko zaizkio salmentari.

CAPÍTULO III

De la permuta

Ley 585

Concepto

En la permuta, las partes contratantes se obligan a darse recíprocamente la propiedad de distintas cosas, y cada parte será considerada a la vez como compradora y vendedora, respecto a la otra parte.

Ley 586

Evicción

Cuando una cosa entregada en permuta sea objeto de evicción, el que la

III. KAPITULUA

Trukaketa

585. legea

Kontzeptua

Trukaketan, kontratugileek beren gain hartzen dute zenbait gauzaren gaineko jabetza elkarri emateko betebeharrara, eta ulertuko da alderdi bakoitza bestearen erosle eta saltzaile dela aldi berean.

586. legea

Ebikzioa

Trukaketan emandako gauza ebikzioaren objektu izanez gero, gauza hori

recibió podrá elegir entre la resolución del contrato o la indemnización por evicción conforme a la ley 570.

Ley 587

Régimen supletorio

En lo que sea compatible, se aplican a este contrato las disposiciones sobre la compraventa.

jasotzen duenak aukeran du kontratua suntsiarazi ala ebikzioaren ondoriozko kalte-ordaina eskuratzea, 570. legearekin bat etorritz.

587. legea

Araubide osagarria

Bateratzeko modukoa den neurrian, kontratu horri salerosketari buruzko xedapenak aplikatuko zaizkio.

TÍTULO XV

DEL ARRENDAMIENTO DE COSAS

Ley 588

Régimen

Los arrendamientos de cosas se rigen por lo pactado, por los usos y costumbres del lugar y, supletoriamente, en cuanto no contradigan las leyes especiales recibidas en Navarra, por las disposiciones de esta Compilación.

Exclusión de leyes especiales

Quedan excluidos de las leyes especiales: los arrendamientos de solares, de establecimientos y explotaciones a que se refiere la ley 596 y los complementarios de una actividad mercantil, industrial, agrícola, pecuaria o minera, aunque lleven aparejado el disfrute o posesión de parte del local o finca en que se dé tal actividad.

XV. TITULUA

GAUZEN ERRENTAMENDUA

588. legea

Araubidea

Gauzen errentamenduak eraentzen dituzte itundutakoak, tokiko usadio eta ohiturek, eta, osagarri moduan, konpilazio honetako xedapenek, horiek Nafarroan jasotako lege berezien aurka-koak ez badira.

Lege bereziak baztertzea

Lege berezietatik baztertuta geratzen dira: orubeen errentamenduak; 596. legean aipaturiko establezimendu eta ustiatgien gainekoak; eta merkataritza, industria, nekazaritza, abeltzaintza edo meatzaritzako jardueren osagarriak, nahiz eta horiek eurekin ekarri halako jarduerak gauzatzeko erabili ohi den lokal- edo finka-zatiaren luperketa edo edukitza.

Ley 589

Duración

A falta de pacto, se entenderá que el plazo de duración del contrato es igual a la unidad de tiempo a que corresponda la retribución fijada.

En los arrendamientos de inmuebles, el contrato se considerará prorrogado tácitamente si cualquiera de las partes no notifica a la otra su voluntad en contrario dentro de los plazos establecidos en las leyes o costumbres.

En los arrendamientos de predios rústicos divididos por hojas, el contrato durará, como mínimo, el tiempo de éstas. Cuando deban cesar el día 29 de septiembre, festividad de San Miguel, se entenderán tácitamente prorrogados si cualquiera de las partes no hubiere notificado su voluntad en contrario para el día 24 de junio, festividad de San Juan Bautista.

El arrendamiento de fincas urbanas se entenderá tácitamente prorrogado sin plazo en tanto el arrendador tolere al arrendatario que siga ocupando la finca.

Durante el plazo de arrendamiento de una finca urbana, el arrendador que la necesitare para habitarla podrá resolver el contrato, quedando reducida la renta debida por el arrendatario a la correspondiente al tiempo que éste haya ocupado el inmueble.

Ley 590

Reparaciones

El arrendatario debe pagar las reparaciones que exija el desgaste por el uso ordinario de la cosa.

589. legea

Iraupena

Itunik izan ezean, ulertuko da berdina direla kontratuaren iraupen-epeta horretan finkaturiko ordainsariari dagokion denbora-unitatea.

Ondasun higiezinaren errentamenduetan, kontratua isilbidez luzatu dela ulertuko da, alderdi batek ez badio besteari aurkako borondaterik jakinarazi lege edo ohituretan ezarritako epeetan.

Landa-lurren errentamenduak lugorrika egiten badira, kontratuen iraupena izanen da, gutxienez, lugorriaren epea. Kontratuak irailaren 29an amaitu behar badira, done Mikel egunean, isilbidez luzatu direla ulertuko da, alderdietatik edozeinek ez badu aurkako borondaterik jakinarazten ekainaren 24a, done Joan Bataiatzailearen eguna, baino lehen.

Hiri-finken errentamendua isilbidez eta eperik gabe luzatzen dela ulertuko da, errentatzaileak onartzen badu maizterrak finkaren okupazioari eustea.

Hiri-finkaren errentamendua indarrean dagoen epean, errentatzaileak finka hori behar badu bertan bizitzeko, horrek kontratua suitsiaraz dezake, eta maizterrak zor duen errenta urrituko da ondasun higiezina okupatu duen epeari dagokion neurrian.

590. legea

Konponketak

Maizterrak konponketak ordaindu behar ditu, horiek egin behar badira erabileraren erabileraz gauza gastatzeagatik.

Ley 591*Arrendamiento
de varias cosas*

Si una o varias cosas fueran arrendadas conjuntamente por una misma renta para fines independientes, se observará para cada uno de los contratos su régimen respectivo, y las causas de nulidad o resolución referentes a uno o varios de ellos no afectarán a los restantes.

Si se pactó un fin o fines principales y otro u otros subordinados, prevalecerán el régimen correspondiente al fin o fines principales; los otros regímenes serán aplicables en la medida en que no resulten incompatibles con el principal.

Ley 592*Extinción*

El contrato de arrendamiento cesa al extinguirse el poder de disposición o administración del arrendador sobre la cosa arrendada, sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley Hipotecaria.

Ley 593*Venta con pacto
de retro*

Quien compra con pacto de retro una cosa dada en arrendamiento, en tanto no adquiera definitivamente la propiedad, no podrá resolver el contrato de arrendamiento.

591. legea*Gauza batzuen
errentamendua*

Gauza bat edo batzuk batera errentan ematen badira errenta berberen truk eta xede independenteetarako, kontratu bakoitzean horren araubidea beteko da; kontratu horietatik bati edo batzuei buruzko deuseztasun- edo suntsiarazpen-arrazoiek ez dute gainerako gain eraginik izanen.

Xede nagusi bat edo batzuk eta bigarren mailako beste xede bat edo batzuk ituntzen badira, lehentasuna izanen du xede nagusiari edo nagusiei dagokien araubideak; gainerako araubideak aplikatuko dira xede nagusiarekin bateraezinak ez diren neurrian.

592. legea*Az kentzea*

Errentamendu-kontratua amaitzen da, Hipoteka Legean xedaturikoari kalterik egin gabe, errentan emandako gauzaren gainean errentatzaileak duen xedatze- edo administratze-ahalmena azkentzen denean.

593. legea*Salmenta egitea,
atzera-eskuratze ko itunarekin*

Norbaitek atzera-eskuratze ko itunarekin erosten badu errentan emandako gauza, ezin izanen du, jabetza behin betiko eskuratzen ez duen bitartean, errentamendu-kontratua suntsiarazi.

Ley 594

Subarriendo y cesión

El subarriendo y la cesión del contrato de arrendamiento están permitidos, salvo pacto en contrario; sin embargo, la cesión requerirá el consentimiento del arrendador.

Ley 595

Transmisión mortis causa

Salvo pacto en contrario o que del contrato se desprenda que se otorgó en consideración exclusiva a las circunstancias personales del arrendatario, la relación jurídica de éste será transmisible mortis causa durante la vigencia del contrato.

Ley 596

Arrendamientos de establecimientos o explotaciones

El arrendamiento de establecimientos mercantiles o industriales o explotaciones forestales, ganaderas, agropecuarias o mineras, se regula, salvo pacto en contrario, por las siguientes disposiciones:

1. Sin consentimiento del arrendador, los bienes arrendados no podrán destinarse a actividad distinta de la pactada o de aquella a que se dedicaban con anterioridad al contrato.

2. El arrendatario estará obligado a conservar y reponer las cosas en el mismo estado en que le fueron entregadas, y deberá pagar las contribuciones e impuestos que graven directamente el ejercicio del negocio arrendado.

594. legea

Azpierrrentamendua eta lagapena

Azpierrrentamendua eta errentamendu-kontratuaren lagapena onartzen dira, aurkako itunik izan ezean; hala ere, lagapena egiteko, nahitaezkoa izan da errentatzailearen adostasuna.

595. legea

Mortis causa eskualdaketa

Aurkako itunik ez denean, edo kontratutik ateratzen denean horretarako maizterraren inguruabar pertsonalak hartu direla kontuan, horren harreman juridikoak mortis causa eskualdatzeko modukoak izanen dira errentamendu-kontratu indarrean dagoen artean.

596. legea

Establezimendu edo ustiatagien gaineko errentamendua

Merkataritza nahiz industriako establezimenduen eta baso, abeltzaintza, nekazaritza edo meatzaritzako ustiatagien errentamenduak eraentzen dituzte, aurkako itunik izan ezean, ondoko xedapenek:

1. Errentatzailearen adostasunik gabe, errentan emandako ondasunen xedea ezin da izan itundutako jardueraz bestelakoa edo kontratua egin aurretik izandako erabileraz bestelakoa.

2. Maizterrak gauzak berari emateko unean zuten egoera berean artatu eta itzultzeko betebeharrak du, eta, kontribuzio eta zergek zuzenean kargatzen badute errentan emandako negozioaren jarduera, kontribuzio eta zerga horiek ordaindu beharko ditu.

3. Asimismo, deberá explotar el negocio de manera que no desmerezca en grave perjuicio del arrendador, quien en tal caso, así como en el de insolvencia del arrendatario, podrá pedir la resolución del contrato.

4. El arrendatario no podrá subarrendar, total o parcialmente.

5. El arrendamiento será transmisible conforme a la ley 595.

3. Gisa berean, negozioa ustiatu beharko du errentatzaileari kalte larririk eragin gabe; kasu horretan, eta maizterra kaudimengabea denean ere, errentatzaileak kontratuaren suntsiarazpena eskatu ahal izanen du.

4. Maizterrak ezin izanen du azpie-
rentamendurik egin, ez osorik ez zati batez.

5. Errentamendua eskualdatzeko modukoa izanen da, 595. legearekin bat etorritz.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera. Principio general

El Derecho Civil de Navarra, reconocido en la presente Compilación, se aplicará a los actos otorgados y a las relaciones causadas con anterioridad a su promulgación; y no surtirán efecto en contra de la Compilación cuantas disposiciones legales o reglamentarias, civiles, administrativas o fiscales, así generales como forales, se opongan a la misma.

Segunda. Consentimiento uxorio

Si la mujer, con anterioridad a esta Compilación, hubiere otorgado a su esposo, ya simplemente, ya con referencia al artículo 1.413 del Código Civil, su consentimiento para disponer a título oneroso de bienes de conquista o gananciales, este consentimiento surtirá sus efectos conforme a la ley 86.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Printzipio orokorra

Konpilazio honek Nafarroako zuzenbide zibila ezarri du, eta berori aplikatuko zaie konpilazioa aldarrikatu baino lehen burututako egintzei eta epe horretan sortutako harremanei; konpilazio honen aurka ez dute ondorerik izanen lege- nahiz erregelamendu-maiz-lako xedapen zibil eta administrazio-
edo zerga-xedapenek, orokorrak izan nahiz forukoak izan, haren aurkakoak badira.

Bigarrena. Adostasun uxorioa

Emazteak, konpilazio hau aldarrikatu baino lehen, senarrari adostasuna eman badio, soil-soilik edo Kode Zibilaren 1413. artikuluaaren arabera, konkista-ondasunak nahiz irabazpidezko ondasunak kostu bidez xedatzeko, adostasun horrek ondoreak izanen ditu, 86. legearekin bat etorritz.

Tercera. Usufructo de fidelidad

No se aplicará lo dispuesto en la ley 256 respecto al usufructo de fidelidad a favor del cónyuge viudo de segundas o ulteriores nupcias si, con anterioridad a esta Compilación, se hubiere formalizado inventario sin oposición de los nudos propietarios.

Cuarta. Sucesión legal

Respecto a la sucesión legal de causantes fallecidos con anterioridad a esta Compilación, se observará lo siguiente:

1. En las sucesiones en que hubiere recaído auto firme de declaración de herederos ab intestato conforme a las disposiciones del Código Civil, quedarán a salvo los derechos que de aquella declaración se deriven.

2. No obstante lo dispuesto en el número anterior, se tendrán por ineficaces dichas declaraciones en cuanto reconozcan como herederos a quienes, conforme a lo previsto en esta Compilación, hubieren renunciado a la herencia, bien con anterioridad bien con posterioridad al fallecimiento del causante.

3. Las herencias causadas con anterioridad, pero en las que no hubiere recaído auto firme de declaración de herederos, deberán regirse en todo por las disposiciones de las leyes 300 a 307 de esta Compilación.

Quinta. Venta con pacto de retro como garantía

Lo dispuesto en las leyes 475 a 480 y 584 respecto a la venta con pacto de

Hirugarrena. Fideltasun-gozenak

Bigarrenez edo gehiagogarrenez ez-kondutako alargunak fideltasun-gozenak du, eta gozamen horri ez zaio aplikatuko 256. legean xedaturikoa, baldin eta, konpilazio hau aldarrikatu baino lehen, inbentarioa egin bada, jabe soilak horren aurka jarri gabe.

Laugarrena. Legezko oinordetza

Kausatzailea konpilazio hau aldarrikatu baino lehen hil bada, jarraikoa beteko da kausatzaile horren legezko oinordetzari dagokionez:

1. Kode Zibilaren xedapenekin bat etorritik, oinordetzetan auto irmoa eman bada ab intestato jaraunsele adierazpenari emateko, ez zaie kalterik egingen adierazpen horrek eratorritako esku-bideei.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, adierazpenok eragingabetzat hartuko dira, horietan jaraunsele izendatu direnek jaraunsiari uko egin badiote, konpilazio honetan xedaturikoarekin bat etorritik, kausatzailea hil aurretik edo horren ondoren.

3. Konpilazio honetako 300. legetik 307.era arteko erantzenez dituzte aurretiaz kausaturiko jaraunsiak, halakoetan ez bada eman jaraunsele adierazpenari buruzko auto irmorik.

Bosgarrena. Salmenta atzera-eskuratzeko itunarekin egitea, berme gisa

Salmenta atzera-eskuratzeko itunarekin egin bada berme gisa, 475. legez-

retro como garantía será aplicable a las otorgadas con anterioridad; y se tendrán por nulos los pactos siguientes:

1. El pacto de que, al vencimiento del plazo establecido para el ejercicio del derecho a retraer, la compraventa se entienda consumada automáticamente y de pleno derecho.

2. El pacto de que, al vencimiento del plazo establecido para el ejercicio del derecho a retraer, el comprador deberá promover la venta de la cosa en pública subasta.

En todo caso, la compraventa no quedará consumada, sino conforme a lo dispuesto en la ley 477, salvo los casos de prescripción adquisitiva por el comprador o de que la consumación ya se hubiere hecho constar en el Registro de la Propiedad.

Serán válidos cualesquiera pactos que establezcan para el deudor un régimen más favorable que el de esta Compilación.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Las remisiones que esta Compilación hace al articulado del Código Civil se entenderán efectuadas a la redacción que el mismo tiene en el momento de entrada en vigor de esta ley Foral.

480. erakoetan eta 584. legean ezarritakoa aplikatuko zaie aurretiaz egindakoei, eta ondoko itunak deuseztat hartuko dira:

1. Atzera-eskuratzeako eskubidea egikaritzeko epea mugaeguneratutakoan, salerosketa besterik gabe eta zuzenbide osoz gauzatzen dela ezartzen duen ituna.

2. Atzera-eskuratzeako eskubidea egikaritzeko epea mugaeguneratutakoan, erosleak gauza saltzeko jendareko enkantea eragin behar duela ezartzen duen ituna.

Edozein kasutan, salerosketa ez da gauzatuko, 477. legeak ezarritakoarekin bat etorritz ez bada, salbu eta eroslearen preskripzio-eskuratzailea gertatzen denean, edo gauzatze hori jadanik Jabetza Erregistroan agerrarazi denean.

Orotariko itunak baliozkoak izanen dira, baldin eta itun horiek zordunarentzat konpilazio honetako baina araubide onuragarrigoa ezartzen badute.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Konpilazio honek Kode Zibilaren artikuluetara egiten dituen igorpenetan, ulertu behar da horiek egiten direla foru-lege hau indarrean jartzeko uanean Kode Zibilak duen idazkerara.

Anexo

**Ley Foral 6/2000,
de 3 de julio, para
la igualdad jurídica
de las parejas estables**
(«BON», n.º 82, de 7 de julio)

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El artículo 39 de la Constitución Española indica la obligación de los poderes públicos de asegurar la protección social, económica y jurídica de la familia. En dicho artículo no existe referencia a un modelo de familia determinado ni predominante, lo que hace necesaria una interpretación amplia de lo que debe entenderse por tal, consecuente con la realidad social actual y con el resto del articulado constitucional, en particular, los artículos 9.2 (obligación de los poderes públicos de promover las condiciones para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean reales y efectivas) y 14 (los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social).

Nuestro ordenamiento jurídico ha recogido ya algunos casos en los que se reconoce a las parejas unidas de forma estable en una relación de afectividad análoga a la conyugal una situación equiparable a los matrimonios, en particular en cuanto a la

Eranskina

**6/2000 Foru Legea,
uztailaren 3koa, bikote
egonkorrentzako berdintasun
juridikoari buruzkoa**
(«NAO», 82. zk., uztailaren 7koa)

ZIOEN AZALPENEA

Konstituzioaren 39. artikulua dioenez, botere publikoen ardura da familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzea. Artikulu horrek ez du famili eredu jakinik ezta eredu nagusirik ere aipatzen; beraz, familia zer den modu zabalean interpretatu behar dugu, egungo errealitate sozialaren arabera eta Konstituzioko gainerantzeko artikuluek ezarritakoen arabera; bereziki kontuan hartu behar dira 9.2 artikulua (botere publikoei ezartzen die eginbeharra gizabanakoaren eta gizabanakoak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izateko baldintzak sustatzeko) eta 14. artikulua (espainiarrak berdinak dira legearen aurrean eta inor ez da baztertuko jaiotze, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein baldintza edo egoera pertsonal edo sozial dela-eta).

Gure ordenamendu juridikoan agertzen dira jadanik zenbait kasu non ezkonduetakoen antzeko egoera aitortzen zaien ezkonduetakoen antzeko afektibitate harremana izan eta modu egonkorrean elkartuta dauden bikoteei; bereziki, adopzioari, hiri-errentamenduei,

adopción, los arrendamientos urbanos, el derecho de asilo, determinadas disposiciones penales o de prestaciones sociales.

No obstante, permanecen en el ordenamiento distintas disposiciones legales que discriminan negativamente los modelos de familia distintos del tradicional, basado en el matrimonio, desconociendo que el derecho a contraer matrimonio del artículo 32 de la Constitución incluye el derecho a no contraerlo y optar por un modelo familiar distinto, sin que el ejercicio de ese derecho deba comportar obtener un trato más desfavorable por la ley.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 48 del Amejoramiento del Fuero, Navarra tiene competencia exclusiva en materia de Derecho Civil Foral. Asimismo, Navarra ostenta competencias en otras materias que afectan a la situación de las parejas de hecho estables.

La presente Ley Foral pretende eliminar las discriminaciones que por razón de la condición o circunstancia personal o social de los componentes de la familia, entendida en la multiplicidad de formas admitidas culturalmente en nuestro entorno social, perduran en la legislación, y perfeccionar el desarrollo normativo del principio constitucional de protección social, económica y jurídica de la familia, adecuando la normativa a la realidad social de este momento histórico.

asilo-eskubideari, zenbait xedapen penali eta gizarte-prestaziori dagokienez.

Hala ere, legeetan, oraindik, zenbait xedapenek baztertu egiten ditu tradizionala ez beste famili ereduak, hau da, ezkontza bidez gauzatutakoa ez beste guztiak; horrela, ez da kontuan hartzen Konstituzioko 32. artikulua ezkontzeko eskubidea aitortzen duenean, orobat, beste famili eredu bat aukeratzeko eskubidea ere aitortzen duela, eta aukera horrek ez du zertan ekarri aukera hori egin dutenentzat legea okerragoa izatea.

Foruaren Hobetzearen 48. artikulua ezartzen duenez, Nafarroak eskumen osoa du foru zuzenbide zibilararen arloan. Halaber, Nafarroak baditu eskumenak bikote egonkorren egoera ukitzen duten beste arlo batzuetan ere.

Foru lege honek nahi duena da legedian dirauen bazterkeria desagertaraztea, hau da, gure inguru sozialean kulturalki onartzen diren famili forma ugariak kontuan hartuta, familia hori osatzen dutenen egoera pertsonal edo soziala dela-eta legeetan dirauen bazterkeria desagertaraztea; orobat, foru lege honek nahi du familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren arau garapena burutu —babes hori Konstituzioaren printzipioetako bat dela hartu behar da kontuan—. Hori egiteko, araudia egokitu egin behar da gaur egungo gizartearen errealitatera.

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 1. Principio de no discriminación

En la interpretación y aplicación del ordenamiento jurídico navarro, nadie puede ser discriminado por razón del grupo familiar del que forme parte, tenga éste su origen en la filiación, en el matrimonio o en la unión de dos personas que convivan en análoga relación de afectividad, con independencia de su orientación sexual.

Artículo 2. Concepto de pareja estable

1. A efectos de la aplicación de esta Ley Foral, se considera pareja estable la unión libre y pública, en una relación de afectividad análoga a la conyugal, con independencia de su orientación sexual, de dos personas mayores de edad o menores emancipadas sin vínculo de parentesco por consanguinidad o adopción en línea recta o colateral hasta el segundo grado, siempre que ninguna de ellas esté unida por un vínculo matrimonial o forme pareja estable con otra persona.

2. Se entenderá que la unión es estable cuando los miembros de la pareja hayan convivido maritalmente, como mínimo, un periodo ininterrumpido de un año, salvo que tuvieran descendencia común, en cuyo caso bastará la mera convivencia, o salvo que hayan

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Ez baztertzearen printzipioa

Nafarroako ordenamendu juridikoa interpretatu eta aplikatzerakoan, inor ez da baztertuko osatzen duen famili taldea osatzen duela ere, eta ez dira kontuan hartuko ez filiazioa, eta ezta ere famili talde hori ezkontza bidez osatu den edo antzeko afektibitate harremana izan eta elkarrekin bizi diren pertsona bi elkartuz osatu den —sexu— joera kontuan izan gabe.

2. artikulua. Bikote egonkorra: kontzeptua

1. Hurrengo artikuluetan, bikote egonkortzat hartuko da bi pertsonaren arteko elkartze libre, publiko eta nabarmena, ezkontideenaren antzeko afektibitate-harremanaren pareko harreman batean, sexu-joera kontuan izan gabe, baldin eta adinez nagusi badira edo adingabeko emantzipatu, eta zuzeneko lerroan edo alboko lerroan, bigarren mailaraino, odol- edo adopzio-ahaidetasunik ez badute. Elkartze hori osatzen duten kideek ezin izanen dute beste pertsona batekin ezkontza-loturarik izan edo bikote egonkorrik osatu.

2. Elkartzea egonkortzat joko da bikoteko kideak etenik gabe gutxienez ere urtebetez elkarrekin ezkontuta babiliran bizi izan badira; hala ere, bien arteko seme-alabarik badute, nahikoa izanen da elkarrekin bizitzea. Betiere, elkartzea egonkortzat jotzeko nahikoa

expresado su voluntad de constituir una pareja estable en documento público.

En el caso de que un miembro de la pareja o ambos estén ligados por vínculo matrimonial, el tiempo de convivencia transcurrido hasta el momento en que el último de ellos obtenga la disolución o, en su caso, la nulidad, se tendrá en cuenta en el cómputo del periodo indicado de un año.

3. Las disposiciones de la presente Ley Foral se aplicarán a las parejas estables cuando, al menos, uno de sus miembros tenga la vecindad civil navarra.

Artículo 3. Acreditación

La existencia de pareja estable y el transcurso del año de convivencia podrán acreditarse a través de cualquier medio de prueba admitido en Derecho.

Artículo 4. Disolución de la pareja estable

1. Se considerará disuelta la pareja estable en los siguientes casos:

a) Por muerte o declaración de fallecimiento de uno de sus integrantes.

b) Por matrimonio de uno de sus miembros.

c) Por mutuo acuerdo.

d) Por voluntad unilateral de uno de los miembros de la pareja, notificada fehacientemente al otro.

e) Por cese efectivo de la convivencia por un periodo superior a un año.

f) En los supuestos acordados por sus miembros en escritura pública.

izanen da bikotea eratzeko borondatea agiri publiko bidez adieraztea.

Baldin eta bikotekide batek edo biek ezkontza-lotura bat badute, horietako azkenak ezkontza-desegitea edo, kasua bada, deuseztasuna lortzen duen unera arte elkarrekin bizitzen igarotako denbora kontuan hartuko da adierazita-ko urtebeteko epea zenbatzean.

3. Foru lege honetako xedapenak bikote egonkorrei aplikatuko zaizkie bikote egonkorreko kideetako batek gutxienez Nafarroako auzotartasun zibila baldin badu.

3. artikulua. Egiaztapena

Bikotea egonkorra dela eta elkarrekin bizitzen urtebete igaro dutela Zuzenbidean onarturiko edozein frogabideren bitartez egiaztatu ahalko da.

4. artikulua. Bikote egonkorra desagitea

1. Hurrengoren bat gertatuz gero joko da desagintzat bikote egonkorra:

a) Bi kideetako bat hiltzen bada edo hiltzat deklaritzen badute.

b) Bi kideetako bat ezkontzen bada.

